





Sirve para  
Cedcion de Lanzar  
en Talavera

no

En Dña Concepcion  
Gardel abd a 26  
de Junio deseg...



M- 51230  
F- 51267

ATV  
25017

†  
**AITA SAN IGNACIOREN**  
**EJERCICIOEN GAÑEAN AFECTOAC,**  
**BEREN EJEMPLO , ETA DOTRIÑAQUIN :**

**EDO**  
**EJERCICIOEN BIGARREN PARTEA.**


**JAINCOAREN MINISTRO CEL6 SOAI ;**  
**JESUSEN COMPAÑIACO**  
**AITA AGUSTIN CARDABERAZEC**  
**ESQUEINTZEN , TA DEDICATZEN DIENA.**



BEAR DAN BECELA.

**TOROSAÑ :**  
**Mendizabalen alargunaren**  
**moldeteguian.**

1848 garren urtean.



## SACERDOTE JAUNARI

JESU CHRISTORIBI PAGINA.

**I**rugarren aldian, Jaungoicoaren Ministro andiac : irugarren aldian, San Pabloc apostoluakin esan dezaquet, zuetara nere centrora becela, oraingoan natorrela : Ecce tertio hoc venio ad vos. 2. Corin. 15.

Zuen diñaco presente, edo obra berrizco doai-ric ezzacart, eta ez nator, ez orien edo beste gaucen billa. Era onetan obra berriac ateratzea, edo asmatzea da amets erobat eguitea, edo utsa billatzea. Salomonec esan zuena, munduan gauza beriric ezda : Nihil sub sole novum. Eccles 1. Mundu gucia obra zarrez, edo doctore Santu, eta maisu jaquinsuen liburu ederrez betea dago. Ala latiñez, nola gaztelaniaz gauza aundi-  
ac ditugu, eta chic aberatsac gaude ; gure eusquera ain pobre oraindaño izandu bada ere. Orientatic onena artzea, eta bearrena ateratzea da guretzat lanic egoquien, eta consejuric seguruena. Ez nator, ez zuen ondasunen, ezpada zuen

*anima estimatuuen billa*: Non quero, quae vestra sunt, sed vos. 2. Corin. 12. Ondasunen zale ez naiz, eta orien bearric ezdet: nere guela pobre utsa onen testigu ona da. Len Jaincoaren pobre, edo santuentzat onguilleac eman, eta ecer izan badet orain gogo ori ere quenduzat. Ez eguiqui nere Jaunac, ez orrelacoric uste. Janean eta jancian, Jaungoicoac ematen diranarequin contentu naiz, apostoluac berac esaten digun becela: Habentes alimenta, & quibus tegamur, his contenti simus. 1. Tim. 6. Bacoitzac zuen joia bacar preciatuena indazute neri: eta zuenarequin batean, zuen provechuen anima estimatuac indasquidatzute niri; eta beste gauza guciac zuentzat: Da mihi animas, cetera tolle tibi. Gen. 14.

Zuec Jaun beneragarriac, Apostolo, edo Obispoen urrengo personac, eta Jaungoicoaren elizan aurreneco ministro paregabeac cerate. Zuec Elizaco gorputz misticoaren animac, animen espirituac: Izarren artean eguzquia, Jaungoicoaren arteco ispilla, eta anima fielen vicitza Jaunac berac dion becela, zuec cerate: Quoniam estis Presbiteri in populo Dei, ex quibus pendet anima eorum. Judit. 8.

Zuec ceruan, eta lurrean munduac duen estadu, eta lecuric altuena dezute. Zuec Jaunaren suerte dichoso, eta zorioneco veraren ordecoac cerate. Zuen dignidadea lurreco Erregue gucien, ta ceruko ainguera gucien gañecoa, eta

*goragocoa da, bada aingueraui Jaincoac eman  
ezdien escu, autoridade, eta potestadea zuei  
eman dizute, dio San Agustin batec: Quod da-  
tum non est Angelis, concessum est hominibus.  
In Psal. Zuec Jaincoaren beraren persona, bes-  
te guizon, edo aingueruc ez becela, eguiten de-  
zute; ala meza esan, eta consagratcean, nola  
confesioac enzun, eta pecatuac barcatcean.*

*Baldin Jesu-cristo beraedocein persona zuen  
errira etorri, eta len becela aguertuko balitz,  
Jaincoa izanic ere, ecin gauza aundiagoric  
eguingo luque, meza bat berac esango luquean,  
becela esatea, edo pecatari bat absolvitcea baño.  
Zuec zuen escu cosagraltetan Jesu-cristo dara-  
bilitzute: orregaitic gucion artean alditequean  
reverenciaric andiena zor zatzute, Jaincoari be-  
rari ematen zayon honra becela edo aren antce-  
coa zuei eman bear zatzute: Vide Sacerdotum  
dignitatem, quod divina sit: Dei enim est  
remittere peccata: sit igitur illi honorandi sunt,  
ut Deus. Theophilact. in c. 20. Ioan.*

*Eta ala da, Jaunari alabanzac gure artean:  
Sacerdoteac munduan honra eta errespeto andia-  
goric bear bada, gure alde oyeten baño ezdute:  
¿Eta emen adiñan? Alacoa da gure pobrechoen  
fede, eta legue ona: Oyen anima zuen contura  
daudenetan, Jesu-cristoren odola znen escuetan,  
eta zuen cargura dago: ta Abel justu, ta Josef  
santuarenac baño deadar andiago emangodu eta  
orren contu estua zuen viciera, egemplo, doc-*

*triña, eta misericordiazco obren gañean eman  
bear dezute: Ecce vox sanguinis fratris tui cla-  
mat ad me det erra. Gen. 4. En sanguis ejus  
exquiritur Gen. 42.*

*Eguia da Jaunac, zuen lan, neque eta icer-  
di dichosoen pagurie munduan izango ez dezute-  
la. Lurreco ondasun guciac, zuen meritu, ta ira-  
bacién aldean oimpeco aitis pusca bat dira. Ez-  
tago emen lurrean cer uste, eta cer iceden, ez-  
pada goyen ceruan zuen sari justud. Zuen seni-  
parte edo herencia ezta besteaquin batcan, eta  
ez lurrecoa, bacic Jainco guztia bera, berac-  
dionez. Non habemunt Sacerdotes partem, &  
hæreditatem cum reliquo Isrâel... Dóminus  
ipse est hæreditas eorum. Deut. 18.*

*O Cein altura andia dan au! Baña beguira  
ondo, burua zorabiatu eta erortceco cer peli-  
groan zauten. Altura andian cegoan deabrua  
beste aingueraquin; baña Jaincoac emancioz-  
can favore, eta erregalo gueguguiaz gaizqui bere  
naiez usatu, eta bea jozuen, eta galdu zan.  
Arrezquero janari erregalatuen zale da, dio  
Jaincotac: Cibus eius electus. Habac. 1. Eta  
Sacerdote bat galtcea nayago du beste asco baño.  
Badaquit zuetatic bat on, edo gaiztoa izatea  
ascoren salvacio, edo condenacioa dala. Sacer-  
dote bat gueyenian, ez beretzat bacarric, ezpada  
ascorentzat dà ona.*

*Orregatic nere Jaunac, zuetatic bat ejercicio  
santuetan irabaztea, eta zuen altura miragar-*

rian Jaincoarentzat seguratcea, eta ona bada;  
egunero obe eguitea da nerequico erri oso bat  
irabaztea. Ala deritzat eta esan oidet, Jaunaren  
onelaco ministro fiel batec, bere egemplo, doc-  
triña eta misericordiazco obraquin, santu ez  
izanic ere, edo santu izan baño len gure esae-  
ran milagroac bere errian eguiten dituela.

Bai Jaunac, bai, eta deabruaren damugar-  
ri gaiztoan, santuac bear dezute izan, ceren  
Jaincoac ala dion, eta zuen estaduac ala esca-  
tcen duen. Sint ergo santi, quia ego sautus  
sum. Exord. 21. Zuen estimacio, eta venera-  
cioac, guciac Jaungoicoaren deseо onezaz batean,  
santu izateco gogo andi iracequi batec ematen dit.  
Oñen gañean ozta nago: auts eguiña, edo or-  
rent aldean nago: ortcetan anima, esan oidana,  
ascotan itsusia nago; beste culparic agudoac esa-  
ten cidana: nere vicia edo osasuna udan car-  
toiezcoa, eta neguan paperezcoa dedala nago.

Baña, orregatic ere Jaun veneragarriac, nere  
azqueneco asnaseac zuen ondoren, zuequin zuen  
arteau, zuen billa, zuen oneraco, eta zuen fa-  
vore eman nai ditut. Zuen gañean San Pablo  
ceucan bildurra daucat, zuec beste ascori predi-  
catu, ceruco bidea eracutsi, eta salvatcen la-  
gundu, eta ceroc galdu etzaitezten: Ne cum alijs  
prædicaverim, ipse reprobis efficiar. 1 Cor. 9.

Zuen alivio, eta procechuraco bada eta zuen  
celo beroaz anima asco salvatceco, egercicioen  
bigarren parte au ateradet, ta ez nere buruz,

*baicic guizon andien consejuz. Gauza jaquiñac  
dira guztiac. Lenengo liburuchuan animen vici-  
tza berria asitceco pausoac emancirán. Egerci-  
cioetan berriz, vicitza ondo asentatu, eta Jain-  
coaren videan ondo iviltcen eracustenda. Orain  
consideracio eta afecto oyetan obeto aurreratu eta  
irauteco anima berotcenda ondo iltceco ta zuec  
Jaunaren ceruco ministroac becela, ondo iltcen  
laguntceco ejercicio santua aguincten, esquin-  
tcen, eta dedicatcen dizutet.*

### *Iracurleari Jesu-cristoren gracia.*

**D**AVID penitenteac dio: bere barrenean viotza berotu citzayola, eta bere meditacioan sua iracequico citzayola. *Psal. 38.* Jaincoaren graciac bere misericordiaz gure barrena arguitzen, eta berotcendu. Arguizco arrazoi fuerte, eta consideracio indarsuac beti ere obeto anima onean, edo virtutean seguratzen dute.

Alaere ascotan edo beti consideracio luceac eguiteco cristava eztago: ta Jaincoac batzuetan viotza arguitzen eta berotzen du vorondateco afecto edo gogo bero vici batzuequin, bestelako arrazoi andiaquin becin ondo. Bata eta bestea Jaunaren ontasunac, berac daquien becela, gure oneraco eguiten du: eta au berau santuen vicitzac era ascotara eracusten digute.

Fede eta viotz oneco gure jende pobrechoentzat afectoz betericaco consideracio argui eta

labur oyec asco servituco dutela deritzat. Orain baño len apeiz batec pulpituan gaztelaniazco liburutic altzuen becela bere ardiai irácurzen cien, eta provechu andiaz. Maisu eta guizonic andienac beren sartzean, oyetara viurtzen dira; eta orrelacoen consejuz, anímen onagacie neque pusca au níe ere pocic artuco det.

Meditacioa luzaro ecin eguin dutenac, eguiak eder asco eta laburcho emen idoroko dituzte. Gucioe nolerebait eta nola ez daquizutela badere, meditacio, consideracio edo oracio mentala eguin oidezute ascotan. Consideracioaren faltac, dio Jaincoac, mundu gucia dauca galdurie: *Desolatione desolata est omnis terra, quia nulus est, qui recogitet corde. Ier. 12.* Meditacio au escriptura sagraduac leeu ascotan dionez, oneraco, eta gaitzeraco izan diteque. Gaiztoac ere beren gaitzeraco pensatzen dute, eta sobra edo gueyegui.

Baña emea diogun meditacioa ona da bein eta berriz edo berriro biurtuaz, zure salvacionaraco gauzac pensatzea, eta orretatic viotzeco afecto santua ateratzeko pensatzen egotea; eta afecto oriec liburu onetan dituzu. Ezta asco oriec bein, edo nola nai iracurtea. Munduko gaucetan sarturie dagoen viotz bat arguitu, berotu eta beratzeko, ascotan, eta soseguz onelako consideracioac igaro bear dirade.

Gure Jaungoico emalle ona beti on eguiten eta bere graciae ematen dagoquigu, orregatik

ere esaten digu, bear edo nai deguna Jesu-cristoren icenean escadiozagula ta emango digula eta meditacioaren siña au da. Baña cembait bider oracio edo peticio egun edo escatu bear degun ezdio. Eta ala beti bear degunac becela, beti escatubear degu eta oraciona egun: au da Jesu-cristoren consejua: *Oportet semper orare. Luc. 18.*

Beiñ eta berriz, ta ascotan afecto oyec, edo onelacoac bacoitzac bere viotzetic egun, edo atera bear ditu, eta bein ezpada bestean, gaur ezpada biar arguitu, eta berotuco dá; egunero argui guchiago, eta Jaunaren favore aundiagoac izango ditu. Beñere egercicio santu au utzi bear ezta: legor eta otzac zaudenean iracurri pusca bat, munduko gauzae burura etorriarren, ezta antsi; equin orregatic: eta ez contentatu aoz iracurriaz bein, baicic afectoac viotzetic egun, eta soseguz, ase ase artean aldezun moduan pensatu: ta icusico dezu cer provechu andia ceregan arquituco dezun.

Orai, consideracio oriec ceren gañean diran, eta oriezaz nola baliatu bear ceran laburcho esango dizut:

Zure erretiro edo bacarrean, Jainkoaren aurrean jarri, eta esca zayozu bere arguia, eta gracia, berac nai duen frutua consideracio artatic ateratzeko. Ejercicio bacoitzean cere burua, edo zuri ondo dagoquizun gauzaren bat ispilla argui batean becela, bereala arquitu,

**eta consideracio bacoitzean icusico dezu,**

Lenengo ejercicioan , zure dicharic andiena, eta azqueneco fiñ , edo zori ona, edo nola cerruraco éguiña ceran.

Bigarrenean , fiñ altu orren contraco etsairic dezun andiena : au da pecatua , alde gucietatic arrigarri ichusia : eta pecatuaren calteac.


Irugarrenean , erioaren arpegui illuna , eta eriotzaco trance icaragarria : eta Gorputz illaren ispilla.

Laugarrenean , bacoitzaren juicioco contu estua eriotzan , eta juicioan naico dezuna bera orain eguiteco.

Bostgarrenean , pecatuaren saria , infernuco pena , eta tormetu beticoetan.

Seigarrenean , gucien juicioa , contua ta betico sentencia : edo gucioe gueren gorputz eta animaquin nola Jaunaren tribunalean aguertu bear degun

Aita San Ignacioc bere ejercicio gucietan nai duen frutua nola dan , bacoitzac viciera santu batequin bere burua gauza gucietan, moldatu eta Jaincoaren paquean vici , eta eriotza on batequin beraren amorio santuan acabatzea : ala consideracio oyen ondoren ondo , eta berriaz becela eriotza onaren gañeco ematen ditudan ejercicio biac , gucien coroa becela azquenean datozi. Nic deseatcen dizudan provechu gucia zuc ateratzea , Jaungoicoari nai daquiola. Amen.





# JAUNGOICOAC GUIZONA

CERTARÁCO EGUINZUEN :

EDO ZURE FIN AZQUENECOAREN GAÑEAN,  
CONSIDERACIO ETA AFECTOAC.

## LENENGO CONSIDERACIOA.

O nere Jaungoicoaren ontasuna ! ; O misericordia paregabea ! ; O nere Jaun maitea ! Zue bacarric ecer ecetic eguin ninduzun , eta zue bacarric aldatequean dicharic andieneraco eguin ninduzun , ; Onelaco beneficio , edo oneguin soberanoa gatic cembait Jauna zor dizut ? Onen favore andia zue neri eguiteco , cer merecimendu nigan arquitzen duen ; Zue nere bearric ecertako etzenduela , ni ain andi eguitea ! ; O nere eguilea , eta nere onguiguillea ! ; O Jauna ! ; Nic beste on , beste fiñ , beste dicharic , zu cerori baicic ez iduquitzea , nai izan dezu !

Zu nere Jaungoico bacarra , zu ontasun eabur gabea : zu jaquintasun neurri gabea. Zu , nere Jaun andia , cera nere atsedena , atseguiña , eta betico gloria. Zugana ni zori onecoa izateco , nere gogo , intencio , itz , obra , eta aleguin guciac zucendu bear ditut.

¡Ay Jauna ! Munduco beste fiñ guztiac , onen aldean beude isilic. Quen ortic , bada lurreco beste fiñ , edo deseо eroac : quen nere beguietatic , guizonac lurrean dicha eta zori ona esan oy duten guztia : bada munduco dicharic eraguiñena , eta gogora alditequean andiena , nere fiñ onen aldean , sarra pusca bat , edo eguiaz ecer ez da. ¡O Jauna ! Lurreco gauzac zurequin ¿Cer dute cer icusi ? Gucien egiuillea zu cera. Acabatzen diran gauzac , caburic ez duenarequín cer dute , Jauna , cer icusi. Gueroenean nere fiñ azquenecoa nere Jaungoico guztia bera da.

¿Eta Jaun audi au beti icusi , eta beti alabatzeco , berac eguiña nago ni ? Bai. ¡Ay encada ! Ta onelaco bere dichaz conturie eguiñez duenac ¿cer mereci du ? Lurreco ona ( ona esan albadedi , eta ez desventura ) bere Jainco eguiazco on gucia , eta on gucien gañecoa baño nayaño duenac , cer merecico du ? ¿Cer criatura , ecer ez utsa , eta dembora guchian , zu gucien criadorea betico baño , gozatu naico luqueenac ? Ta orren losagaberic , eta lurreco gauzac Jaincoa baño gueyago estimatzen ditue-

nic iñor ote da? Balanza batean Jaungoicoa, eta gauza billau bat paratu, eta ori artu, eta zu nere Jaun eta ondasun gueia utzicó zaituenic? ¡Ay, eta cemba Jauna! Zue daquizu ondo. Ayta nic ere ori eguindet?

¡Ay nere dicha gabea! ¡Non zan nere feda, ta leguea! Abereac baño abereago eguin naiz. Ceruac eta lurrac entzun ezazute: ain lotsa gabe, ain itsua izan naiz, non da nere Jaungoicoa, ta nere Aita onari onelaco agravioa eguin diodan ¡Au eguin duenac cer mereci du! Nere castiguraco milla infernu asco ez dira. Ay nere Jauna, eta zure beguietan cer lotsa daucadan. Ay, ta ¿Nola beguiratuco dizut? ¿Ametsa ala egua da au? Ay ¡Eguia eta cierto egua! Bada nere bici guztian, zu ofenditzea baiçic eguin ez det.

Erraz Jauna ta arrazoyaz quejá zaitezque nizaz ta niri esan: Ni onela tratatzeco, ¿Cer gaitz eguin dizut nic? Ecer ecetic atera ta cerana eguin cindudan, eta aldatequean azquen fiñ altueneraco, edo ceruraco: len, orain, eta beti, nere eternidade guztitic amatu zaitut: ta ¿Zue orrela erantzun dirazu? ¿Esquer eta pagu ori ematen dirazu? ¿Zure dicharic andienaren iguesi orrela zabiltza? ¡Ay nere itsua! ¡Ay nere zoroa! ¡Ay eta gaitz onen gañean odolezco negarrac emateco, iturri bi, nere beguiac norc eguin litzaquean!

Ay! zurequin det, nere viotza: zurequin

**nere anima ! Ceren onela utci, eta desamparatu nazu , zure queja naiz.** ; Cer zoraqueria egun dezu ? ; Cer atrevimentu da au onen arrigarria ? Jauna, misericordia nizaz. Misericordia arren , Jauna. Nere erremedioa zugan dago : zugan nere esperanza. Zure misericordia andiaz usaesa , niri nere pecatu , eta zure ofensac barcartzeco. ; O norc viotz guztitic , eta ceruetarañoco deadarrez esan , eta barcacioa esca lezaquean ! Barcacioa bada Jauna , piedadea nizaz , barcacioa.

Ea ceruco Ainguerauc , ea Santuac , lagun zadazute , eta deadar eguijute : lastima , Jauna , misericordia : Jaun piadosoa : barcacioa pecatari itsu galdu onentzat , ceren cer egun duen jaquin ez duen. Ceruetaco erregiña Jaincoaren ama , Virgiñā ama , eta pecatarien ama gozoa : bitarteko jarri zaite , escua arrezazu , eta ondoen daquizudan becela , zure seme maiteari barcacioa neretzat escazayozu. Ea Santu , eta ainguerau guciac , zuen erreguiñaz batean : barcacioa , Jauna , anima galdu onentzat .

Ea nic ere zuequin batean animatu , eta deadar egun dezadan. Misericordia , Jauna nizaz , ceren nere culpa ezagutu , eta zu aimbeste ofendituaz damu dedan. Ea , Jauna ez nic mereci dedan becela , baicican zure ontasunac escatzen duen becela , nerequin eguizu , eta indazu arguia , zu billatu , eta arquitzeco. Ceruco guciac esan bezate : *fiat , fiat* : izan bedi ,

eta eguin bedi. Zure aotic entzun dezan,  
Jauna : izan bedi : eta zue nai dezuna eguin  
bedi. Amen.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

Ceruco glorian Jaungoicoaren edertasuna beti icusi , ta gozatzeco ni izanie: dicha ori izango dedan ,edo ez , dudan nago. Ay ! ta ori baño gueyago ! Cierto nago , icusi , ta jaquiñaren gañean , ori galdu nai izan dedala ! Erreal guchiren promes bat , orren erraz galduco ez nuen , Jauna , nola zure gloria gozatzeco zue niri egundinaco promes andia galdu nai izan dedan . ¿ Baña cer diot errealac ? Champon gaitzo bat orren erraz emango ez nuen . Ta champon bat , Jauna , zu baño gueyago estimatu det ? Ta cuarto bat galtzea gueyago nic sentitzen dedala , zu , nere zori on gūcia galdu izana baño .

Ay au lana ! ta cer daquit bein galdua berriz cobratuco dedan ! edo nere zoraqueriaz siñ dichoso ori betico galduco dedan ! ta nere honra galdua cobratzea gatic nic eer eguiten det ? Baña , cer eguiten ez det ? Ta nere animaco calte onen andia icusi , ta jaquin nere Jaungoicoa galdu dedala : eta cer eguitea convenico dá ? O nere Jaun ona : zu arquitzea gatic gūcia galduco det pocie . O zori oneco gūcien ontasuna ! Prest nago , Jauna , munduko ontasun , interes ,

atseguiñac, eta nere honra, eta vicia galtzeco,  
zu bacarric irabaztea-gatic.

Ah! beste gauzae billatu, eta eriotza arquitzenten det: zu billatu eta nere bicia arquitzen det. Zu bacarric, Jauna, zu eta ez hesterie, nere eguiazco honra, eta gloria vicia cera. Zu bacarric nere guztia, eta guztizcoa cera. O Jauna: zurequin dagoana, cein aberatsa dan: eta zu gabe, munduko aberatsena ere cein laster galdua dan! Ez, Jauna, lurreco gauzae gatic, orain daño becela, zu galdu nai etzaitut. Itz au cumplitzeco, eta viciera berri santu bat eguiteco, arren indazu gracia. Amen.

## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

O Cein dichosoa dan justu; eta santuen suertea, bada Jaungoicoa beti icuslen, eta gozatzentz daude aren glorian! Au nolabait arrastea-tzeco, contu daguidan, Ceruco cortea, eta an espiritu, edo anima zori onecoac gloriaz, eta contentuz beteric icusten nagoala: guero fedeaz beguiratuco det, ni ayen lagun izateco, eta ayen artean egoteko Jaungoicoae eguin ninduela. ¡O zorionecoac! Mundu galdu onetaco ondasun guciac baño cemba gueyago zuen di-chazco suerte orrec balio du; lurreco Erregue gucien aicezco anditasunac eguiazco zuen orren

aldean, cer du cer icusi? Eta orain zuec cer deritzatzute, zuequin batean or egotea gatic batec eguin lezaqueala, emengo neque, eta aleguin guciac, eguiaz ecer ez dirala, arrazoyaz esango dirazute.

Zuec bada ondo daquizute, Jaungoicoac nerri eguin dirala mesedea: eta nic nai badet, betico zuen lagun izateco eguiñic naucala. Ta dicha au cembat nic estimatu bearnuen, eta estimatu bear det? Esazute. Baña ay nere dicha gabea! Estimatu bearrean, ori aiñ erraz galdu det! Eta ez Erregueen, ez bada Satanasen esclavoen suertea, zuena baño nayago izan det! suerte batetic bestera orrembeste dijoala, nere pecatuaquin dicha ori galdu, eta desdicha gucia artu det! Gembat aldiz au entzundet, eta aleric sentitzen ez det!

Ta nic eraqueria ori eguin, eta penaz iltzen ez naiz? ¡ O itsutasun arrigarria! ¡ O arriac baño sortuago cerañ nere anima! ¿ Cer eguin dezu? Esazu albadezu. ¿ Cer eguin dezu? Baña nere zori gaiztoa, ecin adieraci. Ay! ¿ Cer utzi eta cer artu det? ¿ Cer galdu eta cer irabaci det? Arri zaitezte, ceruac, eta itsutuac becela zoraqueria oni beguira zayozute. Ceruco bidean zuazten guciac ondo icusi, eta esadazute, nere damu gay onen antzcoric edo dolore onen pareric ote dan.

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**E**a bada, nere eguelle, eta Jaungoico ona! Contuetan sar gaitean. Nigandic g̃cer naizu? Nic zu alabatzea, seryitzea, eta amatzea? Nerea da dicha. Ori Aingueruen oficioa da. Eta ni lurreco ar, edo arrastacaco abere au honra orretaraño igo nai nazu? Eguiteco andia, eta zor justua da ori. Baña, Jauna, dacuscum, orain daño nic cer lan eguin dedan. ¡Aingueruena, ala aberatsena? ¡Ay ene! Aberiena baño ere gaizteago: bada demonioen oficioa zurequin eguindet. ¡O zure paciencia neurri gabea, eta nere zoraqueria eragabea! ¡Nola sufritu nazu? Zuc ceran becela, Jauna nerequin eguin dezu.

Nere tratu, eta bicierae Aingueru, eta Santuaquin ízan bear zuen, eta deabruaquin izanda. Nere vici guztia zu ofenditzen igaro da. Ay! nere desdicha gucien ondartetic nere Jaungoicoari deadar eguingo diot. Ea misericordien Jauna, nere deya entzun ezazu. Ez arren nere culpai beguiratu. Oriei beguiratzen badiet, galdua naiz. Nor zuri itzeguitera atrebituco da? Zure ondasun, eta piedade ondo gabe orri beguira zayozu: eta nere culpaz sartu eta ondaturic nagoen leizondo onetatic atera nazazu. Emendic aurrera, ematen dizut itza, nere viciera berri gucia, zu alabatcea, zu viotz guztiaz servitzea izango dala.

## BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

**N**ere anima, ¿cer contu da au? Nere azquen fin, edo cerueco gloria alcantzatzen ez badet, ¿certan gueratuco naiz? Jaquiña da : betico infernuan. ¡O cer siñ bi, edo cabuac! ¡O cein alcarren urrutiac! Eta bietatic bat bear dala. Fiñ zorionecoa nere pecatuaz galdu det, eta barcatu zadan jaquin ez. Bandera destolatuaz, ajolacabe, corrica, eta egaca becela, nere desdicharaco ibilli naiz. O! ¿Cer eguin det? ¡O Jesus nerea! ¡Eta nere burua galtzeco cein gogotie ibilli naizan! Fiñ oyen artean orrem-bestre dijoa: eta bata edo bestea izan bear da; ta ni aiñ erreparo gabe besoac zabaldú ta nere calte ta betico eriotzara joan izan naiz. ¡Ay Jauna, ta cembañ bider ori ondo daquidala!

Eta orain nizaz ¡cer izango da! Nere culpac barcatuac diran badaquit? Ez. Bada ¿nola nagoque soseguz? ¿Nola ceruraño deadar eguiten ez det? ¿Cerua seguru baneuca becela vici naiz? ¡Ay! cerua edo infernuia izan bear, eta cer izango dedan jaquin ez. Cerua galdu, eta infernuratzen banaiz ¿cer izango da nizaz? Urte edo dembora guchiren buruan, cer suerte dedan jaquingo det. ¿Nola seseguz lò eguin dezaquet? ¿Nola lurreco gauzarie nay edo billa dezaquet?

Cer ¿peligro onetan nagoala, munduan cer-

bait baliatu, paper eguin, cerbait jaquin atseguiun artu, jan eta edan, guizonari ondo iristea honra ta estimacioa gogoan artuco det? Ay! Cer peligroetan nagoen, ondo beguiratzen ezdet! Ah nere Jaungoicoa! Nere desgracia guciaren berri zuc ondo daquizu. Misericordia, Jauna nizaz: eta arren zure argui bici bat indazu, ceruco eta infernuco eternidadeaz ica-ratu, eta vici berri bat ardezadan.

### SEIGARREN CONSIDERACIOA.

O nere Jaungoico maitea! ¿Zure gloria betico-nie izan dezadan, zuc cer eguin ez dezu? Ceruac, eguzquia, eta aimbeste gauza onetaraco eguin ciñituen: lurrean janaria, jancia eta beste bear diran gauzac eman dizquidatzu: ainguerauc mandatari eta lagun, santuac bitarteko, eta oriequin batean inspiracio, edo barrengo argui eta deseо onac, eta campotic egem-plo, conseju eta mirari andiac. ¡O Jaun amo-rosoa! ¿Eta nor, edo cer naiz ni, cerura ni eramateagatic zuc orrembeste eguiteco? O eta ni ara joateco zure ontasunac cembatz eguiten duen; Eta ay nic cein guchi eguiten dedan!

Criatura guciac deadarrez dagozquit: nere animaz beguira dezadala, nere fiñ zorione-coa billa dezadala: eta ni lotsaric gabe guciai ain gorra! gauza guciac, zu nic amatzea naidute, otseguiten, eta laguntzen dirate: ba-

ña ori egun bearrean , ni oriezaz gaizqui baliatu , eta orientan nere siñ , eta zoriona balego becela , zu ofendituzaitut. Ay cer esquer gaitzto itsusia ! Barca zadazu arren , Jauna , ceren itsu jaquiñez bat izandu naizan : nere bequiac ondo argui itzatzu , zu obeto ezagutu , eta lurrean icusten ditudan criatura gucietatic zugana zu- cen igonadin.

### ZAZPIGARRER CONSIDERACIOA.

Jaincoac nere salvacioa aimbesteraño deseatu du , non da bera guizon egun , eta gurutze batean , eta lapur biren artean bere odola , eta bicia deshonra ; eta pena andiaquin eman zuen. ¡ O nere Jesus gucisco maitagarria ! Eta amo- río onegatic nic cer zor dizut ? ¡ Eta zugan ori ieusi , ta nere burua salvatzeagatic cer eguiten det nie ? O ¡ Cer egutin ! Aleguin gucia , nere anima galtceagatic. Dacuscun bada orain egui- teco au norena dan , edo nori eta cer dijoa- quion. ¿ Ni salvatcean Jaineoari cer dijoaquito ? ¿ Eta neri cer dijoaquit ? ¡ Ay Jauna , eta cem- bat neri dijoaquidan ! Guztia , eta izanal guz- cia. Buru eta fede gade ibilli naiz. O Jauna , eta nere beguiac arguitzen bacindu nic ori on- do icusteco eta oraindañoco calteac ezagutu , eta aurrera zue naidezun becela , nere salvacioa vi- cimedu santu batequin viotz guztitic billatzeco.

Ea bada , lurreco gaucetatic becela eta be-

tico despeditu naidet, nere azquen fiñ au alcantzatzeco laguntzen ezpadirate. Ló eguiteco dembora ezta au, baicic neregan biurtu, eta contuz ibiltzeco. Zuri nere Jesus ona jarráitu bear dizut. Zure viotz guciaz nère salvacioa nai dezu: bada nic ere naidet, eta mundu gucia galduco badet ere, orrequin irten bear det.

Zu Jauna, ni salvatzeagatic, desonratua izan ciñan, bada ona neri ere edocein desonra eramateco prest, eta pocic, condenatu eznadin. Zuc pena, eta dolore andiae igaro ciñituen: ona bada ni ere zuc naizun guciraco. Beste gaiztoric nai ezdet, zuri gusto ematea baicic: lurreco gaucetan gonsueloric nai ezdet, baicic bacarric zugan. Zu cera, eta beti izan bear dezu nere Aita, nere Jaun eta jabea, eta nere ondasun gucia,

## ZORTZIGARREN CONSIDERACIOA.

**O**nere Jaungoicoa! Zure gloriaco fiñ au segurazteagatic Santua ecer eguin zuten? Eta nic cer eguiten det? San Agustin batec ceruraco Jaincoac eguin zuelaco mesede au cembait estimatzen zuen lurreco gauza, eta criatura guciac ecertan etzeuzcatzien. Eta San Pablo batec, diranac basa edo simaurra becela: argatic lurrean vicizala, beretratu, edo conversacioa ceruan ceukan. Eta vitartean ni dicha gabe au vicio, edo pecatuen loyan sartua, eta ceruko ondasunaz aín aztua, heste

batec au eguisen balu , nic cer esango nuque ,  
buru gabe , eta zoro anditzat iduquico nuque.

Bada ay nere itsua , bestec gaizqui eguingo luqueala juzgatzeco diña buru badet , eta nere gaitza icusteco diña ez det ! Cer nai det bada edo cer estimatzen det ! ¿Nola edo cer da au ? Jaingoac bere seme eguin nai nauela , eta dicharie aundien onetara convidatzen nauela : eta nic Satanesen esclavo izan nayago dedala , alafede Erregueren seme izatera deituco banindute : cer contentu eta poza . Eta ala izate arren , edocein neque ontzat artuco nuque . Bada Jaungoicoaren beraren seme eguiaz izate arren , eta Jesucristoren glorian eternidade gucian parte iduguitzearen , cer nic eguitea ondo izango da ?

Baña oraindaño cer eguin det ? Ay eta gloriaz , eta honraz betericaco nere siñ ori cein guchi estimatu dedan ! Badirudi , fedeco egui andi au sinisten ez dedala ; eta amets edo ipui bat becela ori gucia artzen dedala . Ah ; nere obretan beintzat ala eracusten det ! Ez , ez , nere Jauna , zuc eracutsitaco eguiia au ondo pisatu , eta berriz eta berriro onetan firmetu nai det . Ea bada , contu , eta beguira ondo : Jaincoac bere seme eguin , eta beti izateco nauca ni , bai . Dembora etorrizo da , eta láster ceñean orain ni bear becelacoa banaiz , ainguero eta santuaquin batean , atseguin , contentu ta gloriaz beteric Jaincoa gozatzen egongo naizan .

**O** egun dichoso eta zorionecoa ; Eta orren dieha audiaren beguira nago ? Bai , eta ona banaiz , aguinduric seguru daucat. Eta nic ori billatzea , eta gozatzea nai du ? Bai. Eta ori alcantatzan ezbendet , condenatu , eta infernuco tormentuetan egon bearco det ? Bai. Eta orregatic ere ajola gabe lo eguiten det ? Ah ! Nere esayac ori eguiten ez du , eta nic bai ? Nundic infernura ni eramango nauen errebentatzan , edo deseguiten dabil : eta ni , ez nola nai , lo pisuan orrez asturic ; ezpada auno eguiten , eta iltzen aimeste urtean , infernura cierto bota , eta ondatzen nauten deseoa , eta gusto charrac cumplitcearren.

**O** arrigarritzco desdicha paregabea ! O Jau-naren piedade onetan , eta onela gorde naue-na ! Bada calte , eta peligro andi ori quendu eta cerua irabazteco cer eguin bear det ? Santuac cer eguin zuten ? Munduarentzat , eta herrentzat ill : nequeac , penac , desonrac , tormentu eta eriotzac pocic ceruagatic artu. Dem-bora guchi batean , bada orobat cergatic nic ere eguingo ez det. ; Ay Jesus guciz ona ! Argui andi bat nere biotzean indazu : zure indarrezco gracia betor Jauna , zugatic mundu gucia utci , eta nere burua ucadezadan , hon-ra , eta gustoentzat illa becela , zuretzat bacarric eta zurequin , zure gracian beti vici nadin. Amen.

# PECATUEN GAÑEAN

EDO PECATUA BEREZ ETA BEREGAN CER DAN EZAGUTZECO

## CONSIDERACIOAC.

### LENENGO CONSIDERACIO ETA AFECTOA.

CERTACO Jaincoac eguin ninduen ezagutu, eta igaro beardet, nere azqueneco siñ, edo dicha onen contra nic cer eguin dedan icustera. O nere Jaungoieoa; cembait pecatu Jauna, zure contra eguin izan ditut? Eta baldiñi culpa bacular bat icara eguiteco sobra bada, cer izango dira aimbeste, eta ain pisuac, nola nereac diran? O nola carga eraguin baten guisan, guciak ondatzen nauten. Milla errota arri nere lepoan lotu, eta ichasoaren erdian botaco banindute; cer pena, cer naigabea artuco nuque?

Nere burua dacust, Jauna, zure aurrean ecin contatu ala pecaturequin, ta arri andi guciak baño gueyago pisatzen dute, ya infernuco ichaso cabu gabean ondatzen nauzte! Ay nere Jaincoa! Cargadi pisu onetatic nola libratu, ta gora igo naiteque? Quen arren, Jauna, zure amofeagatic, ta nere pecca-

**tuen soca**, ta amarra nastu oyec ascatu, ta autsi itzazu. Ay ta nere animaco catea oyec puscatu, ta deseguiñic noiz icusico ditut? Nere viotceco atseguiñaz noiz esango dizut? Nere loturac urratu dituzu, Jauna, ta nic alabanza, ta esquer onen sacrificio emango dizut?

Ea, Jauna: izan bedi laster: bereala, bertatic libranazazu, zure-icen santuagatic. Baldin zue laguntzen ezpadidazu, ecin libratu, ta zugana igoconaiz. Miſericordiazco ontasuna bera cera: zure escu indarsu ori laster indazu: bestela galdua haiz ni. O ceñ estu, eta cer itotzeco zorian nagoen! Ay Jauna, Trance onetatic libratzen banazu, desdicha onetara gueyago munduco gauzac gatic ez ni biurtu. Zure miſericordiac echedendit, ta ez alperric, ezpada ni libratzeco. Ea bada penitenciaco bidera bein edo bein gaitz onetatic atera nadin, zure gracia indazu, Zu gogotic billatzeco, ta viciera santu batez arquitzeo.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**ri, edo gaiso triste batec cer naigabea izangoluque, bere burua leguenez, edo lepraz, ta gaitz aldi guciaz beteric, ta viotzerañoco puñaladas josiric icusico balu? Eri au norda? Ni: bada burutic oñetara guztiac lepraz, ta gaitzez betea nago. Ay nere anima tristea! Ezdaquizu, nola zauden? Zure pecatuac nola-

coa , eta cer peligro andian paratu zaituzten  
icusten ezdezu ? Nere buruaz ni erruqui ezba-  
naiz , nor izango da ? Caleco edoceñ zacur oguei  
edo herrogei estodaz josiric icusico banu , las-  
tima emango liraque : ta nere anima orrela  
josi ta galduaz lastimarić ezdet ? O gaitz gu-  
cien eraguiñena ! O modorra gucien pisuena !

Nene Jaungoicoa , au cerda ? Nere Redento-  
rea , zugana biurtzen naiz . Eri bat , cembait  
eta etsiago dagoen , ambait obeto medicuaren  
jaquintasuna eragosten da . Beste asco baño ,  
onelaco eri bat curatzea honra andiagoa da .  
Nere medicu bacarra , zue ni curatzea , zure  
gloria andiena da . Nere gaitza baño andiagoen-  
tzat ere zure viotzeco botican , eta zure llague-  
tan erremedio seguruac dituza . Zurę odol pre-  
ciosoaren Jaincozco balsamo orren tanta bat  
nere gáñera betor , Jauna , ta eguiña dago guz-  
tia : nere anima bereala sendatu , ta garbi gar-  
bia gueldituco da . Onetaraco aiñ liberal , ta  
lurreraño ugari isuritzen duen tanta bat arren  
neri indazu . ¡ O cer gogoa , cer ansiac ori ar-  
tzeco dauzcadan !

Ay Jauna ! Ta baldin zue cerorrec badiozu ,  
pecatu barcatuen ere bildur izan bear guerala ,  
edo orien bildur gabe ez gaudela : nereac bar-  
catuac diran jaquin gabe , noña bildur izango  
ez naiz ; eta are gueyago daquidala , ichasoco  
ondarrac baño , nere pecatuac gueyago dirala ?  
Ay , bildur naiz eta are bildur gueyago iduquí

nainuque ! Ay nere pecatuen, ta infernuaren bildur naiz ! Ea bada, Jauna : Zu escás, ta urri etzera, ta ondo escatzen zatzun gucia eman nai dezu ta ematen dezu. Nic zure icen santuan erremedioa escatu ezquero, seguru nago : ecin ucatuco didazula. Senda nazazu, Jauna, ta salva nazazu.

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**B**aldin persona ofenditua cembait andiagó dan, ofensa ere andiago bada : Ay nere Jaun andiena, ta eguiaz Jaun bacarra ! Nere pecatu, edo zuri nic eguindaco ofensac cein andi arrigarriac izango dira ? Au obeto edo nolabait zuc aditzeco, aldezun ondasunie aundienna zure era-ra pensazazu : doblaz areago, eta andiago ontasun ori berriz eta ascotan eguizu. Lauso, edo pits airean, eta ur tanta ichasoan diran baño gueyagotan, eta ascoz aundiago ontasun andi ori dala. Jaquizu bada orain, ontasun zuc pensatu al ori gucia gure Jaincoaren ontasun, eta aunditasunaren aldean, ecer eztala, ceren Jaincotasuna siñ, edo cabu cabea dan. Santu eta ainguetu guciac jaquin eta alcantzatzen duten gucia, Jaunaren aldean beti chit guchi da, eta izango da.

Eta nere Jaun orren guztizco ona nic ofenditu det, ta ain aisa, eta aimbeste bider? Bai. O nere itsua ! O cer gaitz eragabea eguin de-

dan! O seculan orrelaco lanic eguin ezbanu! O nere Jaun guztiz ona, eta ondasuna bera! Damuaren damuz cer esan eta cer eguin ezda-quit. Zu ofendituaz, Jauna, damu det viotz gúcitic: eta ez infernuaren bildurragatic, eta ez cerua galdua gatic, ezpada zure ontasun sín gabeagatic, det damu. O amorezco damu garbi edo nazgabe, zure ontasunac aimbeste aai, eta estimatzen duena! O amorez ill ar-teraño nere viotzaren erdian, eta beti nic ori banu! Ah Jauna, zure ontasunagatic niri ori indazu. Bada nigandic ori naizu: nic zugabe ecin det, eta zugandic bearded. Zure icen san-tu, eta amorezco ontasuna gatic amorezco da-mu ori indazu. Pecatua ill bedi, eta ni ere bai pecatuarentzat: munduko gaitcic andiena bece-a nere viotzetic seculaco quen bedi, eta zure gracia nigan beti, vici bedi. Amen.

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

Lurreko chingurri, edo ar chiqui batec buruaz ceruraño allegatzen dan gigante batequin cer du cer icusi, Jesus, eta cer bidastia, edo dis-tancia; orain bada nigandic Jaincoagana cem-bait dijoa; ni cer naiz, auts pusca bat: lenago ecer ez, eta laster arren janari, eta lür biur-tuco naiz. Eta auts pusca bat Jaungoicoaren aunditasuna ofenditzera eta gaizqui tratatzera atrevi dedilla. Oh ¿nic cer eguin det? Eta ni



onela sufritzean , zue Jaun aundia , cer eguin dezu ?

Baña ay, lurreco autsari becela, nere buruari beguiratcen mesede gueyegui eguiten diot ; pecatua gatic ni cer naiz ; ecer ez baño ere guchiago : infernuco penac eramatera obligatu , eta Satanasen catibu eguiña . Eta Santu , eta ainguerauc adoratcen duten Jaunaren magestadearen contra ui atrevitu naiz ? Oh ! aimbeste milloi ainguerau , eta santuen erdian , edo gañean Jaun aundia zuri beguiratzen dizut : zure Magestadea icusi , eta guciac icara daude . Zure ontasun , justicia eta poderea icusi , eta beren aleguin guciaz alabatzen zaituzte .

Oriez diranac ondo jaquiñic , zue mereci dezuneraco , millatatic bat ecin dutela deádarrez beti diote : *Santu , Santu , Santua da Ejercituen Jaungoicoa* : Bendicioa , arguitasuna , esquer onac , honra eta virtuteac izan , eta eman daquiola Jaungoico guciz Santu justuari , siñ gabe andiari , secula gucien seuletan . Amen . Au esan , eta Jaunaren aurrean auspez jartzen dira , ondo icusiric ayen gucien eguiñala baño gueyago beti mereci duela .

Orain ayen aldean neri beguiratu , eta nere ecerez , edo autsa icusten det : eta ah ! Ayec Jauna , ala honratzen zaituzte : eta niç zu ofenditu , eta mundoco gauzarie billauena baciña becela , oñ azpian erabilli zaitut ! Jauna , arrituric nago eta cerzaz gueyago arritu , nic

ezdaquit: edo eta zure ontasun, eta pacienciaz, edo eta nere lotsa gabeco atrevimentuaz. O nola lurpetu ez nazu edo infernuan ondatu; Nola sufritu eta echeden didazu; Baña ez ori bacarrie: ni sufritzea baño are gueyago eguin dezu, bada zure amorioaz otseguin, palacatu, eta erregalatu nazu: zugana biur nadilla, eta artucon nazula erregutuaz nerri deituta esandidazu.

O nere Jaün amorosoa! Eta zure amorez nola ni deseguiten eznai? Seculan infernuric ezbalitz ere, zu ofendituaz damudet eta damueto det, ta beti damu bearded: ta zu cernagatieta ceren ain ona ceran damu det Jauña; ta munduço gauza guciaegatik ez det nai zure ofensaric eguin, O Jainco ontasun guciz miragarria! Eta nola sufritu nazu ni? Aimbeste desonra, ta alaco desacato itsutiac nola ni becelaco ar billau bategandik eraman dituzu?

Aingueraiac, onen gañean cer diozute, Jaubaren ontasunaz, eta nere lotsa gabetasunaz cer deritzatzute, zuec bada, zuec beti alaba zazute: honra ta gloria seculako nigatik emayozute, eta Jaun oni neretzat culpa gucien damu, ta vietzeco sentimentuac didala esca zayozute. Oraindماño eguin dedan zoraqueriaz, eta nic egujin ditudan pecatuaz, nerau nago arrituric. O ! Nola nic ori eguin nezaquean! Eta aingueraiac beti aimbeste estimatzen, adoratzen eta amatzen dute nere Jaungoico guciz ona, aimbeste bider nic ofenditu det? Eta

Jaincoac bera servitzeo eman dizquidan ale-guin , eta sentiduaz , bera ofenditzeko baliatu naiz ? O mingaiñ dicha gabe Jaunaren contra itzeguin dezuna ! O escu madaricatu gaitz guilleac ! O zori gaiztoeo oñ oquer ta pauso gaiz-toetan ibilli cerañenae ! Nere anima , nere vio-tza cer egun dezu ?

Ay nere Jaincoa , ay , norgana viur naite-que , ezbada zure ontasun , eta paciencia an-diagana ? Ea ainguero eta santuac , barcacioa neretzat escazayozute : ontasun onen berri suec ondo daquizute . Barcacioa , Jauna , barcacioa eta paqueac betico . Zu servitzeko , eta amatze-co ematen dizut itza ; nere corputz eta animaz nere caltea oraiñ artean billatu dedan baño , ascoz gueyago , ta obeto zu billatu , eta ama-tu nai zaitut . Emendic aurrera zugan beti , eta ez besietan nere memoria : zugan eta zure e-guia andi santuetan nere entendimentua : zu-gan ta zu beti amatzen nere vorondate gueia : zu alabatzen nere mingaña ; zuri jarraitcen ne-re oñac ; zuc nai dezuna , edo obra onac egui-ten nere escuac . Alabitz , Jauna , eta ala beti eguiteco zure gracia indazu .

## BOSTGARREN CONSIDERACIOA.


**Z**uc Jauna , ecer ecetic egun , eta naizan eta dedan gucia zu billatzeko eman didazu eta beti ematen zaude . Zure escu poderosotic esequi-

ric nago beti, eta zugabe, ez izan, eta'ez puntu batean vici naiteque. Au onela izanic, nola ni zu ofenditzera atrevitu naiz, eta ere gueyago pecatuari, gaitzic andienari becela zuc diozun gorrotoa jaquiñic; arrazoi bacar au sobra zan pecatu eguin baño len ni iltzeco. Eta arrazoi oni, bear becela beguiratzen ezbanion, nere provechuari edolaric beguiratu bear nion, eta zure escutie ari batetic becela cincillie,edo esequiric nengoela.

Torre altu batetic, eta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, bera ofenditzera atrevituko nintzaque? Ez: ez eguiqui, ieusiric ceñ erraz ari ori arc utzi, ta milla pusca eguingo nintzaquean. Ta aiñ cierto daquidala, zugandie cincillica nagoela: zu gabe, ez izan, ta ez ecer eguin dezaquedala ta infernura erortzen añ erraz zuc utei nazquezula: ta ez erortzeco zuc bacarric naucazula: orregatic'ere zuri aimbeste ofensa eguitera, lotsa eta bildur gabe ni atrevitu izan naiz?

Ori baño gueyago: nic ondo daquidala, aimbeste zuc sufritu, ascotan eta chit asco barcatu didazula: ta au gacia nic iusi, eta orregatic'ere, berriro zu ofenditzera atrevitu naiz? Ta zuc ori guztia ere sufritu didazu? O nere Jaun guez ona! O ceñ ona, eta gozoa zu, eta ceñ gaizto ichua ni! Zure ontasun onec eritzen, eta movitcen nau, Jauna, eta orregatic'ere culpa guciaz damu det, ez arren Jaun

na , gueyago zu ofenditzen ní utzi : ez Jauna, ez ill lenago milla bider. Zure arguiaz eza-  
gu dezadan ondo, nola ~~zur~~ gracia , eta es-  
cutic beti nagoen esequia , edo cincillic : betor  
emendic , Jauna , nere viotzera zure bildur  
santua, penitencia eguiazcoa , eta vici berri san-  
tu bat eguiteco , Amen.



## PECATUAREN GAÑEAN BESTE CONSIDERACIOAC,

ETA

JESUŠ GURUTCEFICATUAREQUIN  
COLOQUIO, EDO AFECTOAC.

**O**nere Jesus maitea eta nere Salvadorea ! Ay !  
Penaz damuzco ichaso illun bat eguiñic , nere  
culpa , ta zure osensac gatic egon bear nuque  
nic ! Ay ! ta orrela banengo ! Oriec icaraz be-  
te, eta casi desconfiatzeraño ondatzen , eta ito-  
tzen naute ! Ichaso onen jasa deseguin , eta  
eraso andi onetan , nora biurtuko naiz , ezpada  
zure gurutceco portu segurura ? Nere pecatuen

esturac bildurten nau; baña zue ondo artuco nazula jaquiñac animatzen nau. Zure penac bildur santuaz batera esperanza ematen didate: bada guciac, ta pocic zure amorio esanal baño andiagoac, ni salvaizeagatic, artu eta eraman cituen. O Jauna! Gurutce orretan cerc josierazo cinduen? Pecatarien amorio, eta erre-medioac.

Beraz becatarien erremedioa nai dezu? Bai. Ea bada, Jauna: ona becatari andi galdu bat: erremedia nazazu: bada siñ onetaraco gurtzean icusi ciñaden. Ta ay ceñ erraz obra andi au zue eguingo dezun! Ea nere anima tristeari esayozu, zure pecatuac barcatzen zaizquitzen. Eta itz onequin Jauna gueia eguin dezu. Nere escuan balego, bereala eguiña lego-que. Eta bada zue diozu, pecatariac edocein orduz, bere pecatuen damua duenean oriezaz gueyago acordatuco etzerala. Zue, Jauna, ori ta gacia nerequin eguin bear dezu, eta damu ori ere zue eman bear didazu. Ah; Cein erraz ur garbia ardo gozo biurtu cenduen! Ain erraz da zure Jaincozco su beroa nere viotcean iracequitza.

Betor, Jesus nerea, zure viotzeco suspirio, aice suabe eta inspiracio argui bero bat; nigan sua irazaqui bedi, ta ni zugana allegatu eta burnia suteguian baño iracequiago irtengo naiz. Escua indazu eta lagun zadazu zure viotzeco amorearén sutegui viciaren consideracioan ondo sar-

tceco, eta burnia baño otzago ta gogorrago banga ere, or berotu, eta beratuco naiz. O su gar amorezco onec nere viotzà nola biguntzen duen ! O nere guela nola erazaquitzen duen ! Ni pecatutic libratceagatic zuc aimbeste eguin, eta nic pecatua naico det ? Ez arren Jauna, ez, lenago il nai det. Gorrotoric aldedan andiena pecatuari, zure amorioà gatic betico artzen diot. Ori zuc nai dezun becela eguiteco, eta zu nere viotz guztitic amatzeco gracia indazu. Ez arren Jauna gueyago aserratu : oraindañocoac zure pasio, eta eriotzagatic barcatu, eta zure amorean gorde nazazu.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**O** Nere Jaungoico, eta jabe bacarra ! Zu ain Jaun audi, justu-eta santua izanic gurutzean orrela josiric cergatic, norc, edo cerc ipiñi zaitu ? Esango didazu Jauna, nere pecatuac gatic. Ay ! Nere culpae gurutzean josi zaituzte ? Bai : oriec orrembeste tormentu gogor eman dizute ? Bai : oriec cabuan vicia quendu dizute ? Bai : ay nere Jesus ona ! Ay nere Aita, eta Aitaric onena ! Milla vici albanitu nić zugatic, eta zu amorezco eman bearrean, zu gurutzean josi ta ill zaitut ? O borrero gogorrac ! O pecatu madaricatu ! O milla bider lenago ilbanintz zuec ez eguiteagatic, eta nere Jainco maitea ez olenditzea gatic ! O pecatu nere viciaren

éralleac eta cein erio, eta arerio garratzac ceraten, eta nere gorrotoraco beti izango ceraten.

O nere culpá! O zori gaiztoco nere lanac! Zuec nere Jesus ona onela tratatu, zuec nere Jauna gurutzean josi, ta ill, ta ni vici naiz, au icusi eta negarrez urtutzen, desegui-ten eta iltzen ez naiz. ¡O Jesus nere culpac gatic, eta nere amorez illa! ¡O misericordia gucien iturri ugaria! Zu ceranagatic, arren barca zadazu: eta nic Jauna, nic zure graciarequin nere culpa gucien penitencia, eta oriei dagoquion castigua artuco det. Ah gorputz traideore orrembeste Jauñaren ofensa eta nere calte ecarri, eta eraguin didana! Onec eguin duena, onec paga dezala. Nic oni zure bildur santua sartuko diot, eta mereci duen becela, nic dan gucia bere griña, eta gogo gaitzoaquin crucificatuco det. Eta esclavo, billau eta pecatuaren mendeco oraindaño izan cera. Bada orain zure damu gorrian, eastiguaren mendeco izango cera.

Zure nayac eguin dituzu oraindaño; bada orain nai eta nai eztezula nic estutu eta arrayan sartueo zaitut. Nic janaria tasan, eta Jaincoa servitceco bear beardana emango dizut, ta ez gueyago; ta ori ere ez zuri gusto emateagatic, ezpada Jaincoac aguitzen, eta naidueña eguiteagatic: nic loa ere neurrian, ta ecin gueyagoan emango dizat, ta ez orañ artean becein lasai, ceren mereci ez dezun.

Ea nere mingaña, nic Jaincoaren bildur san-

tuaren frenoa emango dizut, lotu ta issillago egoteco : contuz eta icusiagoric, ta ondo beguiraturic itzeguin bear dezut : nere escuac, zuec ere obra onac, ta Jaunaren vorondatea eguiteco ezpada, lotuac eta illac egonbear dezute. Ea nere beguiian, eta orietatic datocen, eta viotzean jayotzen diran pensamendu loyac : zuenac eguindu, zuec eta beste sentidu guciac illac becela moldatu, ta modestiaz moderatu bear dezute. Ea gorputz lasayegui, eta aisa aisa zure gurari gaiztoetan oraindaño legue gabe-oitua : ya abereen guisaco libertade era gabeac joan, edo acabatu ciran. Etzera ez gueyago zureaz irtengo, Jaincoaren vorondatea bacarric gucian eguin bear degu. Ay Jauna, nere igaroco vici galduaz lotsa naiz : propositu berri oyec ondo gordetzeko zure gracia indazu.

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**N**ere salvadore gucia amorezcōa : zure mages-tadeac iñoren ere bearrie etzuen. Zu ceregan guciz aberats, ta zugan gucia dezuna cera. Zu Jaungoico eta espiritu audi gucia betetzen dezuna cera ; ta ala aingueru guciak adoratzen, onratzen, ta alabatzen zaituzte. Eta zu ecin ilco cerana ta penarie ecin eramango dezuna izanic ; nere anima gatic, gorputza artu eta ilcor, edo mortal eguin ciñan, gui-

zon eguin , eta tormentuac , pasio , eta eriotza nigaticeman cenduen. O| zure amorio miragarri , eraguin gueyeguia ! Onegatic bacarric , milla viotz ta milla vici banitu gucia zor dizut. O nere Jaun amorosoa ! Ta zuc niri didazun amo- rria onembesterañocoa izan dedilla. ; O anima nerea ! Jaungoico fiñ gabe edo infinituac onem- beste zu amatzea baño cer gauza andiagoric ? Ala fede érraz emendic ateraco dezu zuc gauza aundia , ta zuc uste baño estimagarriago cerala. Jauna , eta zuc neri onembeste amorio ? Eta au gucia , zu ceraña izanie , ni onela amatu , eta ni zure etsai nintzala. ; Oh , oh ! ó mirari paregábea ! Onelacorie deseatzera , edo gogoan igarotzera nor atrevi ? ; O consuelo pareric ez duena ! Besteac nai dutenean consola eta glo- ria bitez ; baña nic zugan , nere consuelo eta gloria bicia .

Zure gurutze orretan eracusten didazun amo- rrioan nere eguiazco consuelo gucia , Or zure odol gucia emanaz , esaten didazu ; orra anima galdua , arrezazu nere odola : ona ni guztia zuretzat : gueyago bear balitz gucia emango nizuque. O liberaltasun guciz eraguiña , ta gueyeguia ! O nere gloria ta consueloa ! O on- tasuna ! ; O amorioa ! ; O nere Jesus gozoa ! Nic nere burua baño , zuc ni gueyago amatzen nazu. Zue nigatic adiña , noiz ni gatic nic eguin det ? Zugandic bada , cer usteceo ezdet ? Zugan seguru daucat gucia .

Nere aita edo amagan balego , fiatuko ez nunquean gauzaric oteda? Ez Eguiqui. Ta ori , eta nai dedan gucia nère escuan balego? Gu-re esaeran , ecin gueyago escatu edo desealiteque. Bada , ó dicha eguiaz ori , eta are gueyago , eta ascoz obeto , nere ceruco Aita eta graciaren Jabea, nizaz baño ere , zuzaz obetofia naiteque. Ala fiatzen naiz ceren gueyago , cerdu cer icusi? Zue niri , nic nere buruari baño , nai didazun. O ! emendic aurrera nola confianza guciaz zugana biurtuko naizan ! O nere gauza guciac nola zure contura utzico ditudan ! Eta nerera zu servitzea eta viotz guztitic amatcea nola artuco dedan ! O Jesus nerea , eta guztia nerea , ta nere nereago , ni nerrou neretzat baño ? munduko gaucetan parteric nai ez det , ezbada zugan guztia. Zu cera nere partea , ta nere guztia : zu betico nere biotzeco Jaun ta Jabea.

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**O**nere Salvadore , eta amoriozco ispillo ederra ! Cembait eta zuri gurutzean beguiratuago , ambat amorio andiago. O nere osasuna : zuri beguiratzea ezdezadan beñere utzi. Jaten hanengo : beti zuri beguira. Bearrean banago : zuri beguira. Lotara banoa : an ere zu ri beguira: nere ametsac ere zure amorioan beti : ta cicoitz , edo avarientuac ondasunetan nola ametsac eguiten dituzten : nic ere ala ner eac zugan;

ceren munduco urre eta ondasun guciac baño zu gueyago eta obeago ceran.

Gurutzean zure dolore ta penai beguiratu , ta orietan , Jauna , zure amorioa dacuts. Zure buru , escu ta oñetatic , ta gorputz guztitic isurtzen dan odola icusi eta zure amorioa ordacuts. Zu erancia , edo soñeco gabe , lotsa andian icusi , eta zure amorioa or icusten det. Baña ay ! Ori guztia amorio añ andia izanic , ur tanta bat ichasoen aldean bezala da , campotic icusten dan zure amorioa , barrengoaren aldean ! O nolacoa izango oteda zure amorezco , eta ondo gabeco ichaso ori !

Zure barren , zure viotzeco secreto onetan gu sartcea nai dezu : au da ceruco , ta Jaincozco ardoaren bodega : ondo gucizeo gozo , santu en guisa orditzen edo embriagatzen duena. Arren , Jauna , ardantegui onetan sar nazazu ; bada ni sartzeko , longinosen lanzadaz , zure costadu , eta viotzeco atea idiquitza nai izan cenduen. Eguia da Jauna , eznaiz diña or sartzeko ; baña edolaric aterontz allegatcen uztazu , licore chitez precioso orren usaiz nere viotza anima dedin. O cer usai erregalatua ! O nolaco espiritu , ta indarra ematen duen !

Zure viotzeco amorio aur , Jauna su gar bici bat da , ta nere oztasuna berotzen du , nere viotza erretzen , ta arin gora ceruco gaucetara igotcen du. Zure amoreaz arritzen nintzan len , ceren zure odola , eta vicitza emateraño. empe-

ñatu cinduen. Baña orain gueyago arritzen nau zure barrengo amorio, nere viotza airean zugana daraman orrec. Ta gogoticago, ni eracartzeo esaten zagozquidala deritzat: O! ni zugatic beñ ill nintzan baña zure erremedioraco bear balitz, eun bider ni iltzea, nere viotzac amorioa du guztiraco. O nere Jaungoicoa! Ta amorio onégatic cer zor dizut? Cer eguin bear ez nuque zugatic. Ceiñ obligatua nagoen zu bacarric amatzera! Ta al-banu, amore infinito edo neurri gabeaz zu amatzera! Baña ay! Amatu bearrean; alde gucietatic, ta aleguin guciaz ofenditu zaituena gatic, nic cer esan dezaquet? Esquer gabe ichusiagoric seculan adituda? Ori eguin duenac cer mereci du? O Jauna, cer eguin dezal zuc, eta cer eguiten det nic? Nola amatu nazu, ta nola amatu zaitut? Ah mereci nuen Jauna, criatura guciac nere contra biurtzea, eta vengantza artzea. Eguia da ta aitortzen det.

Nerea da culpa, eta culpa, guciz andia eta isusia. Orañ ezagutzen det ta gustiaz, zu ofendituaz damu det. Milla vicitza banitu, diranae emango nituque, ori deseguitea gatic. Zu aiñ ona izanic, Jauna, nic ofenditu zaitut? Viotz gucitic damu det, ta gueyago damutzea nainuque. Ea, Jauna, igaroco gucia deseguin bedi; ta contu vici berrian, ta ez gueyago pecaturaco bideric. Lenago mundua, eta nere burua galdu, zu ofenditu baño.

## BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

O nere Salvadorea! Ta nola gurutze orretan issilie zaudela ere itz eguin didazun! Ay, ene seme, diozu: Nic zuri onembeste nai, eta ni enemigoa becela tratatzen nazu! Ta etsai izan banintz, ecin gaizquiago tratatuco ninduzun, eta ecin gueyago eguingo cenduen! Cer eguin dizut nie, ene seme: cer? Nere lotsa eta penac, nere odol zugatic isuria, icusten ezdezu? Nere semeari bezala, viotza partitzen ezdizu. Ni onela dolorez urratu, eta odol usturic icusteac? Cer eguin dizut? Emen nago, eta ez besteren fuerzas ezpada, nere vorondatez, eta zure amorioz: dolore oyec pocicaramazquit, zure biotza irabazteagatic: eta orregatic ere lastimatzen etzera, amatzen ez nazu; baicic aborrecitzen, eta ofenditzen? Cer eguin nezaquean nic zugatic eguin ezdet?

O Jesus amorosoa! Zure itz gozoac sayetae dira, eta erdiratzen didate viotza! Nic ezaquit nola ezquerrac eman, ta zure amore oni nola erantzun. Cer esango dizut Jauna? Dacust, tasa gabeco amoreoa zure amore infinitoari zor diodala. O! amorio au indazu! Nere aleguin gucia, utsa, edo guchi da. Baña guchi au edolaric daquidan, ta fin gabe ama zaitzadan: ta guchi nie eguin arren, beintzat amorio, eta deseo gucizco bat iduqui dezadan.

Badaquit , Jauna , nere amorioa laburra dala , eta orregatic lurreco gaucetan errepartitu nai ezdet , cergatic criaturai ematen zayena zuri quetzen zatzun. Batere quendu nai ezdizut , ezpada , dan gucia betico zuri eman.

Bertatic , Jauna , utzi nai diot aitari , amari , aide ta besteai , ta zugan eta besteac gatic ezpada , ezdier nai bear : oriec zure amorioa neri eragoztea nai ezdet. Utzi nai diet adisquide ta ondasunai , ta zugatic baicen nai ez ditut. Bertatic utzi nai ditut honrac , atseguin eta consueloac , ta zugan baicic nai ez ditut. Bertatic nere buruari utzi nai diot , ta saldu erosia bannitz becela , nerea izan nai ezdet , ta ez nere burua amatu , zugan ezpada. Ea beguiac , etzerrate nereac , baicic Jaincoarenac , arc nai dueña , ta ez zuec nai dezutena icusteco. Ea mingaña , nerea etzera , ezpada Jaincoarena , onec nai duena , eta ez zuc nai dezuna esateco. Ta orobat , escuac , oñac , gorputza eta anima , zure memoria , entendimentu eta vorondateaz. Nigan vici bear ez det , ezpaba Jaincoagan , eta Jaincoac nigan beti vici eta aguindu beardu.

Oraindaño Jauna , nerea becela , nere erara vici izan naiz : orañ besteric da. Ez naiz ya nerea , ezqada zurea. Ea naizuna nizaz , zure gauzaz becela eguizu. Ta nola bustin pusca bat erosi duenac , naiduana orrezaz eguin dezaquean , edo ontziac , edo zoyac , edo bazterre-ra bota nai badu : ala zuc , Jauna , nizaz nai

dezun gucia eguin dezaquezu: bada batetic erosí  
nazu , ta zure odolaren costuan , eta bestetic , nic  
nere burua águindu eta vorondate osoaz eman  
dizut. Zure gustoa bada honrarić nic ez edu-  
quitzea , zure vorondatea eguin bedi : zure gus-  
toa bada , nere vicia dolorez eta afrentaz be-  
teric izatea, ta guciae ni artu , ja utzi ta ecer-  
tan ez iduquitzea , contentu naiz , ta zure vo-  
rondatea eguin bedi. Zu bacarric nai zaitut :  
zu cera betico nere guztia.



## CER DAN PECATUA ,

BERE AFECTO EDO ONDORENGO CALTEE-

TAN EZAGUTZECO

## CONSIDERACIOAC.

AINGUERUEN PECATUA TA CASTIGUA.

**O**ceñ ederrac ciran Aingueruāc, Jaincoac eguin  
cituenean : ta cein itsusiac gueratu ciran peca-  
tua eguin zutenean ! Cein dichosoac len , eta  
ceñ desdichaduac guero ! Nola paratuco du ani-  
ma pecatu batec ? Añ ichusi , añ desdichadu !  
**O !** nere anima nolacoa egongo da ; bada aim-

beste ta aiñ andiac eguin ditu! Ay ceñ dichagabea dan zure suertea, anima nerea, bada Satanasen esclava, eta betico penetara sujetatu eguintzera! O nolacoa ciñan gracian ceundean, eta becatuaz nolacoa gueratu ceran! Cergatic cerua galdu dezu? Cergatic infernuco penetara obligatu cera ainguero gaiztoai jarraitu diezu? Bada bildur zaite orien calteaz.

Jaquizu oriec tormentu beticoetan daudela, eta atseden, edo erremedio gabe egoa bear dutela. Zure zai daude, diotela, nola culpan lagun izan ceran, ala penañ izan bear de-zula. Su andi ayetan zure toquia prestatua daucate: eta ori ceren zue nai dezun, pecatua eguitean, edo lecú debecatuan oña sartzean. Deadar eguin nai dizut nere anima tristea: beguira, contu oña non ifintzen dezun. Falsoan zoaz, beguira: contu infernuco leiza ondoan eman ezdezazun. Aditzen ez dezu? Añ gorra zaude? Ceruco Ainguero eta Santzvac: deadar nere animari, eguirozute deadar. Ay, ondatzen naiz: itotzen naiz: Ay Ceruetaco Erreguiña, lagun zadazu. Nere Jesus maitea, betor zure escu amoroso, ta poderoso ori: betor nere Aita, nere Jauna, betor.

Ea, zure deadar indarsu bat eguidazu, bildurnadin. Arren nere pecatuen demboral gaizto onec murgildu, eta onda eznazala, Jauna: infernuco putzuaren atea, nere gañean ichi ez dedilla seculaco erremedio gabe galdu es nadin.

Indazu Jauna , San Pedrori becela , zure escu bedeincatu ori , libra nadin. Ah ! ta nere desdicha onen guciseoa dala , orregatik ere casi sentitzen ezdet , eta casi sentimentu gabe es- cua escatzen dizut ! Ichascaren erdian onda- tzen arquituko banintz : cer antsiaquin deadar eguingo nuque : Ay ! itotzen nago ! Ay ! ito- tzen naiz !

Bada cer ? Infernuco ichaso ondo gabea ica- ragarriago ezta ? Ta orbetiko ondatzeco zorian nere burua ieusi , ta nola deadarca dezeguiten ez naiz ? Baña cer diot ondatzeco ? Baldin nere pecatuen leizendio izugarri , eta locaitz itsusian nastu ta itoric banago ? Cer eguin aldezaquet bada ? Nere viotzeco indar guciaz deadar eguin . Aoa necalzen bada ere , viotza necatuco ezta . Viotza irtu , eta deseguin artean issilduko ez naiz . Salva nazazu Jauna , salva nazazu : nere culpen locarda onetatic atera nazazu deabruac becela , infernuan onda ez nadin . Libra nazazu Jauna eta ez gueyago zure ofensarie : mundueo gauzac ga- tie , ez zu galtececo peligroan gueyago sartu . O Jesus izan zaite nere salvadorea : zugan dau- cat nere esperanza gucia .

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

Ay Jauna , eta pecatuari cer gorrotoa diozuñ , bida ainguerauc ain ederrac , aberatsac , eta zu- re doavez beteac cirala pœatuagatik etziñen

barcatu ; cer izango da bada nizaz , gueroenean pecatuan arquitzen banazu , jaquiña da bartatuco eztidazula. Eta criatura aiñ altuetan castigu ain arrigarria icusiric , nola ni icartzen ez naiz , eta are gueyago ni culpaz beteric , eta lur puzca billau bat izanie ? Ainguerauc ala condenatu ; eta badezu zue Jaincoaren cedulaic , zuri barcatuco dizula ? Ay culpa asco dituzu , eta Jaunaren Justiciaren ezpata ya zure contra descargatzeko dago ! O cer golpe izugarria ! Demonioac esan bezate nolacoa dan.

Bada ay zure tristea ! Golpe ori bera : eta aserre guztiaz dator zure contra. Beguira , contuz golpe onetatic igues eguiyu : bestela , pecatuan bazaude , Jaunaren aserreac arrapatuco zaitu. Pecatua laster utzi , eta orrelaco peligro , eta pausoetatic zoaz igues. Bai nere Jauna , bái , nai detigues eguiu , eta lenago ill pecatura biurtu baño. Lenecoen barcacioa indazu , ta ez arren Jauna zure aserreia nere contra descargatu. Zure piedadeari , Jauna , ta ez nere culpai beguiratu. Zure justiciaren aserreia quentzeco , Jesus zure seme maite gurutzean josari , beguira zayozu. Neretzat barcacio esque dagoquizu. Beguia zure semearen arpegui eder santua ta nere pecatuaquin ichutua. Ispillu au da nere amparoa. Au beguien aurrean ipiñico dizut. Zuc nai dezu ta eder deritzazu : orregatik bada , orren amorea gatic , escatzen dizut Jauna misericordia , eta erremedioa.

## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

Lapur batec bere lagunac castigatzen icustean eta are gueyago bere lapurreta jaquiña dala deritzanean , eta ecin igues eguin duela , cer bildurra dauca? Bada aingueru gaiztoetan Jaincoac eguin duen castigua nic icusi , ta nola bildurtzen ez naiz? Ta are gueyago , Jaincoac nere barren gucia , ta pecatu secreto guztien berri daquiela? Ta ecin igues eguin? Estura onetan cer eguingo det? Ay Jauna , badaquit , nere culpa guciac daquizquitzula , ta eguiten nituenian zu beguira ceundela! Eta ecin iñora igues eguin? Cer eguingo det , eta nora joango naiz Jauna , ezpada zugana.

Zure oñetan etzin , eta esango dizut : Jauna , nere peccatuac ecin contatu ala , guciz andiac dira : baña zure misericordia andiagoa da. Ez arren , aingueraquin becela nerequin eguin : orobat mereci dedala icusi , ta icaratzen naiz. Misericordia nizaz Jauna. Pecatarien eriotza eztetula nai ezpada converti , ta vici dedilla , diozu. Bada artcen dizut zure itza ; eta beguira Jauna , eguiazco erreguearen itza dezu : lenago mundua galduco da , zure itzean zuc faltatu baño. Ea bada , ori cumplitu ezazu nere Jaincoa zure ontasuna gatic cumpli ezazu Jauna. Ta baldin bear becela convertitua ezbanago , arren converti nazazu , ta eracutsi zadazu nola ondo ori eguin.

Zu cera nere maisua : nolá eguin bear det , nola damua iduqui eta esan bear det , damu dedala Jauna? Bada , damu det milla bider esango det , damu det viotzetic , eta milla vi- der damu det , zu ofendituaz . - O seculan pecatu- ric eguin ez banu ! Zu ain ona ceran , damu det Jauna zu ofendituaz , ez seculan peçaturic gueyago . Lengoac deseguitea nere escutan ba- lego , milla bicitza en kontuan balitz ere : O nola gacia desegningo muquean ! O damu eta deseo au nore leucaquéan ! O nere Jesus , arren zure arguia , eta gracia indazu : nere viotzeco indar gacia , ta aldatequean intencioric garbie- naz damu ori nic iduquitzeco !

Zure amorioa , zure penac , eta zue , nere culpae galie zure violezan iduquitzen duen do- lore , eta sentimentur gorrotoz betea nere damu ordean izan vitez Jauna . Ay ; Ta onec estura ta naigabearen pasioaz ; zure negarrac eta odola atera cizquitzen ! Eta cer ? Zuri negar eraguin , eta odola emanerazo , eta neri ne- gar malco bat ere ez ? Zu negarrez ieusi , eta negar eguingo ez det ? Nere anima arritua ; be- guira Jesus onari oracióan , odolezco negarrac ematen ; eta ez bere pecatuac gatic ceren etzi- tuen , ezkada zureac gatic . Nola urtutzen elze- ra ? Bada or zaude arri baten guisa bada ere . Jesusen negarrac , eta odola arriac berac berá- tzeco poderosoac dira . Baldin ur tantac , arri baten gañean ascotan eroriaz , zulatzen , eta

deseguiten badute ; odol tanta preciosoaz asco-  
tan eroriaz , zure viotza bigunduko dute. Bai :  
ta ala ni ascotan Jesusen oñetara etorrico naiz  
ta deseguin artean , presto au utcico ez det.

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**O**cer caltea anima baten soberviac eguiten duen , bada deabruen guisa cerutic infernura botatzen du ! Pecatu au nigan oteda ? ay cein bildur naizan soberviae galdu nazan ; dicha , ta doairic asco zuten ainguerauc baña orrega-  
tic ere , humildadeac falta eguin cien. Bada cer izango da nizaz , baldin virtute au falta ba-  
zat ? Beste doai , eta graciae banitu ere , nie daquidana da , estimacio eta honra zaile naiza-  
la , ta zuzaz Jauna , eta zure doayaz aztutzen naiz , nereac , eta neregandie banitu becela. Libra nazazu , arren Jauna gaitz eta viejo itsu-  
si - onetatic , eta zure gracia indazu beti humil  
izateco ; bada eguiaz eztaguin humil , ala so-  
bervia naizan : ta arrazoric asco det , sobervioa  
naizala pensatzeco. Ecer gauza enie nigan ba-  
da , eguiaz Jauna , zurea da : nie ezdet , eta  
ez naiz ni becatua baiseu . Ezagutzeo au ondo  
indazu beti zure arguia : eta gauza on gucien  
gloria , zurea becela , beti zuri eman dizudan.



# GURE GURASOEN

EDO

## ADAN GUCIEN AITAREN

PECATU TA ONEN CALTEAC.

### LENENGO CONSIDERACIOA.

**O** guizon itsua nora zuaz? Adan cer eguiten dezu? ¿Sagar bategatik nay dezu Jaincoa galdu? ¡O bocadu garestia! ¡O sagar baten gusto beltza! Orren guchian daucazu Jaincoa? Seme batec plazaren erdian esango balu, sagar bat nayago duela bere aita baño; edo sagar bategatik bestek aitari bofetada bat ematen utcico balu: edo berac gucien aurrean emango balio: cer esango guenduque? O gaitztoenaren seme lotsagabea! Cer egunin dec? ¿Cer mereci dec? Puscatzea mereci dec, traidorea! ¡Baña ay! ¿Nor acusatzen det? ¿Noren contra suak artzen naute? ¿Seme ori bera ni banaiz?

Nic ainguueruen aurrean bofetadā nere Jainco, eta Aita onari emandiot: ontasun eta Jaun audiari, ceñen aurrean ainguueruac icara dauden. **O** traidore lotsagabea! Nic, eta Jaincoari? Nin, ta sagar bategatik? Nic, eta ceruaren,

eta lurraren aurrean? Milla zati eguitea, ondo mereci det. Betico sugarrac guchi dira neretzat. Cer esango det Jauna, cer arpeguiaz zure beguietan jarrico naiz? Ay ene! Ay ene zori gaiztocoa! ¡Ay ene dicha gabea! Cer eguin det? Onelaco traicioa? onelaco zoraqueria? Nic ori eguin det? Ay! ezdaquit cer esan, eta ez cer pensatu.

Baña nere Jaun-maitea, negarrezco iturri bi nere beguiac izan bite. Ay! nere bici guztico miña, eta negar gaya badet. Eta onelaco falsia eguin didan gorputz oni nola gusto emango diot? Ah nere etsairic mortalena! Nic emango dizut zure merecia. Lotsaren pasioz Jauna, cer esan, eta cer eguin ezdaquit. Alere ni negarrez zure oñetan urtuco naiz: orrela nere viotzeco damua eracutsico det. Eguiña Jauna, Eguiña. Ay eta cein deseguin! Penitencia bada, ta ori eguin dezaquet. Misericordia bada Jauna, misericordia, erremedioa, eta vici berria.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**A**dan paraisotic deserritua izan zan, eta ni cerutic. O erri eta lecu venturosoa! Eta nola deserri onetan contentu, eta gustoric billa desaquet? Cembaitec esaten dit, orain vici naizan artean atseguin ardezala. Baña nola contentu artuco det, deserri onetan nagela? Negarretako lecua, eta penitenciako dembora da au.

**Ez arren , Jauna , permiti ni eraqueriai ematea.** Ez naiz aspertuco adiaz, eta suspirioz , nere burua onelaco desdichan icusiric. Nere beguiai atsedenic ez diet emango, nere errian sartu artean. **O cerua , cerua ! O erria , ta nere erria ! O eguiazco vicia dutenen erria !** **O corte soberanoa !** Or dago nere ondasun guztia , or dago nere jabe , erregue , eta anima garbien espresa. **O Jaun ta esposo guztiz gozo ta maitea ! Zu gabe ni nola nagoque ?** **Or dezu nere viotza , or dezu . Eraman indazu , ta or bici naiz , eta emen zu gabe iltzen naiz.** **O zure amorioz azquenic deseguin banedi.**

Bañ a ay ! Orrela izañ bear zar , eña orrela eguin ez det. Ay uso baten egoac banitu egaca igo , ta or atsedeteco ! **O cer negarrac Adanec eguingo cituen , sagar bategatic paraisutic deserritu ta icusi zanean !** Ta ascolan , ta guchia-gotic , nic ceruco aleac ichi , eta negar eguingo ez det ? Misericordia nizaz , Jauna , ez nequien cer eguiten nuea : piedadea deserritu pobre onezaz , ceren negarretaco ibai one-tan nequez beteric eta pecatuen locaitzean on-daturic nagoen. Nere Aita misericordiazcoa , ta consuelo guztien nere Jaungoicoa ! Piedadea arren , Jauna , nere suerte desdichadu onetan. Ta bada , Ainguernac becela , castigatu eznazu , ezpada Adani becela echeden : deseo irazaqui bat indazu , lurreco gauzac azturic , bacarrie nere cerua billa dezadan. Nere culpen eguiazz-

eo penitencia éguiteco gracia betor : ta bada nic  
eguin al gucia da guehi , edolaric deseochi-  
tezco andia izan bedi. Indazu azquenic gracia,  
emendic aurrera eguiatzco deserritua becela lur-  
reco gaucentzat vicitzeco ta ceruraco bidezcoac  
becela , zu billatu , servitu , ta betico amatzea,  
Amen.

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

O nola sugue guezurtiac bere engañu , eta pro-  
mes falsoaz Adan zoreraci zuen , Jaincoa beza-  
la izango zala esanaz ! O eta cembait aldiz one-  
la ni ere engañatu nauen ! Emengo honra in-  
terés , eta gusto pecatu eragin didatenac cer  
dira ? Quea becela guciac deseguin ciran. Eta  
eriotzaco orduan orobat izango ezta ? Cergatic  
bada nere etsayac engañatu nauen , ta orain en-  
gañatzen nauenean siatu nai det ? Ta infernura  
botatzeagatic cer eguin ezdaquianaren consejua  
cergatic aītzen det ? Demonioac cer againtzen  
dit berari jarraitzeagatic ? Ceruco gloria ? Ez  
eguiequi ; ezpada infernuco tormentuac. Ta  
orañ engañatzeko esqueintzen dizquidan ecerez  
queria edo ondasun gucien basca edo ceboaga-  
tic , betico eriotzaren amuari elduco diot ? Ar-  
raicho batec ere , ori icusi ta jaquiñic eguingo  
ezluque.

Ay bada , anima nerea , ay ! Beguiria ondo :  
gozoa iritziagatic aurrean ipitzen dizuten boca-

dua : or dago , or dago barrenen eriotza beticoaren amua : infernuco pozoya , ta venenoa or dago. Neri sinisten ezpadidazu , sinista zayozu Jaunari , ceñac dion : Pecatu eguiten duenaren anima ilco da. Beguira Adanec jan-zuen sagarraren gustoa ceñ laster igaro zan , ta ondorea aimbeste urtean ceñ samiña izan zan. Beguira deabruac gozotan emancien bocadu beltza infernuan ceñ garratza condentuai biurtu zayen : ta ez oraiñ bacarric , ez-pada secula gucietaco samiña.

Besteren buruan calte au icusi , ta nola beguiac arguitzen ez dituzu ? Ceren beguira zaudé ? Zure gañean caltea icusi artean ? eta erre-medioric ez dezula ? Ta obeto , Jaincoac egui-ten dizun mesede ta ematen dizun demboraz baliatuco etzera ? Baldin Cirau batec eldu balizu , edo venenoz betericaco sagar bat jan bacendu : Ah ceñ gogotic erremedioric dan samiñena ere artuco cenduquean ! Edoceñ diru gastatuco cenduque : Bada infernuco sugueac pecatuaz eldu dizula , eta pozoyez beteric zaudela icusi , eta nola zaude orrela ? Ah betico iltzen duen pozoya da ? Ea jaiqui zaite lo pisu orretatic , ceñean sarturic zauden. Vicia acabatzen da.

O nere Jaungoicoa ! Infernuco venenoz nere etsayac onela nere anima betedu ! Ay nere triste galdua ! gaitz onentzat cer erremedio eguingo det ? baldin balitz mundu guciaren costuan ero ? ceiñ pocie billatuco nuquean ! Ea bada,

**nere anima , berri onac : erremedioa badezu , eta doaric . Cer erremedio da eta nore emango dit ? Erremedioa da Jesucristoren odola , eta doaric emango dizu , gurutzean zugatie ill arte-raño , ta infernuco gaitz orretatic libratzeagatic isuri zuenac . O Aita nerea , ó ceruco Aita ; nola nic misericordia andi au alaba dezaquet ? Ori gucia nigatic egün dezu ? O nere Jauna , eta nere amorio guztia ! Zure odol gucia , ni salvatzeo eman dezu ? Orrelaco amorioa eta orrelaco erremedioa ? Ta ori doaric prest daucazula ?**

Ah Jauna ondo garesti costa citzatzun bada zuri ! Baña zure ontasunac au eguiten du . O alabatua izan dedilla ontasun ori ta eterninidad gucian iduqui dezazula ! Izan zaite siñ gabe poderoso , jaquinsu , ona , ta justua : ala cera eta beti izango cera , eta chit atseguin det : biz ordu onean eta betico . Cer nai dezu , Jauna , nigandie ? O ! Badaquit , zue cer naizun ! Ni zure odolaz aprovechatu , ta nic zu amatsea . O cer dicha ori , zor dizudana pagatzeco ! O ceñ doaric ematen zadan ! Añ guchi ezcatzen zada-na ta añ justua ta gustozcoa ; eta neretzat añ baliosoa , non ta obeagoric eztan . Ama zaitzadan , bada nere Jaincoa , eta viotz guztitic : indazu gracia , amorio au , bici naizan artean egunero , ta andiago izan dedin , eta ceruan be-ti ama zaitzadan .



# BACOITZAG BERE , ETA NICNERE PECATUEN GAÑEAN.

## LENENGO CONSIDERACIOA.

**A**ingueru gaiztoac, eta Adanec eguin zuena ain gaizqui baderitzat, nic eguin dedanez, gcer iritzico diot? O egun illun tristea, ceñean lenengo pecatu eguin nuen, ta pena guciz andi pisu, ta cabu gabetara sujetatu nintzan! Colera batean guizon bat il banu, eta guero urca-tzeco zorian nere burua icusi eta cer sentituco nuen? Bada nere anima tristea, egun artan eguin cenduen zoraqueria gatic, zure etsayen atzaparretara, eta betico iufernura sentencia-tua zaude. Norc sentencia onéquin bocaduric, gusto eta descansuric ardezaque? Badirudi, ezagutzen, eta sentitzen ez dezula, eta amets balitz becela artzen dezula. Bada contu eguizu orain bertan Jaincoaren ministro, edo justiciaco juraduac gaiztaqueria andi batean arrapatu, eta beraren tribunalean presentatu eta eriotzaco sentencia ematen dizula: eta demo-nioac eraso ta infernuan sartzen zaituztela.

Cer esan, cer eguingo cenduque, erremedio gabe, ta betico leitzondo artan, eta tormentuz erretzen icusico baciña; O erregalo garostia!

O gusto samiña ! O pecatu garratza ! Bada orrela , eta betico tormentuen azpian egongo cera. Biur zaite zugana anima tristea. Beguiria ondo eguiaz , eta fedez , sentencia zure contra emana dago : eta asco , ta aleguin guciac egun badituzu ere deseguin dan ezdaquizu. Eta ondo iritzico diozu , jan edanian erregaloac billatzea , eta echean dan onena zuri ematea eta honra , eta puestoric andienae , eta guciac zu alabatzea ? Ezta burlen , farren , jolasen , atseguiñen eta banidadeen dembora au ; ezpada negarren , hantuen andia eta deadarrena : penitenciaz viotza deseguin eta trucatzeco : eta ez nola nai , ez honrac , eta ez atseguiñac billatzeo , baicie gucien oñpean cere burua icusi nai izateco ; eta zure gustoaren contra dan gacia gogotie , eta viotz guztiaz villatzeco.

Eta oguei ,edo oguei eta amar urtean penitencia egun badezu ere , ez necatu , ez aspertu , ez utzi ceren barcatua zauden ez daguizun. Eta mundu guztiac esanagatic santu bat cerala penitencia ez utzi ceren barcatua zauden ez daquizun. Badaquizu Jaincoa dalajueza , ta aren juicioac emengoetatic besteric dirala. Eta oracio aldia luciac iduqui arren , ta ceruco consuelo asco ta milloi asco anima convertitu arren , milagroac egun , ta mundu gacia zure ondoren ibilli arren ez sure puestoa utci , ez penitenciaz aspertu ceren zure sentencia deseguin dan ez daquizun ; eta au ezpadetu , gñizonen

alabantzac , honrac ta gustoac cer servituo di-  
zute? O Jauna , ceñ egua andia dan eta ceñ  
importantea au ! josi ezazu ondo nere viotzean  
beti humill nabullen. Zure outasuna gatic , ne-  
re contraco sentencia deseguin ezazu , ceren  
pensatzeac , zu Jainco poderoso , ceñen contra  
iñorc quemenic eztuen , condenatu nazula ,  
icara andia ematen dit.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**P**enatic culpa ateratzen , edo ezagutzen bada ,  
infernuco penaquin castigu eta ere , bear bece-  
la , edo diña castigatzen ezdan culpa , cer izan-  
go da ? Pena ta aldiran icaragarrienac pensa  
itzatzu , ta guciac batean dolorezco suz , eta  
garrezco lar idiqui . eta ezurrac puscatzeraño ,  
eta beste milla tormentu elcarrequin , eta eter-  
nidade guztian ori gucia guchi da , infernuan  
pecatu mortal bategatic ematen danaren aldean :  
eta ori Jaincoaren magestadearen contra ceren  
dan. Gorputzean senti alditezquean tormentu  
guciad baño andiago da Jaincoaren arpeguia  
ez icustea , ta ez icusi bearra.

Eta beguirira orain , zuc milla pecatu mortal  
ceñ erraz eguin dituzun. Cer ¿Papirote baten  
bildur cera , ta castigu onen ez ? Cer zoraque-  
ria da au ? Anima nerea , zure amorioric bade-  
zu ? Ondo beguiratzen badezu , zure gorrotoa  
dezu. Batec iñor aborrecitzen duenean ari bi-

cia quenduaz contentatzen da ; baña zu aimbes-  
teraño aborrecitu cera non orrezaz contentatu  
etzera , ta gañera eriotza animacoa , ta betico  
tormentuac ematen diozcatzu. Ay nere itsua !  
Cer eguin dezu ? Zuc cere burua ezpatan sartu  
dezu : zure escuz eriotza artu dezu. Fin edo ca-  
bu gabeco pena badaquizu , cer dan ? Urteac  
urtearen gañean beiñ eta ascotan contatua ga-  
tic ecer ezta : eta penac gueyago dira : caburic  
ez dute.

Jaquizu bada , zure aleguin guciaz andiago  
ta andiago pecatua zuc pensatu , ta ezagutua  
gatic , millatatic bat ez dezula berez daneraco  
ezagutu. Nola eciñ iñore Jaincoa ceñ andia eta  
ona dan ezagutuko duen : ala aren ofensa edope-  
catua cer dan iñore ecin dan becela ezagutuko du.  
Eta zure vici guztian pecatuen artean égon eta  
cer eguiten dezu ? ; Ay nere galdu bearra ! ; Ay  
ay eun milla bider zori gaiztocoa ceñean peca-  
tuac egúiten asi nintzan ! Nere Jainco gúciz ona  
; Ez dedilla arren orrelacoric gueyago guertatu !  
Misericordia nizaz ceren chit bearra ta desdi-  
chadua negoen. Baña zure ontasuna andiago da  
nere miseriak baño : ez oni beguiratu , ezpada  
zure piedadeari. Zugan dago nere esperanza gu-  
cia , eta ala ez naiz galdua izango.

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**N**ere culpacgatic mereci nuen Jauna , infernuco

**su eta garretan erretzen beti erremedio eta esperanza gabe egotea.** Baña zu añ ona neretzat izan cera , non ara bota ez nazun. O nere Jauna , nere Aita , eta nere Jaincoa : nere amorioa ta on gucia ! Nic nere naizan baño , nerago cerade zu. Ontasun au nola pagatuco dizut ? **O !** eta mingañ bat ta viotz bat dedan becela , milla ta milloi asco viotz ta anima banitu , guciaquin zu alabatzeco , ta amatzeco ! Cer egun dezaquet Jauna , bada seculaco infernute libratu nazu ? O cerbait , asco zugatic egun albaneza ! O zure amorioz urtutzen banintz ! Cer naizu , Jauna ? Nic zu servitza ? Ona bada non nagoen zure betico servitzari , edo esclavo .

Ta nola esclavoac berenac ez diran , ezpada beren Jabeenac ; ala nic ez det nai nerea izan , ezpada betico zurea - ta ez ayee becela bildurrez , baicie amorioz gucia zurea izan nai det. Zure amorioan iracequirie vici nai det. Betor zure Jaincozco sua , ta erre nazala. Dicecadan neri ta gueyago ta viciroago zure amorioan erre nadin. Bedeinka eta alaba zaitzadan Jauna , ta naizan ta dedan guciaz ama zaitzadan. Nor zu becelacoric? guztia dagoquiza , Jauna , ta chit ederqui. Ea Aingueru ta Santuac , nere Jauna alabatzen lagun zadazute. Ta ceren , zue mereei dezuneraco Jaun audi au gucia ecer ez dan , zure ontasun , jaquintasun eta misericordia paregabecoa beticó ta bear becela , alaba zaitzala. Nic zu amatzea naizu ? Bada nic

ñerāu baño gueyago amatzen zaitut , ceren aini ona ceran ta ceren zuri , ¿cer du cer icusi ? Zuri , neroni baño gueyago zor dizudan . Betor Jauna , zure amorio eguiazcoa , viotz guztitic egunero ta beti gueyago , eta obeto ama zaitzadan .

Ah ! infernua mereci nuela , naidezu nic zu amatzea ! Satanasen esclavo billau izatea mereci , eta aingueruen oficioa nic eguitea naizu ? O nere Jainco maitea ! Secula gucietan alavatua , ta glorficatuá izan zaiteala ! Nola Jauna , zure amorioan erreco naiz ? Nola atseguin , ta gusto emango dizut ? Cer egun ezdaquit . Zure gusto ta vorondatea eguiten eracus dazu . Orrani cer naizan : orrembeste zuri zor , eta amatzan etzaitut ! bada zu amatu bearrean , eguznero pecatu gueyago eguiten det . ; O esquer gaiztooco traidore itsusi lotsagabea ! Ala izant naiz , ez det ucatzen . Baña , Jauna , zu cera nere erremedioa : zu ni billatzera , ta salvatzerat etorri ciñan . Ori eguztu , eta bareatu ta salva nazazu zu beti alabatzeco .

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**N**i baño pecatu guchiagorequín ífernuan cembait daude ? Eta ni vici naiz , ta cernaren esperanza . ; O misericordia andia ! ¿Cer dijoa cerutic ífernura ? Cer icusi cenduan , Jauna : nigan mésede au niri eguiñeco ? ; Cer , nere viet

gucian zu ofenditzea baicic cer eguin dēt? Zue deitu, eta nic ez erantzun. Zu golpeca nere viotzean deyez, ta ni, ateac ichi ta gortu. Ay ta cembat bider otses zu nere viotzeco atetan, ta ni beste aldera! Ta orregatic susfritu, ta berriz deitu didazu: ta batzuetan, amorez ta erregaloz; besteetan, icaraz ta bildurrez. Ta ni itsua ta gorra, ta pecatu gueyago eguiten; Beste ascori echeden ez, eta neri echeden ta dembora guevago eman didazu. ¡O bedeincatua izan dedilla betieō zure ontasuna. Esan oida, gauza ona galdu arte ezagutzen zdala. Contu eguin nai, hada besteac becela galdu naizala, eta ayec becela castigatu nazula. Ay Jauna: nizaz cer izango zan? Cerua galdu seculaco, eta cer sentituco nuen? Cer, nere burua consuelo éta esperanza gabe icusiric? Cer, su ta llama infernucoetan erretzen icusiric? Cer, demonioz alde guztitic beteta icusiric? Ay pensatzeac ere icara ematen du: cer litzaque igarotzea? Ta orain orientatie libre nagoela, ta ceruaren esperanzarequin! Aleguiñaz, ta postaca infernura ninjoala, zuc guelditu nazu Jauna! Ondatzera, eta deabruen atzaparretara, eta zac escua eman didazula; alabatuco zaitut Jauna beti, ceren zure escu bedeincatua eman, ta libratu nazazu. Jaungoicoari esquerrac: graciae eta esquerrac Jaurari milla bider.

**O nere Jauna, ta cembait-zor dizudan. Ain**

obligatua nago, non cer esan, eta cer egun  
ezdaquindan. Contentuz ta penaz deseguin nai  
nuque: contentuz - ceren aimbeste gaitze-  
tic libre nagoen: ta penaz, ceren ait esquer  
gaiztoa naizan. O nere aita guciz amorosoa;  
bada zu cera, ta aitac becela amatu nazu,  
indazu, ni zure ume ona izatea. Damu det  
Jauna, ta viotz guztitic damu det zu ofendituaz,  
eren ait ona ceran, ait aita onguille amo-  
rioza, eta esposo guztiz gozoa. Damu det or-  
regatic zure ontazuna ofendituaz, propositu fir-  
mearequin ez gueyago pecaturic eguiteco. Ni  
zure graciareguin, Jauna obeto vicico naiz.

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA:

O nere Jaungoicoa! Zu neri beguira ceundela  
nic ofenditu zaitut! Ta ez beguira nola nai, ez-  
pada neri favoreac eguiten: eta ni lortsari ga-  
be zu ofenditzen, eta zu orregatic ere, on gue-  
yago eta gueyago neri eguiten! Zu ain audi,  
eta podesa; eta ni ait billau ecereza, eta orre-  
gatic ere susritu nazu! Beste ascori vicia quen-  
du, eta infernura erortzen utzi diezu; eta ni  
ez nazu utci, eta ez bácarrie susritu egun bat-  
tean baicie, aimbeste urtean, ta ez peccatum bat-  
tean baicie, aimbeste miillatan. Nie nere pe-  
catuac beti aurrera, eta zue orduan beneficio  
gueyago! Cembait eta ni gogorrago eta etsaya-  
ren obrac eguiten, ambat zu berago deitzer,

palacatcen , eta Aitaric amoro soenaren obrac nerequin eguiten ! O ceñ itzu , gogor , eta portitza zuretzat izan naizan ! Ta zu Jauna , ceñ gozoa , eta amorezcoa neriechedeten .

Lasterca ni infernura nijoan , ta zu otsez neri . Ni beti gorra , eta zure deyai egun , aste eta urte ascoan erantzun gabe ! Ay Jauna ! Eguia esatera , badirudi , infernuratzea gatic ecin gueyago ala nic eguiten nuela , eta zuc eragozten eta guelditzen ninduzun ! Beste asco zure justuaren aserrea descargatu eta condennatu dituzu : ta ni ez ! azquenic zure amorio guztiaz : ots eguin , eta lo pisu artatic ateraz nazu , eta nere beguiac arguitu dituzu nere desdicha icusi eta zugana viurtzeco . O nere Jesus guciz gozoa ! Misericordia onezaz cer esango det ? Ni salvatzean cer cijoquizun Jauna ? Bacenduan nere bearric ? Ez egui e qui . Banana ontasun fiñic eztuena infinitoa zu cerez izan . O ! izan zaite ordu onean ! O cer gloria dezun Jauna , on guztizcoa izatean ! Izan bedi , izan bedi ordu onean : atseguien det Jauna : izan bedi eternidade guztian .

Ontasun onetan , zure graciaz daucat ceruraco nere esperanza gueia . Beste ni becela , vici ciran asco infernuco zuloetan ondatu , ta nic zure glorian zu icusteco ta cozatzeco esperanza andia daucat . Ta au izan diteque ? Enemigoen atzaparretatic lib re nagoela ! Betico vicia uste dedala ! Dembora orretako eman zadala ; eta ce-

ruan zu icusi uste zaitudala, nere Jaun guciz ona, ta guciz ederra ! O cein misericordia parregabea nerequin eguin dezun. Ea anima nerea, alaba eta glorifica ezazu ontasun au zure viotz ta deseoa ceruraño jaso ta bedeincea ta alaba zazu ontasun infinito au. Dembora onetaco eduquitzean, cer dicha dezun, ondo ezagutu ta alic ere ondoena orrezaz balia zaite. Bai Jaun ona, nere viotza zurea da, ta ez nerea : seculaco ematen dizut, zu beti servitzeo; zure vorondatea beti eguiteco zure gracia indazu.



### PECATUAREN GANEAN

### IRU COLOQUIO EDO ORACIO,

IRU GAUCETARACO.

BATA AMA VIRGIÑARI, BESTEA JESUCRISTORI,

TA AITA ETERNOARI BESTEA.

*Iru gauzac edo graciac dira : lenena, gure pecatuac ondo ezagutu eta orien eguiazco damua alcantzatzea. Bigarrena, lengo vicimodu zarra eta eragabecoa icusi, eta vici berria eta Jaunaren vorondatea beti eguiteco gracia. Irugarrena, mundocon bide galduac condenatu, eta utzi, eta vanidate gucietatic igues daguigun.*

## AMA VIRGIÑARI ORACIOA.

**J**aungoicoaren Ama , eta nere Ama Andre mai-tea. Nere pecatuac consideratu , eta icara an-diac artzen nau. Icusi , ta pensatu det Jaincoac nerequin cer ta cembait eguin duen , ta arrituric nago. Eguia da, ta icusten det, nere pensamen-tu , itz , obra eta gauza gucietan chit eragabe , chit gaizqui ibilli izan naizala. Vici modu berriq artzeo , eta mundu galdua utzi , eta nere Jain-coari jarraitzeco deseoa daucat. Nere deseo ona da , baña nere argaltasuna andia. O Virgiña Ama , eta paregabee ! Zu cera pecatari tristeen amparo , eta consueloa ! Onen eta zure chit premia andia daucat. Misericordiazco Ama cera : izan zaite nere Ama ; eta zure seme maiteagan-die nere deseo au , eta nie eguin ditudan pe-catutu gucien damu andi bat alcanza zadazu.

Ez det Andrea , mesede au nie mereci. *Ala dd.* Baña ez neri beguiratu , ezpada pecatarien Ama piadosa cerala. Beguirea zayozu arren ne-re miseria guciz andiari. Pobre eta misera-bleac cer eguingo du , ezpada aberatsen atee-tara allegatu , bere llagac aguertu , eta bere premiaz escatu. Ea bada , gucien Ama Andrea : limosna bat esqueco pobre miserable onentzat. Pobreen guisan deadarrez isilduco ez naiz. Chit aberatsa cera eta guciaren jabea : ni berriz ehit pobrea. Ea ceruko Erreguiña , limosna bat

Andrea. Pobre bear oni begui onez beguira zayozu. Pecataria naiz : cer miseria andiagorie! Baña pecatarien ama zu cera, ta izan zaite.

Acorda zaiṭe zure semeac nere premia estua icusi ta limosna andi bat eman cidala eta zan zuri esafea : *Andrea, orra zure semea.* Pecataria ni izanagatic, zure semetzat ni artzea, zure semeac nai du. Ea bada, nie ez mereci arren, zure semeari diezun amorioa gatic, ar nazazu ni. Zure semeagatic escatu ezquiero, ¿cer egungo ez dezu zuc? Bada zure semeae ni artzea nai du : eguizu au, ta zure semearen amorez, eta aren icenean eguizu. ¡O ta ceñ poeic, are aguinteen edo nai zuen guztia eguin oicenduen! Bada berac encomendatu cizun, semetzat ni iduquitzea. Eguia da ; ain gaiztoa izan naiz, non zuc utzitzea mereci dedan. Bano nola zure semea gugatic ill zan, ez arren ni utzi. Beguira, Andrea, pecatari galduae gatic arc bere odola eman, eta gurutzearen oñean zu egotea nai izan zuen zuc aren odola icusi, eta pecatariac oyei laguntzeco eneargatu eizquizun.

Ea Amari c onena, hegira zure semeari, ta gugatic esayozu lengo zure itza : *Ardoric ez dute :* éta zuc esaten badiozu, nere contu, laster ta seguru nere viotzeco epeltasunaren ura ardo guz̄iz gozo, ta indarsu biurtuko due-la, eta zure erreguz nere vici galduaren amoriozco damu andi bat, ta viciera berri santu bat, sure amparoan, eta zue naizun becela

eguiteco gracia emaingo didala. Ala izan dedilla, Amen,

### JESUCRISTO GURE JAUNARI ORACIOA.

**J**esus, nere salvadore ta amorio gucia! Nic ez mereci arren, favore bat eguin bear didazu: ta da zure merecimentu, zure penac, zure odo-la, llaga ta viotzeco amorioa nigatic Aita eternoari presentatzea. Badaquit nere Jesus ona, zuc ori eguiten badezu, nic deseatzen dedana alcanzatuco dedala. Zu cera Jauna, seme guztiz amatua, ceñean aitac bere atsegüin gucia ceuean, eta beti dauen, eta chit poie beti aditzen zaituena. ¿Cer costatzen zatzu bada Jesus nere guztia? Zu gurutcean nigatic esqueñ ta sacrificatu ciñan: -ta sacrificio ta ofrenda bat issilic deadar andiac eman cituena ceruraño, eta aitac zuc nai dezun gucia eguiteraño,

O ofrenda gueziz preciatua; lengo Abel justuaren odolac baño, deadar obeto zureac eguiten zuen; zure amorio guciaz ni aberatsago utzitzeco, eta orain zure aitari presentatzeko zure llaga idiquiac cerura eraman ciñituen. Ea bada gure paqueguille maitea; itz bat afera zazu, ta eguiña dago gucia. Zure aitac esana dauca: esca zayozula ta gure animac zure erenciatzat emango dizquitzula. O cer dicha, ta cer gure gloria; Aitac nai du zuc escatzea eta zuri emajea. Ea, erregu zayozu arren nigatic, ta ni se-

**guru zurea naiz.** Certira zu igo , eta badaquit , lurrean baño ceruan amorio guchiago ez dezula , ezpada orobat . Ta bada lurrean ni pecatari onegetic Aitari erregutu ciñion : O nere Redentore ona ! Cergatic ceruan orañ eguingo ez dezu .

Emen zure odola , eta vicitza nigatic eman cenduen , ta orañ or itz bat ateraco ezdezu ? Emen odolezco icerdiac , eta dolorezco negarrac nigatic eman ciñituen , ta pensa diteque oriñ or itz bat en mesede au eguingo ezdidazula ? Ez Jauna : ez neri orrelacoric gogoratu . Ta pecatariric galduena ni izanagatic , beragatic zure billa nator ta zugan daucat nere confianza gucia . Ea bada , nere Jesus ta jabe mai- tea , zurea ni izan bear det . Ez neri beguiratu , ezpada ni erosteco eman cenduen odolari : onegetic nere pecatuen barcacioa esca zayozu zure Aitari , eta oraindañoco nere vizitza galdu era- gabarearen damu , eta gorroto eguiazcoa eman- dizadala , eta zure amorioan viciera berri santu bat , eta zure viotzean eriotza on bat , eguiteco gracia , Amen .

## AITA ETERNOARI COLOQUIO EDO ORACIOA ,

**O**Aita eterno , nere Jaungoico guciz poderosa ! Emen nator Jauna : emen nator ni peca- tariric andiena ta zure magestade andienaren aurrean presentatzera atrevitzen naiz . Badaquit

**Jauna**, zure ontasuna, zu becela cabu' gabe, edo infinitoa dala. Onezaz valiatu nai det. Eguzi arren, ez nie mereci dedan becela, ez-pada zu cerori eran becela. Ay Jaun justua; arrigarriac, itsusia e ta chit asco dira nere culpac, ta zure contra nic eguin ditudan ofensac. Ala ezdet mereci zue neri beguiratcea; baña zure seme maiteae merecidu. Oni beguiratu ta onec nigatik egain zuenari, eman cidan itzari, eta eracutsi eidau amorioari atrevitzen naiz. **Jaun audia**, zure beguietara aguertzera ta humill humill zure mägestade aundiaren aurreanjarri, eta eseatzera.

Jesus zure seme gueiz santu, gueiz bedeincatuaren ieenenean, bada ta aren amorez, nere culpa guciien bareacio osoa escatzen dizut. Indaza, arrea Jaun gueiz ona, Jesueristoren amorioagatic, zure argui vici eraguille bat, nere igaroco viciera galduaren eragabea ondo ezagutu ta bear dedan viotzeco damu, eta propositua, eta zue nai dezun diñaco penitencia eguiatzcoa eguiteco gracia. Onequin batean, beraren ontasunagatic, indazu emendic aurrera nic beti gucion, eta guciro zure vorondate gueiz santua eguitea. Quelaco dicharie nie nerrez ez det mereci Jauna, haña zure seme arantzaz, eta iltzez josirio gurutzean dagoenari beguita zayozu. Ari beguira, eta ez neri: ta nere pecatuac andiac badira ere, are andiagoac dira aren merecimentuac. Ari beguiratu, eta zure

justiciaren aserrea bigundu ta acaba begui , ta betor nere gañera zure misericordia eta amorioa.

O Jauna ! zure semeac eman cidan itza , edo- cein ere gauza , aren icenean escatzen nizuna , zuc emango ciñidala. Badaquit aren esana zuc eguingo dezula. Orain bada , nic favore au aren icen santuan escatzen dizut : eta beardan fede , intencio , gogo eta aleguin guciaz escatu nainizuque. Zure semearen amorez eguizu Jau- na. Gracia au neri eguitea , zure semearen hon- ra da. Ta bada zuc bera nai dezu aimbeste honratu , orretaco neri mesede au eguidazu. Jesus maiteagan daucat nere esperanza guztia , ceren bera dan zure semea , zuc nigatic vialdu eta emana , nere erremedio , libertade , salva- cion ta gloria vicia : berañi gloria gucia zure- quin , ta Espiritu santuarequin , nere Jaun , ta Jaincoa , Amen.

*Coloquio edo iru oracio oyec beñ , eta berriz , eta aseotan , eta chit soseguz eguin bear dira : eta are gueyago ondo confesatzeko bat prestatzen danean , fedeaz , eta confianzaz violzeco amorio , damu , eta propositua eguiteco ,*

## ERIOTZAREN GAÑEAN.

### LENENGO CONSIDERACIOA.

O Nere Jangoicoa : eeñ gauza cierto , eta jaqui-

**Na** dan eriotza! Ta ceiñ asturic ni vici naizan! **Zuc**, Jauna, esaten didazú, eta nic daquit, len, edo guero azquenic ill bear dedala. Orregatic ere nere viotza emengo gaucetan sarturie dago, ceren utzi bear ez banitu becela beguiratcen diedan. O! ta ceiñ ichua alde onetatic viçi izan naizan! O ceiñ zoratua ill bear ez banu becela! Erremedio gabe ill bear det? Bai. Ordua etorricoda, ceñean eguna asico det, eta gauric icusico ez det; edo gaba asi, eta egunic icusico ez det? Ordua etorricoda, ceñean anima au arrancatua izangoda gorputz one-tatic, ta au ill otza, desfiguratu, ta ichusia utzico duen? Bai. O trance arrigarria! Cericara eman bear dezun! Ay ta nic ecin au quendu, escusatu, eta ez igues eguin.

Certaco, bada nere viotza josi nai det gaur, biar utzi bear ditudan gaucetan? Certaco, orren laster utzi bear ditudan ondazunac eta interesac gatic galdu nai det? Emengó honra eta estimacioae gatic neri cerzat? Naiz ondo, naiz gaizqui nigatic diotela: cerzat? Bada ill bear det, eta guizonen esanac erio tristetic libratuco ez naute. Certaco oriei ondo iristeagatic necatu, bada orien itzac eriotzan ecer baliatuco etzaizquit. O dana dan becela, nore leuquean! O pisu justuan gucia pissetzen baguen du! O gauza guciac bear becela, nore estima litzaquean! Cerucoac, ce rucoac becela, eta lurrecoac lurrecoac becela!

Guezurrezcoac guezurrac becela, ta eguiaz-coac eguiac becela. Ah! Orain puntu onetan erioac anima ateratzen balit, cer esango nuque munduco honra, ta ondasun, nere viotza lotu eta iduqui, edo arrastatu zutenac gatic.

O ceñ burlatua arquituco nintzaquean! Onola nere eroqueria cond natuco nuquean! Noiz artean bada, noiz artean, vanidadea billatuco det? Noiz juicioan sartuko naiz? Noiz oñ azpian honra, ta guezurrezco esanac utzico ditut? Cer? Ta honra pusca laño bategatic eternidade guciraco nere anima galdu bear det? Quea pusca bategatic ni orrela galdu? Ta nerequico aicezco eta aiceac daraman esamesa batec gueyago pisatuco du, nere salvacioac baño? O cembait dauden infernuan orrelaco: Cer esango dute bategatic, eta guizonen estimacio char bat ez galteagatic! Neri orobat guertetuco otezat? Icussen, eta ezagutzen det, gucia vanidade eta zoraqueria dala, ori pensatzen, eta esaten det ascotan; eta acabatzen ezdet, eta ori bear becela utzitcen asi ere ez naiz: badirudi honra, eta estimacio ero ori nerequin bat eguin, ezurretaraño, eta viotzaren erdiraño sarturic dagoela.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

O nere Jaun soberanoa! Cer da au? Ill bear ezbanu becela vici naiz. Noiz artean lò pisu

ōnec iraungodu? O desdicha , eta ay nere desdichadua! munduaren esamesen Jainco guezurti au noiz lurrera , eta oñpera botacodet? Noiz milla pusca eguingo det? Ay Jauna , nic ecer balio ez det : chit argaI , eta naguia naiz ! Zugana nere beguiac jasotzen ditut : lagun zadazu , galdu ez nadin. Nere Jesus ona , zure piedadezco begui oriec biurtu itzatzu nigana , ta zu ceranagatic , ez arren permiti , aicezco honra orrec bere ondoren ni eramatea. Bada zuc zure Aita eternoaren gustoa bacarric billatu cenduen eta gendeen esanac ecertan iduqui etzin-duen : eta orregatic deshonran lapur biren erdian gurutzean iltzera etorri ciñan : arren , honraren vanidade beltz orain daño arrasfatu nauen au , nic eguiaz arrastatzeco indazu indar , eta bear dedan graciā.

Ay Jauna , poderosoa cera , ta zure bear naiz. Armatu fuerte au viotzeco gaztelutic ateratze-ko zure beso fuerteagoaren indarra bearda. Ea lagun zadazu Jauna , eta zurequin batean etsai onen contra eriotzaraño nic peleatuco det. Aice utsa ta vanidadea da honra eta estimasio gucia. Nere eriotzaco tranceaz acordatuco naiz beti , eta orrequin quea becela honra ori deseguingo da. Ta baldin azquenic nere gorputz au ere lurrac jateco utzi bear badet , cer zoraqueria da , au servitzen , eta erregalatzen , nere vicia igarotcea , eta are gueyago nere anima galtzeco peligroan? Araguia servitzen vici bacerate , illeoce-

rate , dio San Pabloc : baña espirituco indarrac araguiaren obra , eta erresabioac sugetatzen badiuzute , vicico cerate . edo araguia servitu , eta betico ill bear det , edo araguia mortificatu , eta betico vici bear det . Bietatic bat segu-ru izango da .

Araguiaren gustoac chit laburrae ta dem-bora guchico dira . Ta orren dembora guchico atseguiñ itsusi bategatik betico n̄ic galdu naiko det ? Non da juitioa ? Ta nere vician n̄ic cer eguin det ? Araguia servitu , eta nere anima galdu . Baña ay ene ! Ay ! Orain ere ori ser-vitzen , eta erregalatzen det ! Animo , bada , eta fuerza : ceruco erreinoac fuerza nai du , eta fuerza eguiten dutenak daramate . Ea , ne-re anima , gorputz oni fuertza eguiozu , bada laster utzi bear dezu . Beguira , dembora guchi ñezu : fuerza eguiozu . Beguira , infernura zara-mazqui , fuerza eguiozu . Beguira , ceruco gloria dijoaquizu , fuerza eguiozu O nere Jauna , zu ce-ranagatik indarra indazu , orrequin n̄ic emendi aurrera guerra vieia nere araguiari , eta onen griñā gaiztoai eguingo diet . Ezagutzen det bai , nere etsaya dala eta onen adisquidetasuna falsia dala . Baña , Jauna , gauzaric dan erracena zu gabe ecin badet : gaitzic andien onelan cer eguingo det ? Befor bada zure gloria , zue nai dezuna n̄ic beti eguiteco , Amen .

## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**I**ll bearra cierto da , eta badaquit : Noiz, non, eta nola ezdaquit. Consideracio au iracurrico dedan ezdaquit. Gaztetan , ala zartu ezquero , gauaz ala egunaz eriotzac arrapatuco nauen ezdaquit. Nic daquidana da ergai edo momentu bat cierto ezdedala. Jesucristoren eguaia ta jaquintasunac berac esaten dit, beguira nagoela , ceren eriotzaren egun, eta orduric ezdaquidan : lapurren guisa, guchien uste danean , ta bat lotan edo ardura gabe dagoenean etorri oidala. Eguia au aditu ta nor icaratzen ezta ? Ta nor ajola gabe egon diteque ? Ay ! Ta nola nago ni prestatu gabe ? Nola nere eriotzaco ordua baniequi , ta eerua-escuetan baneuca becela ?

**G**auza izugarria ! ¿Onela eriotzac orain baño len artu banindu , asco gazteago artu dituen becela , nizaz cer izango zan ? Ta nere peccatum artean artzen banatu, nizaz cer izango da ? Cembait bider jolasean , ta farrez , peccatum beterie egon naiz ? Eta lo eguiten det soseguz , alacorie ez balitz becela ? Jaungoicoa nere contra asarreturic , eta ni farrez , eta ni lotan ? Jaungoicoa bere ezpata maguitic ateraric , ya neri golpea emateco , ta ni añ ajola gabe ? Ya infernuan ondatzeco zorian ni , eta demonioac neri bultzaca , eta ni orren ajolagabe , Jauna , zure golpea descargatu bacendu ? cer

izango zan? ¡O nola infernuetan seculaco erretzen egongo nintzan!

Ta misericordia onegatic cer zor dizut? Cer costatzen citzatzun, colpea eman ta ni zure etsai au castigatzea? Baña ay! Ez castigatu, baicican deitu, avisatu, eta zue erregalatu nazu? O bedeincatua betico izan zaiteala! Zure ontasun andia ezagutzen, ta aleguin guciaz alabatzen det. Chit obligatua nago, eta cer esan ezdaquit Jauna: bada ez beñ, baicic ascotan echeden izan didazu. O misericordia esan al baño andiagoa! Eta orain, Jauna, cer naizu nigan dic? Jaquiña da, ta badaquit, nere Jabe maitea. Nere animaz ondo beguiratu, eta iltzeco becela bici nadilla. ¡O eta cein gauza justua aguintzen dezun, eta onetan cembait dijoquidan zure esana eguin eta obeto vicitzean!

Bada orrela Jauna, eta eriotzaren golpea beguiz daucazuna becela vieico naiz: beti ordu orren zai egongo naiz, eta lotan ere bildur ori violezan iduquico det. Ta bada, zure piedadeac dembora emandit, penitencia, eta damuz baliatu nai det. Viciera zar galduco contuetan sar gaitean Jauna, ta vici berri bat zurequin batean asi dezadan. Nere gustoen contra beti peleatu, ta eriotza on bat billatu, eta ehogongo det. Orain bereala iltzeco becela vieico naiz. O au eguiten banu! O cer dicha, eta munduko gaucetatic nere viopta deseguiteco non la lagunduko litzaquean! O eta gaurco eguncian

oriec utzi , eta ill bear banu becela vici banintz! Au eguin dezadan Jauna , eta orain artean becein itsu ez nadin izan , Amén.

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

Eriotzaco ordua cierto edo jaquiña ezbadaere, badaquit nere viciaren dembora laburra dala : Laroguei urte gueyenaz izan diteque. Baña epe luceagoac arditzagun. Demagun milla urte bi ci nadilla : orrèmbeste iñor vici izan ezta. Edo nai badezu , bi milla urte. Dana dala , azqueneco egunean nere burua icusi nai det. Gue roenean au etorrico da : eta contu ori eguin , ta orretan pentsatzea , chit ondo da. Eriotzaco gaitzac ematen dit. Ali ! Ta norc daqui , bat batean illico naizan ? Ay , ta nor onezaz iearatzen ez da ? Beintzat eztaquit , cer gaitz nere atzenecoa izango dan , eta ez noiz , ta nola. Ez daquit modorra , bereala juicioa qaenduco didan bat , izango dan , edo itoric , edo ezpataz asco becela josiric izango dan. Bein ez : gucia nai becela izan bedi.

Izan bedi bi milla u teco vicitza , ta orietan nai adiña ta gueyago honra eta hacienda , gusto , eta atseguiñac : itz batean munduan deseal ditequean gucia cumplitu , ta betea dedala : eta ori gucia aleric pena eta quezca gabe. Bi milla urteac igaro , eta ill bear eta atzeneco gaitzac ematen dit , neregan ta juicio osoan be-

ti nágoela. Démbara nola dijoan nere eriotzaco ordua badator, eta eguiñ contu, orainchen dala. O cein indar gabe, eta quemenie ezdedala arquituco naicen! beguiac ondatturié, ecer ez daquidala: ya oñae oztu eta anima falta zait: oñaceaz, ta viotzeco naigabeac estrutu, ta eriotzaco icerdi otzat ematen dit. Echeçoac badatoz, eta arpegui erori tristean, eta beguietaeo illuntasunean badaquite, bereala ill bear dedala.

Laster, laster, diote: Oleácioa eman bequio. Badator presaca Jaincoaren Ministro Sacerdotea: Olio santuarequin beguietan ematen dit, asanaz: *Uncio Santu onegatic, eta bere misericordia chit piadosoagatic, beguiaz equindaco pecatuac Jaincoac barca dizaiquitza*. Eta onela beste sentiduetan: Amen, drote guiciac, eta nic ere albadet esango det: Amen. Iltzecoen letania asitzen dā, ta guiciæ diote: *Ora pro eo: Orate pro eo*. Säntuaç nígatié erregu dezatela: eta albadet niç ere esango det. Bularra estutu ta anditzen zat, ta asnaseric ya eciñ artu det. Santo cristoà eta candela escuétan eman eti niç eciñ iduquí, ta bestec lagundi bear. Oñaçeac, icarac itonayac ematen didate. Medicuac dio pulsuric ez dátucadala: ta icusten det nereac eguiñ duela, bereala iltzen naizala:

Trance estu onetan gogoratzenzat: gaur, ta oraiñ Jaincoaren tribunalean águertu bear det, gaur, oraiñ nere siciaren contu eman bearra det: ta beticor salvacio, edo condenacioa-

ren sentencia, erremedio gabé artu bear det. Ay ene, ay Jauna ! Nere igaroco vicitzaz orduan cer sentituco det? cer nerę gusto, honra, ta vanidadeaz? Icusico det oyen zale, ta billa ibilli nintzala, eta oyec guerra vicia eguiten didatela. Ay, certan vicitza igaro det? Ta igaro guctic orañ cer daucat nic? ecer ez: beintzat gustoric baterez. Penac, eta latzac, eta garratzac: eta gorputzecoac aiñ andiac dirala, animaco oyec ascoz ere andiagoac dira. Vicitzan atera dedan irabacia da, onela erreben-tatzen iltzea. Ta ez ori nola nai, ezpada ill, eta nere anima eternidade gucico tormentuetara condenatzea. ; Ay irabaeia! ; Ay caltea!

Cer da au? Nere Juicioa non zan? Oneta-co vicitza ain lucea Jaungoicoac eman cidan? Eta nic au nai ta-billatu izan det? Īembait bider avisatua izan naiz, eta belarriac ichi di-tu? Nere viotzean issil mandatu, edo bere ins-piracioac Jaincoac eman eta nic berariaz oriec aztu, ta casoric eguin ez? Cer? puntu onetan icusico nintzala ez nequien? Bai. Ay cer lan-cea jocatu dedan! A eguin laburrac gatic be-tico tormentuac: honren quea gatic betico de-sonrac! Ta betico suac nola eramango ditut nic? Nola au beguiratu ez nuen: edo nola ichutu nitzan? Erioa becejaco gauza izugar-riac, icara ematen etzidan? Su gar beticoac bildurra sartzen etzidaten? Ascotan iracurri, enzuc, eta aditu edo pensatu n uen: ascotan ne-

re oneraco Jaincoac esan cidan. Baña nic farra eta burla eguiten nuen. Bada orain nic cer eguingo det? Ay nere Jaincoa! Au cer da?

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

Ea, trance estu onetan alde gucietara begiratu, eta cer erremedio dedan ieusi nai det. Anima nerrea: goya eta bea, alde bata ta bestea, igaro dana ta etorquizuna, orain danarequin, ondo beguira dezagun. Ay, ta cer ispillo triste ez icusteco obeac! Alde guztietatic nequea, eta alde gucietatic naigabea! Gora beguiratzen badet, icusten det Jaincoaren aserrea, eta onen ezpata maguitic ateraric, nere gañean, eta golpea emateco zorian. Jaungoico guztia nere contra dagoela icusten det: eta gueziz justua becela, arrazoi andiarequin, egun diozcadan ofensa itsusiac gatik, arenontasun, piedade, eta aimbeste beneficio, nola egun dizquidau, nic ecertan iduqui gabe.

Bera beguiratzen badet, leizondo edo zulo andi illun bat, su ta gar iearagarriz betea nere beguira dagocla, icusten det, ta an asco deabru asarre, beren atzaparraquin nere eraso, eta nere zoraquerien pagua emateco. Ezquerretara beguiratzen badet, aimbeste demonio asco, trance onetan estutcen, eta icaratzen nauatenak daude, eta diote, gaizqui bici izan zana, ezdala arrazoi, ondo iltzea, eta anima gorpu-

tzetic atera orduco, prest daudela berequin  
infenura eramateco. Escuietara giratzen ba-  
naiz, Ainguero Santu, Jaincoaren mandatariac  
an daude. Baña Jaincoac oyezaz bialdu cizqui-  
dan mandatu, edo inspiracioaz n̄ie casoric e-  
guin ez det.

Igaroco nere vicitzara beguiratzen badet,  
dana gucia pecatuz, ta Jaincoaren ofensa, ta  
aserrez betea icusten det: nere gustoac acabatu,  
eta tormentu biurtu dirala. Ordu presente oni  
beguiratzen badiot, bereala iltzen naizala da-  
quit, eta munduan gueyen nai nituen gauzac,  
adisquide, eta haciendac ecer baliatzen ez di-  
dateļa. Aurrera, edo etorquizunari beguiratzen  
badiot, cogtu estua, eta eternidade guztia ne-  
re begujra daucat, eta daquit, ecin atzera biur-  
tu, eta ecin orrela ere nagoqueala. Ay cer  
estura ta cer ansiac! Ay cer eriotzaren miñae,  
eta cer infernuaren bildurraç!

Orain galde nai dizut: anima nerea, nola  
vici izan naico cenduque? Cer penitenciac e-  
guin izan? Nola Jaincoaren gauzai beguiratu  
izan? Chiquitic andira zure pensamentu, itz,  
ta obretan nolacoa izan? Bada orain eguizu  
orduan naico dezuna. Ea bada: bijoaz nigan-  
dic; ta bijoaz ordū gaiztoan lurreco deseоac,  
eta petoz cerucoac. Quen ortic honra ta vani-  
dade, ta torpeza itsusien deseоac: quen ha-  
ciendaren deseо eragabeac: eta oyen lecuan  
betoz, nere anima, Jaincoaren deseоac. Mun-

duac nai duena esan beza : naiz santua , naiz zoroa naizala. Mundua , eta mundukoac nere-tzat ill bite : eta eriotzaco orduan naico dedan gucia eguiten asi nadin. O eta erioaren ispi-lu triste onetan ondo beguiratzea , ceñ gauza andia dan ! Ta azquenic onetan icusico ez naiz? Nere eguitectoa au ezta ? Bada cer eguiten det? O nere Jauna ! Indazu arren onetako zure gracia , ez itz bat , ez pensamentu , eta ez gauza chiqui , eta andiric eguitecto nic , ezpa-da orduan naico dedana , ta orduan naico dedan intencio , ta zuc nai dezun voronda-teaz , Amen.

## SEIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**stura onetan , bi milla urten cabuan , ta alde gucitic antsiaz beteric nere burua illtceco zo-rian icusi , eta beguirada berri bat obeto eman naidet trance onen gañean. Ay ! Pensatzeac icara ematen du : pasatzeac cer egui-ngo du ? Orduan , bada , mic cer sentituco det? Orain añ erraz galtzen ditudan ordu oyetatic bategatic cer emango nuque orduan ; baña Jain-coac dembora eman didan ezquero ondo da , erioarequin burruca berriro nere burua icus-tea. Onetan cordea galtzen det. Credo credoa , sinistendet , diote guciac. Esaten asitzen dira ; baña nic ecin esan. Viotza lutoz betetzen zait,

ta sentitzen det, anima gorputzetic deseguin, eta badijoala.

Anima ortzetan daucat, eta aleguiñaz, nere viciaren atzeneco gauza becela, neque andi artan credoa esatera animatzen ta sáiatzen naiz. Ay anima tristea, zuzaz cer izango da? Batetic aingueruac, bestetic, deabruac daude. Ay ceñena izango otecera? Ta onetan ieusi bear naiz? Ah nere Jaun piadosoa. De dan dembora onetan, uztazu negar daguidan, O norc viotzeco deadarric andienac, igaroco vicitzaren negarretan eman litzaquean! Ta bada puntu artan lecurie izango ez det, oraiñ au soseguz artu bear det. Credoa asi, eta acabatu eciñe, atzeneco iru asnaseetatic bat estu estu eman det. Ay pecatari tristea, ta galdua, Jaincoari aimbeste falsia eguin, eta aren etsai cerana!

Are-estuago bigarren asnasea jartzen det, eta eguin contu, puntu artan bertan, arrazoyaren uso ezquero vici gucian eguin izan dedan ona, ta gaitza beguietan jartzen zadala. Ay ceñ contu, eta arrazoi gabe vici izan naicen, ta ceiñ estua artu bear zadan! Azqueneco asnasea ematen asitzen naiz. ¡O puntu! ¡O instante! ¡O momentua! ¡O demboraren ergaya mereci edo desmereciaren acaballa! O! onetan anima ateratzen zait! O momentua, cincillic eternidadea daucana! O momentu, eternidade guz̄tia ondoren dacarrena! Ay! Ay! Jesus milla

bider. Puntu artan nola arquituco naiz! Justua oza-  
ta salvatzen bada : pecatari onezaz cer izagoda.

Au icusiagatic ere badirudi , calloac eguiñeta  
nagoala , onelaco consideracio dan fuerteanac ere  
neri mellaric ez eguiteco. Nor au icusi, eta ondo  
vicitzera, erretiratzen ezta? Nor ondo iltzecopres-  
tatzen beti egongo eta jarrico ezta? Nori onec fu-  
erza eguingo ezdio? Bada neri nola eguiten ez dit?  
Nola illa bezela bertatic vici eznaiz? Ea bada, beñ  
edo beñ, nere eroqueriac acaba bitez: nere trazac,  
nere andinai, jaquin nai, estimacio , gusto eta  
erregaloen deseooac , beste vanidadeaquin beude  
betico. Nere Jaincoa , ta onen vorondate santua  
nai det, ta ez besteric. Ill bedi beste gucia ,  
eta ni beste guciarentzat ill nadin. Jaungoicoa  
bacarric nere viotzean beti vici dedin , Amen.

#### AMA VIRGIÑARI COLOQUIOA.

**A**NDRE gucien artean bedeincatua , eta gure Jaincoaren Virgiña Ama maitea. Nere anima ,  
eta gorputzarequin aurrera pasatu baño len ,  
nere atzeneco trance au zuri encommendatu nai  
dizut. Munduko ichaso naztu onetan , zu Añ  
izar ederra cera : nere ecaitz eta peligroric an-  
dien onetan , arren zucendu nazazu. Esperanza  
eta consolacio gueiaren Ama , ordu estu onetan  
penaz eta antsiaz itotzen dagoen oni atseden ,  
eta consueloa emayo zu. Nere etsayac , dem-  
bora acabatzen zayela icusi , eta perseguitu ,

juicioa galerazo , eta beraquin ondatu naico naute : arren ordu artan zuc lagundu , eta libra nazazu.

Ama guciz santa , eta piadosa : izan zaite orrela neretzat. Bertatic orduraco nere anima ematen , eta viotz guciaz , fede , eta esperanza osoaz encomendantzen dizut. Zuc zure amparroan artzen banazu , seguru nago. Ea , bada ni pecataria , zure mantupean arnazazu. Nere pecatu andiaz azturic , eriotza on bat segura zadazu. Dícharic andien au Jesus zure Seme , San José zure Esposo , ta San Joaquin eta Sta. Ana zure guraso maiteac gatic escatzen dizut , graciaquin zu alabatzeco glorian , Amen.

## DEMBORAREN ĢAÑEAN CONSIDERACIOA.

**I**ll , eta gorputz , eta animari beguiratu baño len , demboraren laburtasuna , eta merecitzeko dembora nola acabatzen -dan icusi nai det. O eta cein laburra dan ! Atzeneco asnasea eman , eta ya demboraric ezta. Ah ! Lencheago bazan ! Ta onetan cincillica eternidade guztia dagoela ! Ta dembora ori nola nic aprovechatu bear nuquean ? O cembait dembora galdu izan , eta galtsen dedan ! cein guchi estimatzen dedan ! Escua emango balitzat , dembora pusca batean nai dedan adiñaurre artzeo : ; Ah nola puntu-

ríc galdu gabe , demboraz baliatuco nitza-  
quean , eta are gueyago , laburra izan , eta ezba-  
nequi noiz acabatuco zan ! Ta cer ? Demborac  
guchiago balio duurreac , ta ondasunac baño ?  
badaquizu cer balio duen ?

Zure animari galde , eriotzaco ordu estuan  
icusten dñanean , munduko ondasun guciac baño ,  
ordu laurden bat gueyago estimatuco luquean ?  
Guchiagoan irabaci , edo galdu liteque cerua .  
O cer ansiaquin dembora precioso onen pun-  
tucho bat ere ez galtzeco , nic ibilli bear nu-  
quean ! Eguargua degun artean , Jesucristoc  
dion becela , gabiltzan gueroco gau illúnac ar-  
guitzen baño lenago . Dembora momentu ba-  
car bat galtzen badet , eternidade guztirako ori  
galdua det . Eguia da , dembora galduaz , edo  
nere culpaz damu izan dezaquet ; baña beñic  
beiñ , demora galdua , galdua betico gueratzen  
da : orrez ecín balia diteque . Igaroco dembora  
igaro zan : etorquizuna eztago nere escuan .  
Orañgo instante au det nerea . O nere Jaun an-  
dia , cer eguingo det ? Nere igaroco desdicha ,  
eta culpa barca zadazu ; eta oraingo demboraz  
zurē eternidadeco gloria irabazten lagun zadazu ,



# GORPUTZ ILLAREN GAÑEAN.

## LENENGO CONSIDERACIOA.

E guia da , animac gorputzetic irten , eta bereala Jaincoari contu ematera joan bear duela. Alaere soseguz au artu nai det , eta nere modura beguiratu. Contu daguidan , bada ill eta bereala gorputzarequin cer pasatzen dan , eta ori enterratu arteraño , anima beguira paratzan dala. Icisten du nolacoa , ceñ ichuragabe , ichusi , ori , illun , ta ill otza gueratzen dan. An daudenac , beguiac ichi , besoac compendu , eta ill jancia ecartzen didate. Batzuec eta besteac ni icustera sartu , eta laster dijoaz nigandic iguesi , ceren ni icusiac icara gogorra ematen dien : ta presa andia prestatzeco , eta lembait len enterratzeco eramatene dute.

Onetan ill campayac asitzen dira. Batac ta besteac galdetzen du. Nor ill da? Urlia. Jaincoac contu on ardiozala : eta bereala aztu , eta beren eguitecoetara dijoaz. Ill jancia artu , ta ni ez icusteagatic beguiac beste aldera biurtzen dituzte. Beso bata batera , besteak bestera , eta burua bere aldera erortzen zat. Gueroeneac ill jancian sartzen naute. Ah tristea , munduko ondasunetatic cein guchi daramazun obira ! Echeandan erroparic zatarrena ; eta onena

sanitz ere laster zurequin ustelduko da. O ceñ guchi baliatuco zaizquitzun aide ta adisquideen negarrac !

Gorputz ori noren escuetan ibillico dan eta norc eleizara eramango duen ez daquizu. An zulo andia prestaturic] egongo da , eta Meza esan , ta bereala an sartuco zaituzte , ta zure gañean lenagoeoen ezurrac , eta lur ustelac botaco dituzte : nola nai calcatu , eta zapalduco zaituzte : eta losa gañean bota ta alacoric ezbalitz becela , guciac dijoaz jatera , edatera , eta galanqui farra eguitera. O eta zu ceiñ bacaric ondatu , eta bético azturic gueratzen ceran.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**men , nere anima , estacio bat daguigun : beguira zure gorputza lurpean , eta nolacoa guelditzen dan. O gorputz galdua ! zu cera nic aimbeste erregalatu , janci , eta apaintzen cindudana ? Zugatic nere Jaincoaz , eta animaren salvacioaz azturic vici nintzan ? O nola ceunden , eta nola zauden ! Lengo janari gozo , eta erregaloac non dira ? Soñecoac , eta galac non dira ? Joyac , ondasunac , eta gorputza servitzeco biribillaturicaco beste gauzac non dira ? Gu ciac eguiten cizuten ereverencia , zure honra : puntu , eta orien deseoa vanuac non dira ? O aice utsa ?

O nere Jauna : efoqueria oriec oñ pean utzi

( 94 )

eta arren indazu gracia , zuri bacarric laztan  
estu estu bat emateco ! Ay ! Ta gauza orren char  
ecerezac zugandie ni aparta nazatela ! Gorputz  
abereaquin bat , ta oriec baño loyago dan one-  
gatic Jaungoicoa nic utzi dezadala ! Cer gauza al  
tuago , eta obeagoric , Jaincoa baño ? O cer zo-  
raqueria nerea ! Ez arren Jauna , orrelacoric  
permititu gueyago. Ay cer ofensa eguin dizu-  
dan ! Orren gauza atsa , eña itsicia zu baño  
gueyago estimatu det ? Nere gorputza cerda ?  
auts pusca bat. Bada autsa becela tratatu bear  
det. Ta nola ill ezquero calcatuaz quejatzen  
ezdan , aña nic ere , illa becela qujatu bear ez-  
det. Oñpean guciac eduqui nazatela : ori dago-  
quio gorputz oni.

Betor Jauna , zure arguia , ondo icusfeco  
oguei edo berroguei urte igaro , eta nere gorputz  
au nolacoa egongo dan. Emen buru ezurra ,  
an bezte ezur utsac. Ay cein aztua ! Berreun  
urte igaro eta cer izango da ? Ta orain honra-  
gatic cer dioten , nigatic cer senti duten begui-  
ratzen det. Ay nere desdicha ! Ay cein ichua  
ibilli naizan ! Oñ azpian emendic arrera gor-  
putz au , eta vanidade guztia eduquico det.  
Gorputz illari , auts ustelari becela beguiratuco  
diot. Lagun zadazu Jauna , zuretzat , bacarric  
vici nai det.



# BACOITZAREN JUICIO, EDO PARTICULARAREN GAÑEAN.

## LENDABICICO CONSIDERACIOA.

**I**ll ezquero, zure gorputz ori arrac jateac, ecer esan nai eztu. Animān dago contua. Gorputza usteltzen utzi, eta orain sozeguz, gure erara, animari jarrai diozagun. Goacen bada, nore anima Jaincoari contu ematera: baña Jainco bati ceñaren Justicia ondo gabea dan: Jainco guciaren berri daquien bati. Ah eta ceñ urru-ti dauden guizonen juicioac Jaunaren juicioe-tatic! Ah! Ez campotic dirudienaz, ezpada bar-rundiç eguiaz danaz, arc juzeatzen du. Ay, Jauna: nola contu au emango det? Nola irten-ge ote naiz? Eternidade gucia dijoa onetan, eta secula gucietaco cerua, edo infernua. O! O! cer itsua!

Orain cer<sub>2</sub> izango dezun jaquin bear dezu. Ta contuetan alcantzatzen banaute, nizaz cer izango da? Cer contu det: ta Jaincoaren juicio onetan gauzac nola dijoaz? Ay ta ori norc esan-go dit? Juicio onen tela icusi duten batzue-quín contu eguin nai det, an cer igarotzen dan nic icusteco. Contu daguidan, bada, arguita-su eder bat icusten dedala, eta Ainguera chit

**eder asco :** oyen erdian anima bat, emen mudiuan chit aztu, eta guizonen artean chit utziricaco pobrecho batena: onec coroa guciz eder bat daramala, eta musica chit asco suavearequin Ainguerauc cantatzen diotela modu onetan: Negu triste euriz, eta nequez betea zuretzat igaro zan, eta udaberri gozo beticoa etorrico da. Ea anima fiel zorionecoa, aleguera zaite, eta zure Jaunaren atseguiñetan sar zaite. **O cein berri onac! O cein suerte dichosoa!** O neque ondo eramanac! Suerte orregatic cer eguingo eznuque nic? Orren truquean, munduko neque, eta penac cer dira? Religio batean cocinari, ontci garbitzalle humillena izatea penitenciaric arrigarrienac eta arrastacaco vicitza bat eguitea Coroa ori irabazteagatic cer da? Ecer ez. **O Aita, Ama, aide,** eta adisquideac, honra eta haciendac utzi, eta nere buru, edo vorondatea autsi ta ucatzea, dicha ori alcanatzatzea gatic cer da? ecer ez.

Aurrerago noala, icustendet que izugarrizko odoi illun bat, eta adia dolorezko deadar triste batzuec aditzen ditut: onetan demonio icaragarri batzuec beren erdian, dacarte itsatsiric guizon estimatu, aberats, jaquinsu bat, deadarrez diotela: Ea, vitoria, vitoria; guereaz irten guera: betor, botor, infernura betor. **O!** desdichaduac cer esango du? Ay ene! Ay ene galdua! infernuco cateaquín erremedio gábe nago! **O cer icara** nic artu bear det, orrembeste *reportante*.

**eo otezadan! Ta igaroco bere vicitzaz cer esango du orduan? O cer gorrotoa, honra , eta gustoen contra artuco duen ! O cer aserre vici infernucoac artu , eta eciñ asperturic arrabiaz madaricatzen asico dan.**

Madaricatuæ esango du , madaricatuæ ~~izan~~ dedilla nic jan nuen oguia , ta edan nuen ura : Madaricatuæ ni sortu ninduen aita , eta jayo ninduen ama : Madaricatuæc nere gustoac , nere honra , hacienda , eta jaquintasuna : Madaricatuæ izan nadilla ni beti , ta betico. Madaricatuæ izan dedilla Jaincoa, eta arequin dauden guciac. Galdua eta condenatua naiz. Onetan icusten det , nola deabruac suz , eta garrezco atzaparraquin infernuaren ondarrera daramaten. Ah ! Puntu onetan mundura viurtzen azten validate ! Cer egüingo nuque ? Baña cer eguingo eznuque ? Orañ ezta dembora ! Contu ematera goacen . O dembora , dembora ! O dembora gaizqui estimatua , eta gaizquiago igaroa. O dembora mundo ondasun guciac baño preciosoagoa.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**N**ere modua contu daguidan , bada , Jaincoaren Tribunalean sartzen naizala , ta jarlecu guciz eder batean Jesu cristo eseriric icusten dedala , ta aren aldean Amá Virgiña chit santa , eta Ainguero asco. Beste aldetik chit demonio asco ; nere vicitzaco liburua dacartenac : ta chit

contentu , aucia claroa , ta sentencia berena dutenac becela Jaunaren Magestade aundia-ren aurrean presentatzen naute , onec nic eguin dedan guztia daqui , ta nere pausoac , ta pensamentu , itz eta obra guciae contuan dauzca . Aingueraue alduten erreverencia guciarequin auspez aren Magestadea adoratu , ta cantatzen diote : *Santu , Santu , Santua* , ejercituen Jauna : zurea da poderioa ta gloria : zure vorondate guciz poderosoari resisti diozaqueanic ezta . Ta gucia isildu ta.....

Bereala gure Jauna asitzenda , ta esaten dit : Nic vieia eman , eta gorde zaitut . Nic memoria , entendimentu eta vorondatea beste doai ascorequin eman dizut . Nic pecatuaz zu galdu etzin-decen , zugatic guizon eguin , eta negar eguin nuen , gose , egarri , pobrezà . ta nequeac artu nituen : zugatic azotatua , coronatua ta lapur biren erdian gurutzean josia izan nintzan . Nic annere odola , eta vicia eman nuen . Cernic zugatic eguin alnezaquean eta egui eztet ? Aimbeste urtean echeden , eta sufritu zaitut , misericordia , misericordiaren gañean eguin , eta ceruarequin convidatuaz . Orain bada , zuc esazu ta nic eman dizudanaz contu emazu : zugatic eman nuen odolaz contu indazu . Nere amorioari , aimbeste beneficio espiritual , ta demboral , nic eguin dizquitzudanac , nola pagatu dituzun , eta nola erantzun didazun orain ieusi dezagun .

Ay ! Ay Jauna ! Nere concienciac cer sentitu-

eo du? Ay , ta cein alcantzatua contuetan arquituco naizan! Cer eguingo det? Cer erantzungo det? Cer esango det? Onetan demonioac escua artu , ta esaten didate: gurea da , gurea da , ta argatic Juez justua, entrega zaguzu. Liburuac idiqui : ta itz alpercho bateraño , eguin dedan gucia contatzen dute: Onelaco egunetan Jauna, ta onelaco lecutan alaco pecatu eguin zuen : onelaco egun , ta onelaco bazterrean alaco pecatu : orren Jaincoa sabela zan: orren idoloa honra zan. Gauza onen bat eguiten bazuen guizonen esanagatic, edo ondo iristeagatic zan. Certan dudatu eztago. Zure beneficioai ofensaquin eranzun die: bere pecatuaquin onec gurutzean josi cinduen. Ascotan zu onen violzeco ateetan deyez, eta idiqui bearrean , ateaz arpeguian eman cizun. Zure aviso , eta inspiracioai casoric ez eta ascotan ondo cequizula pecatuaz cerua galdu , eta gure esclavo villau gueratzen zala , orregatic ere seculaco galdu nai zuen. Bada berac nai zuen , berac paga dezala : bere mereci duen pagua arbeza.

- Juez justua nigana biurtzen da, eta descargua eman dezadala aguienteen dit. Nere Aingueruaga biurzen naiz, eta icara andiaz, nere viciaren procesoa iracurri dezala escatzen diot. Aingueru Santuac nere obra guciac, charro bat ur pobrecho bati emaneraño, ecer utei gabe diranac contatcen ditu; penitenciac eta beste virtuteac ere bai. Baña demonioac burla eguiten

dute, eta oriec Jaincoaren icenean, bear zan intencio, ta viotz onaz etzirala munduagati bai-cic. ¡ O cembait obra munduarequico onac, an utsac arquituco diran! Lotsatu, arritu, eta cer esan ezdaquidala guerateen naiz, ceren Jaincoa-gatic ecer eguin ezdeman. Emen Juezac nere sentencia artzeco, beguira nagoela aguintzen dit, edo ala contu eguingo det.

## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**A**y ! Cer izango da zuzaz, Juezaren Tribunaleko ateetan sentencia echedeten zaudenean? Ay eta sentencia jerremedio gabe beticoa ! O cer beltz zu-riac, cer icerdilicac, cer bildur, ta naigabeac sentituco dituzun ! Sálvatuco oteceran, edo ez. Emen nic galde nai dizut : cer eguin izan naico cenduen? Cervici modu artu izan naico cenduen? Vicitza naguiaz, edo guehi eguiñaz, ala gauza gucietan altzan ondoena eguiñaz contentuago izango ciñan? Ta estura onetan zaudela mun-dura viurtzeco lecua emango balizate, ¿cer eguingo cenduque? ¿Cer artu, eta cer utzico cenduque? Zure pensamentu, i.z., eta obrae no-la ordenatuco cinduque? Nola ésaminiñatuco cenduque? Lengoen penitencia nola eguingo cen-duque ? Ah ! Cein viotzetic Jaungoicoari esan-go ciñoquean !

Jauna, penitencia eguiteco lecua indazu : po-cie, eta nere aleguin guciaz, vicitza icusgarri,

eta ieusi eztan becelaco bat nic eguingo dēt. Oraiñ bada, contuetara. Zuc infernua mereci cenduela, Jaincoac dembora au eman dizu: bada orduan esan, eta eguingo cenduqueana, cergatic orain bereala eguingo ezdezu? Orduan juzgatu, ta gogotic artuco cenduqueana, oraingo zure obra, gogo, ta intencioen errengla cergatic izango ezta? O cein gogotic onena gucian orduan artuco cenduquean! Cergatic bada oraiñ eguingo ez dezu? O nola zure salvacionaco egoquien zan estadu ta bidea artuco cenduquean! Cergatic bada, gaurtie biarrera, ta galtzeco, atzeraca ibilli gabe, oraiñ ori artzen ez dezu? O nola, zure anima salvatzea gatic, honra, hacienda, ta aideac utzi ta cere burua urcatuko cenduen!

Cergatic bada, orañ eguiten ezdezu? Ea: chit gogotic artu bear det, orduan naico nuquean gucia, orañ bereala asi, eta eguitea. Nai duena costa bedi, nere gusto, eta deseo gucien contra badere. Guciae baño nere salvacioac gueyago balio du. O nere Jauna, zure bear naiz: zure indarra betor. Zu gabe nic ecer balio ez det. Ea zure arguia betor nic ezagutzeco zure vorondatea, ta conveni zadan vici modua, bere bereala artzeco. Nere Ainguero santua: nola eguingo nuque? Nere vicia nola zucenduco nuque? Virgiña Ama guciz maitea: zuc ere lagun zadazu, ta Jaunari esca zayozu, cer nic eguitea nai duen, eracutsi dizadan.

O Jauna balia daquidala ! Ni beste bat bannintz Aingueruac cer erantzongo luqueala deritzat ? Cer Ama Virgiña ? Cer aconsejatuco luque Jesucristoc berac ? Ea daquigun nola vici-tzea aguinduko lioqueten ? Orra bada , nere bidea . orrelasse nere pensamentu , itz , ta obrac izan bear dute : ta aurrera onela eguin dedan , ala ez , gau ero contuz esamiñatuco det . Aita Eterno , ta nere Jaungoicoa : Jesucristo zure se-mearen amorez , ta icenean , arren onetaraco bear dedan gracia indazu . Bada dembora eman didazu : ori nic galtza , ez arren Jauna permititu .

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

Ay nere anima ! Contu au garbitu , edo eman artean , nola atsedent dezaquezu ? Batez ere chit santuac berac onen bildurra , eta andia ceucatela ieusiric . Bada nola ni icaratuco ez naiz , pecatari aiñ andia vici gucian izan naicela . Sobra pecaṭu eguin ditut : barcatuac dauden , ezdaquit . Gucien contu estua eman bear dedala , bidaquit , ta Jaincoaren juicioa egūia bera dala . Eguin bear zadan carguaz oroitzea bat arritzeco asco da . O nere Jauna ! Bildur au beti viotzean josiric banenca ! O nere vicico pauso guciac , eman bear dedan contu au beguien aurrean daucadala , ematen banitu !

Bada , anima nerea , juicio estu , aurrean daucazun au zure vicimoduraco freno izan bedi .

Ta gueroenean ere sentencia bata , edo bestea eman bear bazat , eta salvacioa nic aimbeste deseatzen badet , eta orandaño condenacioa as- cotan mereci izan badet ; arrazoi izango da , sentencia bata eta bestea ematen zadala , nie contu eguitea. Orrela icusico det , cer sentitu- co nuquean , eta salvacioaren gogoticago artu- co det condenaciotic igues eguiteco. Obeto one- la , merecimentuen penac icusi , eta Jaincoari , eguiten didan favorea , viciera santu batez pa- gatuco diot.

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

**L**lenengo , nere buruari , pecatari galdu bati becela , bada ala naiz , beguiratu nai diot nere modura gauza oyec artu , eta aditu , eta so- seguz contu eguin nai det : Jaunaren Tribuna- leko ateetan egon ezquero , sentencia emateco , barrena deitzen , ta aguintzen didatela. An Jueza nerequin aserre dagoela icusten det. Ay nere Jesus ona ! Zu aserre , eta bere contra icustea norc sufri dezaque ? Beste infernu edo penarie ez balitz ere , onegatic bacarrie , mun- duco gauza guciagatic etzinduzquet ofenditu nai. Ta au nere vician nic bildu , au nic irabaci det ? O nere desdichadua ! Zure ao gozotic con- denacioco itzac enzun bearra pensatuac berac icaratzen nau. Jaun guciz poderosoa , eta nere contra aserraturic ?

Ay ene! Cer dolore izan diteque onen pare-  
ric? Obe litzaque mendiac aspian ni betico on-  
datzea. Castigu mota gueiac betoz, Jauna, ni-  
gana, nic zu aserre icustea baño lenago. Eri-  
tasun, eta gaitz modu mundu gucian izan di-  
danac, eta munduaren caburaño izango dira-  
nac betoz nere gañera ta nic zu aserre icusi  
etzaitzadala. Demonioac asma alditzaquean tor-  
mentu, eta pena gueiac betoz, zu nere contra  
aserre ez egoteagatic. Ay nere Jaincoa eta ne-  
re pecatuaquin aserrerazo zaitudala! O secu-  
lan eguin ezbanitu! O mundu guciaren aur-  
rean negarrez eta deadarrez deseguin banedi!  
O pecatuan lotan zauten cristavac: jaiqui las-  
ter, jaiqui zaitezte. Noiz artean viotz orren pi-  
su, itsu, gogorra izango dezute?

O norc mundu gueia arritzeco diña dan dea-  
dar bat eman lezaquean, eta San Juanen guisa  
esan: laster, guizonac, Jaincoaren aserretie  
igues laster. Nola igues etzoazte? Guizon aser-  
ratu bategandie iguesca zoazte: ta Jaungoico  
aserratua gandie ez? Orduan, bada, bere  
aserre guztiaz Juez justuac Aingueruai esango  
die. Nic seme au aei nuen eta gora jaso nuen  
eta onec gaizqui pagatu, eta despreciatu nau.  
**O Jauna!** Cein arrazoi andia daucazun: edo-  
laric uztazu negarrez urtutzen.

Aurrerago banua, eta aren beguiac su gar-  
izugarriz beteac, ta aren itzac ezpata zorrotz  
alde gucietara erdiratzen dutenac dirudite. Ua

**madaricatu ori, dio, Satanasequin, ta bere lagunaquin: ua nigandic betico infernura. Ay!** Demonio, an diran guciac bereala erasotzen di-date iscambilla andiaz suz ta garrezco catea-quin lotu ta alde gucietatic nastutzen naute, eta beren erdian naramate. O cer viotzeco es-tura ! Ay ! Ay ! Oteda bide edo erremediorie, ni etsai oyefatic libratzeco ?

Al dedan becela belaunico jarri, eta Ainguera ta santuetara biurtzen naiz : ta negarrez urtutzen nere ainguera guardacoari, ta nere devocioco santuai deitzen diet : ea nere ainguera, ta santuac lagun zadazute : laster hitarteko irten zaitezte, bestela Demonioac banarama-te : nigana laster, Jaincoagatic. Baña : orain ezda dembora, diote : ta nere Ainguerauc esaten dit : ondo merecia daucazu castigu au, bada nere esanic eguin nai etzenduen. Zure lagun, zurequin beti nembillen : juicio, ta contu estu au aurrean nic zuri ipiñi ta zuc neri casoric ez. Nic Jaunaren paquera convidatu, ta zuc nai etzenduen : orra bada, seculan izango ezdezu : alper da escatzea, pecatarien deseoa-ezdira cumplituco. ¡O errespuestaren garratza !

### SEIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**stura onetan cer eguin aldezaquet ? Ea Ama Virgiñagana biurtu nai det. Jaincoaren Ama, Virgiña, Andrea : Misericordiazco Ama, ta

chitez piadosa , ta Ama guciz gozoa . Bada cera pecatarien Ama : ona ni pecatari triste desdichadua : izan zaite nere Ama : zure misericordiaz usaezazu dizaz , ta etsai oyetatic libra nazazu . Baña ay ! Orra non aditzen dedan misericordiaric ezdala neretzat ta amaren oficiaric eguingo ezduela . O nere zori gaiztocoa ! O nolaco Ama seculaeo galdu dedan ! Pecatuac eguitean , beste gaitzie ezbalitz ere , onelaco Ama galtzea bai-  
cie , au ezta asco pecatutic igues eguiteco ? Ta Ama nereac uzten ta desamparatzen banau , nor nizaz oroitu , eta lastimatuco da ?

Aynere Jaungoicoa ! Ta nic au mereci det , ceren aren amorioa Ama guciena baño andiagoa izanic , demboraz ni aprovechatu ez naizan ! O emen desventura onen gañean nore negar leguiquean . Ea , nere viotzeco barren barren-die Jesucristo gure Jaunari deitu nai diot : Nere Redentore , esa Jauna , misericordia nizaz . Acorda zaite , ni etsai oyetatic libratzearren , zure odola , eta vicia eman cenduela : orregatic bada Jauna , eta zure Aitari diozun amorioagatic piedadea nizaz . Baña esaten dit : orregatic beragatic , ceren ori gucia , eta dembora nic eman , eta baliatu nai etzenduen . Quen ortic , etzaitut ezagutzen . Nola bada , Jauna : otseguinent ez nizun : Jauna , eta nere Jaincoa ? Confesatzen eta comulgatzen ez nintzan ? Bai , baña aoz ori esatea : Jauna , Jauna , asco ezta . Itz ederraz ni pagatzen ez naiz , ezpada vietze-

ticaco obraz , eta nere Aitaren vorondatea era-  
guiten dutenac. Confesio , eta comunioaz bear  
becela baliatu baciñā , erremedioa cenduen.

Ay Jauna , arren misericordia nizaž. Esaten  
dit : misericordiaren atea zuretzat ichi zan. Or-  
duan deabruac itsatsi , ta berea becela narama-  
te. Damu gorri gaiztoan joango naiz , ta itz sa-  
miñ ayetan pensatuco det : Ay ! erremedioaren  
atea ichia dago neretzat : eta ori betico ! Ta au  
Jesucristoren eguiac berac diola ! Ah ! Ceruac,  
ta lurrae lenago faltatuco dute Jaun onen itzac  
baño ! O ichiera beticca ! O eternidadeco des-  
dicha ! Jesucristo len besoac zabalic ni artzeco  
cegoen , barcacioa niri aguindu cidan , eta be-  
re odolaren costuan ceruco atea idiqui ciran.  
Ta ya secula gueiraco neretzat ichia dagoela !  
Ta au liduripena ezdala ezpada eguiac bera !  
Itxit , eta moduric ezta , onezaz anima batec  
iduquico duen sentimentua adierazotzeco. Aur-  
rera igaro baño len bada , zuri deadar eguin  
nai dizut.

Beguira , nere anima , beguira ondo desven-  
tura onen andia. Milla bider ta gueyagotan  
sentencia au mereci izan dezu. Ea demboraz  
valha zaite. Beguira desdicha orretan aurrera  
gueyago erori etzaitecen. Obrac dira amore ,  
ez itz onen calore. Obretara , bada , demborac  
dirauen artean : noiz artean datequean ezta-  
quigu : estimatu ta aprovecha gaitean. Gaurtic  
biarco eguiteco andi au uztea , ondo izango

da? Bear bada batean , venturaz dembora izango det , batean uztea ondo izango da? Orrelaco gauza orrela artu? Ez orisse. Eternidade gucia orrela? Ez orisse. Bereala esan eta eguiñ. Bertatic asi gaitean : quen embarazo guciac : dana dala , quen: eta viciera berria , demboraz valiatu, nere vorondate galdua ucatu , eta deseguin , eta nere Jaincoarena gucian eguin nai det. O Jauna , ala zuri nai daquizula! Betor zure gracia , eta eracutsi zadazu zure bidea , Amen.



## **INFERNUCO TORMEN-** **TUEN GAÑEAN,**

### LENDABICICO CONSIDERACIOA.

**J**uicioco sentencia aditu , ta erremedio gabe cere burua icustean , eta lasterca demonioac biribillan infernura zaramazquitela : Ay nere anima cer pena sentitu dezu? Eta are gueyago ayec icustean , algaraz triunfalarien guisa dijocela , eta zuri burlaz diotela: Ea , onezaz nai deguna eguin degu : guereaz irten guera : engañatu degu : **Ah zori gaiztocoa ; secula gucie-**

tan gure cabu izango aiz. Ta orrela nere betico caltearen billa dabiltzan etsayai sinistu bear diet nic? Ni galdu, ta farra ta algara eguin nai dutenai orrela sinistu bear diet nic? Oriezaz fiatu bear det? Bada, orra cer pagua emango didaten. Ay nere Jaungoicoa: ceñ lo pisuan egon naicen eta nagoen, onelaco, eta onembeste esairen artean.

Contu daguidan, bada, lasterca infernura naramatela: ta ara allegatu baño len, beguiac cerura jasotzen ditudala. Ay ene: cer galdu dedan, eta cergic! Ay anima, eta ceiñ erraz cerua alcantzatu eta Aingueruen lagun, eta Jaincoaren alaba maite izan cindezquean, ta orañ beguirra nola, eta nora zoacen; onetan ibai batera allegatcen cera: andic infernuco leizondoa icusten da. Be artan Beguiratuko det, suz ta garrezco ibai andi que guciz izugarri illun bat botatzen duena: an demonioa berriazco erramienta arrigarritz, ni tormentatzeko prestatua. Baita contu eguingo det, Purgatorioco suac ere, ta an anima santa asco, tormentu icaragarrietan icusten nagoela. Ay ta norc luque an zuen suerte ori! Liburu eta paper gucietan letra diran baño urte milloi ascoz gueyago or egon bear banuque ere.

Emen erreparatu nai det, ascoz ere guchiago dala, Jaincoac escatzen didana. Cergic, bada, bide ori artuco ez det, eta penitencia eguingo, gorputza mortificatuaz, janean, edanean, itze-

19

guitean , beguiratzean, eta orrelaco gaucetan ? Demouioac gueyago largatzen ez didate an ; ezbada infernua dala nere betico toquia esanaz, botatzen naute an bera : eta errota arri bat cerutie iebasora indar guciaz botaco balitz bescela, infernura tiratzen naute , diotela : jausida, jausida Babilonia andia , nere honra , sobervia , eraqueria , andi nai , estimacio , erregalo eta gustoae bururie seculan ezdute jasoco. Oyec dira aicezco torre nic nerequico eguin , edo jasso nituenac ? Oyec nere trazac ? Onetara dira nere anditasun , ta erregaloac ? Ta au icusi , ta beti era batera-vicico naiz ? Viciera obea artuco ez det ? Cer eguiten , edo ceren beguira nago ? Au icusi ezquiero , cer gaitz Jaunaren bidean izan diteque ? Cerzaz queja naiteque ? O nere Jaincoa ! Ceiñ eeereza naizan ; bada au icusi, eta deseguiten ez naiz. Lagun zadazu Jauna.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

Gelpe batean bada , deabruac su ayetan ondatuco naute. An consideratuco det , nere gañean cun lauza gori daudela , ta bean ta alde gucietan heste aimbeste , eta ni gucieng erdian. Subiac berun , eta metal urtu gucieng baño gueyago erretzen du : eta emengo suac pintatuac dira aren aldean , ta ala nere burua , beguiac , aoa , musuac , oñac , escuac eta gorputz guciag beguiratuco det , suteguitie goritu eta ateratzen

dedan burnia becela. Cer dolore , cer tormentu izango da ? Ay ! eta nore sufrituco du ? Es- cuan erortzen zadan gueldo , edo chingar bat ecin sufritu det : sugar beticoa nola eramango det ? Su alea , suzco botoi , edo lancetada bat eman bear bazat , orren bildurrac berac loa quentzen dit. Bada tormentu ayec nola arritzen ez naute ?

Eguia esatera , tormentu ori AVE MARIA esan arte sufritu bear balitz , ez gueyago : alaere munduko ondasun gucia gatic eliztaque iñor izango tormentu orretan jarrico litzaqueanic. Nola ni orretara obligatu izan naiz , eta betico ? Ta ez reinoa gatic , ezpada aurqueria gatic , eta doarie , eta eternidade guztiraco ? Ay ta au jaquin , ta nola icaratzen ez naiz ? Evangelioco egua au sinisten dedan becela , sinistu , eta gaitz orren andiac nola izutzen ez nau ? Jaquin ori gucia mereci izan dedala , eta barcatu zadan jaquin ez , eta onen seguru , eta etorrico ezdala cierto banengo bezala ? Ay eta oraindaneo culpae barcatuac haneuzca ere , aurrera etorrico naizan ez jaquin ! Ay bildurraren tristea !

Onequin batean pisa dezagun , illuntasun andi beti demonioac beguiz , eta alde gucieta- tic icusi bear gogorra . O illuntasun betieoa ! Baña ondo merecia , ceren begui oriec pecaturoko illumbea , Jaincoaren arguia baño nayago zuten . Cer ? Buru gabeko lan desonesto , edo ero utsai , Evangelioari baño lenago jarraitu

bear diet nic ; ere pasio edo **griña gaiztoac** onel a itsutu naute? Nola itsu buru gabeai jarraitu diet? Demonioen vistac cer tormentu icaraz betea emango du? Bátetic aiñ itsusiak berez diralaco, ta bestetic eriotzaco gure etsai animae tormen-tatzen dituztenac diralaco.

Ango deadar, ta garrasi triste andiaz beteac belarriai cer tormentua emango diote? Ango usai ustel quiratzesco ilgarriac: ango gusto sa-miñ garratzac: ta ango oñace , ta gorputz gaiz-toco tormentu eciñ esanalac? O nola gucia erre, egosi , pregitu , eta dolorez errebenatzen egon go naizan ! Beguira bada ondo , su eta tor-mentu orietan nola egongo ciñan: ta queja ta garrasi samiñaquin esango cenduen: Ay ene bada! Erretzen, iltzen ler eguiten det! Ay! ecin eraman det! Momentu bacoitza milloi bat urte eguiten zait! Eternidade gucian nola eraman-go det au? Noiz acabátuco da au? Iñoz ez. Noiz aliviatuco da? Iñoz ez. Noiz emendie irtengo naiz. Iñoz ez.

Ay! Norc emendic ateraco nau ? Iñorc ez. Er-remedioric eztago ? Ez. Norc consolatuco nau ? Iñorc ez. Nor nizaz lastimatuco da ? Iñor ez. Consueloric ez dala : erremedio eta esperanzaric ezdala? Ez. Eta emendic eun milla urtera? Ez eta secula gucietan ere. Cer eguingo det bada? Erre, eta quiscaldu, arrabiatu , ta ill nai , ta ecin ill. Cer da au ? Norgana biurtuco naiz ? Eztago norgana. Ez ceruan , ta ez infernuan ondo nai

dizunic ondo icusi nai zaituanic ezdago , eta seculan ezda izango. ; O pena eta pena gucien azcarria !

Ta igaroco onen ,edo guero uste diranen memoriac alivioa ematen badu infernuan orrecere lecurie eztu. Aurrera oberic ez izango ta ez usteco da : ta lengo onaz acordatzeac tormentua gueitu , eta andituco du : ta orrela memoriac bere pena izango du , ceren atseguin eman dezaquean gauzaric gogoratuco etzayon. Vorondatea beti deseguingo da ceren gustoco gauzaric beñere eguingo ezauden ta beñere nai ezduena beti izango dnen. Entendimentuac bere pena du , beti bere desdicha onetan pensatzen egon bearra , beti orren gañean , eta orren azpian egon bearra : campotic eta barreric beti tormentuz itoric. Onez guciaz gañera concienciaren ar gose viotzeco ura.

O ! eta au gucia icusi ta nola condenatuac jayo ciran eguna , jan zuten oguia , eta eguin zuten gucia madaricatuco duten ! Cer arrabia beren contra eduquico duten ! Eriotza deseatuco dute , baña etzaye emango. Guciac gorroto vician egongo dira , alearrequin ta bacoitza bere buruarequin , ta albalute alear ito ta bocaduca jango luquee , ta ori dicha anditzat artuco luquee. Ay Jauna , au cerda ? Gaitzic andientzat emen daucaguna , ceña dan eriotza , ta icaratzen duen illbearra , infernuan deseátszen da , ta gauza anditzat artuco litzas-

**que?** Ta pecatu batégatic cristava orretara obligatzen da? Ta orregatic ere charro bat ur edatea baño errazago pecatzen du? Ay, Jauna, itza falta zait, burua falta zait desdicha au, bear becela pisatzeco!

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**C**er ustedezu, nere anima? Infernuco tormentu beticoac cer diran sobre icusi, eta pisatu dituzula deritzazu? Bada jaquizu, esan dan gucia ayen aldean, ecerez dala. Ta ala, tormentu oriec cer diran, eguiaz, eta barrendizuc eciñ ezagutuarren, cerbait obeto ezagutzeco, lengo lecu illun artara biur zaite, eta an cere buruari begūira zayozu pena icaragarri ayetan, batere consuelo, erremedio gabe, eta eternidade guciraco. Eta contu eguizu, nola bereala, eternidadea cer dan, pensatzen asico ceran: eta esango dezu: Ay! eta tormentu oyec, ecin gueyago ala, onen pisuac dirala, beti iraun bear-dute, eta bēñere acabatu bear ezdute? Ez ta iñoi cere: Ichasean ur tanta diran adiña urte igarota ere emen egon bear det? Bai. Aimbeste milla urte noiz igarocodira? Bada urte oriec guciac igaro, ta nere tormentuac, orduanche asitzen balira becela, izango dira, ta esperanza gabe, eta betico. Bai.

Ta eun milloi urtetic urtera, ichasotic ur tanta bat ateraco balitz, eta dana ichaso gucia

orrela agortu bear balitz : eta ori ez bein barric , ezpada ascotan , eta aimbeste bider , nola aire gucian lauso , edo atomo diran : ale- re milloi crie : acabatuco dira. Ta infernua aca- batuko da ? Ez. Orduanche asitzen balitz bēcela izango da. Milla bider , eta milloi asco bider contu ori egun bedi , eta orobat izango da ? Bai. Ta orregatic ere infernuco tormentuac , eta eterni- dadea bere asieran , bere artan egongo da ? Bai. Ta esan eta pensa alditequean dembora ori gu- cia , eta are gueyago bear balitz , nichasotic ur tanta bat ateratzeco , eta ur gucia orrela agor- tu bear balitz , eta au berau ascotan , orobat litzaque ? Orobart. Contu egun al guciac egun eta ere ? Bai.

Cer egingo det badia ? Ecer ez : cer egun eztago. Erremedio eta esperanzaric eztago ? Infernu enetan beti ? Tormentu oyetan beti ? Eternidade gucian ? Fiñ gabe , fiñ gabe , fiñ gabe ? Beti emen erretzen , eta illgabe beti ill- tzen ? Acabatu gabe beti acabatzen ? Eternidade Gucian ? O ! ¡ O cein laburra zan vicia , eta eternidadea cein lucea ! Jayo , ta ill gucia bat esan citequean. O munduko gauzac nola aice pis- ca bat eta vanidadea ciran ! Eta ni aiñ eroa , non eta jaquiñic infernuco tormentu oyetara anima cecartela , orregatic munduko atseguin laburren ondoren choratu eta nembillen ? Eta orregatic , nondic honra , eta hacienda gueya- go , birivillatuko nuen ? Ango soberviac , ja-

**quin nayac , ondasunac , eta atseguin loyac cer servitu didate ? Lecu desdichazco onetan sartzeco , ez bestetaco. Araguiaren frutuac oyec dira. Munduaren sariac oriec : eta deabruaren pagua eroentzat au da.**

**Ay ! Erregalo , eta gustoai batec ematea au da ! Ay ! eta cein laburra contentua , eta cein lucea tormentua ! Au icusi eta nor beregan sartzen edo biurtzen ezta ? Norc emengo gusto laburrac gatic , betico galdu naico du ? Ta cer eguin bear eztu batec , eternidadeco pena oyetatic igues eguiteagatic ? Are gueyago daquiela , milla bider bere aimbeste pecatugatic ori mereci zuela. Argatic Santuen penitenciac , nequeac , aleguiñac aiñ andiac cirala , icaratu bear ez naute : ceren oriec etziran ecer infernuaren aldean , eta guchi gucia , gaitz onetatic escapatzearren Jaincoac arguia emancien , eternidadea cer dan icusteco. O nere Jauna ! Ori icusi , eta ondo ezagutzeco indazu gracia , eta seguru nere viciera obea izango da :**

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**O**beto egquia au aditzeco , contu eguin nai det , esan diran urte oriec igaro dirala. Ay eta tormentuz , eta penaz cer ase , edo aspertua egongo naizan ! Berriro beguiratu nai det igaro

dana, eta etorquizuna, eta cein errémedio eta esperanza gabe nagoen. Onetatic cein erraz libra nindequean, eta nola nai eznuen badaquit. Ay au gucia nere culpaz daramat nic! Esan cidaten, eta casoric eguin eznuen! Ay cembait conseju on, eta ejemplo obe, cembait Jaincoaren mandatu, inspiracio, ta bildur santu bata bestearren gañean neri etorri, ta gucia largatzentzuen! Ay ta cergatic? Aurqueria, ta ecerrez bategatic. Ta egquia da au? Nic dedala culpa! Ondo negoela pena oyetara sugetatu nai-zala? Jaincoae deitu, ta ni gortu! O nere itsua, ta zoreoa!

Jaincoaren deya iñoi zuten banuen, larga gueroco? Ay ori eguin det! Ori nic eguin det nere Jaincoarequin? Ay orain arrac jaten ta penaz deseguiten nola egon bear dedan! Ta ar bat beñere ilko eztana: eta ay bat beñere issilduko eztana! Ayene dicha gabea! Nola arrazoi izango da Jaincoaren ispiracioai eranzutea? Oraindaño becela gortu, eta sortutzea ondo izango da? Biar, ta gueroco beti utziaz? Ay nere Jaun amorosoa! Ez arren, Jauna: orrelacoric eguin ezdezala? Bereala, oraiñ, puntu onetan asi nai det. Ea Jauna, itz eguizu, enzungo zaitut. Zuc aguinda, zue zucendu, ta nic jarraitu. Zuc esan, ta nic eguin. Eternidadeko desventura onetatic libratzeagatic, poeic, Jauna, joango naiz, zue nai dezun bidetic.

## BOSTCARREN CONSIDERACIOA.

Eguia esatera, nere anima contatu ditugun penac oyec andiac dira. Jaquizu, bada, oraindic, guciac baño andiago bat, eta gucien azcarria falta dala eta ori da calteric andiena. Pena au da, Jaincoa betico galtzea, ta aren arpeguiric beñere seculan ez icusi bearra. Ay nola zu aiñ urruti zauden, Jaungoicoa cer gauza dan jaquiteagatic, ala añ urruti zaude ori galtzea, cer pena dan jaquiteatic! Baña jaquizu, gucien artean andiena dala. Jaungoicoa galtzea, zuretzat on gucia galtzea da. O ceñ on andia galdu dezun ta betico, ta honra eta atseguin ecerez batzuecgatic! Baña nola aiñ ez-jaquiña, ta itsua zauden, pena au berez cer dan jaquiteco, larga dezagun, itz batean esanz beste tormentuac infernuan aiñ andiac badira, au gucien gañean, eta guciac baño gueyago, eta andiago dala.

## SEIGARREN COSIDERACIOA.

Oraiñ beguira ondo, aimbeste infernuan padecitzen daudela, eta aimbeste urte igaro, eta batere atseden edo avioric gabe: penac beti betean, beti beren artan, eta eternidade gucian orrela egon bear dutela jaquin, eta orregatic ere, an dauden den animoak setaz gogor-

turic, ta beren gaitzean arrituric egongo dira, ortic atera nai gabe. Onelaco desdicharic izan diteque? Bada ala da; ta ala izango da, ta oneraco vorondateric ez dute seculan izango. O Jaun guztiz ona! Zuri esquerrac fin gabe, ceren nere oneraco an nie ondo pensatceco lecua ematen didazun.

Demagun bada, infernuco carcela illun artan, misericordia edo barcacioco pregoi andi bat eguiten dala, non esaten zayen guciai: Ea cer eguingo dezute, ta libratuco cerate? Ea cer vicimodu artuco dezute? Bada, mundura batzuec biurtu bear dute, eta penitencia eguiteco berroguei urte emango zaizte. Jesus milla bider! Cer esan, ta cer eguingoluque? Ta zuc cer esan, ta cer eguingogo cenduque? O Jaun piadosoa! Ni Jauna, ni orietatic bat izan nadilla! Ni emendie irten nadilla. Nie Jauna, seguru, eta arrastaca bear balitz ere servituco zaitut. Nere dicha ta zure servitza, guciz andia. Orduan Jauna, betoz nai badute nere gañera, diran neque eta gaitz mota guciac: betoz desonra, pobreza, eta pensa aldi-tezquean beste desdicha guciac.

Orrez gañera, nie pocic eguingo detaguindu al ditequean penitenciaric gogorrena: eta izango naiz munduko humillena, ta gucien azpicoa. Orain bada, anima, esazu: Eternidadeko desdicha ori, ta ascotan, mereci izan ezdezu? Bai, Jaincoae echeden, libratu, eta dembora

au eman dizu. Atoz ona , bida : eta orduan seguru eguingo cenduquean eguiazco penitencia, eta viciera berria , cergatic orain eguingo ezdezu? Orduan gogotic artu , ta baliatuco ciñaquean becela , cergatic orain gogotic artu , eta baliatzen etzera? Orduan zure vicitza concertatu , eta zure pensamentu, itz, ta obrac ondo beguiratuco cinduzquean hecela , cergatic orain concertatzen , ta beguiratzen ezdezu? Orduan gucien azpian egotera , eta neque, dolore , gaitz , eta desonrae eramatera animatuco ciñan becela, cergatic guztira orain animatzen etzera?

Ea bida , anima tristea ! Zugana biur zaite , beguiac arguitu , eta gogotic eguzu. Asi berreala-, bertatic asi. Ay nere Jainco baitea ! Onelaco mesedea zue-neri eguin , eta esquer beltzecoa beti izango naiz? Asitzeco gogotic, neratzat erremedioric ezdala , eta ori ezagutu, eta Jaincoari esquerrae obraquin eman bearrean , pecatua pecatuaren gañean eguin, ofenditu , eta gueyago aserrerazotzen dedala ! Ceren beguira zaude , anima itsua ? Errémedio gabeko sentencia zure contra eman artean zaude ? Orain guchi bat padecitza , guero betico baño obe ezta? Nola cera orren gogorra ? One-laco golbeac , eta onelaco beneficioac biguntzen etzaituzte ? Jauna , bitartean zu sartzen ezbara , consideracio guciaquin ere nic ecer balio ezdet. Burnizeo viotz au quendu , ta arren araguizeo bat indazu. Illa dagoena zuc pistu-

tzen ezbadezu , nola jaiquicoda ? Ea , Jauna : Lazarori bœcela deadar andi bat eguidazu : Ea anima , zure pecatuen eriotzatic irten zaite. Illen artetic atera nazazu. Desdicha oyetatic atera nazazu. Ah , Jauna , sortua nago , eta illa bœcela : piztu eta viciera berrira alda nazazu : zure escuan dago nere vicia , eta on gucia.

### ZAZPIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**ternidade desdichazco ori icusi , ta orretan ez erortzeagatic cer egun bear det nic ? Gaitz aiñ andia da , non guizon batec bacarric condenatu bear balu ere , bildurrez icara egotea arrazoi litzaque , eta miseria orretan ez etorceagatic azqueneco aleguiña eguitea. Cer izango da bada , ez bat bacarric , ezbada aimbeste milloi condenatzen dirala ? Condenatcen diranac , salvatzen diranac baño gueyago dirala ? Jesucristo esan zuen : Vicitzara ; edo cerura daraman videa estua , eta ango atea chitichia dala , eta guchie arquitcen dutela. O itz icaragarria ! Sentencia onec nor icaratzen eztu ? Esan zuen Cristo berri : eriotzara , edo infernura daraman bidea zabala , eta ango atea andia zala , eta asco bide onetatic dijoacela , eta ate onetatic sartzen dirala .

Contuetara oraiñ : nondic nabil ni : vide estu , edo lasayetic : ate zabal , edo estutic ? Egua esaterà , lasai ta zabaletic. Cer izango

da bada nizaz? ; O infernuco tormentuetan ez erortzearren , estutzea , ta bide estutic ibiltzea, cembait obeto dagoquit ! Ea , ez asco , edo gucienac becela , ezbada guchiac , eta contatuac becela , vici bear det. Salvatu nai det? Bada erremedio gabe , eta gogotic au artu bear det. Ay ! Millatatic bat , eta ez gueyago condenatu bear balitz ere , nore icara andia iduquico ez luque ? Ay ni ote naiz ori? Orren suerte tristeoa? Nic ez det naí esan , salvatzen diranac baño , condenatzen diranac cembatez gueyago diran. Baña ay ! Señale eta ejemplo tristeac dira !

S. Bernardoren vicitzan contatzen da , Santua illtzan demboran beste oguei eta amar mila iltzirala , eta bost anima salvatu cirala. S. Franciscoren historian contatzen da , Jaincoaren Misionero Bertoldo , vicio baten contra prediatzen cegoela , emacume vicio artzaz galduric cegoen bat , bertan illic gueratu sala : guciadaren anima gatic oracio egúin zuten : eta piztu eta beregan biurtu , eta esan zuen : iruroguei mila arequin batean ill cirala , eta lau , edo bost anima salvatu cirala : eta esan oi da , iru Purgatoriora , eta bat joan zala Cerura. Espiritu Santuac dionae , jaquiñez : edo necioen numeroa infinitoa dala , nerí icara emanen dit : ta orobat Jesucristoren esanac salvacioco videa guchic arquitzen dutela. Ta emendic cer atera bear det? Cer? Vicimodu , edo estadua artu ezbendet , bereala Jaunaren gracia-

requin, nere salvacioraco bearren dedan videa ciñez artu. Eta estadua arturic banago nere orri jarraitu, eta batera, eta bestera ibilli gabe, lan oni gogotic equin, egunero obeto vicitzeco.

### ZORTZIGARREN CONSIDERACIOA.

**E**stacio bat, nère anima, emén daguigun, Infernuco animen lecu, egoera eta estaciaoa icusi dezu. Zuc ori bera erremedio eta esperanza gabe mereci izan dezu. Baña Jesus maiteac aimbeste nai izan dizu, non, zu libratzeagatik, bere odola, ta vicia gurutzean eman zuen. O Jesus, nere Jaungoico, gucia ontasunez betea! Misericordia paregabe au zor dizut? Bai. Ta nola pagatu dizut nic? Ay nere itsu, esquer beltzaren jabea! Zure contra biurtu, eta zure ofensac baicic eguin ezdet! Orrez guztiaz ere aimbeste urtean echeden, eta be-soac zabalic deitzen dit. Icusi, eta sufritu nau. Eta orregatic ere ni beticoa: eta Jaun au nere billa! Au cer da? Onela beti izango naiz, Jau-na? Ez, ez, nere Jainco laztana: ez gueyago pecaturic, ez zure ofensaric. O! eta norc, zure justu guciac becela, zu amatu cintzaquean.

Ea anima, soseguz estacio onetan gauden, eta igo zaite zure gañera. Zure aleguin gucien gañera, eta are gorago igo zaite, eta obraz ecin dezuna, edolarie vorondateaz eguizu. Ea

**deseo vici eraguille bat, neurri gabe zure Jaungoicoa amatzeco, arrezazu.** Ah ! cer itsutazuna Jauna, zu ez amatzea ? Ea anima nerea gueyago, eta gueyago amaezazu : ez guchiaz **contentatu**, ez necatu, ez aspertu. Ea zure viotz **ori zabaldu**, eta amatu : gueyago ere lasaitu, eta Jaincoa amaezazu. Ay, nere Jauna ! Gu-chi da, ecer ezda nere aleguin gucia. Santu, eta ainguera gueiac atozte nere faltac betetcera. **Virgiña nere Amandre, Jaincoaren ama mai-tea** : zuc badaquizula bera amatzen. Amaezazu ordu onean. Zuc cerorrec Jauna, nere deseoa ondoena cumplitzen dezu. Ama zaite bada, eta goza zaite : eta ni zure amorio orretan gozatcen naiz.

## BEDERATZIGARREN CONSIDERACIOA.

**Biurtu nai det berriz, nere pecatuaquin irabaci nuen estadura.** Infernu ori nic ondo mereci nuen. Beste neque, gaitz, desonra, pena, eta miseriaz nola queja naiteque ? Labe gori batean egotea mereci banu, eta cilicio bat ecartzean, tormentu ori trucatuko balidate, favore andia ez litzaque izango ? Bada munduan izan alditequean gaitz, desonra, tormentu, ta nequeac nic infernuan mereci ta neucan lecu, ta estaduaren aldean cer dira ? Eguiaz eerez. Orrela Jaincoac oi batean ni egotea nai badu ez det cer quejatu. Pobrezaz, dolerez, eta

lepraz betea icusten banaiz ere, ez det cer quejatu. Guciac banatu, zatitu, taõpean banarabilte ere, ez det cer quejatu: bada nic mereci baño mesede andiago eguiten didate. ¡O ceiñ esquer andiac favore onegatie Jaincoari zor diozean! ¿Cer nic infernuan mereci nuen?

Au icusi, ondo pisatu, eta nor erregaloen faltaz, edo janari gaizqui guisatuaz: nor pobre, eta bearraz izanaiz, nor egun bateco osasunic ez izan naiz, nor desonra, eta beste onelacoaz queja diteque? Ez Jauna, ez: ona prest nago: prest guciraco nere biotza. Nequeac, doloreac, desonrac, éta afrentac betoz, eta zure ofensa gabe betoz. Baña, zu gabe Jauna, ni ecer ez naiz, lagun zadazu. Nic esan bai, eta eguiñ ez: itzetan bat: eta obretan bestea naiz. Milla, eta gueyago esquer ematen dizquitzut Jauna, ceren infernura bota ez nazun, beneficio soberano, edo gucien gañeco au beti nere viotzean josiric eduquico det: eta nere vici guztia, zuc laguntzen didazula, zu alabatzen, amatzen, eta servitzen ízango da.

### AMARGARREN CONSIDERACIOA.

Lurraren gañean vicidanedoceiñ pecatarie aimbeste, nere Jaungoicoa zor badzu, cer zorco dizu, infernua mereci zuela, zue zure echera ecarri, eta zure adisquideen artean artu dezun pecatari batec? Nic betico tristeza infer-

nuan mereci nuen, eta zuc onembeste alegria eman didazu ! Erremedio, eta esperanza gabe an egotea mereci nuen, eta zuc ceruaren aimbeste esperanza, eta prenda eman dizquidatzu ? Nic tormetuetan erretcen egotea mereci nuen, eta zuc aimbeste consuelo viozean ematen didazu ? Nic deabruen esclavo betico izatea mereci nuen, eta zuc zure umen artean artzen nazu ? Nic demonioen janari samiñac mèrecci nituen, eta zuc zure mayean artu, eta Aingeruen ogua ematen didazu ? ¡ O ceruco vi-ciaren ogua, ta zu ceran guztia, ematen didazu, nere Jaun andia ! ¡ O nic mereci ez becela zuc eguin dezu ! Bere burua, bere magestade dan gucia ematen didanae, cer emango ez dit.

¡ O nere Jaun ! ; eta misericordia onen andiagatic cer emango dizut nic ! O ceiñ berra, eta cein gozoa ceran ! O ceiñ gauza andiac ne-requin eguin dituzun ! Milla esquer, Jauna eta milla milloi bider esquer andiac zuri. O Jaun poderoso, eta Aita guez ona ! O nola nere traicio, eta deslealtasunaz aztu ceran ! Ni seme galdua, eta Aita ona besoac zabaldu, ta neri laztan ematera : soñeco berri ederraz janci, eta semetzat artzera ! O arzai ona ! zure ardi galdu au infernuco otsoac bacerama-ten, eta zu ondoren, eta billa joan eta zure dei, édo chistu gozoac otsoen artetic atera, eta zure sorbaldan artu cenduen. ¡ Ah Jauna ! Eguaiz zure costura, infernute libratzeco, zu-

re sofiean salto au nic eman nuen ! Ta ardi  
chatar au zure gañean artu ta zure larre  
gozoetara ecarri , eta betico ceruetara era-  
mateco naucazu ! O Aitaric , eta arzairic onena !  
Aingueruac secula gucietan alaba zaitzatela.



## AZQUEN JUICIOAREN GAÑEAN.

### LENENGO CONSIDERACIOA.

**A**raco mundua acabatzeko zorian dagoen artean , cer igaroco dan , eta cer gauzac icusico diran norc esango du ? Ay nere Jaungoicoa ! Zue bacarric daquizu bestec ez , noiz , eta nola ori izango dan ! Mundu galdubearrari begira diozagun alde guztitic gose , eta izurriaquin , guerra , eta eriolzaquin lurricara , eta ujolaquin estuan eta etsiric . Baña acaballaco doloreen asierac dira oyec . Gueroenean , begira aice bumbada izugarrien artean Jaincoaren aserrezco su vici illun batec diran guizon , abere , eta beste gauza guztiac erre , eta auts beltz biurtzen ditu .

Contu eguiyu oraiñ , munduaren aldarte triste onetan zu bacarric guelditu cerala viciric : ta

estadu lastimoso orretan icusi , ta esaten diozula. O mundu dicha gabea! Zu cera Adanen semeac zoteraci , eta engañatu ciñituena? Zugatic aimbeste ezpata , auci , eta aserre : zugatic aimbeste ejercitu guerra vicietan alchatu , ta aimbeste eriotza izan ciran? Bai, zu cera. Baña ay nola ceunden , ta nola zauden! Eсадazu : Non dira oraiñ , cer eguin ciran Erregue andi aimbeste neque , eta peligrorequin zure gañean aguindu zutenac? Non dira aberats eta poderoso zure ondasunac iduqui cituztenac? Non dira , codiciae bildu cituen pillar , urre ta arrí preciosoac? Non zure Torre andi , Jaureguiac , Loretoqui eta Jardiñac? Non zure atseguin ta erregalo illcor eroac , beti vici bear bazuten becela aimbeste antsiaz nai , ta biriwillatzen cituztenac.

Ay nola gucia auts biurtu , ta quea becela deseguin , eta ondatu dan! Beste erregue zoroac , bere ejercitu andi gucia urte guchiren buruan deseguin eta acabatuco zala pensatu , eta negarrari eman bacion : munduko ejercitu , guizón eta gauza estimagarri gucien atzeneco castigu paregabe onec nor lantuz , ta lutoz beteko eztu? Baña nere viotzeco luto , ta negárrac nere culpen gañean izan bear dute ! Munduaren azquen au jaquin , eta onela icusi ezquiero , lurreco gloria , eta ondasun guciae nere escuan baneuzca ere , diranac oñperea bota bear nuque. Ecerez bat nic dedan gucia izanic : cer

desdicha da au , ori utzitzeco ere animoric ez det: eta ecerez orregatic , aimbeste culpa eta ofensa Jaungoicoaren contra eguin det.

Ur tanta bat ichaso guztiaren , edo pissca bat lur guciaren aldean cer da? Nic dedan , eta vici gucian izan dezaquedan honra , estimacion , eta ondasun guciac , Erregue gucien poderio , honra eta ondasunaquin cerdu cer icusi? Bada mundu au bere gauzaquin , daquizunez auts pusca bat baicic ezbada , ta estimacion ori mereci badu , nola nere viotza casi ecer ez danari erantsitzen zayo? Nola ori nai eta aimbeste antsiaz billatzen det? Nola nere aleguiñac ecerezqueria onen billa , eta ascotan nere anima galtzeo perellean , eguiten ditut? O zoraqueriaren itsua.

Ea nere anima: auts pilla andi orretan aimbeste neque costaricaco hacienda hillezazu : Zuri lenagocoac utzi eizuten echea , edo zuc ondorengoentzat jaso cenduena: zure gusto , edo atseguiñen lecua ; zuc nayen cendueña: ea naspilla eragabe orretan arqui dezaquezun. Guciac nastu , ta deseguin ciran. Escuetan auts pusca bat arrezazu : bear bada len ori Coroa bat zan: non da aren edertasuna? Bear bada bastoi bat zan: non da aren balentia? Bear bada edertasun andi bat zan : nondo orainori , eta orren galac? Ay gucia banidadea , aicea , utsa , eta autsa ! Eta izanditeque cristaure aiñ jaquinez , edo necioric Jaincoaren ontasun , ta eder-

tasuna ecerezqueria oyecgatic galdu nai duen;c? Ta oyetatic bat izan ez naiz ni , gusto billau batzuen truquean Jaincoaren leguea urratuaz? Ay Jauna ! Ceiñ itsua izan naizan ! Au ondo ezagutzeco arren arguia indazu: orrela zugandic nere on gucia, seculan aparta ez nadin, Amen.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

**N**ere belarrieta deritzat dagoela trompeta izugarri gucioi Jaincoaren juiciarà deitzen diguna: araco trompeta San Geronimo bati viotzeco icara ematen ciona: au eremu batean, barau, penitencia, oracio, eta negarrez deseguiña cegoela. ; Ay ene bada ! Nola bildurtzen ez naiz ni aimbeste culpa penitenciaric egun gabe , dauzcadala? Elizaco<sup>l</sup>pillareric sêndoena<sup>c</sup> trompeta onen deya aditu , ta dardar icara daviltza , ta ni bildurtzeco aimbeste causa ditudala nago sorturie ! O viotz edocein tentacioren aiceaz galtzen cera- na, nola turmoi icaragarri au: piztu, eta jai- qui zaitezte illac , ta atozte juiciora , aditu ta ill otza gueratzen etzera ? Jaun guciz poderosoaren pregoi onec cer icara ofduan emangodit? Nola ovedituco diot ; ta nondic jaiquico otenaiz?

Ay nere pecatuai beguiratzen badiet , infernuan egongo naiz , ta andic etorrico naiz ; bada ara nere burua aimbeste bider bota det. Andic anima etorrico da , ara gorputzareguin biurzeco , bien tormentuetara. Lurretic jaiquico

naiz, mundu guciaren aurrean acusatua , juzgatua , ta condenatua izateco guizonic infame billauenaquin. Jaiquico naiz , erremedio gabeko , eta eternidadeco condenacioaren sentencia aditzeco. Au gucia culpa mortal bacoitza gatic mereci nuen , ta estadu orretan ill banintz , gucia eguingo zan? Nola bada aimbeste urtean orrela vici izan naiz? Nola aiñ erraz pecatuetara biurtu naiz? Nola viotzeco damu , ta eguiázeo ta negarrezco pénitencia eguiñaz , oriec borratu ez ditut?

O nere anima ! Juicioco trumpetaren soñuac orduan zu icaratzea nai ezpadezu , oraiñ aren otsa aditzen , ta ari obeditzen asi zaite. Illac jaiqui , dio , ta Juiciora atozte. Culpa pisuaz illa bazaude , eriotza orretatic piztutzea aguintzen dizu. Illac becela Jaincoaren deyac aditzen ezbudituzu , lotarqui pisu orretatic esnatzea aguintzen dizu. Aimbeste dembora bada , zure vicimodu ori zucentzeco , esaten dizula : zure viozean golpeca otsez badago , peccatuaren peligro , ta bide orientatie igues dagizula : desengañoquin deadarca badagoquizu zure barrenean : zure lagunaren desgracian , eta ustecabeco beste adisquide , edo ezagunaren eriotzan , ori beguiz icusi , eta orregatic ere sortua becela , lo pisu orretan sarturic bazaude : Ea jaiqui , dio , ta zure juicioan zurequin gogotic sar zaite.

Ay nere Jaincoa ! Ta cembait zuc , ni piztu ,

ta jaiquierazotzeagatic eguin dezun , ta ni lotan  
 cein arritu ta sortua egon naizan ! Cembait bi-  
 der nere viotzeco bildur , arantza , aviso , li-  
 buru , ta predicadoreen deyaquin , otseguin di-  
 dazu , eta ni orregatic zure favoreentzat beti  
 gorra ? Ay Jauna , ni ez galtzean , cer interes  
 cenduan zuc ? Ni ez condenatzean , cer prove-  
 chu cenduen zuc ? Ta aimbeste , ni baño culpa  
 guchiagoz , condenatzen zuc utzi , eta ni ez  
 galtzeco cer icusi cenduen nigan ? Aundia da  
 nizaz zuc izan dezun misericordia , ta chit an-  
 di lotsagarria nic zore contra iduqui dedan es-  
 quer gaizto itsusia . Ezagutzen , sentitzen , eta  
 confesatzen det Jauna , orregatic zure escua  
 indazu jaiqui nadin gogotic , eta zure juicioan  
 iduquico dedan bildur santuan firme betico  
 egon nadin , Amen.

## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

**J**aicioço trompeta aditu , eta Anima santa bat  
 cerutic jaichico da , eta anima condenatu bat  
 infernutic igoco da : orduco bien gorputzac  
 egongo dira prestaturic . Baña ay ! Elcarren  
 ants gabekoac ! Anima santac gorputza ar-  
 quituco du , eta laster biurtuco du eguzquia be-  
**r**a baño argiago . eta ederrago , gloriazco dote  
 guciaz janci , ta apaindua : eta bere Ain-

gueru guardacoac esango dio: ea zorioneco anima, gorpuzt eder onetan sar zaite: au virtuteetan zure lagun ona izanzan, ta oraiñ zure dichetan ere izango da. Oyec dira begui lurera beguira ceundenac, peligrozco edo cillegui etzan gauzaric ez icusteagatic: oyec ezpañac, iñoren gaizqui esan, edo ofensaz idiquitzen etziranac: oyec belarri murmuracio, ta beste itz gaiztoentzat ichiric ceneuzcanac: au buru, pensamentu santuac artzen cituena, oñ oyequin Elizara, eta obra onetara joaten ciñan: oyec zure escu bedeincatu pobrechoai limosna ematen ciotenac: auzure gorputza dembora batean barau, azote eta cilicioaquin zuc zatitzen cendueña.

Gauza oyec gegorrae ciran orduan; baña, ó ceiñ gozoac izango diran eternidade gucion! O begui dichoso, ceruco edertasunac icusi bear dituzunac! O belarri dichoso, Ainguueruen musicac enzun bear dituztenac! O ezpañ dichoso. Jaincoaren alabantzac cantatu bear dituztenac! O gorputz chit zori onecoa lurreco gusto labur, billavae utziae gatic ceruco gustoz bete eta egon beat duena. Ea, anima santa, laster eguizu zure gorputzari laztan'estu estu bat betico ematera. Bereala anima or sartu, eta argui eder gozoz beteco du, eguzquiac otoi bat arguitu, ta edertzen duen guisa, eta cristal garbi bat eguzquia or sartzen, edo artzen danean becela. Ocer gloria!

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

**B**aña Anima condenatu batec, ay cein itsusi izugarri bere gorputzā topatuco duen! ; Cein nazcagarria! Bere pecatu gucien artean ichusiena egun zuen lecuan, bear bada topatuco da: eta icusi, ta arrabiazco adia tristeaz esango dio: ay nere zori gaiztoca; au da, au gorputz galdua ceñean, eta ceñagatik añ aimbeste pecatu egun nituen! Carcela illun, ciega illgarri onetan nere eriotza eternidadecoaren obi ustel onetan sartu bear det! Ah gorputz madaricatu nere desdicha gucien asiera! Ay or arturicaco atsegün labur, ta gusto loi, ta lotsagarriac ceñi garesti costa zaizquidan! Ay ta infernueo mostruo oni gusto emateairren ceruco atsegün gozoac galdu, eta infernuco tormentuac irabaci, ta betico condenatu naizala.

**O**! mundura biurtuko banintz nola beste moduz gorputz au tratatuco nuquean! Nic abere bat becela eci, ta esclavo billau ori arrazoyari sujetatuco nioque. Pensamentu gaizteoi bideric ez idiquitzearren, begui oriec, bear balitz ateraco nizcaque: pecatuaren peligro, edo oca- sioco echera ez biurtzearren, oñac ebaquico niozcaque: eremuetako penitente guciae baño gogorquiago illeraci, edo mortificatuco nuque. Nic nola vici eracutsico nioque. Baña ay! Nereae eguindu, ta erremediorie eztu! Gorputz oni,

adisquideari becela nai nion , ta orain ta betico nere etsairic andiena izangoda. Barau egun bat ez sufritzearen , zacur amorratuen infernuco gosea eternidade gucian eduquico det. Culpaz Meza bat galduagatic , lotsaz arrastaca Juez aserrearen tribunalera joan bear det. O ceiñ erraz au erremedia nezaquean ! O ceiñ dichazcoa orduco penitencia.

Onetan demonioac aserre , eta deadar andiaquin diote. Cer contu dira oriec , anima mandaricatua? Ceren beguira ago? Au , gorputz au dec , ire vicioquin eguiñicaco ire betico eche ta toquia. Au itsusia badago ere , itsusia-go ciran , ic or eguindaco pecatu loyac. Sar adi , ordu gaiztoan iretzat , lengo ire atseguiñetaco lecū onetan sar adi: au eternidadeco tormentuetan lagun izango dec.

Orduan anima gorputzean sartu , eta infernuco su gar izugarriac gorputz guztia barrena , berun urtu , edo burni goriaren guisa bantuco dira. Suac eta chingarrac bereala saltatzen asico dira , beguietatic , ao , ta belarrietatic , eta quirats ustel baten guisa musuetatic sartuko zayo. Puzoniazco sugue aserre , eta dragoi odolguiro batsuen guisa demonioac eldu , eta biribillan artu , eta gorputz ta anima orrela cateaturie , ya padecitizen duten sentencia aditzera eramango dizute.

Ay anima galdu , au iracurten edo enzuten dezuna ! Zure desdichaz pecatuan bazaude , no-

la cerurañoco deadarraquin Misericordia esca-  
tzen ezdezu? Zure peligroa icusi eta nola arri-  
tzen etzera? Ay nere Jaincoa! Gaitz oyec gu-  
ciac nere gañera etorri ditezque: Bay, eta asco  
aldiz ondo mereciac nituen: ta erremedio gabe-  
orietan egongo nitzan, baldin zuc Jauna, li-  
bratu ezpaninduzu. Cerda, bada au, au cerda?  
Nola Jaincoaren leguea pisutztat artueo dezu?  
Nola zure griña gaiztoac ucatzea, gogor egui-  
go, zatzu? Nola erretiroa, oracio, isilic egotea  
eta penitencia artuco ez dezu? Oyec, pena  
ayen aldian, cer dira? Animo bada, eta gor-  
putz au bertatic eci, zatitu, ta Jaunaren vo-  
rondatea ecartzen asi nadin: eta ori pocic, des-  
ventura ayetatic libratzearen. Naico det or-  
duan: eguin dezadan oraiñ.

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

**O**raindaño esan diran desdichaz gañera, an-  
diagoric izango da? Ay eta cembaitez andiago,  
eta arrigarriagoac! Guztien Juez soberanoa,  
gu salvatzeco artu cituen llagaquin, eta gurutz-  
te Santua aurrean duela, aguertu da. O lla-  
gac! O amorio nic añ guehi estimatuac! O sal-  
vacioco gurutze, nic gaizqui ezagutu, eta ez  
billatua! Zuc izan bear cenduen nere erre-  
medioa, eta oraiñ izango cera nere condenacioa.  
Emen da pauso icaragarria.

Ainguerauai aguinduko die Cristoc, onac,

gaiztoen artetic aparta ditecela. Eta bada , gaiztoen artecoa izan naiz , apartatzean nola izango dan , consideratu nai det. Beguire ondo , nola condenatuen gende artetic bulla andiarequin , Jesueristo acusatu , condenatu ta illtzuen Judu , eta Gentillen gavilla andi bat ezquer aldera ate ratzen duten : eta oriequin batean zu ere las terca Juezaren aurrera zaramazquiten. Cer da au , deadar eguingo dezu , ta quejatuco cera : gende infame onequin bat eguiten nazute? Ba ña carguac eguitean , zure quejaz lotsatuco ce ra icusiric zure culpa cembatez andiago dan. Judas saltzallearen falsia demonioac acusatuco dute , eta nola Jesus bere maisua ogueita amar dirugatic saldu zuen : ta zure contra deadar gueyago emango dute , ceren zuc , ez beñ ezba da ascotan , ta merqueago instante bateco gusto utsagatic bera saldu cenduen. Juduen gende itsua acusatuco dute , ceren barrabas gueyago , Jesus ba ño estimatu zuten : eta emen zure contra deadar eguingo dute : onec Jauna , ecertan iduqui etzinduen , eta zure eta beste etsai dea bruai jarraitu cien. Jesueristoren contraco bur laguilleac acusatuco dituzte , eta bereala zure contra biurtuco dira : onec ere zure legue , fede , sacramentuaz bere sacrilegioz burla e guin zuen.

Infernukoorrero , Cristo gurutzean josi zu tenac , acusatuco dituzte : ta indar andiagoaz zure contra esango dute : onec bacequien jau-

na, Apostoloaren esana, eta pecatu mortal egui-tea, berriro zu crucificatzea zala; eta orregatie aisa eta ascotan pecatu andiac eguin cituen: ta au ondo jaquiñic, zu bere Jaincoa ciñala, eta Juez estua izango ciñala. Sinisten zuen, onen salvacioa gatic, odola, ta vicia eman cenduela; baña ecertan ori iduqui etzuen, zaeur baten odola baño gueyago. Orra onen pagua. Ala onec castigu andiagoa mereci du, Judu ta gentillac baño: bada cerorrec esan cenduen becela, oyec etziequiten, cer eguiten zuten; baña onec bai: baciequien zu bere Jainco, Redentore, eta Jueza ofenditzen cindutela. Ay! Ay! Ay, cer infernuco lotsa au! Madaricatu ayen lagun izan da, betor ayequin infernura.

### SEIGARRÉN COSIDERACIOA.

**A**y nere Jesus ona! Orduan nic cer esango det? Nere desdichen barcacioa escatuco det? Baña ezta ya ordua. Ama Virgiñaren amparora biurtuko naiz? Baña onen piedadeen dembora acabatu zan. Nere Aingueru guardacoa gana? Baña ori nere vicitzaren testigu, eta salatzalle justua izango da. Cer esan edo cer eguingo det bada, guciae nere contra badira? Oy ene desdicha gabea! O pena erremedio gabea! Betoz Jauna, nere contra munduan diratequean gaitz, eta desdicha guciae, atzeneco desdicha artatik libra nadin.

Eta cer izango da , baldin puntu artan icusten badet nie buru gabe , eta zorotzat iduqui nuen pobrecho bat , Aingueruac escutic justu gucien , eta Santuric andien artera daramatela? Ay , eta nola zuerteac trucatu ciran ! Burla nic ari eguin nion , eta orain berac nerì , eguiten dit . Nic billautzat neucan , eta nere criadu servitzarien artean artuco eznuen , beguiratuco ere ez nion : ta orañ añ dichaz betea ceruco Principeen artean honratua da : ta ni munduco canalla billau gucien artean , suzco cateaz lotua . Ay ! Nor , edo ceiñ da beste Santu andien artean eguzqui bat becela aiñ eder aguertzen dana ? Urlia nere lagun , aide , edo adisquidea dirudi . Bai , eta berbera da . Au cerda , eta nola ? Pauso charretan nerequin ibilli etzan ? Pecatuetan nere lagun izan etzan , eta onelaco berac eraguin etzidan ? Bai éguia da . Baña guero gucien penitencia eguin zuen . Mundua utzi , eta Religioan sartu , eta vicitza santu bat eguin zuen . Eta coroa eder arc , eta alaco Santuen artean ura egoteac ori esan nai du .

Baña ni pecatu loyetan begui bietaraño sarturic , eta Jaincoaren deyentzat beti gorturic , era gabeko nere deseoen ondoren bildur gabe ibilli nintzan , juicioco egun au seculan izango ez bazan becela . Ay nere galdua ! Beraz egniarren bidea utseguin , eta erremedio gabe betico galdua naiz . Acabera au orduan nere tormentua izango da ; baña orain izan diteque nere

erremedio gucia. Ea , badarcer eguiten det? Jaincoa servitza nola gogotic artzen ez det ? Ea , berac deitzen didan bidetic noan , munduko gauzac utzi , ta neque , eta arantzetatic baderre , Juicioco lotsa artatic libratzearren.

## ZAZPIGARREN CONSIDERACIOA.

Azquenean , conciencien liburua idiqui , eta zure pecatu guciac aguertuco dira. Juezac badarquizqui : eta mundu guciac icusi bear ditu. Ascoc bear bada Santutzat , eta beren adisquitetzat iduqui cinduzten , zu Jaincoaren etsai , ta guizonen contra traidore bat ciñala. Ay zorro itsua ! Uste cenduen zure guezur , ta engañuac aztuco ciraña ? Oraiñ direnac aguertuco dira. O cer lotsa , sentimentu eta pena , Confesore bati issil issilic esatera lotsa nintzana , gucien aurrean aguertzea ! Mendiak azpian artzea gaitztoac nayago luque , orrelako desdicha icusi baño. Cergatic bada , eguin det orain , guero aimbeste lotsa emango didana?

Gucia jaquin bear da : ta ala emendic atera bear det , Jaunaren , eta mundu guciaren aurrean ecin aguertuco dan gauzaric ez eguitea : ta oraindañocoaren eguiazeo penitencia , lotsaric an izan ezdezadan. Onetaraco gauero esamiatu bear det , Jaunaren juicioan banengo bcela , eta Ainguera , ta Santuen aurrean nere pensamentu , itz , eta obrac : ta egun artaco

gucia contatzen balitz becela : lotsa emango di-zun gauzaric bada, erremediatzeco : eta zure-quin batean, Aingueru eta santuac, eta Jesu-cristo Juez dirala, O cembait gauza zure gustoco diranac, Cristoren gustoac izango ezdiran ! Ea bada, quendu, anima oriñ gucia ; quendu, dala guchi, daña asco, ceren Jaineoac nai ezduen. Deseo andiagoac artu, emendic aurrera Jauna-ren vorondatea eguiñaz, berari beti contentu emateco.

Pauso azquenecoa bético sentencia da. Gucien Juez soberanoac guztizco Magestade andiare-quin au emango du, onen favore, ta gaiztoen contra. Ay cer izango da nizaz ? Nere obraquin oraiñ nai dedan sentencia, orduan seguru emango zat. Onetaraco Juezac duen erregla Misericordiazco obrac izango dira.

Lenengo, escuetic dauden justu, ta santuai arpegui amorioz bete batequin, ta bere bendicio guciaquin ceruraco deitu, eta sentencia gozoa emango die, ceren misericordiazco obra on asco, aren leguea gordetzeco eguin cituzten. Guero oyec cerura dijoacenean, ezquerrera biurtu, eta gaiztoai bere aserre, eta madari-cacio guciaquin condenacioco sentencia emango die, ceren aren leguea gordetzeco misericor-diazco obrarie eguin etzuten, eta demenio guciac ondatuko dira bético. Ay ! Ay ! Ay ! Eta onac joango dira petico gloriara, eta gaiztoac be-tico infernura. Ay Jauna ! Betoz emen tormen-

tuac , betico ayetatic libra nadin ! betor zure arguia , betor zure gracia , penitencia , vici berria , eta zure vorondatea ill arteraño daguidan , betico zu alabatzeco ceruco glorian . Amen .

*Gure fedeco ejercicio santu oyen gañean iracurteco gaya , edo lecio espiritual pusca bat eguiteco ejemplo , ta dotriñaren batzuec ematea conveni dala deritzat . Arrazoi luce edo andi indarsu ascoc baño , bear bada euscaldunen viotzetan ejemploac errazago sartu , obeto josi , eta pro vecchu gueyago eguin edo ateraco dute .*



## EJERCICIOEN CIMENDU,

EDO ZURE

SALVACIOAREN GAÑECO EJEMPLOA.

Zure azquen dicha , edo dicha gucien coroa ; eta zue zure Jaungoicoa emen lurrean servitu eta amatu , eta guero Ceruan bera arpeguiz arpegui icusi eta betico gozatzea , Jaunaren ondasunac cembait nai duen ejemplo onetan icusico dezu .

Atenasco Obispo San Dionisio zorioneco , Ama Virgiña lurrean ezagutu zuena , ta San

Pablören Dicipulo estimatua da , San Carpo bere adisquideari aditu eta exemplo au escribitu zuena , ta onen vicitzan era onetan contatzen da : eta Candiaco Obispo zala , dirudienez guertatu zan. San Carpo Artzai ona becela , bere ardieng , edo bere contuco animen celo andiaz , bere ayec nondic Jesucristoren ceruko larre , edo bideetan ondo gobernatu , eta salvatuco cituen , beti cebillen. Baña orra non gentil itsuen festa zoro batzuetan bere fiel , edo crista maite bat gentil gaizto batec engañatu , eta bere ondoren eraman cion.

Araco Carpo Santuac desdicha au icusi zueunan , eta Jesus gueiz maitearen gracia , ta amorezco bidetic ardi ori iguesca deabruaren ondoren joan citzayola , bere viotza lutoz bete , illundu , eta penaren penaz cer eguin , edo cer esan etzequien. Carpo bera aiñ santua , eta Jesusen adisquidea zan , non eguneroco meza esa- tera Jaunaren favore señalatuaren bat artu gabe bñere joaten etzan. Gau erdian oraciora jaiqui oizan. Baña gau artan pecatari bien contra chit aserre , eta samindua cegoen : eta celo gueye- gui eta colera vician sartu , eta bestelako ora- ciona eguiten jarri zan. Beré uste guciaz ceritzan , Jaincoa ala ofenditu zuenae , barcacione mere- ci etzutela , eta Jaunari escatzen cion , ta chit gogotic , ceruko azote , edo su aserrezco ezpata batequin biai vicia quendu eta galdu citzala.

Bere aleguiñaz Santua onetan cegoen , eta

**orra non gau erdian**, lur icara andi bat bere  
guelan sentitu zuen : bereala eche gañetic, gu-  
cia idiquitzen palitz becela , argui andi bat eta  
San Estevani becela , ceruac erdiz erdi zabaldu  
eta Jesucristo gure Jauna guztiz ederra , Ain-  
gueruen erdian bere gloria , eta edertasun gu-  
cian icusi zuen. Beguiac berontz giratu orduco  
ondogabeco leiza zulo chit belts izugarri bat  
icusi zuen : eta orren borde , edo esquiñan pe-  
catari biac , ceñen contra Santua aserre cegoen,  
eta nola an bera erortzeco , eta erremedio ga-  
be ondatzeco zorian biac neque , icerdi , eta  
eriotzaco antsietan icara gorriān ceuden : zu-  
loaren be artatic sugue arrigarritzco asco laster-  
ca cetocela , eta beren aguin , eta buztanaquin,  
zuten indar guciaz biac tiraca berontz ondatu  
nai cituztela : eta guizon batzuec ere gañetic be-  
ra bota nai cituztena zuloaren ertzean bacirala.

Araco San Carpoe au icusi zuanean , poz an-  
di bat artzen asi zan , ceren gentil , ta cristau  
ernegatu arc mereci zuten , pena artzen zutela,  
eta Jaingoaren honragatic laster biac erortza  
nai zuquean , eta bere celoarequin guciari lu-  
ce ceritzan. Eta Jesucristo au ez bacegoan be-  
cela , berac ere Santuac bultzaca , eta golpeca  
biac aleguiñaz bota , eta galdu nai cituquean.  
Orduan gora beguiac jaso , ta Santuac icusi  
zuen , nola Salvadore guez beraa , pecatari  
ayen galdu bearra icusi , eta bere jar lecutic  
jaichitzen zan , eta bere escua eman , eta neque

eta peligro artatic libratzen cituen , eta ori bera Ainguerauc eguin zuten.

Misericordia andi ori eguin , eta Jesus gozoa Santuagana biurtu , eta esan cion : Ea , Carpo , ona emen naucazu ; eta aurrera nere gañera descargaezazú : ona , animaç salvatzeagatic berriç ere padecitzeco prest nago : eta iñoren peccatu gabe ori izan albaledi atseguin andi bat artuco nuque , eta pecatuac quentzeagatic eguingo nuque . Eta orrembeste Jaincoaren celo de zun ezquero , beguira ezazu oñdo zuri cor conveniago zatzun : edo infernuco sugue , eta pistia ayen artean leiza zulo illun icaragarri artan egotea , edo zure adisquide Ainguera ederren artean Jaincoarequin betico egotea .

San Dionisioe dio , au gucia San Carporen aotic , bidez cijoala , bere echesi Santuac idu qui zuenean , entzun ciola . Ejemplo au berau Demofilo ceritzan Monje bati escribitu cion , Jesus guciz beraa , eta maitearen espiritua oni éracusteco ; eta bidez Santuac , onequin igaro citzayona , contatzen du , eta Ejemplo edo gauza miragarria da .

Pecatari galdu fañatu bat , Jaincoac bere misericordiaz beguiratu , eta beregana biurtu zan . Eleizara joan , eta bere pecatuen erremedioa bilatzeko , an cegoen Sacerdote baten oñetan , lotsa , damu , eguiazco propositua , eta negar andiaquin confesatzeko , ta absolutioa artzeco iarri zan . Sacerdoteac bear becela , lastima an-

diaz artu zuen ; baña araco Demofiloc pecatari ori an icusi zuenean suac, eta garrac artu zuten ta Jaincoaren celo santua , colera vici neurri gabera pasatu , eta lasterca biac ceuden Aldarean aldera joan , eta pecatari tristea golpea , eta osticoca gaizqui esaca , eta lotsaturic Elizatic bota zuen , eta Sacerdoteari milia disparate aora cetozquionac esan ciozcan , ceren pecatari galdu ori bere oñetan aiñ gracia onean artu zuen : eta Aldareco gauza santuac ere pecatari arc loitu cituelaco, andic quendu , eta gorde cituen.

Bere celoaren azaña galant oyec eguin , ta ori gucia bere Obispo San Dionisio , bera Elizaco Ministro eguin zuenari , gauza anditzat escribitu cion. Baña San Dionisioc bere espiritu Apostolicoarequin erantzun eta chit claro Demosilori aditzerera eman cion , onen celoa era-gabea , juicio gabea , eta lotsa gabea izan žala , eta persona bi , edo Sacerdote , eta penitente estimatu , amatu , eta honratu bear cituenac , desonratu , ofenditu eta bere itz , eta obraquin colera gueyeguiaz gaizqui tratatu cituela.

Ejemplo oyetatic atera bear degun 1. Do triña da , gure Jaungoico ongi nai , onguille , ongiro , edo benignoa ceiñ Aita , eta ceiñ suave amorosoa dan : ta Jaun andi , gure bearric ezduena izanic , animac cembait estimatzan dituen. Oyec Jesuš onac bere Aita Eternoaren escutic bere contura artu cituen ezque-

ro, berarequin paqueac eguin arteraño cer amoriozco aleguiñac eguin etzituen, eta cer dolorezco tormentuac eriotzaraño eraman etzi-tuen? Eta alere zure salvacioa bere viciaren costuan bazan ere pocie ta merque balitz becela erosi zuen. Zure anima ceiñ joya preciatua dan, eta cembait balio duen, berac ondo ezagutzen du, eta ala aimbesteraño amatzen, eta estimatzen du, non bear balitz, bere vicia berriz emateco prest dagoen.

O! Eta ceiñ itsua izan bear duen, Jaincozco caudal onen precio, edo Jesucristoren odol, eta vicia bere anima gatic, aiñ pocie, ta añ ugari eman au icusi, eta ezagutzen ezduenac! Argatic fedeco argui au zuri quentzeco, edo zure anima ezagutu, eta estima ezderazun, zure etsai deabru charrae aimbeste aleguin eguiten du. Emen icusten, eta tratatzen diran lurreco gauza, edo guezurraqin zure erara erraz engañatzen zaitu: eta eguiaren arguia, eta consideracio zure salvacionaco bearren diranac zuri burutie quentzeco aiñ listoa davil alde gucietatic: viotzeco consideracio onen saltac, zu, eta bestear galtzen zaituztela badaqui. Pensamentu au zure violezan ondo josiezazu bada, eta ascotan esan. Ni salvatzeko Jaíncoac cembait eguiten du? Eta ni condenatzeagatic deabruac cembait eguiten du? Eta viciera berri santu bat bereala zuc artzeco, ori erremedioa izango da.

Dotriña, edo lecioa da, celoa cer dan, eta

nola bear dan icustea. Amore santuaren laguna da celoa : edo amore bero eracequi eragui-  
lle bat. Celoa chit vici beroa danean coleraz  
baliatzen da , eta au bere neurri justuan da-  
nean , gauza andietaraco , caridade , ta celo-  
ren socorru oida. Baña colera , morroi , edo mi-  
rabe atrebituegui baten guisa , echechoandre edo  
caridadeac aguintzen duen baño aurrerago  
gueyenean sartu , eta nabarbenquiro igaro-  
tzenda ; eta ešcu gueyegui artu , ta aguindutaco  
gauza on bat eguiteco gaitz asco eguin oiditu.  
Eta caridadeac paqueac eguitera sordedilla  
aguindu; eta colera urduriac ascori buruac autsi  
oi diozca. Gure grīna gaipto , pasioac deriste-  
nac arrazoyaren arguiari beguiratu , eta jarrai-  
tu bearrean , atzera ori utzi , edo oquertu , eta  
aurrea arteen diote , eta neurri , edo eragabe  
berac gaitcera laster eta erraz igarotzen dira.

Gaitz edo ofensa bat eguin badizute , orri be-  
guiratu orduco , bertan zure colera vicia jai-  
quitzen , eta zure-odola erazqui , eta iraza-  
quitzen becela jartzenda. Baldin colera ori ca-  
ridadeaz bereala moldatzen ezpadezu , puntue-  
ro arrazoyaren contra , edo onec escatzen eta  
nai duen baño gueyago irazaquico da. Ori be-  
re' modura San Carpori , eta are gueyago de-  
mofilo nabarbenari guertatu citzayon.

Baña amorezco Maisu Jesus onac caridadez  
legue , eta lecio ederra gucioi ematen digu , eta  
gure ira , edo abere ondo ecigabe beti gueren

gan deguna, nola arrazoyari sujetatu bear dan : gure arteco lagunen nequeac nola eraman bear diran : zutic , edo Jaincoaren gracian dagoenac erortzeco bildur izah bear duen , eta erori , ta galdu'danari jaiqui , eta irabaci dedin , cer lastima onguiroaz escua eman , ta lagundu bear dion . Eta azquenie Jaincoaren Ministro celosoac cer amorezco viotz , eta paciencia lucea pecatari tristeac ondo artzeco , eta salvacioco videan sartu , eta zuentzeco bear duten.

## PECATUEN GAÑECO EJEMPLOAC.

**O**raingo , edo gure egunetako lance , edo ejemplo icaragarri bi emen iracurri bear dituzu . Urte ascotan Erregueren Predicadore famatu , ta Misionero andi Aita Agustin Castejon , Madriden , ta lecu ascotan ascoc errespeto andiaz enzunac , ta estimacio igualaz ezagutuac , bere misioetako lenengo liburuan biac contatzen dute onela .

Erri batera misio eguitera ninjoala , Jaungazte , chit aberats , ta galai galant bati , lagun egun bear cidala gógoac emancion , ta ala nerequin joan , ta Misioco Errian egon zan . Bere ustez caleae gustora paseatu , eta Errian bere bizarria galanta eracutsi nai zuen . Oonetan cofesonariora etorri citzadan anima Jain-

coti , edo [virtute] andico bat , ta bere concienciao contua eman eta chit humill ta garbiro esan cidan : Aita , nere erretiroan oracioan nagoela , galai edo Jaun campotar bat nere aurrean icusi det : aren anima deabru guciac baño beltzago edo demonio itsusi icagarri eguiñic dago. Jaquin beza Aita , onelaco , eta alaco pecatu nazcagarri , ta onelaco culpaquin Jaincoaren desgracian , infernuco ichura izugarri bat dagoela. Gucia entzun , ta Jauñaren adisquide mandatari oni ecer esan ezbanio ere , gucia sinistu nion , ceren entzuna sinista niozquean. Jaun ori cegoen echera Elizatic iga-ro nintzan , ta alacoric uste ezpazuen ere , bai-cic caletan bere burua guciai eracustea ; guela batean sartu ta chit estu artu nuen. Bereala bēre anima nor zan ta nolacoa cegoen esan nion ta bere peçatuen ispilla arrigarria peguien aurrean paratu nion. Galai ori turbatu ta icara jarri zan. Guzia egua zala icusi , ta Jaincoaren amo-rezco avisoa zala bereala ezagutu zuen. Beregan sartu edo viurtu , ta viotzeco damuz , eta eguiazco proposituaz bēre pecatu gucien confe-sio andibat ondo prestaturie misioan eguin zuen , eta bear becelaco viciera berri on bat aurre-raco artu zuen.

Ejemploa an bertan Aita Agustiñec onela con-tatzen du. Urte bete oraindie ezta lance icagarri au nere beguiz icusi nuela , ta nere orduco izu edo bildurrac orain ere badirau. Gui-

zon bi aserre chit andian sartu ciran , eta bata munduracō , arrazoya ceucala : bada onec culparic etzuela , besteac testimonio falso andi bat jaso , ta carcelan iduqui , ta bere zuen hacienda gucia galerazo cion. Triste onec Jaincoari beguiratu baguez , bere pecatuen castigua zala ezagutzen etzuen : ala gorrotoz itsutu , eta venganzaz bete , ta bestearen contra viurtu zan , edo obeto esango det , Jaincoaren , ta bere buruaren. Aita bada cer ? Preso , eta galduric culpa gabe icusten bazan ? Ori , edo bacoitzac bera , Jaincoaren legueaz , justiciaren aurrean escatzea , ondo da : baña gorrotoz benganza artzeco , Jaincoaren legueac nori escu emango dio ?

San Pedro Martiri gloriosea testimonio bategatik preso eegoela , beiñ oracioan Santo Cristo bati esan cion : Jauna , carcela onetan egoteko cer culpa det nic ? Jesus onat eranzun cion : Pedro , eta gurutze onetan egoteko , nic cer culpa neucan ! O cer errespuesta ! Cer ejemplo , eta cer doctrina ! Zu pena eta aserretan Jesucristori ori galdetzen baciñio , eta besteac ere bai ; nere contu , guchiago condenatuco lira queala : eta ejemplo guizonac ori galdetu balio , bere gañean laster icusi zuen desdicha , icusico etzuen. Gueroenean , ez besteac oni barcacionic escatu , eta ez onec besteari barcatu cion. Eriotzaco gaitzac guezurtia artu , eta ill zan , eta icusi zanez , condenatu zan. Presoac jaquin zuenean , esan zuen : Cer ? Eta gañera ori ere bai ? Eta

neri barcacionic escatu gabe ill dala? Bada ez: deabruaren figuran infernutive badator ere, barcatu ez diot.

Arrigarritzco gorrotoa; baña ondo costa citzayona. Gau batean, au bere oyean cegoela, orra nun condenatu ori bere gañera ezarri citzayon, ta infernuco atzaparraquin ito nai izan zuen, Jesus, Jesus, tristeac esan, ta condentuac utzi, eta au bereala ondatu zan, baña erdi illa oyean guelditu zañ. Lanie asco herida, ta tratu gaitztoetatic sendatzeko erremedioaquin erabilli zuen. Albait ere lenena bère ustez confesatu zan, ta ez bere contrarioari bacarric, bai eta aren aide, eja lagun guciai ere vioztetic barcatu cien. Ah! Jaincoac nai duenean, ceiñ erraz, eta ceiñ laster onelao guapoac eci-tzen, eta biguntzen dañien! Baña, onec onela barcatu ta ere, Jaunaren aserreia icusi zuen.

Beiñ' batean condenatu ori, bestearc esan zien becela, demonio beltz ichusi baten guisa, infernuco suac ta garrac ceriozcala, atzaparrac armaturic, adia illun izugarriac ematen cituela aguertu, ta bere oyean cegoen guizon tristea gana-cijoan. Amabi urteco onen seme batec, icusi, eta deadarrari eman cion: Aita, Aita; ona demonioa, ona demonioa. Guizonac lasterca an cituen Reliquiac artu, eta Jesus, Jesus, Maria, deadarrez esaten asi zan, eta orrequin libratu zan. Baña seme gaissoai atzaparrada bi eman ciozcan, eta bizcar alde bata erre, edo

larruturie, eta bestea nere sotana au baño beltzago utzi cion.

Condenatu ori echearen beco zulo batera arin jachi, edo ondatu, eta alaco infernuco lantu, deadar, eta garrasi samiñetan egun artan an egondu zan: eta andrea, guizona, ta seme gaiso ori caleetan illae becela cebitzan. Nerequin irurac egondu ciran: mutilchoaren bizear eritua nere beguiz ieusi nuen: ayen echera joan, eta demonioa conjuratu nuen, eta lance triste, eta desdicha icaragarri au certan gueratu dan nic ezdaquin. Batà infernura condenatu zan, besteac aimbeste munduan ieusi zuen, ta Jaincoac daqui cer izango dan. Eta ona aserre eta gorrotoen pagua.

Emen icasi bear dezun lecioa da: Nola Jaincoaren gracian dagoen Anima Trinidade Santisimoaren Templo, eta ceruco vicia dan: ala pecatuan dagoena demonioen ciega, deabruen leiza zulo, ta Luciferren infernu vicia dala. Nola anima justua ari lagun, eta corte Aingueruac eguiten dioten, ala pecatari ari deabruac alde guztitic, edo azpian artu, eta beti jarraitzen diote. Nola Anima garbian Jesucristoc bere gozo, eta atseguin guciac dituen, eta bere ari Jaincozeo naieraz beguiratu, eta bere viotzeo Esposa, edo alaba maitea becela beti gordetzen duen; ala anima culpaz loitu ichusian deabruac bere atseden gabeco gorroto vicia dauca, eta aren zai, edo ondoren pecatuz-

**co catequin lotuaz bere esclava billau ori gor-detzen , eta seguratzen beti dabill.**

Jaunaren gracian dagoen Anima, nola illico balitz , lurreco nequeetatic ceruetaco glorietara igoco litzaquean ; ala pecatuua dagoena illico balitz , puntu artan munduko dichetatic infernu-co desdichetara jachico litzaque. O! Ta Jaungoicoac gure beguiac arguituco balitu , cembait guizon , ta andre , campotic eder , edo gallantac , ta ederqui janciae ; eta barrendic alaco demonio beltz itsusi eguiñie : ta beste cembait munduko beguietan pobrecho arlote , zatarrez janci , edo estaliae , ta barrendic cerua baño ederrago , eta gozoago diran Animac icusico cinduque ! Ah mundu guezurtia , eta beti zoro ichua !

Emen icasí beār dezun dotriña da , pecatua cer dan icustea. Baña ay ! Iurraren gañean gauden artean , dan becela , pecatua cer dan ezagutzen ezdegu ! Jaquizu bada , lurrean izan ditequean gaitzic andiena dala pecatua Jaincoarequico , munduarequico , ta zurequico da gaitzic andiena , gaitz bacarra , gaitz uts edo nasgabea , gaitz pare gabea , gaitz guciai eraguiten diena , gaitz gucien azcarria : onen aldean guztiac aztutcen dira ta gaitzaren icenic ere mereci ez dute. Jaincoarequico da gaitzic andiena , ta bacarra aren beguietan itsusiena , eta aren viotzarentzat nazcagarriena : eta nola Jaungoicoa ontasuna bera dan , gucia ona , eta

on guztia : ala pecatua gaitza bera, eta gaitz gacia, eta gaiztotasun gacia da. Nola Jaungoicoa ontasun neurri gabea dan, ala pecatua gaiztotasun neurrigabea da.

Mundu guciarequico gaitzic andiena pecatua da : bada munduan izandu diran, eta izango diran gaitz guciac, culpa, culparen pena, eta calteac dira.

Zurequico, edo criatura bacoitzarequico gaitzic andiena da pecatua : pecatu mortal batec Luzbel, eta aimbeste Ainguero cerutic infernura arrastatu cituen. Pecatu mortal batec Adan gure Aita, bere ondorengo graciaquin Paraisotic bota zuen. Pecatu mortalac arre zuero aimbeste anima infernuetan ondatzen ditu betico.

Zue icasi bear dezun lecioa da, pecatu veniala cer dan jaquitea. Culpa veniala aiñ erraz eguiten dana, ariña, ta chiquia esan oida ; baña ondo beguiratzen bada, gaitz chiquia eta ariña ezta, baicie gaitz andia, eta pisua. Ceren Jaincoaren contraco nolere bait ofensa, eta agravioa dan. Eta au aditzeac, ta sinisteac, arritu, ta zurtu bear ezgaitu ? Gure Jaincoaren fede vici, ta amore eguiazcoa baguendu, ala izango litzaque. Ceren Jaincoaren gracia, eta amore santua quentzen, edo iltzen ezpadu ere, baña epeltzen, argaltzen, eta iltzeco zori edo peligroan paratzen du apima. Ay ! Nola gaitz chiquiac eri bat gaitz andietara, eta or-

tic eriotzara daramaten : ala culpa venial édo chiquiae andietara , eta anima betico galtzeco mortaletara , edo eriotzara daramate !

Ceren Jaincoaren socorru , eta favoreai eta bear bada zure salvacioraco bearren diranai bidea ichitzen dien : eta odoi illun batzuen guisa , bitártean animari jartzen zaizcan ceñuco arguiac viotzean sartu ezditecen. Ceren culpa veniala ain gauza icaragarria dan ; non da munduko gaitz guciac quentzea , edo erremediatzeagatik , eta ez mundu gucia salvatzeagatik ere culpa venial bat ecin eguin ditequéan. ¡ O arrigarritzko gaitza , eta orregatik ere aiñ erraz , eta aimbezte bider eguiten dezuna ! Ceren izan diran Santu gucien virtute , gracia , eta meritu guztia , orien penitencia , oracio , limosna , eta obra on guztiak zure animan bacindu ere , eta orrela pecatu venial batetan eriotzak artuko bacindu , ecin orrequin zure anima ceruan sartuko dan. O pecatu venial , etsai , erio , eta arerio infernua baño gaitzoagoa !

Azquenic orrelako culpa chiqui bat gaitz ceiñ esquerguea dan , Jaincoac emen lurrean orregatik eguin dituen castigu , ta penetan nolere bait icusten dezu. Lurrean ditezquean desdicha guciak munduaren gañera eracarteko asco , edo sobra da culpa venial bat. David Erreguearen vanidade bataren erri gucia Jaincoac castigatzea , ta galtzeco asco izan zan. Oza Levita , tes-

tamentuko Arca erortzera cijoanean, ceren escua arrimatu, Jaunac castigatu ta bertan bieia quendu cion. Errespeto guchirequin Arca orri beguiratu ciotelaco, berroguei ta amar milla Betsamita, edo gueyago beingoan ill-otzac guelditu ciran. Eliseoari burla eguin ciotelaco, berroguei eta bi mutil artzac jan cituzten, ta onela dira fedeco beste cástigu asco, culpa venialac ecarri dituztenac.

Oriece baño gueyago da, guc icusten ezdeguna, baña Jaincoac berac eguiten duena. Orrelaco culpa venial, edo ariñac gatic, ta ascotan bategatic, Purgatorioco su, ta gar ica-ragarri, tormentu, ta penetan erretzen anima justu asco Jaincoac icustea, eta gacia azquene-ko maravediraño pagatu artean aren Justicia aserreac ez barcatzea. Bai: ta bere anima mai-te, viotzeco lazstanac Jaincoac, Aita amorosea izanic, ala dauz ea: ta Santuac diotenez Purga-toriocco su vici oriec, infernucoac becela, edo berez erdira guchiago dirauten artean. O aser-re, eta gorroto paregabea! Baña ori gacia ezta Jaincoaren optasun, ta misericordiaren faltaz, ezpada culpa ariñ orren gaiztotasun, eta gogor-tasunaren sobra gueyeguiiaz. Bada cer? Culpa ariñ ori erraz eguiten dan falta chiqui bat ez-ta? Bai: eta orregatic beragatic, ori eguin gabe aiñ erraz cengoqueala, ta chit aisa cul-pa ori utzi cenezaqueala, aiñ aisa zure voronda-tea ucatu, eta Jaincoarena eguin cenezaqueala,

orren erraz atseguin pisca zurearequin irtetea gatic, ecerezqueria hatean. Jaincoa nolerebait agraviatu, eta ofenditzea, da beraren menosprecio icaragarri bat, ta orregatic ala pagatzen da. *Ni zure Jauna banaiz, nonda nere bildurra? Ni zure Aita banaiz, nere honra non da.*

O eriozco infernuco pecatuaren zazpi burudun sugue nazcagarria! Cembait aguincada animari puntuero zazpi aldetatic ematen diozca: dala soverbia, andi nai, ta vanidadea: dala lurreco interès, edo irabaci nayaz: dala invidia edo ecin gueideen ona icusiaz: dala ira, aserre ta gorrotoaz: dala gorputzeco atseguin loi eragabeaz: dala eragabeco jan, edan, lo gueyéguian, ta naguitasunean: dala mandamentuen contraco beste pensamentu, itz, ta obra ascotan. Ta oriec erraz ucatu, edo utzi cinitzaqueala, venial edo ariñac diralaco, orden aisa zuc eguitea cer fede, cer legue, ta cer amorearen señale dira?

### ERIOTZAREN GAÑECO EJEMPLOAC.

**G**aunā jaquiñagoric luraren gañean ezta, eriotzaren Ejemploac baño. Beguiz icüsten diranac dirade. Alere Fedeac, edo Escritura Sagraduac contatzen digun bat iracurri edo enzun bear dezu. S. Lucas Evangelistac beguizco testicu onac becela contatzen du S. Pabloren sermoi hatean icusi zuena. Act. 20. Troide ceritzan erri bate-

ra Apostoloa joan zan , ta bereala gendedi andi bat bera icustera , eta aditzera eterri zan : ta biaramonean joan bear zuela aditu , ta aren ceruco Dotriña entzuteagatic , gau artan arren predica cezala erregutu cioten . Argui asco ira-zaqui , ta Apostoloa asi zan , eta luzaro egon zan , eta gucien atseguin , eta frutu andiaz gau erdiraño predicatu cien : eta cembait entzuna-go ambait zaleago , eta entzun nayago . Baño ona bertan munduko desengañoa .

Besteen artean Eútico ceritzan mutil bat Sermoya enzuten leyo batean cegoela , lo guciz pi-suac artu , eta Echearen irugarren vicitzatic , edo altutic buruz bera erori , ta bertan illic gueratu zan . Uste gabeko lance triste onec an- cenden guciai lastima andia eman cien , ta ez chiquiena San Pablori , ceña sermoya utci , eta isilie guelditu zan . San Crisostomoc dio emen , Apostoloa mututu , edo isildu zala , ceren , beste maisu famatu , bera baño guchiago etzanac , edo eriòtzac itzeguin zuen .

*Pro Doctore casus fuit.* Munduaren Maisu , edo S. Pabloren ordean eracusten eriotza sartu zan , beguiz guciaic icusteco , eta icasteco gure vicia nola , ta cer dan ; bada guisaseme bere edadearen lorean puntu batez lenago viciric cegoña , bertan illic beguien aurrean eecusten . Ah cer ispilla arguia !

Erioaren contra ez urteac , ez indarrac , ez osasun , edo ondasunac ecer valio dut : arc

gucia era batera darama : guizona lotara joan, ta guchien uste duaneán , illic beste munduan arquitzen da. Erioac bere tiroa puntu batean eguiten du. Munduco aldarte edo goraberac nola diran , Maisu andiac becela eriotzae eracusten du. Eitico gazte illic guelditu zanac isilic , baña aguitz an ceudenai predicatu cien nola lurreco anditasun , atseguin , ta ondasunac bertan emen ondatzen diran : orien ondoren , orien billa ibiltzea , cer neque , eta vanidade utsa , edo zoraqueria andia dan : vici modu santu batean , dembora dezun artean , obra onaqn in viciro presa ematea , ceruco ondasunac irabazteco ceiñ conseju ona , eta gauza bearra dan.

San Pablo Predicadore andia zan : onen dotriña ceruracoa zan : onen arrazoi argui ederrac ceruco bidea eracusten zutenac ciran : onen itzae Jainkoaren amorean viotzac irazaquitzeo su gar gozoac ciran : onen mandatu eta avisoac Espiritu Santuarenac becela ; gucientzat seguруac ciran, Baña alaere ceruco Doctore San Pablo , eriotzaren aurre , edo aldean isildu , edo mutulu zan eta an ceudenetzat eriotzaren sermoya asco edo obeago zala ceritzan. Zue ere bada , cristauva onen avisoac artzen badituzu damuco elzatzu , eta ceruco bidea arquituko dezu.

Conseju andi au Eugenio Aita Santu , eta berre dicipulo maiteari ondo vicitzeco San Bernardo eman cion. Zure obra gucietan , cion , considera zazu , zuc ere besteac becela ill bear

dezula, ta aguintari andien espiritua quentzen duen Jaunac, zure viotza goberna dezala. Lau Aita Santu zure aurrecoac zure egunetan illic icusi dituzun: ta gauza ciertoa da dignidadean becela eriotzan ere jarraitneko dizula. Ayec lur-petic cer dioten adizazu munduko gloriae ceiñ laburrac diran, eta emengo anditasunac nolaco errematea duten. Gucia cein laster dijoan: eta zure azquena nolacoa izango dan. Pensamendu onec pecatuetatic libratu, ta ondo vicierazoco zaitu. Eriotzaren memoria au beraren contrapozoya da.

Esan degun gaztearen ejemplo triste, edo eriotza S. Lucaséc dion becela izan zan. Baña gueroenean, dio nola S. Pablo Jesucristoren amorezko espiritu beteac, aren misericordiazko entraña gozo, ta onguiroac cituen, Sermoya utzi, ta Eútico illic egoen lecura jachizan, ta aren gorputza bere besoetan artu, ta laztan estu bat eman cion. Santuac orrequin batean piztu zuen, ta milagrozko vicia eman cion: eta San Lucaséc dio, an ceuden guciae consuelo chit andia artu zutela. Eútico piztu au guizon eguín, luzaro vici, ta diote, San Juan Evangelistari jarraitu, Santu andi eguin eta gure Españian, Jesucristoren fedeagatik Martiri glorioso, San Eútico ill zala.

## ERIOTZA ONAREN EJEMPLOAC.

**C**hit asco, eta ederrac A. Andradec, bere Graduetan dacartzi, eta gueyenac andic artu ditut. Perú Indietaco Erreinoan, eta Juli deritzan Erri batean Cristau familia bat bere virtuteagatic ceruco favore andiaquin señalatua izan zan. Gurasoac chit devotoac ciran, eta beren fede, ejemplo, eta obra onaquin, itzaquin baño ere obeto umetik aci cituzten. Jaincoaren vildur santu, eta detriña, eta ondo vicitzeco, eta salvatzeco bear zutena chit ederqui esanaz viotzetan sartu cien. Berac munduraco pobreac, baña Jaincoarequico virtuteetan chit aberatsac ciran. Artzai, edo gandu zai vici ciranac becela, orretan garbiro umeac ere oitu cituzten: oyec iru alaba ciran, ta Francisco ceritzan seme bat, cerutic emana becela araco eguiña.

Amasei urte citueneco, Jaincoaren ta bere Ama Santisimaren siervo devoto, virtuteetan chit aurreratu, ta amorioz betea cegoen, eta ceruac beretzat nai zuen. Ala eriotzaren gaitz andi batec eman cion, eta ori Jaunaren vorondateaz batean chit paciencia gozoaz ceraman. Iltzen zala ezagutu, eta bere viotz guztiaz Jaincoagana viurtu, ta Sacramentuac artzeco pocic prestatu zan. Gure Compañiac Aita bere Confesore zuena deitu, ta confesio generala

chit ederqui eguin zuen; baña ondo erraz, eta laster: bada urte guchi, eta pecatu guchiago cituen: eta ceru bideraco Beatico Santu, edo bere Jabea bidezco janaritzat artu zuen. Gaitzac cordelac estutu, eta azquen Oleacia ere eman cioten: ta Francisco gazte ori bere orduaren zai, Jaincoac nai zueneco, chit alegure beraren escuetan cegoen.

Iru arreba bera baño zarragoac, eta virtuteetan bere antzecoac laguntzen cioten. Iltzeo zorian oyequin cegoela, Confesorea becelaco bat orra non guelan sartu zan; baña ceruco Ainguerua zan; bada cierto, Padrea Colegioan cegoen. Padrea becelaco ori galai chit eder hirquin cotorren: oriec icusi, eta Francisco chit alaitu, eta gozatu zan. Ea Jaungoicoaren semea, anima zaite esan cion, Aingueru, eta Santuaquin ceruan laster ieusico cera, bada zure obra onen saria emateco zure beguira dau-de. Onetan gaisoac, eta bere arrebac ceruco musica zoragarri bat aditu zuten, eta gueroago eta gozoago zan. Ateronzt beguiratu, eta orra non anda guztizco eder batzuetan Asma Virgiña, eta Serafiñen gañean bere devotoa consolatzera cotorrela icusi zuten. Ordu bi nai baño lasterragoigarociranae visita oneciraundu zuen; ceruco Erreguiña, Aingueru cantari, ta oyen erregaloquin, eta ayen veguietatic joan ciran. Eria eta arrebac cernan baceuden becela vietzeo poz andiaz guelditu eiran.

Uurrengo egunean , Aingueru bat etorri , eta arreba nagusiari esan cion : zure anaya laster emendic joango da , eta cerura eramateco Aingueru bi etorri dira. Ara beguira nondic eramango duten. Beguiac jaso ta orra non Escala gucizeo arguitasun ederrez bete , guelaticceru-raño igotzen zan bat icusi zuen , eta atseguin andiaz bere anayari esan cion. Andic egun bira beren ejercicio santuetan ceudela Virgi-ña Santisima aguertu , ta Ama guciz gozoac becela , bacirudien bere seme maite ori ecin utzi zuela. Bere begui ederraz beguiratu , ta esan cion : Ea ene semechoa , gaitz ta neque oyec laster igaroco dira , ta zure saria glorian artzera etorrico cera. Nere semearen cortean emendic egun bira echedeten dizut. Egun biac gloria vician becela , coloquio gozoetan igaro , ta Ama Virgiñac esan cion orduan bere Ama maitea icusten cegoena becela , beraren besoe-tan anima eman , ta Aingueruac cerura betico eraman zuten.

### ONEN ARREBA BATEN EJEMPLA.

**I**ndietaco mutilcho dichoso au , entzun dezun becela , ceruetara igo zan. Baña familia devota arentzat Jaunaren misericordiac orrequin aca-batu etziran , Franciscoc bere arrebacho bat escutic becela , bere ondoren cerura eraman artean. Iru arrebetatic erdicoa , edo bigarre-

na anayarequin asi zan : biac elcarrequin ganaduac zaintzen , ta are gueyago devociozco ejercicioetan senide , ta lagun beti oi ciran. Doncella onec , gucia Jaincoarena izateco , ta Ama Virgiñari jarraitzeco bere virginidadea guztico voto andi batequin betico esqueñi edo consagracion , ta Indio chit desonesto abereen guisa vici ciranen artean arrosa eder garbi au arquitzen zan. Gure Jaincoac bere argui , graci eta doayac , aprovechatu nai duenari , ugari non ere nai ematen diozca.

Doncella au santa bat eguiñic onela vici zan : egunero gueyago , eta obeago izateco , ascotan confesatu , eta comulgatu oizan : festa , danza , eta beste bulletatic igues Elizetara joan eta Ama Santisimaren escuetatic aren Semeari an viotz gucia ematen cion : ganadu zai , Jaincoaren , ta bere gurasoen vorondatea eguiteagatic campoetan cebillenean , Santuen ceruco dicha contemplatzen , glorian becela oi cebillen. Ara-  
co anai zori onecoa ara igo ta bere burua , ganaduen ondoren bacarric icusi zuenean , bere garbitasuna eciñ erraz gordeco zuelaco , ta peligro andien artean cegoalaco , bildur , ta quezca estu batec eman cion. Beste aldetic Jaincoaren amore añ beroa viotzean sartu citzayon , non da bere Jabe onari negar andia-  
quin erregutzen cion , arren bera ofenditzeko peligroetatic atera , eta bera beti seguru amatzeko cerura eraman cezala : bada bere Esposo

maitea , culpa venial batequin ere , ofenditu baño lenago milla vicitza galdu nai cituela.

O gure Jaincoaren amore ondasunez betea! Oracio onetan , anaya ill , eta bigarren egunean cegoela, lo gozo batec artu zuen : eta orra non bere Anai doatsua chitezco eder , gloriaz jancia aguertu , eta esan cion : nere arreba maitea , consola zaite. Ea , Jaincoac zure deseo on , ta oracioac entzun ditu , eta laster ceruco glorian nere lagun izango cera. Berri on oyequin chit pozaldi andia Doncellac artu zuen , ta andie irugarren egunean iltzeco gaitzac eman cion. Gure Padre bere Confesorea deitu , eta cer igaro citzayon , contatu cion. Medicuac , deitu eta gaitza ezagutu etzuten ; baña batac esan zuen : Jaincoac au cerura eraman nai du ; ta engoñatu etzan. Egun artan bertan , Jesus bere Espsoa aguerlu , eta esan cion : Nere Esposa maitea : zu eramateo Ainguervuac datozi : atoz nerequin. Au aditu orduco lasterca jaiqui , eta Jesus bere Jabearen ondoren uste guciaz cijoan : bere aizpa an eeudena eldu cioten ; ta Doncellac bere esuetatic cerua quendu ciotelaco , negarrari eman cion.

Colegioco Erretore Aita Pedro Vicente eria icustera joan , ta gucia contatu , eta esan cion : Biar egüerdi puntuau illico naiz. Bereala devocio andiaz prestatu , eta Sacramentuac artu cituen : ta bertatik Jesus , Maria , ta Santua-

quin , ceruan balitz becela , eta an betico iraungo duten coloquio gozoac eguiten asi zan. Esan zuen ordua allegatu , eta guela artan Aingueruen musica chit suabe bat aditu zan. Cantariac cioten : Cristoren esposa atez , Jaunac zuretzat betico prestaturic daducan Coroa artzera. An ceudenac zoraturic becela ceuden : eta Animaren recomendacioa gure Padre bi esaten ceudela , sori oneco doncelac Jaunari bere espiritu eman cion , eta Aingueruac beren lagun maite , eta garbi estimatua becela cerura eraman zuten.

Ejemplo oyetan icasi bear dezun lecioa da icustea , nola Jaincoaren gracia , persona , estada , dembora , ta lecu gucietan gure onerako beti prest dagoen : heti guri deyez viotzeco atea idiqui , ta sartzeko lecu eman nai badiogu , Franciscoc , eta bere arreba gazteac eguin zuten becela. Cristau berriac ciran , eta alerecer fedea , cer Jaincoiren amorioa : ceiñ laster icusi , eta ceiñ firme gorde zuten Jaunaren vorondatea. Cembait bider Jaun amorosoac , berari jarraitzeco onelaco aigui , aviso , eta ejemploaz zure viotzean deitu dizu , ta zu beti gorra , nagui ta legue gabea ? Indio oyen viciera santaren aldean zurea icusi , ta lotsazaita ; baña ez lotsatu iñolaco moduz orien vicitza , ta ejemploac artzean : paquean vici , eta eriotza on batequin betico ayen lagun izanzaitean ceruco glorian.

## ERIOTZA GAIZTOAREN EJEMPLOAC.

**E**san degun Errian bertan guizon bat izandu zan Jaun baten illoba , eta gure Padreac gaztetatik , contu andiaz aci zutena , oneraco jayoa becela zan , ta lagun on ejemplo , ta lecio onaquin , virtutean chit aurreratu zan. Onetan osaba illtzan , eta illobaren merituac Padreac icusi , ta osabaren oficiaraco bera becelacoric etzala; aren lecuan Caeique eguitera logratu cioten. Araco gazte orrec aguintari , ta aberast bere burua icusi zuenean , piedadezco ejercicio , eta lengo devocioac utzi , eta infernuco peste , edo lagun gaiztoai arrimatu , ta cristau onaren asieraz , ta Jaincoaren bildur santuaz axtu zan ta alperqueria , erregalo , ta vici modu char galdu bat artu zuen.

Pradreac aviso , eta conseju onic asco eman cioten ; baña gueia alperrie : chit prestuez gogor eguin , eta ofensa andiaquin orien , ta Indio gaisoen contra lazqui biurtu zan , ta bere gaiztaqueriac gatic justiciae ere castigatu zuen : baña obeto etzan. Potosira capitán cijoala , bere pecatuac gatic gaitz andi batec artu eta corde gabe ill otza becela erori zan. Bere lagun eta Indioen artean lasterca echera eraman , eta erremedio aquin beregan etorri zan. Ayetatic bat galdetu cion : zuriz janciricaco aurrean cotorren galai ura ea nor zan. Indioac ifor

**etzecusten ; baña bere Ainguera goardacoa zan.**  
**Jaunac ori aguertu cion , beragana lengo vi-**  
**ciera santuaz viurtu cedin. Gure Padre beti**  
**deitu : ioten : confesa cedilla esan , eta aserretu,**  
**eta etzuela confesatu nai esan zuen.**

Andic egun bira , Jaincoac bere piedadeaz icaragarrizco aviso bat eman cion. Berac adisquide batzuei contatu cien , Jaincoaren judioan egon zala , eta bere ezagun asco contu zorrotz eta trance estuan icusi cituela , baña iñori ez esateko aguindu ciotela. Gauza oyec entzun , eta bere lengusu batec asco aleguin egun zuen , bere pecatu , eta peligroac , Jau- nari berac eman bear cion bere vici galduaren kontu estua adierazo , eta confesio andi bat era- guiteco. Baña aiñ ichua cegoen non da casoric egun etzion : oraia ecin cion , orain ecin eguingo det : tristeza aundia daucat , ta nere escuan eztago.

Aitzequieric izan etzezan , Jaunac lecu eman , eta onera pusca bat eman zuen. Baña animaz beguiratu , ta Jaincoagana biurtu bearrean be- re adisquideac deitu , ardua ta musica eracarri , ta alegueratzeco , dantza ta ordiquerian ango usora asi ciran : berac aurreneco ontzia artu , ta brindatu nai cien ; baña aora eraman baño len ortzaz gora illa becela erori zan. Erremediaquin onetatic ere beregana zan. Confesorea lasterca eracarri , eta animatu zuen asco confesio on bat eguitera. Lau urte zan confesatu etzala.

**Era ona zuela :** bereala Jaunagana biur cedilla.  
**Baña ecin det,** ecin det, gueiari eranzuten cion.  
**Ay ecin det,** eta tormentu gogorrac artu naute.

Pelea latz onetan iru egunean egondu zan.  
**Lenenean cion :** Ay nere desdicha ! Ay ! Infernuco su gorietan nago ! **Bigarrenean :** Ay ! Ur otz, edo guelaç, suac baño gueyago tormentatzen duenean nago ! **Irugarrenean :** Ay ! Ay ! Azote gogorraquin urratzen naute ! Norc bada, bere aideac esan cioten ? Padreac, esan zuen, eta are gueyago Aita Erretoreac ; ceren ayen esanae ondo artu bearrean, gaizqui esaca, eta modu ascotan ofenditu dituzun ! Orregatic ere oyec chic asco animatzen zuten ; baña alperric. Batec Santo Cristoa beguietara eraman cion ; baña chistua bota, ta quendu zuen : eta gauza onac ez aditzea gatic belarriac tapatzen cituen. Arequicoa icusi, eta Padreac Colegiora biurtu ciran : an oracioan jarri, eta anima galduarentzat Jaunari misericordia, eta Ama Virgiñari bitarteko izan cedilla escatu cioten.

Eri tristeac baño misericordiazco Amac obeto enzun zituen : bada ordu artan Ainguueruen Erreguiña urezco trono argui eder batean guisonari aguertu, ta onec esan zuen : Orraco Andre eder ori nor da, eta nori escatzen dago ? Iñore ecer icusten etzuen, alere ciertotzat ezan cioten : Ori Ama Virgiña bere Semeari zure erre-medio, eta salvacioa escatzen diona da. O viotz arri eta altzaiduae baño gogorragoa ! Onelaco

etoreari, edo Ama gozoarequin nor bigunduco etzan? Bada tristea malmetitu etzan: eta Ama Virgiña ezcutatu, ta garrassi tristequin asi zan: Ay demonioac datozi! Ay banaramate! Deabru oriec quen itzatzute. Ay! Ay! Ta onetan illic guelditu zan. Aren betico desdicha obeto icus-teco, ill jancia ematera cijoacela, infernuco bisaje chit itsusi icaragarriac eguiten asi zan: gueiac arriturie, nola vici ala ill, eta conde-natu zala, claro icusi zuten.

## ANDRE BATEN ERIOTZA DESGRACIATUA.

**A**siquira deritzan Erri batean guraso Jaincoaren bildur guchico batzuec vici ciran. Alaba bat beren antzeoa zuten. Gurasoac nolacoac umeac alacoac. Chit aisa: ardura gabe tā bere erara aci zuten. Libertade orrequin galdu, ta vicioetara eman zuen: pecatuetan bein jaiqui, beiñ erori cebillen, ta beti peligro andian. Jaincoac dotriña, sermoi, ta besteen ejemplo onaquin aviso asco eman cion, ta ez guchiago Ainguerauaren argui vici, ta barrenko dei, ta conciencia leyalaren quezcaquin. Ortic bildur pusca bat artu ordueo aztutzen zan, alere animaco paquerie etzuen, eta jaincoac bere misericordiaz deitzen cion.

Onela bere pecatuen artean giraca cebillela, concienciaco arrac bein batean aimbeste estu-tu zuen, non condenacioco bidea ceramala, eta

**erremediatu** bear zuela **ezagutu** zuen. Nai , ta naiez , edo nai ta bear , salvatueo bazan , confesio general on bat eguin, ta vici berria bear zala. Baña deabruac oitu nola, etraz engañatu zuen. Pecatuen cateac **urratu** , eta **co**nciencia-**co** arantzac ateratzeco , Confesore on batequin nai zuen becela , tratatu bearrean , etsayac ori burutic quendu , ta cer igarotzen citzayon , eta cer asmo zuen , bere Aitari contatu cion. Deabruen oficioac onec eguin cituen , ta esan cion: contu oriec utci , eta aisago vici cedilla : Confesio general , eta beste gauzac guero eguingo cituela. Pecatuetan bada nasturic cegoela , atzeneo gaitzac **oman** cion , eta chit estuan jarri zan.

Confesorea hereala eracarri zan. Baña , ¡O gauza arrigarri , eta Jaungoicoaren castigu gogor emen icusi zana ! Osasunan nola ondo confesatu nai etzuen , ala eriotzan eguin zuen. Beste gauza gucietan erraz enzun , eta eranzun , aditu , eta itzeguiten zuen ; baña confesa cedilla esan , eta gortu , sortu , mututu , eta itzic batere etzuen. Icaraturic ceuden guciac , eta are gueyago illtzeco zorian , edo erioarequin burruca cebillela esan zuanean : Infernuco basacatuen figuran demonioac icusten cituela , eta ito nai zutela. Orra ur bedeinctua bota , eta esaten cioten : emen demoniorie eztago. Baña orduco presa eguin zuten. Ay ! Ay ! Infernuco suetan erretzen nago ! Ay ! Deabruac naramate. Ala iltzan , eta eraman zuten :

eta nescach onen gorputza erre edo tostatua, eta chit izugarria arquitu zan. Eta orra penitencia, confesioa, eta viciera berria gueroco utciac cer pagua duen.

### ERIOTZA GAIZTOARENBESTE EJEMPLOAC

Espoletoco Erriean Robertoren lecioac dionez, dama bat bere erara, Jaincoaren bildur gabe aci, ta vici zan: Seguru ere alaba bacarra ta ala gaizqui oitua. Chiquitatie gala zale, apain-gura, choralda utsa, ta bere edertasunaz chit pagatu, edo ezcondua: ta aiñ itsua non mun-du guztia bere ondoren cerrayola uste zuen, edo ala nai zuquean. Jaincoaz ta bere animaz aztu, ta galac, galanteoac, ta libertadeac bes-te conturic etzuen, ta beti, eta gucian bereaz irten bear zueñ. Jaincoac bere argui gozoaquin deituaz berraganatzeco aviso asco eman ciozcan, bai ta bere concienciaco quezca arantzazcera ere; baña oriec bere eroqueriaquin erraz ito, ta astu oi cituen: bere galayac baño, Jaincoa galdu nayago zuen.

Edadesaren lorean, ta pecatuen artean cegoe-la, uste gabeko gaitz andi batec artu zuen, eta gueldica erio bat eguiñie, urtu, erquitu, eta deseguiñie utzi zuen. Bere culpa guciak bereala erdian artu zuten, eta bere viotzean esaten cioten: zure lanac, zure obrac guera: zuc eguiñiac guera: vician becela eriotzan zurequin

izango guera. ¡ O cer berri tristeac ! O cer viotzeco illuntasuna ! O cer trancea ! Quen quen ortic : campora demonioac : ur bedeincatua betor : Ez , ez , diote deabruac , gu gure echean , gure toquian , gure infernuan gaude : beintzat lecu , edo anima onetan vicitzan becela eriotzan , eta beti izango guera . Eri tristeac bere atseguin loyen ardoa erreparo gabe edan zuen eta eriotzan gucia beatzun samiñ , eta infernuco pozoi biurtu citzayon

Bere barrenean deabruen iduripen ta bisaje aiñ izugarriac icusten cituen , non iñolaco moduz eciñ sosegatu zan : gira batera , gira bettera , ta alde gucietan larria ta icara : Ay ama nerea ! Ay ! Infernuco doloreac artzen nau-te : iltzen naiz ta deabruac naramate . Ez ene Alaba esan cion : ori erremedioa : ori Santo Cristo au : onegana biur zaite . Beguiratzen diot ; baña bera billatu eta amatu bearrean nola ofenditu dedan , consolatzen ez nau , aserre dago : quen nere beguietatic . Baña ay ! Jesus crucificatuac ordu artan nola consolatuco zaitu : baldin aren aranzac zure pensamentu zoro lo-yac condenatzen badituzte : eta orobat aren es-ku , eta oiñ iltzez josian zure escuca libre , eta pauso gaiztoac : aren viotz idiquiac , zure aren irac , aserre , eta atseguin ichusiac : aren larru gorrizco soñeco gabeac zure galac , eta era-queriac : eta aren gorputz zuc urratua , zure aren gustoen Juez izango bada ?

Santo Cristoa quendu , ta Amac esan cion : cerc consolatuco zaitu bada? Ama, sosegatu banaiz , gusto bat eman bear didazu? Cer bada? Nere galaric ederrena betor. Ah cer guraria ! Cer illjanci berezcoa ! Bearric bazuen ama orrec ecarri , eta nola bere buruaz ecin baliatu zan, eta amac lagundu , eta jantzi zuen. Osasunan becela aleguiñaz edertu eta apaindu zan. Oraiñ nere ispilla betor. An bere arpegui eder, urrezco ille ta edertasunaren ordean erio illun tristea icusi zuen. Ay au nere ichura ! Ta onec erremedioric ezduela ? Beraz nere atseguiñac joan dira : beraz illtzen naiz , ta nereac egun du? Ez ene alaba ori ez esan. Jaincoari dei zayozu. Jaincoarequin cer det nic cer icusi ? Nere adisquideac non cerate ? Nere galayaç atozte : ez ni utzi ; nere gustoac lagun zadazute : vician becela eriotzan ere zuena izan bear det.

Orduan bere viotzean ceuzean pecatuac arpeguira irten, eta desdicha gucien arrabia amorratu batec artu zuen , ta Jaincoa utzi , ta deabruai ots eguiten asi zan : demonioac non cerate : zuena naiz, atozte. Ea demonioa , nere anima betico ematen , eta aguintzen dizut. Eta au esatearequin batean ispilla erori eta illa gueratu zan , ta anima demonioac infernuan ondatu zuen. Eta orra cer dan emacume eroa , eta alacoaren azqueneko gogoa.

## GORPUTZ ILLAREN EJEMPLOAC.

**G**hit gauza jaquiña da Alejandro Faiac contzen duena. Conde Jaun audi bat besteac becela iltzan, eta lurpean sartu zuten. Andic dembora pusca batera aren ovia idiqui bear izan zan: eta an arquitu ciranac arrituric icusi zuten, Jaun orren arpeguiian zapo guciz audi nazcagarri bat, beguiac, ta buru gucia jaten, eta beste ar ichusi, eta pistia asco orobat ari cirala, eta an ceudenac nazcatu, eta lasterca igues joan ciran. Aren seme Conde galai gasteac, cer igaro zan aditu eta bere beguiz ecustera joan zan. Icusgarri triste ori bere aragui ustel, zapo, ta arraquin ondo beguiratu, eta Jaincoac aren viotza arguitu, eta esan zuen: Ona ceiñ ichuac gauden: ona certan gueratu bear degun. Pistia ichusi oyec dira gure adisquide alaco costuan, eta aimbeste erregalorenquin aci, eta guicentzen ditugunac: oyec gure lagun, gurequin vici eta gorde, eta oi bigunetan iduquitzen ditugunac. O! cer zorakerria da au?

Ez, ez beintzan oraindaño becela. Obedegu gorputz au, eta oriec batean, barau, ta penitenciaz orain illerazo, guri burla guero eguin, eta onela jan ez gaitzaten. Jaincoaren aviso, eta desengaño au viotzean artu, bere eche, eta ondazunac bertan utzi, ta Cristori pobreae

jarraitzeco, ezeutatu, eta andie igues eguin zuen. Erromara igaro, eta Confesore santu bat, artu ta Jaincoaren bildur, ta amorez irazaqui, ta viciera santu bat asi zuen: ta bere janari pobrea irabazteco icazquin eguin zan. Luzaro Jaincoa servitu, eta egun batean bere iatza saltzera errira cijoala, gaitz andi batec artu, ta chit piciencia andiaz eraman zuen; ederqui ceruraco prestaturie bere anima Jaincoari eman cion.

Punta artaň Erromaco campana guciac be-rez ill ots tristea banatu zuten. Aita Santua, eta gendeac arriturie, cer ote zan, edo nor ill zan. Orduan dichosoaren confesoreac gucia contatu cien, ta iltzan Jaun andia nor ta nolacoa zan. Jaincoac ala nai, ta condearen echeço soldaduaren billa len ibilli ciranac, Erroman arquitzen ciran, eta beren Principe jabearen gorputz santua veneracio, ta consuelo andiaz bere Errira eraman zuten. Ta orra mundua utcitzea munduan ere nola Jaunac gloriaz pagatzen duen.

Gure San Francisco Borja andiari Emperatriz Doña Isabelen gorputza Granadará eraman, eta entregatzeko caja idiqui zanean craguin cion mudanza, ejemplo jaquiña da. Arpegui ura aň trucatua, eta aiň, ta onen itsusi nazagarria aguertu zan non emperatriz arena zala, esatera iñor ere atrebitu etzan. Aiň usai, ta quirats gaiztoa bota zuen, ce guciac len ba-

ño len andic igues eguin zuten. Borja Santua bacarric gueratu zan.

An cegoen gorputza norena izan zan , ta nolacoa cegoen pensatzen jarri zan , eta cion : arpegui onen lengo edertasuna non da? Usteldu , eta arrez betea dago. Onen lengo beguiratzeko magesta de errespetoz guciac betetzen cituena non da ! Orain bere obligatuena ere utzi , eta igues joan dira. O munduko vanidadea ! Desengaño onec Borja Jaincoagana eracarri , mundua oñpean utzi , eta cerua billatzera animatu zuen : eta ilco citzayon Jaunic aurrera ez servitzeko propositu firmea artu zuen ta orretatic santu andia eguin zan.

Zori oneco Conde , eta Marques oyec biac beguiz , eta obretan icusi , eta icasi zuten , S. Agustinequin Santuac diotena : pecatuetatic libratzeco , deabruen tentacio , munduaren guezur , eta araguiaren palaguac vencitzeco obibatean edo gorputz illaren consideracioan , fedeaz sartzea baño erremedio Oberie eztala. Soseguz an pensa ezazu cer , nor , ta nola dagoen. Munduko anditasun , ondasun , ta edertasunac emen non dira ? Gorputz onen balentia , eta bizarriac cer eguindu ? Orren echeco , soñeco , mayeco , oyeco erregaloac non dira ? Ona certan paratu diran. Or ez daucazu arrac , ta ezurrac , lur ustel , ta ubela , autsa , ta utsa , atsa ta quiratsa baño. Orretan zu ere laster biurtuko cera : ondo pensa ezazu eta buruco ,

edo almoada onen gañean beti lo eguizu : ta lurreco atseguin , ta pecatuen ganac edo galieac quenduco zaizquitzu : banidadeac utzi, ta egua billatuco dezu : lurretic deseguin , ta cerua betico izango dezu.

### JUICIOAREN GAÑECO EJEMPLOAC.

**B**i modutan au zuretzat izango da. Bata Jaincoarequin zure artean bacarric , edo zurequico Juicio bacar , ta particularra deritzana. Besteia Jaincoaren , ta mundu guciaren aurrean , zurequin mundu guztiarequico Juicio universala deritzana. Bata iltzen ceran puntuau ; besteia azquen juicioco egunean. Aita andradec dacartzien Juicio bien Ejemploac bata bestearen ondoren icusico dituzu.

Cuzco deritzan Indietaco Erri jaquiñean guizon aberats , eta obligacio andietaco bat izan zan ; baña cristau legueric eztzuena : iceña bai , baña obraric etzuen. Deabruac eta munduac engañatu eta pecatuetan begui bietaraño sarturic cegoen. Jaunaren bildurra galdu , eta confesioco erremedio aiñ bearra ta aiñ erraza utzi , ta oguei ta amar urtean confesatu gabe vici zan. Jaincoaren ontasunac , ta bere conciencia leyalac aviso asco emanagatic , enzun bai , baña eranzun ez eguiten zuen , ta betico oiturac , ta etsayaren tentacioac azpian ceucaten. Garizuma etorri , ta confesio-

on batequin animen erremedioa billatzen , eta Elizaz cumplitzen besteac icusi , ta berac guciac baño bearrago zuela ezagutzen zuen. Alere aimbeste urteco pecatuen cargac errenditu ta icarac confesatzeko animoa quentzen cion. Ah triste ! cer arantza gogorraquin vicico zan ! Atzeaeco miseria onetan , Jaunaren misericordiac lagundu cion.

Gau batean loric pisuenean , gau erdian **ce-tzala** , gauza berri , eta izugarri ba igaro ci-tzayon. Bere adisquide bat errico beste gende-di andi batequin , bere beguien aurretic calea barrena , chit lasterea , ta estuan eijoacela icusi cituen. Adisquideari , nora zoaz , esan cion . eta onec gucien icenean erantzun cion : Jain-coaren Juiciora goaz , ta zuc galdu ta Erri au gucia zugatic ondatzea nai ezpadezu , atoz las-ter gurequin. Aiñ gogotic , eta aiñ vicro au esan cion , non bereala ta ariñ juciora besteai jarraitzen asi zan ta oriequin joan zan. Erri artan plaza gure Colegioaren aurrean dago : ta ara allegatu orduco , Cristo gure Jauna bere Magestade guciarequin , ta Ainguerauc alde guztitic , eta Ama Santisima , pecatarien bitar-tecoa bere ondoan icusi cituen. Beco aldetic demonio izugarri asco , eta aserreac , pecata-rien contra cargu andiac eguiteco chit prest ceu-dela. Errico guciai Jesu-Cristoren odol precio-soaz , edo Sacramentu , dotriña , eta justuen ejemplaz cargu estuac , eta bacoitzari banaca

orobat eguiten citza, yozcan. Araeo gure guizona contuetara deitu zutenean : Ay cer larria ! Demonioac bereala , besteac becela , eta gueyago , eta estuago acusatzen eta cargu andiac eguiten asi ciran : eta ognei ta amar urtean Jaunaren etsai eguiñie , confesatu gabe , eta ceruco avisoai erantzun gabe , onelaco , eta alaco pecatuetan nola egondu zan guciac banaca esanaz.

Edoceñec daqui guizon triste galdua , ta eguiaz Jaunaren beguietan ala acusatu au cer infernuco bildur , eta ansietan arquituko zan. Ta are gueyaco here aurretie beste asco pecatu guchiago , eta chiquiagoac gatic Tribunal justu , ta estu artan betico infernura cijoacela icusirie. Eriozco icerdi , ta naigabe esanal guciac baño andiagoen artean , bere burua galduzat , eta beste erremedio gabe icusi , eta lásterca pecatarien Ama Santísimagana beguiac biurtu , eta aren oñetan bere burua bota zuen tranceric estuenac escatzen zuen becela , erregutucion , arren bere mantupean artzezala ; eta viotz guztitic itza ematen ciola , bere seme maitea seculan gueyago ez ofenditzeco , eta beraren amorio , eta devocio andi batequin , eguiazco penitencia , ta vicitza santu bat aurrera eguiteco.

Bere misericordiazco beguiaz Ama maiteac beguiratu cion , eta penitencia cion becela , eguiteco lecua bere semeagandie alcanzatu cion : ta Colegio artaco Operario Apostolico celo andico Aita Martin Campos , Ama Virgiñac berac

**beguien** aurrean ipiñi , eta señalatu cion , ta arequin confesa cedilla , ta aren esanac egun **citzala** , aguindu cion. Guizon au bere vicitza gaiztoan gure Colegioan guchi sartu oi zan , eta Aita Martin ezagutzen etzuen. Baña Ama Santisimac aiñ biciro eracutsi cion, non biaramonean icusi orduco , bereala ezagutu zuen.

Juicio arrigarri ori onetan acabatu , eta beragan biurtu zan ; baña icerditan aiñ urtu edo deseguiña , ece , oraindie ere Tribunal artan cegoela cirudien. Bere ehecoai lasterca otseguin , eta cein igaroa cegoen icusi zuten , eta guciai oracio eguiten laguntcea escatu cien , eta gau nequezco artatic ondo irteteco gracia , Ama Virgiñari biotz guztitic esca ciozatela. Ala eguin zan : eta egún sentian , damuz urturi caco bere viotza Ama santisimaren escuetatic Jesus onari eman , eta ondo ariñ Colegiora joan zan. Aita Martin bereala ezagutu zuen , eta ceruko mandatu bat arentzat cecarrela esan cion : ori aditu ta bere confesio andia asi zuen ; baña damuaren damuz itzac baño negar malcoac gueyago ciran. Bere culpac deabruac Jui cioan becela , are confesioan esan cituen.

Aita Martinec chit animatu , eta berac Ama Virgiñari Tribunalean aguindu cion biciera santu bat eguiteco berotu zuen. Ala cumplitu zuen , eta ejemplo guciz andiac errian eman cituen : len pecatari galdua , guero Cristau chit Jaincozeoa icusi zan. Bere ejemplo santu

eta consejuaquin bere familia aiñ ederqui gobernatu izan zuen, non erri gacia maravillaturic ceucan. Propositu eta vicitza santuan, ill arteraño firme iraun zuen; Jaincoaren Juicio aserre, eta ango bere contu estua icusi, eta gogoan seculaco sartu citzayona becela. Zure, Iracurlea, Ama Virgiñaz baliatu, eta arc becela, bertatic penitencia eguiyu, eta Juicioan contu ona emateco, arc becela viciera berria arrezazu.

### BESTE EJEMPLOA.

**J**uicioco egunaren memoria fede viciaren arguitan icusi, eta pensatzea mundu gacia ica-ra corrian sartzeco diña da. Ez pecatariac bacarric, bai ta diran, ta izango diran justue-nac ere egun triste,edo egun illunaren memoriac bildur andiaz beteco ditu. Jaunaren beguietan santu, eta justua zan Job; alaere anciña ta aiñ urrutitic juicioco ordu izugarri ta contu estua icusi, ta gacia icara aiñ andiac artu zuen, non eta cion: orduco zure aserre, eta nere contua igaro artean Jauna, nor infernuan estali eta gorderic legoquean! Baña ez egun artaco Juicioa, eguiaz bertan izango dan becela, ezpada pintaturic icusiac berac, pecatari andiac, ta esan diteque, Reino oso bat seculaco icaratu, eta Jaincoaren fede, eta leguera ecarri zuen.

Ala ejemplo , eta conversio au maravilla antiditzat arrazoyaz Baronio Cardenalac contatzen digu. Bulgariaco Erregue , Bulgario gentil , edo Jaincoaren fede gabeko guizona , eta berez chit cruel , aserre . ta gogorra zan. Aren mende , edo escuetara , Jaincoac ala nai , eta Metodio ceritzan Monge bat etorri zan : eta au Pintore chit samatua zan. Bulgarioc ori jaquin zuenean , bere jauregui , edo Palacioa apaintzeco , Pintura , eta Imagina asco egun eitzala aguindu cion ; eta Erregue ori nola aiñ braboa , eta icara emallea zan , pensa alditequean gauzarie icaragarriena , eta guciae arrituco cituen bat pinta cezala esan cion. Era eder Jaincoac emanicaco onezaz Metodio chit ondo baliatu zan.

Erregue gueyenean oi cegoen salaric galantenean. Jaincoac lagundu , eta altzuen vicitasunic egoquienaz Juicioko egun , edo gau icaragarria pintatu , eta bere lecuan paratu zuen. An juicioraco Jesucristoren etorrera , viciac , eta illac Evangelioan berac dion becela juzgatzeco icusten zan. An Jaunaren Magestade , eta poderiozco Tribunalak. An Ainguera eder eta Santu guciac gloriaz janciric icusi , edo goi aldera ; eta ezquer edo beco aldera , suz , eta garrez beteric deabru , eta condenatu beltz ichusi guciac. Au gueia Josafateko ibar zabalean icusten zan : ta goyan gloria vicia , eta bean infernu goria.

Araco Bulgarioc seculan ez icusi, ez aditu eta gogoratu ere etzitzayon pintura berri ori beguiz icusi zuanean, beregandie irten, eta corde gabe, edo mututuric luzaro egondu zan. Beñ, eta berriz beguiratu, eta gueroago, eta icara andiago zuen: eta viotz aiñ gogorduna izaniç ere, esan al baño larri, eta bildur gorragoac seculaco Erregue ori artuzuen. Pusca bat beregandu zanean Metodio Mongeari galdetu cion: Pinturaco trance arrigarri ura ea cer zan; orduan arc Erregueari gucia banaca esplicatuaz, gure fedeco misterioae chit ederqui aguertu, ta adierazo ciozcan. Jaun andi ura, edo Cristo nor zan: nola gu salvatzeco Jaincoa guizon eguin zan, eta beste articulo eta pausoac: nola ce ura igo zan, eta guero, an icusten zuen becela, juiciora etorrico zan, eta onai, araco goyen cecuzan gloria, eta gaiztoai beco tormentu icaragarri ayec emango ciezten.

Gure legue sāntu, ta ġarbiaren maravillac aditu, eta Jaincoaren graciaç viotza argitu, eta Bulgarioc ezagutu zuen abereen guisa viçi izandu zala; eta trucaturic gucia Metodiori esan cion: Jaincoagana viurtu, fede santua artu, ta salvatu nai zuela. Dembora onetan Sergio II.<sup>a</sup> Aita Santu, eta Miguel III.<sup>a</sup> Emperadore ciran. Bereala biai escribitu, eta erregutu cien, berari eta bere Reino guciari gure fede, ta legue santua eracusteco bear ciran Pre-

dicadore , eta Maisuac , arren biraldu citzatela. Biaquin adisquide andia eguin zan , ta Batayo santuan, Emperadorearen devocioz Miguel ice-na artu zuen : eta fedearequin vicioae utzi , ta vici modu santu bat asi zuen : eta Erregue poderoso gogor batetic Cristoren servitzari humil pocic eguin zan. Bere gende gentil ichu asco bere contra jaiqui citzayozcan ; baña Jaincoaren favore andiaquin , cristau guchi baciran ere gentillen contra lazqui peleatu , eta diranac sujetatu cituen. Guero Jaincoac paquea eman cion , eta Jesueristoren fedea Reino gucian zabaldu zan. Ona pintura batetic cer maravillac icusi ciran.

## INFERNUCO PENEN GAÑECO EJEMPLOAC.

**J**uicioarequin batean infernuco tormentuac Egemplo ascotan arquitzen dira , eta zuc ere ala icusico dituzu. Capuchinoen Religio santuco historian contatzen da , Fr. Miguel de Napoles predicadore Apostolico , eta animen celo andicó Ministro señalatu bat izandu zala : bere virtute , sermoi , eta ejemploaquin anima asco cerrura bialdu , eta bere saria artzeco , edo iltzeco zorian cegoela beste munduan cer igarotzen zan icustera Jaincoac eraman zuen. Religiosoac il-tzen laguntzen ciotela , illa becela , edo asnase gabe luzaro gueratu zan. Beregana cerbait bi-urtu zauean , an ceudenac guciz admiratu ci-

**ran : bada lecu batera beguire arritua becela cecusten , ta noicean beiñ bere barren barrenetic suspirio chit izugarriac ateratzen cituen : ta luzaro mutua becela cegoen. Aita Guardianac , cer otezan , edo aiñ luzaro cer icusi zuen jaquiteco , Jaincoaren ieenean esan cezala , aguindu cion. Icen santu artzaz animatu , eta beste mundutic cotorrenac becela eranzun cien.**

**¡ Ay Aita ! ¿Cer igaro eta cer icusi dedan , norc esan ? Jaungoicoac gure oneraco eraman , ta sentidu humano , edo emengoac baño gorago , altuago , eta ezcutuago dauden gauza andiac icusi ditut. Norc esan al ? Cer pauso , cer lance , eta trance miragarriac ! Cer eta nolaco eguiac , baño gure esan al guciai ascoz eraguiten dienac ! Jaunac aguindu , eta izugarrizco jornada , edo infernu , purgatorio , eta cerurano errom ria bat eguindet. Inferuan anima condenatuac , eta orien tormentuac icusi ditut. Neguan elur lumac , eta udaco jasaric andielean euri tantac becela , animac infernura erortzen ciran , eta deabruac beren tormentuetan bertan ondatzen cituzten. Ibai beltz andi , suz , eta garrezco berun , edo metal urtuaz betericaco putzuac icusi ditut , eta anima tristeac negar , eta deadar andiaz , eta inciriaz gora , eta bera , negar malco goriac darieztela , eta alde gucitic domonioac perseguitzen dituztela.**

**An sugue , cirau , zapo , armiama , dragoi , ta pistia mota guciac , izugarrizco ichurac , a-**

guinca , eta atzaparca animac puscatzen bee-la. Aimbeste aldetic elur zulo chit otz , eta izotzez bete ta beñere urtzen ez diranac : an putzu , osiñ edo cinguiria gelatuetan animac bere arrabiaz , eta garrasiz: an zacur amorratuenguisaco gose , ta egarri ito , edo iltzerañocoac , baña beñere acabatzen ez diranac ; an illuntasun beltz , beti gau erdi , suaz eta queaz , atsez , ta quiratsez betea. An Jaincoa beti icusi naya ta iñoz ere ez icusi bear gogorra : ta ortic betico gucien , ta bacoitzaren mañaricacio , eta batac bestea eciñ icusia , eta beti icusi bearra , eta beste pena , eta naigabe mota gueiac ta esan al baño andiagoac. Baña gucietan oriecerdiñ ezdira ; baicic pecatuac cembait , ta nola tormemuac ambait , eta ala. Andie purgatoriora Jaincoac eraman ninduen : ta nic icusi dedanez infernuco tormentuac , edo ayen antzeco an ere ciraden. An cerura bear duten anima autesiac su gar bicizeo ibai , carobi , edo labe corietan , besteac , elur zulo gelatuetan , eta beste tormentu andietan cebiltzan : besteae Jaincoa icusteco zale , gogo , ta ansiazco pena gogorretan erretzen , eta egosten becela Jaincoaren justiciac aguintzen zuen becela. Bana onen penac , infernucoac becela betico ez dira ; baicic beren culpen loyac garbitu , ta pagatu arteraño. Esperanza onec chit arintzen diezte. Emen animac Aingueruac animatzen dituzte; baña condenatuac demonioac

beti persegui ta tormentatzen dituzte. Aimbeste infernura erortzen icusi arren , purgatoriora bat , edo bi erori ciran. Emendic cerura igo ninduten. Ango gloria cerdan , eta an cer icusi nuen , norc esan dezaque ? Erri andi , cerua bera , arri precioso ,urre argui ederrez eguiña, emengo gauza ichusien antziez duena. An ecin contatu alaco Ainguerudi , eta Santudi , guciac beren gloria berezkoaz janciae, alegría , paque contentu , eta aseguiñez beteac. Ango anditasun , ondasun , ta edertasunac : ango musica canta berri , eta Jaunaren betico alabanzac. Nola emengo meritoac , ala ango sariae. An gure A. Serafico S. Francisco humilla , corte , edo jauregui artaco andien artean goi goyen ieusi det , ta berago gure anai laguna on asco , penitenciaco zacu onetan emen Jau na servitu zuteneae. Gu viciera humil santu batera animatzeko gauza andiac Jaincoac eracutsi dizquit : ta aren mandatu au zuei eman , eta ni ara noa , ta zuen oracioquin lagun zada zute. Au esan , eta Jaunari bere anima eman eion : eta len lasterca videz icusi zuen gloria betico gezatzen . Cerura joan zan.

### BESTE RJEMPLOA.

Orien errematean , gucien coroa becela , Doncella bati igaro citzayon , lecio andico Ejemplo bat contatu bear dizut. Au gazteric ume

zurtza , edo Aita , eta Ama ill , eta bacarra , noblea , averatsa , eta Jaincoaren doai , edo prenda andietacoa guelditu zan. Cristau on bat zan , gurasoac igualac onetan izan ez baciran ere. Aita , Jaincoaren adisquidea , eta ala bera-ren escutic gaitz , edo neque , eta egun on bat etzuela , trabajuz bete , eta erregalatua izan zan: orien artean pacienciarequin beste munduko coroa irabaci , ondo ill , eta cerura joan zan. Ama berriz bitartean bere burua munduari eman , eta Jaunaren bildur gabeko viciera charbatean eriotzac arrapatu zuen.

Echeco ejemplo oyec Doncellac bere beguietan izan cituen : eta bera , nola escontzeco as-coe billatzen zuen , ur biren artean becela , duda andian arquitzen zan. Amaren vicierac munduontz : Aitaren ejemploac cerurontz , eta Jaincoagana viotza tiratzen cioten. Ama Virgiñaren devocio chitezcoa zuen Dóncellac : eta dudatic ir etcco eta bere animaren salvacionaco cer conveni citzayon acertatzeco , bere afecto gucia-quin escatu cion , arren bitarteko ona becela , ceruco argui vici bat Jaincoagandic alcanza ciozala. Ama Santisimac oracioa aditu cion , eta bere alaba maitea ceruco bidean seguratzeko , berac becela lagundi cion : eta orretaraco aren gurasoen beste munduko suertea , eta nola ceuden arguiro icusi erazoz cion.

Beiñ batean bada , bere ansia estuenean Ama Virgiñari encomendatzen cegoela loac artu

zuen, eta maravilla andiac icustera Jaincoac eraman zuen : Erri edo Corte andi zabal , eta guztizco eder bat , era eta alde gucietara chit zoragarria eragutsi cion eta an ceuden guciac coroatu , eta gloriaz milla marabilletara janciac, Aingueruen canta , eta musica suabeaz, conten-tuz, ta atseguiñez beteac. Doatsu oyetatic bat bere Aita zan : icusi orduco ezagutu ta lasterca laztan gozo bat ematera cijoan. Ez ene alaba ez : oraindic mereci ez dezu. Au ceruco gloria da: virtuteen saria da ; eta viotz guciaz Jesucristo-ri jarraitzen diotenai ematen zaye : gurutze , eta nequeen artean or aren vorondatea eguiñaz irabazten da. Gloria au gozatzeagatic , cer e-guin edo eraman bear ezta? Aitari beguira pocic , eta beti egon nai zuquean.

Baña beingoan Aingueru batec beste lecu urrutti batera eraman zuen. An bazter illun triste izugarri , eta guciz nazcagarri batean , edo infernuan arquitu zan : quea , sua , garra , negarra , deadarra , eta inciria lastimagarriac baicie an etzan. Beste an ceudenen artean be-re Ama zori gaiztocoa icusi zuen. Baña nola? Beruko illeac beste aimbeste demoniozco sugue cituela , dragoi, eta zacur amorratuen guisa beguiac , belarria , mingañ , escu , bular , eta gorputz guztia aguinca , eta atzaparca pusca-tzen cituela. Arritu eta corde gabe alaba gue-ratu , eta nai , eta nai ez beguira cegoquion.

**Amac orduan esan cion : Ay ene alaba!**

Ona nere pecatuen , eta vici modu galduaren pagua cer dan ! Beste oyec , eta ni orco gure libertade , atseguin loi , eta culpac onetara gaitzute. O atseguin labur betico atsacabeac ondoren dituztenac ! O gusto cital , eta aimbeste nequeren costuan or billatutaco contentuac , eta emen betico gure tormentuac ! O lurreco vanidate zoro , eta guezur utsac , eta emen egiazco arantza pena garratzez beteac ! Eta onex erre medioric eztuela ! Madaricatua izan dedilla jayo nintzan eguna , or jan nuen ogua : nere galae , adisquideac , aseguinac , ta gucia madarica dedilla. Onetan demonioac alabaren beguietatic infernuco leiza zuloetan seculaco ondatu zuten.

Doncella icusi-citaen gauzaquin aiñ arritua gueratu zan , non eta egun asco igaro eta ere , bera igaroa becela Iuzaro ecertaco etzagoen , eta emengo gaucetan itzie eguiten etzuen. Jau naren graciaz sosaegatu zanean , viotza truca turie , eta Ama Virgiñaren escuetatic Jaincoari bereala , ta betico emateco prest arquitu zan. Ieusi , eta icasi zuen lecioaz , mundu gucia ceruagat e largatzeko , eta Jesus maitea bere Esposo bacartzat artzeco propositu andi bat eguin zuen. Limosna andietan bere ondasunac pobrai eman , ta bera pobre humill Jesus pobre humillarequin Gurutzean josi , eta beti vicitze co , Conventu batean sartu zan. Vicitza berri ceruko bat virtute gucien ejercicio aquin an asi

**eta acabatu zuen.** Ama Virgiñaren guztizco devocio ta amorio gozoa beti bere viotzean joseric ceucan, ta berari cembait ceruco favore zor ciozcan esquer oneco alaba maiteac becela, bere amore leyalaren señale andiaquin vici gucion eracusi zuen. Ta ona doncella onec infernutic librateeco, ta cerua irabazteco, cersuer-te ederra ta cer parte segurua artu zuen. Zucere onela bertatic Cristau viciera berri bat, zure estaduko virtuteen ejercicioetan, ta Ama Santisimaren eguiazko devocioa viotzean aritzatzu, bera, eta bere Semea emen servitu, eta amatu, ta beti ieusi, eta gozatzeko ceruco glorian, Amen.

Ejercicio gucion frutua da vicitza ona, paquezko eriotza, eta ceruko gloria. Bañà nola Aita San Ignacioren erregla dan, Lenengo Astean Gloriaren consideracione ez ematea, nice ere ala orain Gloriaco Ejercicioric eman ez di-zut. Jaincoac bere amorezko ontasun guciaz zu, eta ni betico ara, beti bera alabatzera, zucen eraman gaitzala, Amen.

### ERIOTZA GAIZTO, ETA ONAREN *Ejemploac.*

**C**elo andico Misionero bat iñauteriako arratsalde batean eriotza gaizto, eta uste gabecoa predicatzen asi zan, eta esan zuen: bear bada

zuetatic bat biar autsa artzera allegatuco ezda,edo lenago illoco da: ala ezda cer fiatu, eta ez ordu batean ere pecatuan cer egon. Guizon bat, chit estadu gaitoan luzaro vici zana enzuten cegoen: eta Sermoya acabatu, eta aren pauso charren, eta peligroaren berri ondo cequien lagun bat esaten asi citzayon: ala fede, adisquidea, egua andi, eta bearrac Predicadoreac esan bai dizquigula: badaquizu guizuna, infernuco locaitz, eta peligroan urliarequin zaudela: beguira ondo, ta aviso onequin bide gaito ori utzi, ta Jaincoa gana eriotza datorren baño len viur zaite. Baña guizon galduac, Predicadorearen, ta bere adisquide onaren esanac ecertan etzeucatziela: Quen ortic esan cion: oyerio bada, Jaincoaren misericordia andia dezu: Predicadoreac gu icaratzegatik orrelacoac esaten dituzte. Baña orren laster, eta bereala illoco ez alguera. Orain iltzeco, ondo ez nagoela badaquit; baña ara aste santuan andre au utzico det, eta confesio on bat eguin, eta salvatu uste det.

Onela laguna utei; eta echera joan zan: eta orra non gau erdian, bere andre, edo demonia orren ondoan cegoela: ¡Ay! ¿Au cerda? Argui bat urlia, laster ecartzu. Lasterca arguiarequin biurtu zaneco, guelan sartzean: Ay estu illun bat entzun zuen: Adio urlia: eta sartu, eta odoletan irabiaturik illa arquitu zuen. Eta aren anima? Orra puntu batean,

andre , edo deabru baten aldetic infernuco **gu-**  
cien ondora. Orain zure vicitza gaiztoan sia zai-  
tez zu : etzerala bereala illo : guero Jaincoa  
gana biurtuko cerala : arc ere ori cion , baña  
biurtu etzan , eta pecatuan illzan : arc erre-  
mediorie eztu , zuc bai. Zure erremedioa da  
penitencia bereala eguita , vici modu berri  
santu bat bertatic asitza , ura becela uste ga-  
be , eta gaizqui illotzaitean.

Eta orain egua oyec aditzen , cembait dau-  
de pecatu mortalean , ura cegoen becela ; cem-  
bait ardura gabe , e'a alacoric ezbalitz becela ,  
aren guisa : burla eguin , eta gueroco utzi nai  
dute? Cembait pecatuan ura becela , lo egui-  
tera aisa joango dira? Cembait gau onetan ,  
ura orduan becela , infernuco illati izango di-  
ra? O ondoren icaragarriac , baña egiazcoac!  
Arc , orain zuc becela etzion , guertatuko etziza-  
yola? Orra , bada , nola guertatu citzayon. Pe-  
catu mortalean zaude , ura becela? Bada de-  
monioen leiza zulo , edo toquia cerade. Norc  
daqui ari orduan becela , gau onetan zuri ani-  
ma ateraco dizuten , Cristoe Evangelioan dion  
guisa : Jaincoac permiti ezdezala , baña zuri  
nai ezdaquizula. Ara vici santuaren saria ,  
ta eriotza gueiz gozoaren

*Ejemploa.* Au escribitzen de'an eguna da  
Jesucristo ceruetara igo zan egun guciz alegrea ,  
edo aren Acencio miragarriaren eguna : Eta  
Acencio eguneko lecuan bertan ejemplo zora

**garri au guertatu zan :** eta ala Acencioco aurre-neco Sermoyan, edo gaur becela San Bernardino guciz cevotoac contatzen du. Jaun guciz noble, ta bere viciera santuaz are prestuago bat izan zan, ta bere demboran egunero, ta Jesucristoren amoriez beteago: obraquin vio-tzeco amorio santua obeto eracusteco devocioz-co erromeria bat eguitea pensatu zuen. Bear ciran gauzac prestatu, ta bere errespetoari on-do cegozquion lagunac artu, eta Jaun virtuo-so ori Jerusalen, ta Erri santuetaraco viajean jarri, ta Ontci batean sartu zan. Jaungoicoa legorrian becela, ichasoan bere viozean, nola ceucan, arc Ontcia gobernatu, eta Jesucristoc gure salvacioco Misterioac obratu cituen lecu, edo Palestinara chit ondo allegatu zan. Au Jau-nari esquerrac eman, eta bere devociozco pau-soen ejercicioa obeto asitzeco, bereala, eta lenengo piedade, eta amorio guciaz confesatu, eta comulgatu, ta prestatu zan. Nazaret deritzan Erri dichosotic bere visita asi zuen. Emen gure Peregrino doveta, munduan seculan eguin dan obra, ta milagroric andiena, bere fede, eta amorioaz pensatzen jarri zan: ta nola Jaungoicoac, Ainguerau San Gabriel mandatari bialdu ta Maria Virgiñari berri onac eman, eta Jaincoaren semea gure araguiz janci eta aren sabel garbian guizon eguin, edo Espiritu Santua-ren graciaz Encarnacioco Misterioa obratu nai izan zuen: eta Ama Virgiñaren bayezcoarequin

**Jesucristo aur chiqui, ta Jaungoico andiaren sortze, edo Concepcio adoragarria eguin zuen.**

Pensamentu onetan bere viotza ceruco argiazz berotu, ta Jaun devoto onec gure Jaincoaren ondo gabeco ontasuna adoratzen zuen, eta gu pecatutic libratzeagatic guizon eguin, eta gure salvacioico misterio gucien asiera, eta gure osasunaren, eta jaquintasunaren arbolaren zori oneco sustraya nola zan: eta lurrean au aldatu ezquero, Jesucristoren beste pauso, maravilla, pasio ta eriotza, berez belako Encarnacioico arbola onen frutuac cirala.

Andic Belengo Portalechora igaro zan: eta ecin erraz esan diteque, gure Erromes devo-toac an igaro cituen ceruco gauzac: negar gozoz an viotza deseguiten citzayon, Jesus Aurcho gozoac an eguin cituen negarrae icusiric: batean siascan trosatu, ta etziñic, bestean bere Ama Virgiña maitearen besoetan beguiratzen cion, eta bere animaco milla musu, eta laztan aren oiñ sagraduari eman, eta Jaincozco Aur Jesus bere gañean iduqui zuen lurra, eta autsa bere negarraquin neste milliscatzen zuen.

Belendie, ondo aspertu gabe Betaniara joan zan: eta an Jesucristo Jordango ibayan eranci, eta San Juan Bautistaren escutic batayatzten bere fede argiazz icusi, eta gure Peregrinoa ere eranci, eta Jordanen sartu zan: an bere burua garbitu, ta ur artatic edan zuen: Jesucristo, eta aren gañean usoaren figuran Es-

**piritu Santua** bacirudien becela , ta Aita Eternoaren deya : *Au da nere Seme chitez maitea , ceñean nere atseguiña dedan , aditzen bazuen becela.*

Betaniatic Eremura jarraitu cion : eta an **Salvadoreari** beguiratzen cion berroguei gau , ta eguneco barau aundia ateratzen , eta Satanaren tentacioac garaitzen , eta guero nola **Ainguerauc janari miragarriac** se:vitzen , edo ematen ciozcaten. Andic Taborco mendi altu-**ra igo zan** ; eta an Jesus bere gloria , ta edertasun arguijan icusi , eta adoratu zuen. Emen-die Jesus bere maisuaren ondoren Sion , atze-neko afaria eguin zuen lecura joan zan. Bere animaco beguiaz Jèsus belaunico bere Dicipuluai oñac garbitzen hūmildadez , eta amorioz beterie ceritzan icusten cegoela , eta guero vioz-**co nayera** , edo cariño guciaren alarde egui-ten , eta Eucaristiacos Sacramentuan bere bu-rua , edo Jaincozco gorpu'za ematen.

Andic Gesemanico baratza edo hortura jar-raitu cion , ta bere viozta amorez , ta dolorez-**co negarretan urtu citzayon** , Jesus amorosoa gure pecatuac gatic odolezeo icerditan , antsiaz beteric cijoala beguiratu eta icusi zuenean. Guero preso artu , lotu , eta Jerusalena eraman zutenean , aren ondoren dicipulo ona becela , Pauso gucietan ibilli zan. Viozeco pena gogor estuaz alde gucietara nola arrastaca cerama-**ten bere barrenean beguiratzen** cion : Anás ,

Caifas , Pilatos ta Herodosen aurrean azotez , arantzaz , chistuz eta hirlaz heteric , Erri guztiac Barrabas baño guchiagotan artu , eta eriotza eman nai ciola ; azquenic sentencia Pilatosec eman , eta gure pecaluea carga pisua gurutzean artu , ascotan auspez eroriaz cijoala , nola Ama Virgiña bere Ama maitea dolorez gucia josirie topatu zuen.

Devociozco procesio triste onetan Calvarioko mendira igo zan , ta an gurutzean iltze gorraquin josirie gure eguiazeo vicitza , edo vicitzaren frutua arboia artan icusten , edo contemplatzen jarri zan. Jaincoaren gorputz sagraduari , eta aren odolezco iturriari begiratzen cien. Ama Virgiña gana viurtu , ta aren viotz ederra ezpata zorrotzaz josiric , eta penaz , eta lutoz beteric icusi , eta gure Peregrinoari berea puscatzen citzayon. Semeagana berriz biurtzen zan , eta zazpi Itzac onen aotie aditzen cituen , eta orietan eraeutsi egin amorio parregabea bere viotzean sentitzen zuen : iltzeco trancean , ta gueroenean burua macurtu : ta illic icusi zuen. Ill ezquero lanzada eman ciotenean , guilza batequin idiqui eta becela , Jesusen viotz amorosoa icusi zuen : eta gurutziec jaichi , eta Ama maitearen ecin esan alako pena , eta nola obi berri batean Semearen gorputza sartu zuten.

Guero Erromesa ara joan zan , eta beguiac iturri bi eguiñic , eta viotza pena gozoz dese-

guiñie obian sartu zan , eta bere Maisuarequin an josi zan. Irugarren egunean berarequin piztu zan , eta Emausco Dicipulo aquin , eta beste igaro ciran gauzae icusi cituen. Berroguei garren egunean , Salvadorearequin Oliveco mendira igo zan ta nola Jesusen Acencioa lecu orietan izan zan , aren oiñ sagraduen señaleac icusi cituen , eta amorio irazaqui batequin viotza erretzen citzayola , milla bider negar , eta suspirioz deseguiñaz , ayen gañera erortzen zan. Guero bere Jaincozco amorio guciaren indar , eta aleguiñac puntu batean becela viotzera berregandu , eta bildu , eta besoac Cerura jaso eta , ¡ O Jesus ! esan zuen : O nere Jesus gozoa ! Ya lurrean , non zu billatu , nora zuri jarraitu ez daquit Jauna , O Jesus maitea ! O Jesus nere amore , eta nere on gucia ! Nere , ta zure viotz oni arren emayozu , zuri orañ cerura jarraitzea ! Itz oyequin aiñ ta onen tiro andia amorioac viotzean eguin cion , non golpe artan bertan , eta beingoan bere anima Cerura bialdu cion , betico an bere amore ederra icusi eta gozatzera.

Bere lagun eta criaduac zori oneco amatzaile au illa becela erortzen icusi zutenean , accidente edo uste gabe onequin , Medicu bati lasterca otseguin cioten , eta onec icusi , eta illa eegoela esan zuen. Eta obeto juicioa eguiteco , cercala guizon ori ill ote zuen , aren viciera , umore , osasuna , ejercicio , eta orrelacoaz gal-

detu zuen : ta esan ciojen , Peregrino ori chitez Jaun andi , berez manua , suabea , beraa , ona , eta gozoa zala , eta ejercicio santuetan , ta are gueyago Jaincoaren amorean chit irazaqui , eta ardore andicoa . Bada aīn seguru , Medicuac esanzuen , gueyeguizco amore orrec viotza erdiratu , ta vicia quendu dio : eta beguiz eguiā au icusteco , sayetsa idiquierazo , eta amorezco viotz bizarro ori erdi bi eguiñic , ta JESUS NERE AMOREA , escribituric beregan ceucala arquitu zan . Ta orra amorioac , beste causa gabe , anima ura Cerura bialtzeco , eriotza onaren oficioa nola eguin zuen .

Santu asco amorioac onela acabatu ditu . Serafin humano , edo lurrean ceruco amorioac beste guizon , eta Jesucristoren antz , edo imagiña vicia , Jesusen llagae artu ezquero , San Francisco eguin zuena , lurrean osta vici zan eta amorioac beti Ceruan vicitzeo iltzuen .

Virgiña Santa Julian , San Alejoren illoba , iltzeco cegoela , ecin argalez Comunioa artu , eta Sacerdotearen escuetatic Ostia joan eta Santuaren viotzera amorioac eraman , eta amore santuac ill zuen .

Virgiña Santa Clara Montefalcori amorioac viotza erdi bi egain , eta gaur icusten dan becela , Trinidade guciz Santuaren , eta Jesus gure amorearen Pasioco señale , edo insignia ederraz bete zuen .

## DEMBORA ONDO PASATZECO , BESTE *Consideracio Santuae.*

**N**ecazariac ondo iltzeco , eta salvatzeco , beste andi aseoc baño cer eguiñ guchiago dute , edo aisago daude . Eguia onen testigu ona da , ala vicitzan , nola eriotzan , San Isidro Achurlaria , Santa Maria de la Cabeza , bere emazte , Aldareetan Elizac ipiñi duenarequin . Oyec Madriden beren bear , eta nequeaquin , beren nagusia , eta are obeto Jaungoicoa servitzen Corteco andi , eta Erregue asco baño quezca , ta peligro guchiagorequin , vici , ta ill ciran , icusico dezan becela .

Bañ a Emperadore edo munduaren Aguintari esan oi diranen historiac esaten digutena gogora ecarri , ta eguiac balio bear badu errazqui esango degu , oriec baño desgraciatuagoric , sortu ta jayo eztala : orien viciera arrastatu , sosegua gabe , eta zori gaiztoeoac pareric eztu , eta orien eriotza mota tristeac ecin lastima gabe iracurri ditezque . Gaur Emperadore andi , eta biar esclavo villau icusten ciran . Eta orregatic ere : O mundu zoro ichusia ! Ori beguiz icusi eta ere Aguintari orrela izan nai zutenae baciran gaur Emperadore batari bere soldadu batec chit cruelquiro vicia quendu , ta erallea bera Emperadore eguiten zan , edo zuten ; baña oni biyaramonean beste batec anima ater-

tzen cion , eta onela cijoacen , eta bata bestearen ondoren , asco infernuetara juan ciran.

Eguia da , oyec gentill ichu , edo abere , Jaincoaren feder , eta guizonen legue gabe , orrela vici eta ill ciran. Nungo necazaricho presstu garbiae bere viciera , nequezcea bada ere ayenarequin trucatueo luque ? Norc ayen aguinte , edo asiera eroa ayen azquen gaiztoarequin naico luque ? Baña goacen Jainccaren gende , edo pueblo maite , edo escogituari ondo begiratzen . Oyen Erregueac Jainccaren legue jaquin , eta milagro aundiaquin cequitena , ceucaten : eta orrez batean viciera santu bat egun , eta salvatu bear zuten. Baña Erregue orientatic cembait ondo vici , eta ondo ill ciran.

¡ O contu larri , eta arrigarria ! Escritura Santutic ateratzen deguna , iru Reino izan ci rala. Bata amabi Tribu , edo gendeena , bestea Judaico , eta bestea Israelco Erregueena. Lenengoan , Saul aurreneco Erreguea condenatu zan. Davit salvatu zan , eta Salomenez , cer egun , zan ez daquigu. Judaico Erregueac , bost salvatu , eta amairu condenatu ciran : eta beste biac nora ciran eztaquigu. Israelco Erregueac izan ciran emeretzi , eta emeretziac direnac condenatu ciran. Eta Erreguiñac ? ¡ O berri illun tristea ! O zori gaiztoco andreac ! Milla Erreguiña , edo ascoz gueyago fedeco liburu santuac contatzen dituzte ; baña gucietais alasse bacar bat Jaincoarenic , aleric santa-

ric , batere salvatu zanic. Escritura sagraduac contatzen ezdu? 3 Reg. 11

Orain bada : gure euscaldun pobrechoen artean , alaco Erregue norc izan naico luque ? Iñor ere ez. Egun guchico Aguintari emen , eta deabruen esclavo betico infernuan. Eta emengo andre onen artean alaco dicha gabeco Erre-guiña ceñec izan naico luque ? Batec ere ez. Egun batzuetan beren gurari era gabeac cumplitu emen , eta guero betico tormentuac infernuan nai , eta nai ez sufritu. Gure guizon prestu , eta andre garbiac beren pobrezan , Jaincoaren leguea beren viotzetan gorde , pa-quean vici , eta ill , eta guero seculaco descansu , eta gloriañ ; San Isidro , eta Santa Maria bere emastearen lagun izan nayago dute.

## SAN ISIDRO , ETA SANTA MARIA.

**S**enar emazte Santu oyec' beren bear , neque , eta icerdiaquin , baña ceruan becela , chit pa-quez , eta Jaincoaren , eta beren arteco amorio andico vici izan ciran. Iban de Vargas , eta beste Madrileo Jaun biren lurrac Isidroc bere contura artu , eta erabilli cituen , baña bere ar-tu emanetan beti zucen , leyal , viotz , eta es-cu garbiaquin. Eta au da necazari onen virtute señalatu , eta Cristau arteraco chitez bearra. Nagusi biaquin maravilla andi asco . Isidrori

guertatu , eta igaro citzayozcan. Baña favore oriec Jaincoa gandic merecitzeco.

Isidro goicean goiz jaiqui , eta Elizac visitatzena , Mezac entzutera , eta Ama Virgiñari encomendatzera beti joaten zan . An Jaincoa adoratu , eta esquerrac eman , eta bere viotz gucia edo pensamentu , itz , obra , eta nequeac ofre citizen ciozcan. Eta zuc ere necazari ona au goicero bearrera baño len , beti viotzetic : Nere Jesucristo Jauna , oracio edo Contriciozco actoa esanaz , egun bear dezu. Santuac guero Meza bat , bi , edo gueyago devocio andiaz icusi , eta adoratzen cituen : eta Ama Virgiñari erregutzen cion. Zuc ere Nere Jesucristo Jauna esan , ta egun artaraco propositu firme bat egun , eta iru Ave Maria , zu , eta zure echeacoac Ama Virgiñari encomendatuaz esan itzatzu : eta zure espiritu , intencio , eta gogoaz meza gucietan presente baceunde becela , Jauna adora zazu.

Jaungoicoarequin onela soseguz , devocio , eta amorio guciaz goicero cumplitu , eta bere bearrera Isidro joaten zan. Baña , ó gure Jaincoaren contu , edo providencia , eta favoreac ! Jaquiñez batzuec Santuaren nagusiari esan cioten Isidroc bearrie eguiten etzuera : eta orra Isidro Jaunarequin Elizan cegoen artean , onen nagusiac languille obrac , edo Aingueruac beren idi uztarri zuri galantaquin pocic soroan bear eguiten , arriturie icusi cituen : eta andic aurrera Isidro gueyago estimatu izan zuen.

**Orra Jaincoaren saria mundu onetan ere justuac nola artzen duten.** Bitartean aren emazte Santa Maria , echeço gauzai cobru eman , eta senarra becela obra onetan , Ama Virgiñaren , eta Santuen hermitae garbitzen , apaintzen , eta arguia ipintzen ibilli oi zan.

Baña nola ecin icasia , eta guezurra munduan ain sobera dñn salatzalle guezartia , San Isidro bere magusiaquin becela , Santa María ere bere senarrarequin gaizqui ipiñi nai izan zuten . Baña Santuac egua beguiz icusi , eta salatza lleai eracusteco , oyequin beguira cegoela , mirari andi bat igaro zan : Santac bere devociora cijoala , ibaya pasatu bear zuen : orretaraco ciñatu zan , ta beste zubi gabe bere mantilla urtan vota , eta aren gañean , alaco ibairie ezbalitz becela , arguia , eta olio charroa escuan cituela igaro zan . Milagro au peguiz icusi , eta gueiae Jaincoa alabatu , eta Santari paquean betico utzi cioten .

San Isidroc bere icerdizco pobrea bazan ere , Santa María bere emazteari , larumbat , edo zapatu gucietan , Ama Virgiñaren icenean , eta amorioz , lapicoa pobrentzat eraguiten cion . Aiñ fede vicia , eta aiñ confianza andia Jaungoicoari bere obretan eracusten cion , nola Santuaren viotz garbi , eta inocenteac maravilla ascotan aguertu zuen : Zorroarequin erro tara cijoala , campo , eta vide , gueia elurrez betea icusi , eta uso , eta chorichoac goseac ill-

tzen , eta Jaincoari janaria escatzen : eta Isidroren viotz beraac ori ecin eraman , eta elurra quendu , bidea garbitu , eta convidatzen cituen : atozte , chorichoac , atozte : orizute jaten , eta garia ugari bota , eta esaten cien : Jaungoicoac emanten duenean , gucientzat ematen du : eta errotara orrela joan , eta Santuaren zorra beti beitea arquitzen zan .

Santu onen fede vici au ondo icusi zan , eta milagro andiaquin . Rein batean campoan ceudela , nagusiari egarri andi batec eman , eta Isidrori esan cion . Orduan santuac bere aculluaz lurrali golpe bat eman . eta esan cion : Bada Jauna , *Jaincoac nai zuenian emen ura bazan* : eta bereala iturri eder bat sortu zan , eta nagusi orree edan zuen : eta gaurco egunean ere , ascoren osasuneraco badirau , eta San Isidroren iturria deritza .

Beste batean , garia garbitu , eta nagusiari berea alde batera Santuac emancion . Urri , edo guchizco nagusiac veritzan bereari , ta guchia-go ote zan , esan cion : Orra bada Jauna , Isidro : nere partea ere eramazu , eta lastoa nerri indazu . Ala eguin zan ; baña Santuac lastoa berriz aizaitu , eta len baño ere gari gueyago atera zuen . Onelaco beste milagro andi asco Santuac , ~~bete~~ fedetik , eta Jauna n confianzaz eguin cituen .

San Isidroren gari ereitea miragarria zan : Alea escuetan artu , eta era onetan esaten zuen :

**Jauna**, zure icenean: Au zuretzat, edo primicia, eta amarrenentzat, eta ereiten zuen: Beste au Jauna, nagusiarequin guretzat: Beste au chingurri, eta chorientzat. Modu onetan erein, eta beti chit asco, eta ugari izaten zuen.

Pobreai, bera podrea bazan ere, bere janaria ere eman nai cien. Bein batean Elizaco festan luzaro egon, ta cofradiaco bazcarira berandu joan, eta bere janaria gorde cioten. Santuac bidean topatu cituen pobreac berrequin eraman cituen. An ceuden lagunac cioten: ¿Bere combidatuaquiu au cer dator? Isidro, zuretzat baicic ez dago. Zaut paquean, esan cien Santuac: Jaincoac emango duenaz, eta zuec gorde dezutenaz, contentu guera gu: mayean jarri ciran, eta Jau goicoac janaria gueitu, eta guciae milagrozco bazcaria galanqui jan zuten.

Santuaren nagusiac alaba bacar estimatu bat zuen, eta ori ill, eta chit penaz beteac arquitzan ciran. Isidroc bere jañeai cien amorioa gatic, Jaincoari orien consuelorako alabaren vicitza escatu ciona, eta fede andiaz alaba ori uquitu, eta viciric jaiqui zan. San Isidroc, eta Santa Mariac seme bat izan zuten, eta mutilcho ori uste gabean putzu andi batera erori, eta ito zan. Isidro campotic echera zanean, emaztea desgracia orrequin chit triste arquitu zuen: biac belaunico jirri eta Jannari semearen vicia escatu cioten, eta bereala

**gorputzeraño ura aci , eta seme ori viciric Aita San Isidroc escutie artu zuen.**

Onelaco maravilla andi asco Santuac vici zala , eta ill , edo cerura ezquero Jaincoaren gloriaraco , eta ascoren oneraco eguin izan ditu : ta pobre zori oneco aberats au paquean vici , eta cerura juateco , Elizacoae chitezco devocio andiaz artu , eta prestatu zan : eta bere echeocoai Jaincoaren bildur , ta amore santua , eta aren legue , eta vorondatea beren viotzetan betico encargatu , eta soseguz , eta ceruco paquean Jaunari bere espiritua eman cion : eta guero gure Aita San Ignacio , San Francisco Javier , San Felipe Neri , eta Ama Santa Terezarequin egun batean dičha pare gabeaz canonizatu izan zan. O cer lau Santu , gure Espaňacoac egun artan aguertu ciran.

Eriaquin egon oi diran cristabae , beste jolas gaizto , edo peligrozcoac alde batera utzi , eta onela platica , eta cerueo conversacioac eguin bear dituzte : eta orrelacoac dira Santuen vicitza , eta exemplo oyec.

Eta achurlari Santu au onela icusi , ta norc Gure Jaungoicoari milla esquer on , eta alabanza andiac emango ez diozca ? O Jauna , eta zure Santuetan cein miragarria , eta zure obretan cein Santua ceran ! San Isidroren viciera santu , eta onen obra on gucietan au ondo daquit . ; O necazari prestu au enzun , eta Jaungoi-

coaren aurrean eguiazco honra nai dezuna ! Viotz garbi , fede vici , eta vorondate leyal bat tec Jaunaren beguietan , eta estimacioan cembait balio dézaquean , Achurlári santu onetan ondo claro daquizu ! Eta Davit santuac dionez : nola mundu zoroac ez becela provechu bat larretic jaso , ta nequezco bat simaur artetic atera , eta bere gloriaco Principe , edo Santu andien artean paratzen daquien *Ps. 112.*

Onen antzecoa orain lurrean , eta guero ceruan zu izateco , nere guizona , ceruko ispilla eder onetan ondo beguira zaite. Zure vicieran nic esan al baño gueyago egniequi cer quendu eta cer ipiñi izango dezu : eta au bear becela eguiten badezu nie nai dedan adiña zori oneco , Santuaren-guisa zu izango cera. Neque , eta icerdizco Santu oai bere obra , eta pausoeitan jarrai zayozu : eta nere contu , Jaungoicoa seguru zure favore izango dezula , eta Aingeruac pocic zuri , Santuari becela , zure bearretan lagunduco dizutela.

Ay bada Aita , esango didazu ; gue ere Aingeru eder oyec becelaco morroi , edo languille batzuec baguindu , gure aldapa gogor oyen gora beetan neque guchiago eraman , ta icerdie guchiago emango guenduque ! ez orisse : ez , ene semea , Jaincoac gucientzat dio : *in sudore vultus tui vesceris pane. Gen. 3.* Batzuec batera , besteac bestera , guztioc nequez vici bear degula. Jaunaren sentencia da : Zure ar-

peguico icerdian zure ogui , edo arto pusca jan-  
go dezula.

Eguia da , zure oneraco bear balitz , Jain-  
coac biraldu , eta Aingueruac bearrrera pocic  
etorrico liraqueala. Baña cer ? Orduan San Isi-  
dro Elizara becela , zu tabernara zucen , edo  
oquer joango ciñaque. Alper nagui andia eguin ;  
eta galduco ciñaque. Ez , Jauna. Jaincoac or-  
rembat baño gueyago nai dizu : ta bearra zuc  
galanqui eguitea nai du : San Isidroren dicha  
becela , zurea ere onetan dago. Orain andreen-  
tzat ere beren lecio, dotriña , eta ceruco ejemploa.

### SANTA MARIA ANDRE ONEN ISPILLUA.

**S**an Isidro guizonentzat becela , onen emazte  
Santa Maria echecho-andretzat izan zan. Gure  
Jaungoicoac bere Elizaco campo zabalean , San-  
ta Maria ceruco lore ederra becela ipiñi zuen,  
edo tesoro andi campo orretan , ezcutatua be-  
cela gorde izan zuen. Santa onec , loreac be-  
cela bere vicieran ceruco usai gozoa eman zuen:  
eta tesoro gordeac becela virtute gucien ondasun  
andiac agueritu cituen. Jaungoicoac bere doai ,  
edo graciac , bacoitzari dagozquion era artan  
ematen dituela , dio San Pabloc ; *Divisiones*  
*gratiarum sunt. 4. Cor. 12.* eta Jesucristoc be-  
rac dio : *In domo patris mei mansiones multae*  
*sunt. Joan. 14.* Ceruco Corte , edo palacioan  
jarlecu asco dira : estadu ta vicimodu gucie-

tan santuac dira: eta andre ezconduac, eta Santa Maria becela, pobrechoac ere santac ez izateco aitzaquiaric ez dute.

Santa andi onen Jaungoicoarequico fede aiñ audi, eta vicia, esperanza aiñ firme, ta segurua, eta are gueyago aren viotzeco Jaungoicozco amorio santu irazaquia, nore ondo esan dezaque? Bere fede, ta confianzarequin aimbeste maravilla eguin cituen: ta bere amorio andiac bere viciera pobrean aimbeste obra ongucien ejemploraco, eraguin ciozcan.

Santa escutatu bnen humildadea cembait zan, Jaungoicoas berac daqui: viotz humill onen sustrai barrengoa aiñ seguru ondatua izan ez bali t, alaco cerurañoco virtuteac andiac irten, e lo aguertuco etziran, eta Jaincoac alaco favore, ta erregaloac eguingo etziozcan. Emendicaren obediencia guztizco ura bere senar San Isidrori, aguintzen cion gacia an Jaincoari becela beguiratu, eta obeditzeco. Bere burutzat guizon santua artu zuen, edo Jaincoac eman cion: ala beste vorondate, eta juicioric, bere senarrarena baicie Santac etzuen. Emendic di-chazco eche pobre artaco, eta ezcondu santu oyen arteco ceruco paque, edo lurreco gloria vici ura. Emendic obra onac eguiteco Santaren etzi guciad baño gozoago zan devocio ura.

San Isidroc aguindu, eta larumbat, edo zapatu gucietañ, Ama Virgiñaren honran, ta icenean, pobreentzat eguin oí zuten aparteco

tupia edo eltzea : ¿Cer bere viotzeco devocioz-coaz Santa Mariac eguingo zuen? Ori jaquiña da. Orregatic bein batean diote, pobrechoai beren lapicoa partitu ezquero, Jesucristo pobraren tragean bere Ama Virgiñaren zopac jatera becela etorri zala. Limosna escatu zuen : eta Santac gucia eman bazuen ere, tupia icus-tera joan, eta betea arquitu zuen, eta Jaun-goicoari, ta beste etorri ciran pobrechoai po-cie gueia hirriko eman e'en.

San Isidroe eta Santa Mariac misericordia beren viotzeten ceucaten, eta Escritura sagraduac, edo Tobias Santuac ciona : *Aberatsa bacerat, edo asco Jaincoac eman badizu, ugari emazu : eta guchi badezu, aldezuna gogotic emateaz precia zaite.* Jesucristoren Evangelioko sentencia ondo gordetzeo bacequiten, eta jui-cicco egunean Misericordiazco obretatic Jau-nac mundua, eta bacoitza juzgatuco duela. Be-ren pobrezan alzuten baño ere, limosna gue-yago ematen zuten · eta milagro andiac Jau-nac orretaraco eguiten eizuen.

Anai arrebat becela garbiro, eta aparteko vicitza eguiteko biac conciertoa eguin zuten : eta Santa Maria oracioan, eta obra onetan gucia Jaincoari, ta Ama Virgiñari eman citzayon. Madriden aldean Caraquiz eritzan erricho ba-tean gueratu zan, eta Ama Virginaren hermi-ta bat bere contura artu zuen : eta arrezquero Santa Maria de la Cabeza hermitari deritza :

ara joateco zan ibayac, legua bian zubiric etzuen : ta ara, ta onera igarotzeco Santac berre mantilla bota, ciñatu, eta aren gañean, bear zanean ibaya, alacorie ez balitz becela, pasatzen zuen.

Beiñ batean orrela Isidro bere emaztearequin ur gañean cijoacela, Ama Virgiña etorri, ta berac becela, poliqui beste alderabiac eraman cituen. Eta legorrean belaunico biac jari, eta Jaincoari, eta bere Ama maiteari esquerrac eman ciozcaten. Viotza ceruan zuela Santa Maria bere gandic campora, edo arrobaturic campo, eta hermitaco bidean oracioan ibilli oi zan. Alde ayetaco artzai, eta ume zayac Isidrori contu eman, eta andre gaizqui, edo pauso gaiztoetan cebillela salatu zuten. Bacequien Santuac bere emazte onaren berri. Baña nola bigarren aldian ere Santa acusatu zuten, salatzalleac desengañatzeko berequin eraman cituen. Santa Maria, oitu nola bere argui, eta olioarequin oracioap etorri, ta ciñatu, mantilla ibayean bota, eta aren gañear aisa pasatzen, eta pisatzen, an ceuden guciac arrituric icusi zuten : eta Santua chit conten-tu, eta santa bere paquean gueratu zan : eta santatzat, gueroago, ta gueyago iduqui zuten.

Santa, pobre dichaz bete au beti paquear vici, eta paquean ill, ta cerura zan. Baña ceruan, lurrean baño ere gueyago San Isidro bere guizonari dion amorio, errespeto, eta hon-

ra Santac cerutie jachirie ondo beiñ batean eracusi zuen. San Isidro Canonizatzeko cebiltzanean, orretaraco diru pusca bat emateco promesa Madridco andre aberats batec eguin zuen. Baña nola eguiten, edo cumplitzen etzuen, Santa Maria aguertu citzayen, eta andre orri Santac esan cionarequin bildurtu zan, eta bereala promesa cumplitu zuen. Guero Madrideren pintaturic cegoen Sta Maria icusi zuenean bereala, esan zuen andreac : Ausse da cerutic aguertu citzadan Santa.

Oyec, eta onelaco beste gauza on, ta Santuen ejemplac eri, edo iltzeco dauden aurrean contatu bear dira : onelacoac consolatzen, fedea piztutzen, eta ceruraco esperanza, ta gogoa ematen dute. Guizon, eta andre pobrechoac, eta zuen nequeaz garbiro vici ceratenac : anima zaitezte ejemplo, eta milagro oyequin : zuezaz Jaincoac daucan contu beticoa, edo bere Providencia amorosoa oyetan eracusten du : eta bere viotzeco amorioaz zuei nola beguiratzen dizuten, eta nola Aita maiteae becela gobernatzen zaituzten ondo claro icusten dezute.

Mundu o Erregue, eta aberats andi asco baño ere gueyago zuec consola zaitezte : bada orra orrelaco Erregue, ta lurreco aberats andi nai guciae alde batera utzi, eta gure Espaniako Gorte chit andico Patroi San Isidro Achurlari pobrecho bat eguindu : eta gure Erregue, ota

**Erreguiña andiac**, eta Mundu biren Jabe, edo Iurraren gañean diran Erregue, eta Jaunic andienac Isidro, eta bere emaztearen oñetan, edo aurrean belaunico pocie jartzen dira, Jaincoae Santuetan ezagutu, eta adoratzen, eta beren plegarietan onen bitartecotzat artzen dituzte. ¡O gure Jaungoicoaren poderio, ta jaquintasuna! Madridko Corteco Patroi necazarri, edo achurlari bat; eta Francian Pariseo Corteco Patrona edo Matrona Santa Genovesa Ardatzalle edo Gorulari bat eguin eituen! ¡Ocer Jaun nagusi edo Jabe ona, ondo servitzen badezute, pobrēac dezuten.

## **GURE NECAZARIEN ERIOTZAREN GAÑEAN**

*beste Consideracio bat,*

**J**aungoicoa alabatzeko gauza da, oyec nola iltzen diran icustea. Ascoc beintzat, San Isidoren guisa, dicha aundia dute: eta Jaunaren misericordia nolerebait arguago oyetan aguertzen da. Nola guri jaten, edo jatecoa ematearren, guizagajoac uda, eta negu, neque, eta icerdien azpian beti dabiltzan: eta beren vici nai, ta vici bearraren quezca, bildurra, eta arrastaca baicic ez duten: ala viciera garbi orren saria, orien eriotza datorrenean, quezca, eta bildur gabe, oriec aisago iltzea dala, icussten da. Gure Jaincoac, Aita ona becela, daqui oyec beste asco becela, munduko artu eman,

**cuestio** , edo peligroetan , beren vician nastu ez dirala : eta ala eriotzan bere Aingueruaquin amparatzen ditu , eta deabru char tentatzalleai oyen buruco aldera joaten usten ezdie. *Ara nola.*

Sacerdote Jaun batec mesedez beiñ escatu ciran , agure gaisso bat caridadez confesatu bear nuela , ta berac aren echera eraman ninduen. Guizon orrec , ez bereala iltzeco , baña erre-medio gabeko gaitza ceucan : eun da iru urte gañean cituen. Confesio general edo vici luce orretacoa eguin nai zuen. Bada , cer uste dezu ? Ordu erdi bat ozta eguin nuen , aren confesio andi ori bere gustora eguiten eta orren laster , eta aisa contuac ajustatu , ta Aingueru baten guisa , edo choricho bat becela chit ale-guere gueratu zan , eta uste zuen bertatic ce-ruan cegoela.

Aita : ¿Ori nola izango zan ? Nic esango di-zut. Eun da iru urte orietatic , urte bacar bat-tean Jaun nere adisquide bat gazte zale servitu zuen , eta gañeraco urte lucetan beste artu emanie izan etzuen. Beti achurlari , eta bear eguiñaz garbiro bere arto pusca irabaci pobrezan jan , ta beti contentu zan ; Eta aren ar-peguia icusi bacendu , arrituco ciñan : aiñ alai , eta colore vici ederraquin cegoen , nola oguei urtecoa cirudien , edo galai gazte bat becela.

Onela vici , ta ill etzan , Ama Santa Teresac bere vicitzaco liburuan contatzen duen Gaz-telaco Necazaria. Au ore bero demboran bear

eguiñaz pobrezan contentu vici zan : bañaaren alabearrez , guchien uste zuenean , campo , edo soroan lurpean gordericaco diru andi , edo tesoro bat arquitu zuen. Bere ori echera isitlie eraman , ta cer eguin etzequien : non baño non obeto gordeco otezuen , quezca eta bildenurra baicic etzuen : eta len pobre aleguere zana , guero aberats triste eguin zan. Gau eta egun sustoz beteric bere diruan beti pensatzen , alaco naigabe , eta penae eman cioten , non vio-tza illundu , eta ez jan , eta ez lan , beste gaitz bague ori ori eguin , erquitu , deseguin ta ill zan.

Emendic , zuc necazaria , edo onetan Jaincoaren Aitzco Providencia , edo gobernua icusi bear dezu : ta sinistu , edo ondo jaquin , ondasunac , edo pobreza zuri ematea Jaunarentzat gucia bat , edo berdin dala , eta berac zuzaz obeto beguiratzen duela. Aita da , eta Aita gucien onena : aren antzecoa izan zaite. Batzuei ondasunac ematen diezte , misericordia , eta limosna , Jaungoicoaren icenean eguin eta orrela beren pecatuac pagatu , eta cerua bide orretatic irabaci dezaten.

Besteai bearra , pobreza , edo ondasunen falta Aita onac becela ematen die , beren bearraz vici , eta salvatzeco. Batari becela besteari diru , edo ondasunac ematea , Jaincoarentzat berdin da , eta ecer costatzen etzayo. Baña ah ! Bere doayaec partitzean , berac obeto daqui cer eguiten duen : eta icusten du , zu ascorequin

condenatueo , eta guchirequín salvatuco cerala. San Agustiñec ederqui , beraç becela , diona : obe da guchiren bear zu izatea , ecen , ez zuc asco iduquitzea. Eta nic orain diot : gure dicha eztagoela guchi , edo asco iduquitzean; ezpada Jaunaren vorondatea gucian eguitean.

Au ondo eguiteco , seguruan jocatu , eta cerruan ondasun andiac irabazteco , bitartekoaz baliatu bear degu : esan nai det , Ama Virgiña , eta Santuaz. Eri bat , orrela luzaro dagoelean , consolatzeco , eta dembora provechuz , eta gozotoro- pasatzeco , cer gauza obeagoric , Errosario] santua baño? Onen iru partetatic bat ondo errezatzea , Ama Virgiña gueiz santiari loerezco coroa eder bat presentatzea da. Baña afaldu baño len , loac iñor tenta ez dezan , eta chit soseguz , eta mereci duen devocioaz , Errosarico indulgencia andiac irabazteco , errezatu bear da. Lenago ondo ciñatu , Contriciozco actua egun , eta guero Jaincoaren eta bere Ama Santisimarequín itzeguiten duenean becela , batec esan , ta besteac erantzun.

Jaincoagatic bada , eta Ama Virgiñaren vioitzeco gozo , pena , eta gloria , errosario santuan gorderic ditugunac gatic , erregutzen dizutet , nere cristau , eta Ama Virgiñaren umead , arren emendie aurrera ceruco devocioric ederren au , errosario Santua , soseguz , eta devocioz erreza dezazutela : eta ez mar mar mar , beste Iurreco gauzac becela , ez presaz ,

nastuaz, edo gucia trabucatu, eta naspilla bat eguiñaz.

Tolosaco Santa Marian Oficio divinoac, eta Elizaco gauzac, nola ceruko antzera, chit ederqui, eta Magestade bere diñacoaz eguiten beti icusi ditudan, ala, eta chit consuelo andiaz icusi nuen, Errosario santua Ama Virgiñari ofrecitzen. Sacerdoteac beti Pater nosterra, eta Ave Maria errebatzen du, eta beti gendiac erantzuten du, Santa Maria. Eta Aldareac, edo beste devocioac eguiten, ori bera erri gucietan oida. Echeetan beintzant, nerequico batec beti Aita gurea, eta Ave Maria esan ondo, eta besteac beti eranzutea, obeto deritzat, ala devocioraco, eta ez trabucatzeco, nola contua zucenago iduquitzeco.

San José guciz doatsua, San Miguel eta Aingeru guardacoa zure iceneco, egun artaco, eta beste Santuac bitartecotzat artu bear dituzu. Baña errezo lucez ez beñere cargatu, presaca, itotzen, eta gaizqui eguiteco. Obeda, diote Santuac, Ave Maria bat devocioz, eta ongi, eta ez asco gaizqui zuc errebatzea. Ara ejemplo ederra.

Ama Virgiñaren devociozco alaba maite Religiosa batec amabost Misterioen, edo errosario osoa egunero errebatzeco devocion zuen. Baña nola beste oficio, eta eguiteco asco echian cituen, ascotan lasterca errosarioa, eta ez berazan reverenciaz, errebatzen zuen. Beiñ batean

**orrela eegoela**, Ama Virgiña, ceruco Erreguiña ederra, consolatzena eterri, eta amore aundiaz esan cion: ez ene alaba: ez ori orrela eguin. Obeda, eta obedienciazko zure lan, edo eguitecoac ongi, Jaunaren vorondatza dalako eguin itzatzu: eta nerri contentu emaleko egunero soseguz, ta devocioz nere erosarioaren parte bat erreza ezazu, eta nerri gusto emanago didazu.

Gueiz miragarria da, gure Aita San Ignacioc bere ejercicioetan, laugarren astearen azqueean, Pater noster, eta Ave Mariaren gañean oracio eguiteco eracusten dituen ceruco modua; eta itz bacoitzaren gañean cer pausa, devocio, eta espiritu andiarequin eguiten zuen. Gauza ciertoa da, Eriac eta orien an dauden Lagunac oracio oyec viotzeo sosegu, eta devocioaz errezzatuaz, dembora obeto, ta errazago pasatu, ta animen provechu andiago aterako dutela.

Zure echean, eta zure oyean zaudela ere, Ave Maria, eta Salve bacoitza errezzatzeagatic Indulgencia, edo egun ascotako barcacioa noiz nai, ta beti irabacico dezu. Orobak JESUS edo MARIA esaten dan bacoitzean burua macurtu, edo devocioaz beratcean indulgencias irabazten dituzu: eta onelako Jaunaren acia andi aiñ erraz edoceñec irabaci ditza ueanac, arrazoyago da zuc, Eria, ez galtzea. *Ap. Viva de Indulg. fn.*

## AMA VIRGIÑAREN DEVOCIOA.

Gure necazari onen artean beren Parroquietaraco amorio , eta devocio andia jaqniña da, eta campotar guciac ori icusi , eta milagrotzat becela contat en dute , ta ez bacarric Meza nangusia , eta Vesperetara joatea , ezpada Virgiña Ama Santaren Errosario , eta Aldareac errezatzen. Fede , eta devocioaren señale andia da au: eta argatic munduko beste Erreino , eta Provincia ascotan baño, gure oyeten Parrequietako Eliza gauzac ederquiago , eta piedade, eta devocio andiagoaz eguiten dira.

Au esribitzen dedan eguna Ama Virgiñaren CONCEPCIO , edo SORTZE guciz garbiaren eguna da , eta gure Provincian berezquierozco egun señalatua. Ama Virgiñaren Misterio, Festa , eta devocio gucien asiera gozoa da : ala gure Provinciac bere amparo , Ama , eta Patrona chit maitearen eguna becela celebratzen du : eta zori oneko bazter onetan jayotzen diranac , amorio eta devociozeo gure Ama guciz Santaren marca onequin jayo , eta titi edo bular gozo onequin acitzen dira.

Orregatik Confesore celodunac aimbeste , eta aiñ ederqui beren oñetara datocenai Ama Virgiñaren Concepcioaren devocioa ta onen reverencian , beren anima , eta gorputzac garbiro gordetzeko Iru Ave Maria egunero errezatzea

**encargatzen di.** Ala maisú Avilac, ala gure misioneroac guciai eracusten, eta beti aguintzen die.

Baña Ama Virgiñari gusto chit andia, eman, eta bere Concepcio garbiaren honrarequin zure irabaci andi bat erraz izan nai badezu, goicean jaiqui, eta bereala Jaincoari esquerrac eman, eta zure anima, pensamentu, itz, eta obrac Ama Virgiñaren escuetatic ofrecitu, eta iru Ave Mariac errezzatu bear dituzu, Trinidate guciz Santuaren alabánzan, esanaz : *Aitaren, Semearen, eta Espiritu Santuaren ice-nean, iru Ave Maria oyee, gaur, eta beti peccatum gorde nazan: paquezco vicitza bat, ta erioiza on bat bere gracian eman dizadan.* Eguardian beste iru Ave Maria orrela, eta beste iru arratsian Ama Virgiñari erreza zayozcàtzu.

Ascoe, Maisu Avilac cion becela, Ama Virgiñari esaten, eta escatzen diote onela. *Nere Ama Virgiña, zure Concepcio garbia gatic, ta zure garbitasun ederra gatic tentacio guicietan ampara nazazu, eta gorputz, eta animan garbiro gorde nazazu.*

Mola Virgiña amaren festa gucien sustraya aren Concepcio garbia dan, ala beraren Dolorea, ta Angustiac aren Misterioen atzeneco pausoa becela dira. Badaqui berac ondo, ceiñ anciñaco amorio, eta devocioa gure gendeen viotzetan Ama Virgiñaren Doloretan au dan: bere Semearen vicitzan, eta eriotzan, gure

Pecatuac gatic igaro cituen zazpi Doloreetaco, eta gurutzearen oñean bere viotzeco Seme Jesus maitearen ondoan, aren agotian, eta bera iltzen, eta illie icusi, eta bere besoetan artu zueneko bere anima josi cion ezbata zorrolzaren, eta orduco penen memoria, eta devocio andia da.

Gure Aita San Ignacioc au ondo eracutsi cigung; Bada Ama Virgiñaren escuetatic bere vio-tza Jaincoari eman cion ezquero, viotz orren gañean Doloretaco Virgiña, edo Angustien Ima-giña beti Santuac berequin ecarri zuen: eta Aita Araoz bere Aideai despedidan ori eman, ta esan cion, favore asto, eta aundiak orrezaz eguin ciozcala. Argatic San Ignacioren viotze-co Ama Virgiña ori Zaragozaco gure Elizan devocio andiaz veneratzen da.

Azpeitico Erri noble dichazco onetan beste ascotan becela, Ama Virgiñaren devocio au, nore daqui noizcoa dan: bada Loyolaco eche santu onetako oratorio zar, edo anciñacoa ere Angustien, eta dolorezeo, eta Piedadezeo Ama-reна zan, etā oraiñ ere da: eta arrazoi an-diarequin guciai, ala osasunean nola gaitz gucietan, Confesore Jaunae chit ondo eguiten dute Ama Virgiñarea piuso, eta Misterio orien devocioa consejatzean, eta Ama muiteonen An-gustia, eta pena memoria gure pecatuuen vio-tzeco damu aundiaz, que egitea baño gauza gozoagoric aren viotz santuarentzat ez da: ta

aren Doloreetan: gure gaitzen eta penen consue-loa arquituco degu. Gorainci oyec Ama Virgiñaren icenean eriac consolatzeco eraman bear dira.

Orain atzeneco orduan quezca , eta lanic andiena emango duten gauzaren batzuen gañean, aviso bearrenac eman bear ditugu.

## ERIOTZAN NORC BILDUR IZAN BEAR DUEN.

**G**ure jendeen artean batzuee beren jabe dira : beren buru , edo personen contua baicic ez dutenac : eta azquen ordu artan oyec cer eguin, edo quezca guchiago oi dute : ala ondo illtze-co obeto daude.

Viciera bi , edo persona mota bi dira , ala vician, nola eriotzan cer eguin gueyago dute-nac. Aita : ¿Oriec cein dira ? Echeco buru, eta Errico Jaun izan diranac. Esan nai det, guraso eta nagusiac , Alcate , eta beste orrelacoac. Eta orietatic asitzen guerala , gure necazari prestu asco beren errietan Alcate , Erregidore , eta errico guraso , edo nagusi becela oi dira. Oyec obligatuac daude , eta ez bacarric erriaren artu eman , edo errentén gañean contu iduqui , eta ondo oriec artu , edo ematera ; ezpada, eta are gueyago Jaincoaren leguea errian ondo gorde erazotzera : lenengo berac ejemplo ona emanaz ; ta guero errian , edo erricoetan diran animen condenacioco, mur-

**m**uracio , edo escandalo , eta pecatuen bide , occasio , eta peligroac celo andiaz quenduaz .

Jaincoac bai , eta bestec ez daqui , errico festetan , plaza , edo baztarretan , tabernaco edanean , jocu luce , eta jolasetan , echeraco desoretan , gabezco libertade , eta deabruen iscambilletan , cer pecatu icaragarriac eguiten diran . Eta gaitz oyen sustraya , eta oriec ez ebaquitzea , edo ez erremediatzea , ta gucien culparic andiena , chit ascotan Justiciaco Jaunae dute . Baña oyec , Jaincoaren ordeco Ministro fielac becela , ejemplo ona eman bearrean ; jocuan , edaten , eta desoretaraño egotean , aurrenecoac , eta gaiztoenac berac badira , cer izango da ? Errico buruac orrela badabiltza , beste ondorengoa nola ibillico dira ? Guiza se me , eta mutill gazteac ori icusi , eta cer icasico dute ? Nola errespetoa iduquico zaye , berac beren buruai galtzen badiote ?

Gure Provincia guciz nobleac , orrelaco Jaincoaren ofensa andiac , ta Justiciaren lotsa , eta bildurra galduric icusi , eta gabezco , eta hermitetako festa eragabeac condenatu , eta quendu ditu , eta arrazoi andiarequin . Baña asco Alcatec , Jaincoaren , Obispo Jaunaren , eta Provinciaren legue justuai bear becela begiratu ez , eta bear dan valore , ta animoaz artu gabez , festa eragabeac eraguin , edo eraguiten larga ta cer calteac icusten dira ? Eta icusten ez diranac non dira ? Ah ! Orieç are

gueyago , eta andiago dira ! Gucien Juezac gucia daqui : eta Alcate , eta Ministroac contu emango diote.

Gauza ciertoa da , Jaincoac , Ama Virgiñac , eta Santuac Elizaco festac fedeaz eguitea nai dutela. Baña deabruac , eta aren bandoco , edo lagun diranac , festa oriezaz baliatu , eta Santuen aitzaquian ( Eta au cristau artean norc sinistu lezaque ? ) fede , eta lotsa gabe , Jaincoaren ofensa nazcagarriac , eta Santuen desonra ichusiac nai edo eracartzen dituzte. Eta orietan jocu-luce debecatu , Idi tratu falsiazco , tabernaco trampa , ordiqueria , torpeza , animen , eta errien calte jaquiñen contu Jaincoari norc emango dio ? Alcate edo errien guraso nagui , ta zori gaiztoacoac. O cer contu estua , cer juicio , ta Justicia gogorra oyei beguira dagoquien ! Jaincoaren justiciaco ministro izateco ezta asco bera artzea : bear da ori jaso ta zucen gucion erabiltzea.

## ORAIÑ GURASOEN OBLIGACIOEN GAÑEAN.

O yec gorputzeco alimentu bearra umeai emateco becela , eta are gueyago animetacoa emateco dute obligacio aundia. Lenengo oriec ondo aci , eta ecitzeco ejemplo ona , ta bigairena , dotriña ona eman bear die. Dotriñan , fedezco gauza , eta bear diran oracioac ondo eracustez gañera aditzen da , Jaincoaren leguea on-

do gordetzeko bear diran pauso onetan , bildur  
 santu , eta usario onetaco bidea eracustea , eta  
 pecatuen peligro, eta lagun, edo encontru gaiz-  
 toetatic aparterazotzea : aditzen da!, Sacramen-  
 tuen usuera , edo ascotan confesatzea : dotriña  
 icastera , Sermoyac entzutera bialtza , eta be-  
 rrai ondo dagozquien lagun Cristau onetara joa-  
 tea : goiz echera etortzea , gaizqui eguiteco ,  
 eta esateco mañae , birau , eta maldicio , jocu  
 luce , eta ibillera gaiztoen griñaric ez artzeco,  
 edo utzierazotzeco , eta beren vorondate era-  
 gabe , eta maña aldi gaiztoac ucatzeco : eta  
 onela chiquitatic gucia Jaincoaren bildurra ,  
 errespeto , eta amorioa orien viotzetan sartzea.  
 Onelaco gauza, ta dotriña guciz bearren gañean,  
 abereen guisa , asco guraso baldan , lasaye-  
 gui izan diranac : ah! ceñ estu , eta larri erio-  
 tzan arquituco diran ! Araco amatzar ero gaz-  
 tetan gaizqui eciac , ta arin , ta lasai oituac  
 bere alaba zoroari aisa lajatzen dio , festetan,  
 ta erromerietan ibiltzen : ta norequin ? Sobra  
 daquizute : lagun gaitzo , nesca , ta mutil gal-  
 duaquin. ¿ Eta guero ? Cer pecatuac ? Cer cal-  
 teac ? ¿ Cer negarrac ? ¿ Eta oraiñ , au escribi-  
 tzen dedan demboran , negu alderontz zuen  
 eche barrumbean bertan , necazarien zori one-  
 co , edo gaiztoeneco arta zuriquetan , gurasoen  
 culpaz , cer contuac , cer jolasac , cer triscac ,  
 cer libertade eragabeac ? Eta azquenic mutil  
 deabruac argua itzali , edo atzendu , eta ara-

guiaren lujuriaco infernuco suác , eta garras irazaquitzen dira. ; A guraso ez feder , eta ez legueco galdu bearrac ! ; Cer infernuco via- cia eriotzan !

Eta Confesore celosoac orrelaco Amari bere oneraco cerbait esaten badio : aleric malmetitu gabe , eta alacoric ez balitz becela , eranzuten dio : ; Ay bada Jauna ! ; Cer nai du ? Gazteac izan ero oriec : eta malicia gabeco zoroa nere alaba. Baña gu ere orrela izandu guiñan ta ezcondu guiñan. Ona deabruzco errespuesta. Ala gaizqui ama zar ichua. Ceren zu galdu ta pecatuz bete ta ezcondu ciñan : zure alaba tristeza ere orrela ezcontzea nai dezu ? Ah Ama Otso ta Artzac baño zure alabarentzat gogorragoa ! ; Ta deabruac eguindaco ezcontza ori nolacoa irtengo , eta izango da ? Deabruzco , eta infernucoa. Argatic , alaba gaizqui ezcondu , eta echera biurtu , esan oida. Alaco vicierac icusten dira.

Cimenduko lenengo arria dealbruac ipintzen duen echea , norena , eta nolacoa izango da ? Ya daqui edoceñec : deabruarena , eta deabruzco echea. Bada zuen , eta orrelacoen ezcontzak ori bera. Cer erremedio bada Aita ? Guraseac nai badute , au erraza da. Arto zuriqueta , gari edo arto jorra , eta beste orrelaco gazteen lanetan , zuen alaba , edo nescachac bacarric ez fiatu : zuequin , eta aurrera auzocoac aparte bialdu mugonez , edo eraman , eta mutillae

**gueroago aparte dijoacela:** orien jolas, pauso,edo bideetan, zuec errespetoaz beti egotea, **erremedio seguroa izango da.**

Fede guchico, eta buru gabeko Ama ascoc libertade gueyeguiaz, errespeto, eta bildur gabe, alabac nai dituzten maña gucietan acitzen dituzte: eta gaizqui eciac becela, beren zartzeraco arrimo on gutero izan bearrean, gurasoen tormentu gogor izan oi dira. Chiquitatic itz edo icen gaiztoac esaten berac eracusten die umeai, eta guero usadio ori quentzen erraz ezta.

Bulañ edo titia artzen daudenetic ardora oitutzen dituzte: ta Vizcayan ezpañac busti, ta emen ezpanchoac busti, eta mama gossoa da esanaz, ardoa ematen die, eta guero? Ay ama choroac! Orrelaco gabe ere, alafede ez bildur; zuen alabac edaten icasico dute, eta acitzean, guiza artean ere, oyec adiña, eta oyec becin lazqui, eta galanqui, alabacho eriec ucalondua goratzen icasi eta jaquingo dute. Ara nere Ama Santa Monicari cer igaro citzayon, ta San Agustin bere semeac Amaren aotic nola contatzen duen,

Orretaco jaquin bear dezu Monica guraso chit prestu, ta Cristau onen umea becela Jaincoaren bildurrean aci izan zala: chiquitatic bera ectorren Jaincotia, modesta, ta chit devociora emana. Elizara bere nayera zuen, ta icusteco a omen zan bere bazterrean ondo jarri,

eta cer fede , eta reverenciaz gueldi gueldi egon oi zan. Onela nai nuque nic gure gazteac , eta andre guciac , Elizan , batera , eta bestera ibilli gabe , ondo lecu batean jarri , beiñ ondo ciñatu , eta beguiac lurrean , edo ichiric devocioz egotea. Monicacho dembora artatic betico viotz beraa , eta limosnari andia zan , eta pobreai bere janaria ere eman oi cien.

Monicaren Aitac , aurra zuenetic Emacume contuzco , chit on estimatu bat ceucan cchean ; ta bera ondo aci zuenari becela , Monicaren aciera ona aguindu cion : Santaren Ama Cristoren cierva zan , dio S. Agustiñec : baña edadeco nescach on au chit asco alabatzen du. Onec Monicari aurqueria guciac quendu , eta gurariac ucatzen ciozcan : berearequin irteten utzitzen etzion , eta gauza chiquietan ere bere vorondatea ausitzen cion , eta Jaincoarena eguitera sayatzen zuen. Monicac jatorduaz campora egarriac itotzen cegoela esanagatic ere ura , ucatzen cion .

Ara esaten cion : gogoac ematean aurrac , oraiñ ura nai zute , ceren ardoric ez dezuten : baña ezcondu eta guero Echecoandre , ta ardoaren jabe ceratenean edatera oituco cerate , ceren gurariac indar andia duen. Monicachoc au aditzen zuen , ta orregatic ere ardoa edatera nola eguin zan Agustiñi berac esan cion. Nola , aur vici ecertaco edo ascotacoa , eta don-

cellacho beguiratua zan , gurasoac nescamea-requin , edo bacarric ardo esque biraltzen zu-ten , ta Monicac jostatzen becela , charroan ar-doa artu baño len , churrut bat artzen zuen , ez gueyago , ceren ardo zale etzan : lenengoan gustoric artzen etzion , eta bere vicitasun eta jaquin nayac , malicia gabe , eraguiten cion.

Baña mama gossoa zan , eta uste edo senti gabe , Monicacho oitu zan , ta guero ontzi , edo baso chiqui bat betea eratera eguin zan ; ta onela zaletu , ta ardoaren deseo era gabea sartu citzayola , dio Santae . ¡ Ah cembait gazteri au bera egunero vicio itsusi onetan , ta beste libertade , ta maña gaiztoe-tan , senti gabe erantsi edo guertatzen zayo ! Non zan orduan guiltzera zar Ijuiciozco Moni-ca ondo asitzen zuena ? Ay Jauna , dio emen San Agustiñec ! Ori , ta Aita , eta Ama begui-ra etzeuden , baña zu bai ! Eta zure ontasunac Monicari erremedioa eman cion .

Echeco mirabe , edo nescacha gazte batec Monicaren aurqueria onen berri bacequien ; baña nola asco nai cioten , aurra gurasoac asti , edo zati etzezaten bildurrez , issilic estaltzen zuen . Alaco batean guchien uste zanean , or-rra non Monica , eta nescach ori aserratu ciran , eta onec bere znan itz batetic bestera Monicari besteen aurrean esan cion : Quen ortic , ordi char ori , eta moscortzeco ardoa eraten dezu-na . Onela bere charqueriarequin arpeguian

eman , eta desonratu zuenean , aiñ lotsa , eta pena andia Monicac artu zuen , non bere vicio ardoa ala edatea utzi zuen.

Ah Jauna , azquenean dio San Agustiñec. Zuc obeto eguin cenduen : bada bataren gaitzetic bestearen ona ; eta nescacharen aserretic Monicaren paquea ateratzen duen ! eta au gucia beste gauza on ascorequin Ama Santa Monicac Agustiñi , eta nere Santuac bere confesioetan guri contatzen digu , gure culpac ondo confesatzen , eta erremediatzen gue icasteco.

Eta cembait Monica chiqui onelaco griña , eta miñaz beteac , basarri orietan , eta ez guchia go caleetan ote dira ? Andi echeetan peligro gueyago , eta are andiago oi da. Deabru char raren estalqui bat saltaco ez da , ume chiqui gaitz gabecoen orrelaco lanac estali , eta gaiz qui acico dituena. Eta guero ? Erac dacarre nean , mama gossora eguin , eta Monicaren guisa , ardora oitutzen dira , eta ori senti , edo uste gabe. Eta cembait bider gaitz eguin , eta beguichoetan igarri , ta besoetan artu , ta esaten die : Enechoa , au cer da : Atoz ona nere aurra galdua zaude , gaitzac eragin dizu : otsoac jan zaitu. Ta aurra issilic oyaren ga ñean bota , eta catua igaro , eta lar idiqui artean , an dagoela.

Ah guiltcerac ! Ah gurasoac non cerate ? Eta orrelaco alabachoa Monica becela lotsatu , eta erremediatzen ez bada chiquitan , guero

aci ta ezcondus, eta ardoaren jabé danean cer izango da? Orduan honraric, eta lotsaric gabe, ascoren deshonra, eta lotsarequin eriaz galant ichusi bat izango da.

Beguiria ondo gurasoac zuen alabachoen ta ceren animaz, norequin, ta nola aci, ta oitutzen diran. Bear ez diran gauza asco zuetatic icasten dituzte: beguiria cer esaten edo eguiten dezuten orien aurrean, ta nola: umeac gucia zuen guisa eguin nai dute, eta gaitza, ona baño, lasterrago, eta errazago erantzico zaye. Zuen aurrean baño, echecho ondoren goen artean are peligro gueyago dute: orien jolas, jocu, ibillera, ta esaera libertadescloyetan, Jaincoac bai, eta bestec ezdaqui, cer mañac, cer siñuac, cer contu, itz, eta platica desonestoac, icusi, entzun, ta icasten dituzten: lenengoan gaitz gabe, inocencian; baña guero beguiac gaitzeraco idiqui, eta maliciaz. Erremedio guztiz andia gurasoac, ta zuen alabac ez bacarric, edo lagun gaiztoakin fia tzea: oyec intencio gaiztoric ez iduqui arren, deabruac beti du intencio gaiztoa.

*Oraiñ Ezconduen paqueraco Dotriña.*

## EZCONDUEN JAINCOZCO VICIERA.

**G**ure necazariac, eta ez guchiago aberats, edo andi echeetaco Ezconduac, Jaincoa ondo servitzeco bearren duten asiera da fede vicico

Jaunaren bildur santua beren viotzetan ondo jositzea. Au da dicha gucien sustraya. Ceruco sustrai onetatic, Ezcontzeco Sacramentuac ematen duen bien arteco paque, eta amorio santua, berez becela, sortu, ta jayoco da. Jesucristoc bere atzeneco Sermoyan, Testamentuan becela utzi cigun ceruco ondasunic andiena, paque eder au da. Ezconduen echea paque onequin ceru vicia, eta paque gabe infernu vicia da.

Amorezco paque onec murru sendo baten guisa munduko neque guciad paciencia, eta meritoaz eramateko, bear dan indarra ematen du. Baña paque eder gozo onen contra infernu guztia armatu, eta jaiqui oi da: deabru charra ezconduen paquezco viciera ecin icusiric, eta iraz beteric, ori deseguin, nastu, eta inquietatzeko aleguiñaquin asitzen da. Eta Jaincoaren vorondatez bear becela, eta zucen ezcondu diranaquin Satanasec au eguiten badu: araco oquer eta bide gaizto edo pecatuetatic, ondo beguiratu gabe, edo gaizqui ezcontzen diranaquin cer eguingo ez dezu? Ta lurreco zuen honra, hacienda, eta atseguiñac paqueric ez bada certaco dira? Emen, ta an infernuraco. Ay Aita, dio beste andreac: gure echean ori sobra icusten da. ¿Cergatic bada? Aita, len paquean oi guiñan; baña gure guizona plaza guizon eguin zaigu, eta arrezquero paquea cer dan ez daquigu, edo gure echetic igas

eguin du , eta gaitozenac ayenatu du. Gure guizonac , dio besteac , jocuari , eta tabernari eman dio : duena eta ez duena ondātu , alper-queriari eder iritzi , eta echea galdu du : ez umeen conturic , eta ez ecer , eta desoran datorrenean guerra vicia.

Ene andre ona : ori sinisten dizut , eta er-ruqui zaitut. Ezcondu bear , eta orra norequin eguin ciñan. Zure guizonac jocuari , eta taber-nari emazteari baño gueyago nai diola : esan-go dezu. ¡ Baña infernuco viciera orren culpa norc du ? Guizonac duela diozu zuc : baña arc bacarric eztu : zuc ere izango dezu.

¡ Ay Aita ! Èta ceiñ eguaia andia dan ori , dio emen guizonac. Gure berri balequi berriz eta biarretan esango luque. Sobra ene seme , eta nai baño gueyago daquigu. Aita , gure andreac infernuco sugue char baten mingaiñ , edo mis-toa baño zorrotzago du : arri ertzac ere erdira litzaque ; maratilla ascatzean , arenac eguin du : ecin arequin vici diteque , eta echea infernu-bat eguiten du.

Eguaia da nere guizona , eta andre batzuec orrelacoac dira ; baña zuc ere orretan errua badezu. Cristau cintzoa bacera , susritu , eta isilic larga bear diozu. Badaquizu andre tristeac beste arma , eta ezpataric bere miaren punta zorrotza baicic eztuela. Zuc buruac be-cela , juicio , eta paciencia bear dezu : alacoan ez jaramon , eta igues eguin : badezu bear ba-

da , cergatic isillie egon : echeco paqueac ori escatzen du. Andreari Jaincoac agnintzen di- zunez zuc zor diozu paquezco ta pacientiazco amorioa : ta andreae zuri , bere buruari be- cela bildur santu , ta errespetozco amorioa zor dizu : onela ezconduen ceruco biciera zucen- tzen da.

Baña. gure guizona edan samar , edo gaizac eraguiña datorrenean , ambat golpeca asico da. ¡ Ah goapoa ! Orrelacoai esaten nien nic. [Chit balientea cera : zu becelacoac moroac iltzera. ¡ Ah lotsaric eta bururic ez dezun guizona ! Golpeca andrea zatitu : desonra , eta gaitz , edo calte andietaco tranceren batean emaztea one- raco castigatu bear danean ere , ori modu o- nean eguin bear da , eta ez abereen guisa. Bestela norc , zoro eguin , eta eraguiñ batec ezpada , bere corputza golpeca zatitzen du. Adan munduaren lenengo Aitac cion , eta Je- suchristoc bere Evangelioan dio , emaztea eta zu ezcontzaco Sacramentuaren graciaz bat cerate- la : orrela zuc andrea zatitzean , cere buru edo gorputza zatitzen , edo banatzen dezu. ; Eta cer eraqueri andiagoric , ori zuc eguitea baño ?

Paciencia nere andre ona ; paciencia : eta guizona ala datorrenean , Jaincoaz arma zai- te , ta lasterca nere ascotaco erremedio segu- rua arrezazu. Aita : ; Cer erremedio da ori ? Ara : zoaz ariñ sulla , edo erradara , eta laster charrotic aoa bete-ur garbi arrezazu : eta ceru-

**eo reliquia becela aoan bota gabe, iduqui za- zu, eta nere contu, paque ederrean, eta gol- peetati seguru egongo cerala.** Misioetan asco- tan eman dedan ceruco erremedioa da au; ta arrezquero Autore jaquintsu andi bitan dotriña, eta conseju au emanie arquitu det.

Au eguiten badezu, damuco etzatzu, eta paque gozoa izango dezū. Contu eta isilic zau- de, albazaude; bestela zureac eta gueyago ar- tu, eta zure sayetsac neurritzen, beste reli- quia edo gorosti maquilla arin ibillico da, ta odola, ta negarra dariozula egongo cera. Mingaña arin erabiliac frutu ori oi dacar. Baña arrazoyarequin baño, ejemploarequin do- triña au zure buruan obeto sartu da. Ara bada.

Ama Santa Monica gozoaren ejemplo chit eder, San Agustín nere Santuac contatzen due- na. Jaincoaren bide, eta virtute andian San- ta bere gurasoac aci zuten. Monicac doncella garbi berez izan nai zuquean; baña bere dem- bora onean, Jaincoaren bórondatea eta gura- soena eguiteagatic, ezcontzera sugetatu zan, eta Patricio ceritzan, eta munduraco Guizon noblea zan batequin gurasoac ezcondu zuten: uso bat Monica, eta otso bat zan Patricio. Jain- coaren bideac mingarriac dira. Guizon ori etzan Cristaba, ezpada Gentil fede, eta legue baguea: eta berez artz, edo leoi bat baño gogorragoa.

Orregatic ere Monicaren gracia, doai, ta virtuteac alacoac ciran, non da gurutze pisu

ori . ta neque guciac arintzen cituen. Gucien gañean sentitzen zuen pena zan , Patricio bere guizona Gentil , eta ez Cristau izatea : banña Monicaren oracio , eta negarrac beti ciran indar andiagoac : eta Jaincoari bere Fede , eta Legue santura senarra ecarri ciozala , ta casto , edo garbiago eguin cezala beti erregutzen cion . Icusi zan Santaren milagroa : onen negar , eta oracioac , onen virtute , eta ejemplloac ala- coac ciran , non gueroenean Patricio bateatu , Cristau on eguin , eta Jaincoarentzat irabaci zuen. Jaunaren gracia , bere emazteagatic eguin ciona ondo ezagutu , eta ondo pagatu cion ; bada aurrera santa chit estimatu , eta onen gustoa gucion eguin zuen.

O ! emazte on baten virtuteac cer milagro andiac eguiten dituen ! ; O Jaunaren paciencia humill , eta viotz garbi , biguñ , fedez , ta amo- rezcoac Santuetan eguiten , eta eraguiten di- tuyen maravillac ! ; Usoa eta mirua , edo ardia , eta otsoa len mai batean , eta plater batetic jaten icustea cer zan ? ; Eta mirua uso , eta otsoa ardi , edo bildots biurtzea , cer da mila- groric andiena baicic ? Bada Monica , eta Pa- triciogan ori icusi zan .

Milagro au Santac nola eguin zuen , bere San Agustiñec contatzen digu : Ezcondu zane- tic bere senarrari , Jaincoac emandaco burua- ri becela , errespeto guciaz beguiratzen cion : echecho gaucetan obeditu , età bere Jauna be-

cela servitzen zuen, eta ori erantzuqui, eta contra esatetic gabe. Guizona aserre, edo colera vician cegoenean, Monica isillie arria bcela, eta erausi gabe beti egoten zan: eta araco soseguan, eta beregan viurtzen zanean humildade, eta modestia andiaz Santac arrazoya, eta contu ematen cion. Guizonaren agravioac paciencian, itz bat atera gabe sufritzen cituen, eta ecetzie beñere ematen etzion: itzaquin baño ejemploaquin gueyago erantzuten cion: eta beti Jaincoagana biurtu, eta Patricioren salvacioa escatzen cion.

Beste echechoandre, edo Matrona bere adisquide Santac arrituric ceuzcan, ceren bere vician senarraren quejaric, edo onen contraco itz bat aditzen etzioten. Lagun oyec baciequiten ondo Patricioren berri, eta ceiñ latza, eta garratza zan; eta orregatic ere Monica gaizqui tratatu, edo guizonac escurie ezarri ciola, iñorc ere aditu etzuen; eta ala zan. Beste andre oriec negarrez Santa gana eterri oi ciran, beren neque, eta desdichae contatzera, eta beren arpequietaco golpeen señale, eta eridac eracustera. Guciac Patricio ceiñ gogorra zan baciequiten, baño nola Monicac aiñ ondo arequin jardun, ta acertatzen zuen, etziequiten. Santac orduan bere vicimodu, ta guizonequico, esan degun tratamiento ta itzeguiteco bere lecio, ta conseju onac ematen ciezten. Acorda citecela, ezcondu ciran puntutic

senarra beren burutzat artu zutela oni obedi-  
tzeo , ta bera serbitu ta amatzeco itzaquin ba-  
ño obra onaquin obeto ori eguiten zala : errier-  
tac , ta atelean utzi , ta isilic sufritu bear za-  
la. Andre ezcondua izatea ori zala. Guizon go-  
gor gozacaitz aserreraco bide ematen zuenac  
baño , aren contra modu gaitzoan viurtzen zan  
andreac erru , edo culpa guchiago etzuela.

Senarra bere Jabe , edo Jauntzat artu ezque-  
ro andreac argatic iñoi zere gaitzic esan bear  
etzuela , baicic Jaincoari erregutu , gucia ondo  
eramateco : ta orrequin paquean vicico dirala.  
Santac berac eguiten zuen , eta ematen cituen  
aviso santuac artzen cituztenac chit ondo , ta  
contentuz arquitzen ciran , baña ori eguiten ,  
etzutenac ondo pagatzen zuten.

Santa Monicac , erraña gazte zala amaguiar-  
rebaréquin , mirabe cizañeraegatic asco icusi  
zuen : Satanás charrac , echea inquietatu nai  
zuen. Baña Monicaren oracio , paciencia , eta  
ejemplo santuac gucia erremediatu zuen , eta  
amaguiarrebac deabruaren guezurrac , eta er-  
raña Santaren virtuteac ondo ezagutu , eta mi-  
rabe dollorae castigatu cituen , eta andic aur-  
rera Patricioc , eta amac Santac chit estima-  
tu zuten.

Oyec dira Santa Monicaren conseju , eta  
ejemploac : eta ezconduen ispilla au da. San-  
taren viciera ta obrac Jesueristoren ta San  
Pabloren dotriñac dira. Eliza santa bere espo-

**sa maitea Cristoc amatu zuen becela , bere emaztea Senarrac amatu bear du , dio San Pablo : ta Eliza santac Cristo bere Esposari dion legue , eta amorioa senarrari emazteac iduqui bear dio. Senar on bat Jaincoaren escutic bere lagun duen andreac , ceruco dicha andi bat du , ta arrastaca badere , errazqui , eta pocic servi dezaque. Emazte on bat ceruac emanic duen guizonac , Jaincoaren favore , eta erre-galo andi bat du , eta joya precioso bat becela estimatu , ta amatu beardu. Oriec bereñ umiac fedez , eta amore onez , Jaunaren leguean aci , ta eciaz salvatuco dira.**

**Ori eguiten ez dutenen vicia nolacoa oi da ? Andre batec guizon nagui , joculari , edale edo tabernarequin añancebatu bat baldin badu , cer martirio gogorragoric ? Jaunaren egunic andienetan gabaz mugonez bere aurchoac oye-ra zucendu , ta bere errezoac eguiten , eta pa-cienciaz senar galdu , eta eche ondagari aren beguira icustea , cer da ? Ay tristea ! Eta erreca zuloen batean ordirie , asco bezala , ito dedin bildurrez cembait andre , ta cembait bi-der arquitzen dira ? Eta viciric badator echean infernu vicia. Onelaco guizonac Jaincoari cer contu emango diote ? Nola salvatu uste dute. Confesore Jaunac beren celo guciarequin dem-boraz onelacoac irabaci , eta Jaincoarentzat erremediatu bear dituzte.**

**Bada cer , guizon prestu batec emazte bal-**

dan , alper , itzontzi , edo itz jario bat badu , ta orien ondoren beste maña charrac dituena ? ; Ay guizon dichagabea ! Galdua cera . Eche guztia irauli , eta zu saldu , galdu , eta ondatuco zaitu . Matrimonioan guizon , eta andreaç ( jaquiña da ) guciac dute beren gurutzea : orrequin Jesucristori jarraitzean dago orien zoriona . Baña orrelaco andreco doacabea duenac pisuago du bere gurutzea , ceren duen gurutze buru gabea . Orrec paciencia andia , eta Jaincoari erregutzea , beste erremedioric eztu : beraç onera dezaque : ala nai daquiola .

Anciñaco gurasoen artean Abraan , Isaac , eta Jacob beren emaste Sara , Rebeca , eta Raguel , estimatuaquin Escritura Sagraduac berariz alabatzen ditu : guciac Jaincoaren adisquide andiac , eta lurreco ondasunetan , on asco eguiteco , chit aberatsac ciran .

Abraan chit zarra , eta Sara laroquei eta amar urtecoa zala , milagrozco , Jaincoaren bendicio gucien Seme Isaac ceruac eman , eta Aita , eta Ama , Ainguerauc esan cien becela , zorionecoac eguin cituen

Isaac Santua , Rebeca Virgiña guciz modestarequin ezcondu zan , eta Esau , ta Jacob , seme bi batetan eguin cituen . Isaac , eta Rebecaren Erraña Raguel famatu , Jacob Santuaren , ondo costaricaco Emaztea izan zan : oni seme bi , José castoa , eta Benjamin gozoa Jaincoac eman ciozcan , eta bigarreba eguitetie Ama ill zan .

Oyen prendac, ta edertasuna Escritura Santuac asco aditzen ditu: edertasuna, azaleco gauza becela, autsa, eta utsa zan, eta oriena ere auts, eta uts biurtu zan. Edertasunac eztu balio: dio Espiritu Santuac: andre Jaincoaren bildurtasuna duena, alabatua izango da. Au zuten iru echecoandre oyec. Sara Abraan bere senarrari cion errespetoa gatic: Rebeca bere modestia andiagatic, eta Raguel senarraren amorioagatic: eta irurac beren virtuteac gatic historia Sagraduac andiscatzen ditu.

Job Santuac bere Emazte, eta familia andi, zazpi seme, eta iru alabarequin, cer Jaunaren bildur, cer concierto, eta era ederrarequin, aiñ garbiro vici izan zan? Cer munduko aldarte, edo gora berac? Bada chit aberats eta chit pobre icusi zan. Obra on andiac ascori eguin, eta guero bacar pobre desamparatua icusi zan. Orregatic ere beti santu: azquenik Jaincoac ondo probatu, eta bere bendicioz be-te, eta chit aberats, eta zarra, bere umeen umeac laugarren belauneraño, ondo icusiric, zori onecoa ill zan.

Tobias, Aita semeac, icen bateko Santu biac orobat. Job santua becela probatua Aita, eta paciencia miragarriaren, eta misericordiaz-co obra santuetan gau, eta egun jardun zuena. Guraso, eta ezcondu Santuen ispilla, ta ejemplo Jaincoac eguiña, San Rafael Ainguerua gandie zazpi cerueo favore, andi artu cituen, ta

berac contatzen ditu. Ana bere emaztearequin chit santuro vici zan. Raguel ceritzan aide bat zuen : au ere Ana bere emaztearequin aberats vici zana , oyen alaba bacar Sara santa-requin Tobias semea , San Rafael mandatari zala , ezcondu , eta Tobias , ta Ana bere gurasoen dotriña ceruco vietza ederra eguin zuten : oyec ill , eta bien honrac eguin eta Sara bere andrearequin , onen gurasoetara biurtu zan. Raguel ta Ana ill ezquero, berac becelaco gendedi , ta gucia santuen casta , Jaincoaren bidean , icusi ciran. Ta gauza arrigarria da : Tobias , onec bere illoben illobac , edo bostgarren bellaun edo generacionaño icusi cituen.

Oyen , ta beste onelaco Fedeac esate dizquigun , Ezcondu santuen artean ere beren falta , eracaitz , ta naigabeac baciran : baña pacien-ciaz elcar sufritu , eta paqueratzen ciran. Zuen paciencian Ezconduac , Cristoc dionez , paquean zuen animac iduquico dituzute. Elcar ondo eraman , eta sufritzen badezute , Jaincoaren leguea osoro cumplitu , edo gordeco dezute , San Pablorequin esaten dizuten.

### GORPUTZA NOLA AMATU BEAR DAN.

**J**aincoaren bildur , eta amore Santua duenae Jaincoagan, ta Jaincoagatic bere burua amatu bear du. Bildur santu orreguin San Pabloc eguiten zuena guc eguin bear degu. Corintoco

**g**endeai esaten die : Nere gorputza eci , ta zatitzen det , ta Jaincoa servitzera sugetatzen det. Jaunaren justiciae ori aguintzen du , eta gorputzac bere culpa , usadio , edo griña gaiztoaquin , aren contra errebelatzen danean ori escatzen du. Penitencia , edo sentiduen mortificacioa deritzan virtute au beti da chit bearra. Alere onetan utseguin nai ezpadezu , ez cere buruaz gobernatu , baicie Confesore jaquinsu celo oneco batez.

Beste gañeracoan eguiatzco Jaungoicoaren amoreac gure gorputzac estimatu , ta amatzeera , ta zoguiro edo disrecioaz ondo tratatzeera obligatzen gaitu. San Agustin baten edo S. Pabloren dotriña da au. I. Gorputza amatu bear degu ceren vici gueran artean obra onac eguiteco orren bearra degun. II. Ceren gorputzac gure personaren parte danez animaren lagun ceruco glorian betico izan bear duen.

III. Cristavac bere gorputza amatu bear du gure Salvadore , Jainco , eta Guizon eguiatzcoaren antz , edo imagiña vicia dalaco. Erronda , edo tronco batetic datozi Cristoren gorputza , eta gureac : gure aragui , eta odol eguin zan , ta ala beraren aidetasuna degu gure senide nagusia , eta gure burua Cristo da. Eta are gueyago gure gorputza errespeto andia-goaz heguitaratu , ta chit garbiro gorde bear degu , cere n Aldareco Sacramentu adoragarrian aidetasun ori bera berriro , eta ederquia-

go lotu, eta estutzen dan. Bateo santuan ori asitzen da : Beste Sacramentuetan berrirotzen, eta sendatzen da. Baña Comunio sagraduan bere gorputz, odol, anima, eta Jaincotasuna dan gucia, Jesus maiteac guri emanic ez nola nai bere aide, baicic berequin bat eguiten gaitu. ¡O amorezco aidetasun, eta adisquidetasun pare gabe laztanena!

Orain Jaincoari gurequico onembeste, eta onelaco favoreac eraguin diozcan amore au gucia icusi, ta gure viotzari cer aguindu, eta eraguin bear ez dio ! Nola edo certaraño gueyeguizco amore onec obligatzen, estutzen, eta empeñatzen ezgaitu ? Ah ! Jaincozco amore eder, puru, edo naigabe onec zure dicha du bere atseguin edo saria ! Onec escatzen dizuna da, bera zue ondo ezagutu, eta zure viotzeco esquer onaquin Jaunari gloria gucia ematea : eta aren nayera, edo cariño eraguiu au ondo pisatu, eta animan zure salvacionrako josi, eta beti iduquitzeco.

Jainco onelaco enamoraren erregaloz ecin gueyago ala ~~betericaco~~ cristava : mereci dezun diña cérori estimatzeko Apostoloarequin esaten dizut: beguira ondo noren eta nolaco buruaren miembroa ceran ? Jesucristorena cera : zure gorputza onen parte, edo pusca da : ala emendic aurrera errespeto gueyagorequin, eta garbiroago ori gorde ezazu. Jesucristo gure buruaren miembro dan zure gorputz ori nola

**pecatuaz deabruaren servitzari, edo esclave  
eguin alditeque? ; O cer tratu ichusi eragabea!**

Zure gorputza Espiritu santuaren eserlecu **edo ontzia da**, eta zure viotzean bere graciaz isuri ta bere amorez or vici da edo vici nai du. Nola bada Espiritu Santua zugandic campora bota , eta Demonioa zugan artcera atrevi alzaitezque? ; O infernuco trucada beltz Ceruac berac arritzen dituena !

Zure gorputza Trinidad gueiz santu, Aita, Seme , ta Espiritu Santuaren temblo Sagrario , eta echea da : bada Jaungoicoa Comunioan viotz orretan artzen dezu. Nola bada zure ja-bea bere echetic atera , **eta Satanas** , edo Lucifer zure etsairic andienari or ostatu ematera atrevi alzaitezque? O zure feder ill otz nazca-garriena ! Viciago eta beroago zan indietaco cristau berrien feder miragarria.

Aita Acostan contatzen du , oyec bateatu , ta lenengo comunioa artzeco dicha zutenean **amorio aiñ andiaz Jaincoa artzen zutela** , non da ~~sin~~ ceuden , eta cioten : bere Jaungoicoa Comunioan ~~beñ~~ artzen zuen gorputzac , ya gueyago pecaturic ecin **eguin cezaqueala**. Cristau zarra, eta ascotan comulgatzen cerana , non dezu zue onelaco fedea ? **Zure gorputza nola estimatu , eta gorde dezu?**

Azquenic zure gorputza izan alditequean **costu** , ta precioric andienean , edo bere odol **preciosoaz Cristoe beretzat erosi** , ta irabacia

da : gorputz orretan Jaincoa zue beti iduqui, ta glorificatzeko eguiña da; gorputz ta anima zu aren antzera santu izateco , eta Comunio santuaren virtutez , azquen juicioan Cristoren guisa piztu , edo anīma , eta gorputz rezucitatu , eta gloriaz janciric berarequin ceruan beti vici zaitean. Non bada federeta lotsa gabe abereen guisa , edo oriec baño loyago eta ichusiago gorputz ori eguitera zu atrevitzen cera ?

Au gucia Evangelioa ta S. Pabloboren dotriñā da : ta ceruco lecio onetatic zue icasi beardezu , zure gorputza Sacramentuetan Jaincoari consagratu , ta emana becela estimatu , eta beti garbi iduquitzea : zure pensamentu , itz ta obrac , ceran ta eguiten dezun gucia Jesucristoren antzera neurri santu , eta erregla justu oneitan eguitea : zure beguiac , mingaiñ , edo aoa , escuac , viotza , zure barrena ta campoa , janéan , edanean , jancian , itzeguitean , ibilli , edo egotean , nola nai , zure sentiduaz usatu , edo valiatu bear dezunean : federeta viciaz viotz ori gora jaso : eta barren , eta campotic Jesucristo guciaz janci zaite , eta aren guisa , aren intencioaz zure obra , eta lan guciac Jaincoarenac becela , beraren honrarako eguin bear dituzu.

Naiz jatea , naiz edatea dala , edo beste edo ceiñ bear , Jaincoaren gloriaco aren vorondatea eguitea gatic ta aren icenean gucia zucen-tzen , eta zure viotzeco intencioa goratzen ba-

dezu , S. Pabloc dion becela , gucian Jaincoari gusto eman , ta ceru andi , edo gloria asco irabazten dezu. Errespeto onegatic , jateco , edateco , jazteco , erazteco , ibiltzeco , egoteco , itzeguiteco modu justu ta era onean zure modestia gucian eracutsi bear dezu : ta ori , naiz iñoren aurrean , naiz bacarric zaudela , bada Apostoloac dionez , Jaincoa zure aldean dezu , eta beguira dagoquizu. Beguira cristava , Jaungoicoa gucian dagoala beguira. Etzaude bacarric beguira , Aingueru santua beguira dago.

Oraiñ beste miraria. Lurreco abere loi guciac baño loyago ta nazcagarriago zure gorputza izanic : eta gueyegui zuc erregalatzen dezun lurpeco ar ciquin quiratsen janari erregalatu izango dan , ta gucien oinpeco autsbiurtuko dan gorputz orretan Jaungoicoac eman , eta gorde dizu. Baña cer ? Munduan dan joyaric ederren ta preciatuena : zure anima bere antzera eguiña : ori aren gracian dagoela icusico baguenduque , orren edertasunaz gucioc arritu , edo atseguiñez zoratuco guiñaque. Ea bada , fede onezaz anima zaite. Lurrac jango dituen begui oriequin , orain modestia gordetzen badezu , Jesucristo , Ama Virgiña , ta Santuac seculaco glorian icusico dituzu : orrela beste sentiduac , escuac , mingaña , eta gorpuzt ori estimatu , eta garbiro gordetzen badezu , guztoz , erregaloz betea , eta gloriazco soñeco ederrez jancia ceruan Jaincoarequin beti egou ,

eta gozatuco eera. Jaunari ala nai daquiola : berac nai du, zuc eguiaz nai bear dezu.

### USADIO GAIZTOAC QUENTZECO BIDE , *edo Doctriña.*

Gaizqui eguiteco , edo esateco , juramentu , bira , edo orrelaco usadio , ta costumbre charrac uste gabe, eta chit erraz echeetan sartu o dira : gurasoac chit contuz ez badabiltza gazteai bata, edo besteagandie laster erantzico zayeste : eta senti gabe bein orientara eguin ezquero , ecin erremediatu dirala, beren escuan ez daucatela , esango dute. Baña escusa , eta eciñ orrec Jaincoarequico ez du balio. Dan oitura, edo usadioric charrena , eta zarrena izanarren ere, Jaunaren gracia , eta zure equinarequin escuaz becela quendu diteque. Aita: orren erraz? Bai, eta seguru , zuç urrengo erreglac ondo artu, eta gordeaz.

I. Da : guraso, nagusi , edo eheco andreac, ez itzetan , eta ez obretan orrelaco usadio gaiztoric , berac ez artza ; baicic beren eche coai ejemplo ona gucian ematea. Juramentu , maldicio , errierta, eta aserreric ez dan echean, ume ta mirabeac orrelaco izcuntzaric ecin icasico dute : eta orobat da beste eragabeco libertade , joco , jolas , izquera , ta ibillera desonesto , ordiqueria , eta onelacoetan. Guraso, ta echeburuaç , zueç Jaincoaren lecuan ispilla

bat edo Jaungoico ordeco viciac becela cerate echechoentzat: oyec zuetan daquiten, edo enzuten dutena, esan eta eguingo dute. Beguirea bada ondo Jaincoari cer contu eman bear diozuten.

II. Baldin alde gaizto, lagun charretatic alako usadio oquer, edo izcunde eragaberic zure ume, edo mirabeai erantzi bear bazaye, berreala escuac erremediora. Esan nai det, orrelaco oquerric eguiten, edo esaten duen bacoitsean, bertatic pena bat ezarri: gosari edo afaria quendu, belaunico contriciozco acto bat, eta gucien aurrean lurrari muñ eraguin. Orrelaco legue, edo pena bat ipiñi, eta gorde eraguiten badezu, orren bildur, eta Jaunaren graciarequin nere contu zure ume, edo mirabe ori seguru erremediatuko dala.

Beste edoceñec, edo cerorrec dezun oitura zar, edo zure condenacioco usadio ori sustrayetic ebaqai edo ateratzeco, ceruco Medicu, eta erremedioa bear dezu. Eta ori cein da? Confesore jaquinsu celo andico bat. Animaco gaitz bacoitzari cer erremedio, eta culpa bacoitzari cer pena dagoquion, orrec ondo daqui. Gaitz guciac era batera sendatzen ez dira. Ceruco botican, lurrecoetan baño, erremedio gueyago, eta obeagoac dira. Zure gaitzac cer bear, edo escatzen duen Ceruco Medicu, edo confesore celo dunac daqui.

Erremedioa onec emango dizu, eta ori zue gogoz artzen badezu seguru euratu, sendatu,

eta salvatuco cera. Au gucia ejemplo gracio-  
so batec obeto eracutsi , eta [zure bear dezun  
erremedioa] emango dizu.

Erregue guizon Capitan aberats bat Confesore cintzo , ta celoso patequin confesatzen bein batean jarri zan. Beste culpen artean esan cion nola gaizqui esaca , ta maldicio chit asco eguna cituen. Confesoreac jgalduen cion : eta cembait dembora da , oitura ori dezula ? Asco Aita , anciñaco costumbre zarra det. Ambait gaiztoago , esacion : azturac dacar erraztura. Ta ori quentzeco , cer penitencia edo erremedio eguna dituzu ? aguindu dizquidaten errezoac beti eguna ditut , Aita. Eta besteric ez ? Ez Aita.

Errezoac berez gauza onac dira ; baño animaco gaitzen batzuentzat ez dira asco : eta ascotan beste erremedio portitzagoac , eta gaitzari egoquiacoa bear dira. Zu , ene seme , demdora orretan gucian , eta igaroco Confesioetan , enmienda gabe , gaizqui ibilli cera , eta erremedioen faltaz , condenacioco peligro aundian zure anima iduqui dezu. Confesoreac onela chit paciencia andi , eta era onean Capitan ori arti , eta salvatzeko eguna bear zuena chit ederqui eracutsi cion.

Orduan soldaduac , Aita , esan cion : arrazoi andia dauca , eta Jaincoari , eta berorri esquer- rac , nere animaren peligroa orain icusten , eta ezagutzen det : salvatu nai det , ta orre-

taraco videa artu bear det. Bada eguiazco penitencia zuc eguitea, beste bide, eta erremendiak eztago. Aguin beza bada Aita, ta penitencia ori eman beguit. Baña araco ezurrac ausitzeko azote, cilicio, barau, edo gauza gogoric, ez arren neri aguindu, ceren soldadua banaiz ere, arma orietara eguiña ez nago.

Ez, esan cion Confesore zoguiac: animako gaitzac curatzeko, eta ezurric ausi gabeko erremedioak ceruko botican badira. Gorputzeco penitencia, disciplina, cilicio, ta barau, oye-ko gogortasun, limosna, eta viotzeco oracioa Jaunari eguitea, pecatuen barcacionako chit gauza onac dira. Baña zure barrengo libertade gueyegui, ta era gabeko lasaitasun ori autsi, eta ucatzea zuc bear dezu. Arma oyequin Soldadu guapoak becela, zuc peleatu, eta ventzu bear dezu. Onela gure guizona chit berrotu, eta penitenciaren zaletu zan.

Bada ona ni, Aita: Soldadu prestuaren itza, Erreguerena balitz becela ematen diot: nai duena eguin beza. Ea bada, anima salvatzeagatik, eguingo dezu nere esana? Bai, Aita: Aguintaria naiz; baña orain berori da nere aguiri: aguin beza, eta aguintzen didana eguitea, nic aguintzen diot. Onela prestatu zueneko Confesoreak icusi zuen, nola Jaun orrec, len oi ciran urre fiñezco botoi eder batzuek soñecoañ cecartzien, eta berequico esan zuen: Ago bada: maldicioak eguiteko gogoa nic quenduco

diat oraingoan. Nic beatza ondo lotu, pecatuen eatea urratu eta anima ori seculaco libratuco det.

Ara bada<sup>1</sup>: zu salvatzeco, begира ondo, ez maldicioric bota. Ez, Aita. Eta botatzen badezu contu: ezurric autsi gabe, zuc ondo pagatuco dezu. Bai, Aita. Ara: gueyago eguiten badezu, maldicio bacoitzagatic penitencian lenengo topatzen dezun pobrarei orraco botoi orietatic bat eman bear diozu. Au entzun, eta Capitan ori arrituric guelditu zan: Adio nere botoyac, esan, eta farrari eman cion. Aita cer aguintzen dit? Galdua naiz: adio nere botoi ederrac: ale bat ezta gueratuco: diranac laster joango dira.

Alaere guizon prestuaren itza eman diot, eta botoyac galdu ta badaere, cumplituco det. Onela Confesioa bucatu, Comulgatu, eta bere devocioac eguin, eta nere Capitan ori eijoan echera. Eta orra non, uste gabe<sup>1</sup>, calean pobrecho trinquin, edo erren bat topatu zuen. Pauso estua zan, ta erri andietan oi dana, calea chit ciquiña: ta nola pobre ori urguna ca pāusotic laster quentzen etzan, Capitanac bere ausardia, ta colera vician besotic artu ta: quen adi ortic milla añenecorequin, maldicioa eguin cion. Aotic irten orduco contura zan. Ay nere dicha gabea! Nic cer eguin det? Adio nere botoi galanta! Bai, nic esan nuen eta onenac eguindu. Jauna lenena zure icenean: ta esan ta eguin: botoya bertan atera, ta pe-

breari tori Jaincoaren icenean eman cion. Bere h<sup>a</sup>ean bacijoan , eta berequico onela bagoaz , cion , nere botoi guciac laster dijoaz emendic. Bere ayei beguiratu , eta damu zuen aiñ erraz galduaz : eta besteac galdu bearrac viotzean chit miñ ematen cion. Baña cer uste dezu cristava ? Cembait galdu cituela ? Orra bada : ori izandu zan botoya , eta erremedio aiñ ceruhoa , non da botoiric gueyago seculan galdu etzuen , ceren contuz ibilli , eta maldicoric bere vician bota etzuen. Beingoaz betico gogoa erraz quendu citzayon , ta obeto joan citzayon.

Eta orra cristava , ejemplo onetan icusi , ta animaco gaitz guztiac aisa , nai badezu , erremediatzeco lecio segurua icusi dezu. Jocalaria , eralea , juramentu , eta maldicio guillea , eta onelaco , edo beste costumbrea zar anciñacoac ,edocein modutan , dituzuna , zure aitzaquia , edo escusac Jaincoaren aurrean ezdizute balio , ta ezta cer neri ezan , ecin dezula , zure escuan ez daucazula. Vorondate ona , eta eguiazco gogoa badezu : Jaunaren graciaz batean , orrequin eguin , eta equin , eta guztia eguiña dago.

Baldin Confesore jaquinsu zoguiaren esana gogotic artu , eta eguiten badezu , guztian erremediatuco cera. Culpa bacoitza gatic ondo dagoquizun pena emango dizu. Batari urrengo Jayegunean ez jocura , edo tabernara joatea : besteari ez onelaco lecu , edo echetan sar-

tzea , edo urliarequin bacarric ez egotea : eta orren penan gosaria , edo chocolatea , edo tabaco belarra , edo autsa , egun batean largatzea : ez ardo , eta ez ur , egarri izanagatic , arratsalde batean edan gabe egotea , ordu erdi batean belaunico , zutic , edo eserita descansu galantean , baña iñora moguitu gabe , Errosario bat , eta beste berroguei eta amar Acto contriciozco devocioz , ta viotzetic Ama Virgiñaren icenean , Jaincoari ofrecitza , eta orrelacoac.

Barauric necazari gajoai ondo ez dagoquie , barauric asco dute beren nequea , eta ez ondo jatea : oyei errezo luceric ez dagoquie : host Aldareac , ta beren Errosario Contriciozco actoac , eta berriz ascotan confesatza : onela beste bide , eta erremedio asco dira . Jaincoaren ordeco Maisu , eta Medicu , Confesore onac zuri eracusteco , eta bear danean emateco , ondo daquizqui . Zuc bearren dezuna da , ez zure vorondatea ; ezpada arena gucian eguitea : zurea ucatu , eta Confesoreari jarraitu : zure vorondateac galdu zaitu : Jaincoarenac beretzan irabaci , eta salvatuco zaitu , Amen .





# AITA SAN IGNACIORI

## BEDERATZI URRUNA.

*Beste devocioetan becela onetan ere egun oyelan  
avisoleta erregla jaquiñac dira. Santuaren Aldare  
aurrean jarri , edo fede vici batez Santua zu  
entzuteco consideratu zure aurrean , ta  
ciñatu , ta Nere Jesu-Cristo Jauna &.  
esan , ta guero:*

## EGUNERO CO ORACIOA.

**A**ita San Ignacio gloriosoa , Jesusen Compañíaren Fundadorea , ta nere Aita maitea : bal-din Jaincoaren gloriaraco , zure honraraco , ta nere provechuraco bada nic alcantzatzea Be-deratzi urren onetaco escatzen dedan gracia , alcanza zadazu Jauna gandic , ta ezperen ne-re escari au zucenezazu , ta nere pensamentu , itz , ta obra guciac zure viotzeco deseo guztira , ceña beti zan Jaungoicoaren gloriaric andiena.

## LENENGO EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , zure Fedeco Misterio sagraduac errebelatu cinduena, ta obra on gucien , ta salvacioaren Ceruco sustraya becela gure viotzetan jositzea nai dezuna. Nic ofrexitcen dizut , Aita San Ignacioren birtute gucien artean , aren Fede argui , ta vicia , ceñaz , Liburu Santu guciac galduco baciran ere , diran zure Misterio guciac Santuac sinistuko cituen , ta mundu guztiari zure Fede , ta leguera eracutsi naicion. Arren indazu , Jauna , zure Legueco gauzac ondo jaquin , ta sinisteko , ta obeto gordetzeko bear dedan gracia , eta Bederatziurren onetan escatzen dizudana , zure gloriaraco , Santuaren honraraco , ta nere one-raco baldin bada. Amen.

*Emen , Trinidade guciz Santari Aita San Ignacio eion amorioaren reverencian , iru Pater noster , iru Ave Maria , ta Gloria , errczatzen dira : eta guero*

## EGUNERO CO ORACIOA.

**A**ita San Ignacio , Santu Andia , Jesus Ceruco Erregueac bere Compañaren Capitan eguna cinduena , ta cargu onec escatzen dituen Aingeru gucien virtuteaz bere gloriaraco , bear zan bezala janci , ta apaindu cinduena. Chit

atseguin det, nere Santu maitea, zure anima-  
co virtute, esan al baño andiagoen edertasun,  
ta gloriaz, ta deseatzen det, mundu guciac  
zu ondo ezagutu, ta amatzea. Ta orregatic,  
arren alcanza zadazu Jaunagandie, zure vir-  
tuteai jarraitzeco, ta zuebecela, Jaincoaren  
legua, nere estaduan ondo gordetzeko gracia:  
zu bitarteko zaitudala, Ama Virgiñaren am-  
paroan, ta Jesus gueziz gozoaren viozean, be-  
rae nai duenean eriotza on bat legratzeko: ta  
Bederatziurren onetan escatzen dizudan favo-  
rea, Jaincoaren gloriariic andieneraco baldin  
bada. Amen.

EMEN FEDE, TA CONFIANZA ALDEZUN  
*andienaz San'kari, nai dezuna, lescaza-*  
*-yo zu: ta guero esan:*

### EGUNERO CO SANTUAREN ORACIOA.

**N**are Jaungoico gueziz misericordioso, eta ema-  
llea. Bada ni naizan, ta dedan guztia zugan-  
dic det: esquer onecoa nolere bait izan naidet:  
eta Aita San Ignacioc bere viozean, ta aoan  
beti eeucan ofrenda onequin, zue eman dida-  
zun gucia biurtu, ta zuri consagratu nai dizut:  
*Yrrezazu bada Jauna, nere libertadea, nere me-*  
*muoria, entendimentu, ta vorondatea. Nic de-*  
*dan, ta naizan guztia, zure Magestadea gan-*  
*die artu det: guztia nere Jauna, zure voron-*

*dateari biurtzen ta consagratzen diot , onec gauza gucietan zucendu , ta goberna nazan. Zure betico amorioa , zure graciarequin indazu , Jau- na : eta onequin bacarric aberat , ta contentu nago ta besteren bearrie ez det.*

Oracio laburcho au Aita San Ignacioc eguin oizuen , ta besteai eraguiten cien ; eta Consagraci oso actu andi bat da , Jaincoari dan gucia batec emateeo , ta chit provechu andicoa .

Aña. *Similaho eum viro sapienti , qui ædi- fscavit domun suam supra petram.*

¶. *Amavit eum Dominus , & ornavit eum.*

R. *Stolam gloriæ induit eum.*

**D**eus , qui ad maiorem tui Nominis gloriam propagandam novo per Beatum Ignatium Subsidio militatem Ecclesiam roborasti : concede , ut eius auxilio , & imitatione certantes in terris , coronari eum ipso mereamur in Cælis .

Bigarren egunean , ta besteetan orobat gucia eguiten da . ezpada bigarren Oracioa , eta da urrengoeztatik bat .

## BIGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , zure esperanzas zure adisquideai munduko ondasun guciae , ta eceren falta gabe , bearzuten gucia . promestu , ta aguindu ciñieztena . Nie ofrecitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean , aren

Esperanza gucizco firme , zugan ceucana , ceña , munduko persecucionie andienetan aren viotzeco aingura segurua beti izan zan. Arren indazu , Jauna , nere salvacioaren Esperanza andi bat , zure gracian ondo eguiñicaco nere obra onetan seguratua , ta nere estaudan , zu obeto servitzeco , bear ditudan ondasunac ; eta Bederatziurren onetan escatzen dizudan gracia , zure gloriaraco , Santuaren honraraco , ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### IRUGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz qna , zure Amorio santua gucioi aimbeste aguindu ciñiguna , zure mandamenturic andien , ta bearrena bezala , Zu gure viotz , ta anima , ta indar guztiaz amatze-  
co. Nic ofrecitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean , aren zurequico amorio chitez irazaquia , Serafin baten guisan Santua erretzen zuena , ta Cerura joatea baño ere , Zu obeto servitza nayerazo ciona. Arren indazu , Jauna , zure amorio santu orren chingar bat , Zu nere viotz guztitic , ta gauza gucien gañean oraiñ , ta beti amatze-  
co , eta Bederatziurren one'an escatzen dizudana , zure gloria-  
raco , Santuaren honraco , ta nere oneraco bal-  
din bada. Amen.

## LAUGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , gure lagun urcoen caridade , ta amorioa zure Escolaco dicipulo , ta adisquideen señale ciertoa becela , eman , ta aguindu diguzuna , ta zureac nor diran , onetan ezagungo dala , diozuna. Nic ofrecitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean , aren Caridade guztiz bero , ta andia , mundocon guciak zure amoriozco garretan erretzen icusi nai cituena , animac salvatzeco aimbeste eguin , ta sufritzen zuela. Arren indazu Jauna , Santuaren antzeco caridade eguiazcoa , nere itz , eta egemploaz , animen salvacionaco aleguin gucia zure amorioz eguiteco : eta Bederatziuren onetan escatzen dizudan favorea , zure gloria , Santuaren honra , ta nere oneraco baldin bada . Amen.

## BOSTGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , zure paciencian , dotriña , ta ejemplonetan , vicitza onetaco trabajuetan , zure Gurutze Santaren , ta gure Cerurako bide erreala becela eracutsi ciñiguna. Nic ofrecitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean , aren Paciencia miragarria , zure amorioz aimbeste carcela , catea , ta persecucio aiñ pocic eramateco , non ta cion

**m**undu guciac cituen cateac baño gueyago zugatic eraman nai cituela. Arren indazu, Jauna, zure espiritu, ta indarra, nere vicitzaco zuc nai dituzun neque, ta pena, pobreza, ta gurutzeac ondo eramateco, oriequin zure ondoren, ceruco escala bat eguin dezadan; eta Bederatziurren onetan escatzen dizudan mese-dea, zure gloriaraco, Santuaren honraraco, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### SEIGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona, zure amorioz, Oracioaren Ceruco Ejercicioa zure vicitzan eracutsi ciñiguna, lurrean gue ceruco vicia eguiteco, eta andic bear degun gueia erregutuaz eracartzeco. Nic ofrecitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean, aren Ceruco, ta betico Oracioaren Ejercicio, zugandie aiñ ederqui icasi, ta mundu guciari eracutsi ciona Arren indazu, Jauna, gauzaric onen, ta bearren au, ceña dan, Zu viotzeco erreguaz billatzea, ta arquitzea, ta Zuri beti, bear dedana Oracioan ondo escatzea, ta Bederatziurren onetan deseatzen dedana, zure gloriaraco, Santuaren honraraco, ta nere oneraco baldin bida. Amen.

## ZAZPIGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , zure vicico pauso , ta eriotzaco pena , ta tormentuetan , nere peca-  
tuen penitencia eguiten , ta nere bicioac mor-  
tificazten eracutsi ciñidana. Nic ofrecitzen di-  
zut Aita San Ignacioren virtute gucien artean,  
aren arrigarrizco penitencia , ta pasio guciai  
guerra vicia eguiteco espiritu , ta valentia.  
Arren indazu Jauna , nere culpa andiai dago-  
quien eguiazco penitencia eguiteco espiritu ,  
ta zure graciaz nere vicioac mortificatu , ta erre-  
mediatzeco bear dedan indarra , eta Bederatzi  
urren onetan escatzen dizudana , zure gloria-  
raco , Santuaren honraraco , ta nere oneraco  
baldin bada. Amen.

## ZORTZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

**N**ere Jesus guciz ona , munduan jayo ciñane-  
tic Gurutzean ill arteraño Obediencia mundu  
guciari eracutsi ciñiona. Nic ofrecitzen dizut  
Aita San Ignacioran virtute gucien artean  
aren Obediencia aiñ guztizcoa , non ta bere  
burua , ta bere Compañía gucia zure Erroma-  
co Vicarioan Consagratu cizun , Obediencia  
gucian , ta beti zure vorondatea obeto eguite-  
co. Arren indazu Jauna , nic ori bera , San-  
tuac becela eguiteco , bear dedan espiritu ,

**ta nere burua ucatu , ta zure vorondate gozoa eguiteco gracia , baita ere bederatziurren onetan escatzen dedana , zure gloriaraco , Santuaren honraraco , ta nere oneraco baldin bada. Amen.**

### **BEDERATZIGARREN EGUNECO ORACIOA.**

**N**ere Jesus guciz ona , zure Ama guciz Santa, San Juan Dicipulo maiteari encomendatu , ta zure , ta gure amaric onena , honratzen , servitzen , ta amatzen eracutsi ciñiguna. Nic ofrexitzen dizut Aita San Ignacioren virtute gucien artean aren viotz guztico Ama Virgiña zure Amarequico devocio , ta amorio paregabea , ceñarequin Egerecicioac esribitzeco Ceruco Maestra au mereci izan zuen. Arren indazu , Jauna , zure Amaren eguiazco devocio , ta amorio , Ceruco escogituen señale dana , nic Zu , ta bera oraiñ , ta beti viotz guztitic amatzeko , ta Bederatziurren onetan escatzen di-zudana , zure gloriaraco , Santuaren honraraco ta nere oneraco baldin bada. Amen.

**FIN.**

# LIBURU ONDEN

## ARQUIVIDEA EDO INDICEA.


Pagin.

SACERDOTE Jaun , eta Irucurleari.....	3
Iracurleari Jesucristoren gracia.....	8
Jaungoicoac guizona certaraco eguin zuen : edo zure fiñ aizquenecoaren gañean , Consi- deracio , eta afectoac.....	13
Pecatuaren gañean Consideracioac.....	27
Pecatua berez cer dan.....	27
Jesus Crucificatuarri Afectoac.....	36
Pecatua beren calteetan : edo Aingueruen pe- catua eta castigua.....	47
Adan gure Aitaren pecatua , eta castigua....	54
Bacoitzaren pecatuen gañean Consideracioac.	60
Ama Virgiñari , Jesucristori , eta Aita Eter- noari Coloquioac.....	69
Ama Virgiñari Oracioa.....	70
Jesucristo gure Jaunari Oracioa.....	72
Aita Eternoari Coloquio , edo Oracioa.....	73
Eriotzaren gañean Consideracioac .....	75
Ama Virgiñari Coloquioa.....	89
Demboraren gañean Consideracioa.....	90
Gorputz illaren gañean Gonsideracioac....	92
Bacoitzaren Juicioaren gañean Consideracioac.	95

<b>Infernoco tormentuen gañean, Consideracioac</b>	108
<b>Azquen Juicioaren gañean Consideracioac...</b>	127
<b>Salvacioaren gañean Ejemploac eta Dotriña..</b>	142
<b>Pecatuen gañeco Ejemploac.....</b>	149
<b>Eriotzaren gañeco Ejemploac.....</b>	158
<b>Eriotza onaren Ejemploac.....</b>	162
<b>Onen arreba baten Ejemploa.....</b>	164
<b>Eriotza gaitzoaren Ejemploac.....</b>	168
<b>Andre baten eriotza desgraciatura.....</b>	171
<b>Eriotza gaitzoaren beste Ejemploac.....</b>	173
<b>Gorputz illaren beste Ejemploac.....</b>	176
<b>Juicioaren gañeco Ejemploac.....</b>	179
<b>Infernuko penen gañeco Ejemploac.....</b>	186
<b>Eriotza gaitzo , eta onaren Ejemploac.....</b>	193
<b>Dembora ondo pasatzeko , beste Consideracio Santubac .....</b>	202
<b>San Isidro eta , Santa Mariaren vicitza ona , eta Ejemploe.....</b>	204
<b>Santa Maria , Andre onaren ispilla.....</b>	211
<b>Gure Necazarien eriotzaren gañean beste Con- sideracio bat.....</b>	216
<b>Ama Virgiñaren devocioa.....</b>	222
<b>Eriotzan norc bildur izan bear duen.....</b>	225
<b>Gurasoen obligacioen gañean.....</b>	227
<b>Ezconduen Jaincozko viciera.....</b>	234
<b>Gorputza nola amatu bear dan.....</b>	248
<b>Usadio gaitzoac quentzeco vide eta dotriña..</b>	25
<b>Aita San Ignacioren Novena.....</b>	258







I - AS

7. 88

F

Sirve para Concepcion de  
Cardenal, en 2.<sup>a</sup> 9 de Junio del  
Año 1853.

Fran<sup>c</sup>o Tabier de Yraizozza,  
en 2.<sup>a</sup> 9 de Junio de 1853.

abccdefghijklmnñop  
qrsuwæ.

(  
Orion

Wheat

Wheat

Wheat

1029

31  
Sirve para Comision  
de Lardizal  
Laldurie

Liria  
Liria

Lavalonan  
de Gárdiga

Grande

Grande

Grande

*gav*

*Gramática*

*Castellana*

*Gobierno de la  
Provincia de  
Infanzón*

